

MARIAREN HAURREN

ESCU-LIBURUA

- 65560
- 69481

Ajv
28250

MARIAREN HAUURREN

ESCU-LIBURUA

L. DIHARASSARRY

Orzaizeco errotorac


EGINA

Behar den baimenarekin

BAIONAN

LASSERRE BAFTAN IMPRIMATUA

—
1895



BAIMENA

Guc, FRANÇOIS-ANTOINE JAUFFRET
Baionaco Aphezpicuac, iracurrarazi on-
doan *Mariaren Haurren Escu-Liburua*,
Mурde Diharassarry Orzaizeco erretorac
egina, eta obra haren gainean emandau-
cuten lekhucotasun onari behatuz, go-
gotic onhesten dugu izan dadin impri-
matua.

Emana Baionan gure sinaduraren,
gure armen zigiloaren eta gure secreta-
rioarrn sinaduraren azpian.

Hazilaren hamaseian 1895^{an}.



† FRANÇOIS,
*Bayonaco Aphez-
picua.*

Jaun Aphezpi-
cuaren manuz :

LASSERRE,
*Calonye eta Se-
cretarioa.*

100
101 30.00
102
103
104
105
106
107
108
109
110
111
112
113
114
115
116
117
118
119
120
121
122
123
124
125
126
127
128
129
130
131
132
133
134
135
136
137
138
139
140
141
142
143
144
145
146
147
148
149
150
151
152
153
154
155
156
157
158
159
160
161
162
163
164
165
166
167
168
169
170
171
172
173
174
175
176
177
178
179
180
181
182
183
184
185
186
187
188
189
190
191
192
193
194
195
196
197
198
199
200
201
202
203
204
205
206
207
208
209
210
211
212
213
214
215
216
217
218
219
220
221
222
223
224
225
226
227
228
229
230
231
232
233
234
235
236
237
238
239
240
241
242
243
244
245
246
247
248
249
250
251
252
253
254
255
256
257
258
259
260
261
262
263
264
265
266
267
268
269
270
271
272
273
274
275
276
277
278
279
280
281
282
283
284
285
286
287
288
289
290
291
292
293
294
295
296
297
298
299
300
301
302
303
304
305
306
307
308
309
310
311
312
313
314
315
316
317
318
319
320
321
322
323
324
325
326
327
328
329
330
331
332
333
334
335
336
337
338
339
340
341
342
343
344
345
346
347
348
349
350
351
352
353
354
355
356
357
358
359
360
361
362
363
364
365
366
367
368
369
370
371
372
373
374
375
376
377
378
379
380
381
382
383
384
385
386
387
388
389
390
391
392
393
394
395
396
397
398
399
400
401
402
403
404
405
406
407
408
409
410
411
412
413
414
415
416
417
418
419
420
421
422
423
424
425
426
427
428
429
430
431
432
433
434
435
436
437
438
439
440
441
442
443
444
445
446
447
448
449
450
451
452
453
454
455
456
457
458
459
460
461
462
463
464
465
466
467
468
469
470
471
472
473
474
475
476
477
478
479
480
481
482
483
484
485
486
487
488
489
490
491
492
493
494
495
496
497
498
499
500
501
502
503
504
505
506
507
508
509
510
511
512
513
514
515
516
517
518
519
520
521
522
523
524
525
526
527
528
529
530
531
532
533
534
535
536
537
538
539
540
541
542
543
544
545
546
547
548
549
550
551
552
553
554
555
556
557
558
559
560
561
562
563
564
565
566
567
568
569
570
571
572
573
574
575
576
577
578
579
580
581
582
583
584
585
586
587
588
589
590
591
592
593
594
595
596
597
598
599
600
601
602
603
604
605
606
607
608
609
610
611
612
613
614
615
616
617
618
619
620
621
622
623
624
625
626
627
628
629
630
631
632
633
634
635
636
637
638
639
640
641
642
643
644
645
646
647
648
649
650
651
652
653
654
655
656
657
658
659
660
661
662
663
664
665
666
667
668
669
669
670
671
672
673
674
675
676
677
678
679
680
681
682
683
684
685
686
687
688
689
689
690
691
692
693
694
695
696
697
698
699
700
701
702
703
704
705
706
707
708
709
709
710
711
712
713
714
715
716
717
718
719
719
720
721
722
723
724
725
726
727
728
729
729
730
731
732
733
734
735
736
737
738
739
739
740
741
742
743
744
745
746
747
748
749
749
750
751
752
753
754
755
756
757
758
759
759
760
761
762
763
764
765
766
767
768
769
769
770
771
772
773
774
775
776
777
778
779
779
780
781
782
783
784
785
786
787
788
789
789
790
791
792
793
794
795
796
797
798
799
800
801
802
803
804
805
806
807
808
809
809
810
811
812
813
814
815
816
817
818
819
819
820
821
822
823
824
825
826
827
828
829
829
830
831
832
833
834
835
836
837
838
839
839
840
841
842
843
844
845
846
847
848
849
849
850
851
852
853
854
855
856
857
858
859
859
860
861
862
863
864
865
866
867
868
869
869
870
871
872
873
874
875
876
877
878
879
879
880
881
882
883
884
885
886
887
888
889
889
890
891
892
893
894
895
896
897
898
899
900
901
902
903
904
905
906
907
908
909
909
910
911
912
913
914
915
916
917
918
919
919
920
921
922
923
924
925
926
927
928
929
929
930
931
932
933
934
935
936
937
938
939
939
940
941
942
943
944
945
946
947
948
949
949
950
951
952
953
954
955
956
957
958
959
959
960
961
962
963
964
965
966
967
968
969
969
970
971
972
973
974
975
976
977
978
979
979
980
981
982
983
984
985
986
987
988
989
989
990
991
992
993
994
995
996
997
998
999
1000

MURDE INCHAUSPEREN LETRA

ENE JAUN HAINITZ OHORAGARRIA ,

Zuc ez duzu gure lekhucotasunaren beharric, segur izateco zuc escribatzen dituzun liburuec ez daducatela deus fedearen eta Eliza sainduac m aten dituen iracaspenen contracoric ; zu gure artean ezagutua zare nausi, antzez eta jakitatez, eta ere escuararen ongi ezagutzez.

— Bizkitartean nahi izan baituzu icus dezagun orain berriki compondu duzun liburu bat : MARIAREN HAURREN ESCU-LIBURUA deritzana, zuri atsegin egiteagatic, zure galdeari gogotic ihardetsi dugu; eta gogoticago complitu gure agintza, zeren plazer handirekin iracurtu baitugu zure escuara garbi eta lañoa, eta hainbertze nabarmenduekin dipildu dituzun iracaspenac.

Erranen derauzut beraz francoki eta batere lausenkeriaric gabe, ene oldez, egin duzula lan bat hainitz probetchosa, eta hainitz onhetsia izanen dena Escual-herrian, bai berheziki persona debotetaz, bai eta oraino Jaun Erretoretaz.

Persona debotec, guziz Maria Birjinaren Congregazioneco haurrec, causituren dituzte

liburu hortan, sainduki bizitzeco, bere debozionearen argitzeco, hazteco eta azcartzeco desiratzen ahal dituzten argi, chehetasun eta laguntza guziac. Hastapenetic iracasten diozozute zer den Maria Birjina, zeinaren gerizan jarri baitire : zein den ona, zein den gora, handia eta boteretsua zeruan, eta holatan zembat merezi duen guganic ohore, amodio eta confidantzā, saindu eta izpiritū dohatsu guzien gainetic.

Gero liburuaren segidan, icusiren dute zer eta zertaco diren Maria Birjinaren Congregazioneac, zer abantaila dakharken khidego hetan izaiteac ; — nolacoa izan behar duen congregazoneco membro baten bizitzeco moldeac ; — sartzeco condizioneac eta zeremoniac ; atchiki behar diren erregelac.

Liburu berean causituren dituzte praticatu behar dituzten debozione nausiac nasaiki espli-catuac : Meditazionea, — Ofizio ttikia, — Arrossarioa, — Meza saindua, — Gorphutz-Sainduaren eta Bihotz Sacratuaren alderaco debozionea, — Gurutzearen bidea, — Abitu sainduac, beltza eta urdina, — San Josepen ohoratzea.

Icusiren dute Meditazionea eztela choilki aphezei, frairei eta serorei dohacoten debozione bat; bainan giristino guziec, zeruraco bideari

jarraiki nahi dutenec eta bere biziak Jesu-Christoenaren eta Maria Birjinaren biziakaren arabera chedatu; behar dutela bere baitan sartu, phensamenducatu, Jesusen eta Mariaren etsempluak gogoan erabili, erran nahi baita *meditatu*, egin *meditazionea*.

Icasiren dute zein baliosak diren, bai *ofizio* handian, aphezec erraten dutenean; bai *ofizio* ttikian, Mariaren Congregazione edo Confrarietaco haurrei Elizac gomendatzen duenean, Jaincoari igortzen diren laudorioak eta othoitza; hec baitira Jaincoak berac inspiratu hitzak. Eta othoitza eta laudorio hec gozokiago eta gartsukiago egin detzaten amoreacatic, latinetic escuararat itzuli dituzu.

Eracusten duzu gero zer den *Arrosarioa*, handien, ttikien, jakintsuen eta jakitategaben othoitza; Arrosarioa, Elizac hainbertze indumentiaz aberastu duena; orainco demboran Leon XIII garrenac hain usu eta hain borthizki gomendatzen deraucun deboziona — zembat indumentiaz aberastua den Arrosarioaren erratea; eta nola behar den hobekienic eta probechoskienic erran.

Icasiren dute zure liburuaren iracurzailec Meza eta Gorphutz-Saindua zer gauza baliosak diren, zembat esker eta amodiorekin hetaz

behar dugun baliatu. Meza sainduaren debotk entzuteco eman duzu san Leonard Port-Mauriz ecoac gomendatu moldea, zein baita Jesu-Christoc eta Elizac sacrificioa escaintzen duten lau cheden araberecoa : 1^{ic} Jaincoaren adoratzea; 2^{ic} hari satisfazione egitea eta barkhamendu escatzea bekhatuentzat; 3^{ic} eskerren ematea haren ganic izan ditugun ongi guzientzat; 4^{ic} arimaco eta gorphutzeco behar ditugun grazien galdetzea.

Sobra luzatu behar nuke letra hau ezagutaz razi nahi banitu zure liburuac daduzcan era-caspen balios guziac. — Erran dezadan har-gatic oraino ongi inspiratua causitzen zitudala zeren zure liburuaren acabantzan eman dituzun hogoi meditacioneco sujet, Erlijoneco egi nausienen gainean; — eta *Pater-a* eta *Ave Maria* ere meditacionetan esplicatu dituzun. Hola egin baituzu escu-liburu complet bat Mariaren haurrentzat.

Hitz bat oraino, esplicatzeko zergatic erran dudan zure liburua onhetsia izanen dela jaun Erretoretaz. Ezta dudatzeco, ezen zure liburuari jaun Erretorec — (baldin desira badute bere paropian ezarteko Mariaren haurren congregazionea), — causituren dituzte hortaco behan diren argi eta nabarmendu guziac; — hor icu-


siren dituzte congregacioneko abantailac eta indulientziac; eman behar zaion erreglamentuaren moldea; bai eta membroen errezibitzeco zeremoniac eta othoitzac.

Bai, ene Jaun ohoragarria, egin duzu Escual-dunentzat obra ona eta baliosa. Ezta dudaric Jaincoaz benedicatua izanen dela, hori eta horren egilea; Jaincoaren goresteceko eta arimen haren zerbitzuan eta amodioan aintzinarako hainitz gai denaz geroztic. Eskerrac ere derauzkitzuela luzaz Euzcal-herrico arima debotec eta aphez lagunec, esperantza izateco duzu.

Ene partetic escaintzen derauzkitzut ene *felicitazioneac*, ene bihotzeco sendimendu hobere-nekin.

Onize, hazilaren 3^{an} 1895^{ean}.

INCHAUSPE,
calonje eta bicario jeneral ohorezcoa.



12302-115915

AINTZIN-SOLASA

Liburu hau, izenac berac iracusten duen bezala, egina da bereziki Mariaren haurrentzat, congreganistentzat.

Mariaren haurrec *hemen causituco dituzte jakin eta egin behar dituzten guziac.* Liburu hau beraż maiż har eta iracur bezate. Horrengatic da deitua : Esculiburua, maiż eta ardura escuetan ibiltzecoa delacotz.

Bainan, Mariaren haurrentzat bezala, bertzentzat ere arras on izanen da liburu hau. Alabainan, nihor ez daitcke zerurat hel Mariari esker, Mariaren bidez bai-zic. Eta liburu huntan icasico da errechki Mariaren, laket eta zor zaion bezala, ohoratzan eta othoizten.

Nahi izan ditut hemen ezarri, bai Mariaren haurrec, bai bertzec, beren con-

greganist edo giristino egimbideri jarraikitzeo behar dituzten guziac. Nahi izan ditut ezarri bereziki meditazione bakhar batzu, meditazioneric gabe ez baita arima egiazki Jaincotiaric, sunsezco giristinoric. Horra zerc lužatu duen liburutto hau; lužatu, bainan, nere ustez bederen, ondu eta aberastu.

Orai, bacotchari berca :

Eskerrac goraki bihurtu behar diozcat liburu hunen egiten hain bihotz onez lagundu nauen adichkideari. Hemen frantsesetic escuararat itzuliac diren othoitz gehienac, murde Daguerre, Irisarrico jaun errotorac, eginac dire. Harentzat izan da bederen lanic gachtoena, nic gerotz egin badut ere. Hots, laborantza balitz, harec iraulia litake lurra, eta nic bakharric arhatua, eta eraiteco aphain-dua. Nere lana segurki harena baino errechagoa izanen baitzen.

— *Beraz, neronentzat bezala, nere la-*


neco lagunarentzat ere, lañoki galdetzen ditut liburu hau iracurtuco duten arima onen othoitzac.

— *O Maria, Elizac zure ahoan ezartzen ditu Liburu Sainduetaco hitz hauc : Qui elucidant me, vitam æternam habebunt : Ni ezagutarazten nautenec, betiereco bizitza izanen dute. Zuri nagozu, Ama guziz ona, nere ahala ongi ttikia izana-gatic, egin ahala egin baitut zurc ezagutarazteco eta maitarazteco.*

Othoi beraz, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nañazu orai eta beti, lagun sainduki bizitzentz, sainduki hiltzentz, lagun betiereco bizitzearren ardiesten.

L. DIHARASSARRY,

Orzaizeco errrotora.



ANDRE-DENA MARIAREN

CONGREGAZIONEAC

I — MARIA ZERUCO ATHEA

¶ I. — Birjina Maria behar dela bertze Sainduac baino gehiago ohoratu eta othoiztu.

Sainduen ohoratzea eta othoiztea gauza ona da. Bainan bertze saindu guziac baino gehiago, hainitz gehiago, ohoratu eta othoiztu behar dugu Andre-dena Maria.

..

GEHIAGO OHORATU. — Egia dena den errateco, Jaincoac du bakharric ohore eta laudorio merezi. *Nihor*, dio Salbatzaileac, *c̄z da onic, Jaincoa baizic*; eta zuzenez, ez ditake ona dena baizic lauda eta ohora. Creaturac ere bizkitartean laudatzen dire eta ohoratzen. Bai, bai-

nan Jaincoaren iduri eta eite zerbeit hetan causitzen delacotz, Jaincoac bere ontasunean partalier egin dituelacotz. Hala nola paper batean aurkitzen bada gure aitaren iduria, paper hura ohoratuco baitugu iduri harren gatic; eta hala, paper hura ohoratuz, gure aita dugu ohoratuco.

— Halaber, creaturac ohoratuz Jaincoaren iduri zerbeit hetan causitzen delacotz, Jaincoa bera dugu ohoratzen.

Bada, creatura guzien artean, nihon ez da hala Jaincoaren iduria causitzen nola sainduetan. Sainduac, graziaren bidez, Jaincoarekin casic bat eginac dire. Ez dire Jainco, ez; bainan bai Jaincoztatuac; Jaincoaren bizia heien arimeli hertsiki lotua da, heien arimetan sartua eta erroac egina, heien bizia Jaincoaren biziarekin nahasia bezala da; eta saindu bacotchac egiaz erran dezake Jon Doni Paulorekin: Jaincoa da nere baitan bizi; eta Jon Doni Petrirekin; Jaincoaren izatean partalier naiz.

Icusi duzue burdina suan gorritua. Burdina ez da sua, sua ez da burdina. Bainan suac burdina hain ongi hartua

eta beretua du, non biec bat iduri baitute, biec bat bezala egiten. Eta zembatenaz ere sua biziago eta hazcarrago baita, eta hambatenaz ere hobeki zaio burdinari lotzen, osokiago da burdinaz jabetzen, gero-ta gehiago dio burdinari bere iduria ematen. Guza bera gertatzen da sainduetan.

Zembatenaz ere sainduago baitire, zembatenaz ere grazia berretzen baita heien ariman, eta hambatenaz ere barnago Jaincoa sartzen da arima hetan, hambatenaz nasaikiago bethetzen ditu eta gainditzen bere biziaz. Hitz batez, sainduric handiena da gehienic Jaincoztatua, harren baitan da gehienic causitzen Jaincoaren iduria.

* * *

Alta, bertze saindu guzien saindutatsuna ez da Mariaren saindutasunetic hurbiltzen ere. *Haren zimenduac*, diote Liburu Sainduec, *mendi cascoen gainean dire*. Erran nahi baita, Mariac haste hastetic bazuela bertze sainduec beren biziaren buruan izan duten baino grazia

gehiago. Eta hola behar zen : Jaincoac, dio san Thomasec, graziac ematen ditu carguen araberacoac. Carguac, alabainan, cargac dire, eta cargu heien bethetzeco, carga heien jasateco eta ibiltzeco, behar den indarra da grazia. Cargu handiago, eta carga gehiago; beraz grazia ere nasaiago. Bada norc izan du seculan, hurbiltzeco ere, norc izan dezake seculan Mariac bezalako carguric!

Maria Jaincoaren ama da. Egiaz, Jainco ez izatecotz, izan othe ditake Jaincoaren ama baino gehiago, Jaincoaren ama bezembat! Eta horra zergatic, berritz ere diogu Liburu Sainduekin, Mariac haste hastetic izan duen bertze sainduec hiltzeracoan zuten baino grazia gehiago. *Fundamenta ejus in montibus sanctis.* Eta nola Mariac beti, gauza guzietan, Jaincoaren nahia egin baitu, beti, egunez egun, orenez oren, hats hartze guziz, haren grazia eta saindutasuna emendatuz joan ziren. Norc negur, norc erran, norc asma Mariaren saindutasuna mundu huntaric atera zenean! Norc asma zembatetaraino Jaincoaren biziak hartua eta jabetua zaucan, zem-

batetaraino zen Jaincoztatua ! Mariaz bezembatean, dio Elizaco dotor saindu batec, et-zazuela erran Jainco dela ; bainan hartarainoco guziac bai, ausarki. Zuzenez beraz Elizac Maria deitzen du saindu guzien erregina : *Regina sanctorum omnium*. Egiazki hala da ; eta hala delacotz, nihor ez da, urrundic ere, Maria bezen nasaiki Jaincoaren ontasunean partalier. Eta horra zergatic Maria behar dugun bertze saindu guziac baino gehiago, hainitz gehiago, ohoratu.

..

GEHIAGO OTHOIZTU. — Norbeiti zerbeit gogotic galdetzen diogu, dakigunean baduela emateco ahala eta nahia. Zer balio luke ahalac nahia gabe, eta bardin nahiak ahala gabe! Sainduec badute gure laguntzeco ahala eta nahia, eta horrengatic othoizten ditugu gogotic. — Badute ahala, zeren Jaincoaren adichkideac baitire ; eta zeruan, lurrean bezala, adichkiden bozac indar handia du. — Badute nahia, zeren maite baigaituzte. Maite gaituzte, gure haurrideac

direlacotz, gu bezala Adamen eta Jesu-Cristoren haurrac, Eliza beraren umeac.

— Bertzalde sainduec, Jaincoarentzat amodioz, Jaincoac nahi dituen guziac nahi dituzte; eta nola Jaincoac gure salbamendua osoki nahi baitu eta bilhatzen, sainduac ere ekarriac dire gure salbatzen laguntzerat. Hortarat ekarriac dire berenaz, bainan hobeki eta lehia gehiagorekin, heien laguntza galdetzen dugunean, othoizten ditugunean.

Bada, gure salbamenduari buruz, zera sainduen ahala eta nahia, Mariaren ahalaren eta nahiaren aldean! Sainduac Jaincoaren adichkide dire, gure haurride; Maria aldiz da Jaincoaren ama, eta da gure ama.

Jaincoaren ama, Jesus haren semea Jaincode lacotz; gure ama, Jesusec berac hiltzeracoan gurutzearen gainetic amatzat eman da culacotz.

Alta, Jaincoac bere adichkiden othoitzac entzuten baditu, zembatenaz hobeki ez ditu bere amarenac entzuten! Jesusec lur huntan Mariac erran guziac egiten zituen. Zeruan ere hala hala da;

eta seculan ez dio bere amac zerbeit galdegiten, ardietsi gabe.

Zer indarra Mariaren hitzac! Galdegitea bezen segur, nahi dituen guziac emanac zaizco. Mariac, gure laguntzeco, egiazki indar guziac escuetan ditu.

Eta haren nahia ez da ahala baino ttikiagoa. Hortaz segur izateco, aski da orhoitzea Maria gure ama dela. Zer dire bertze amodio guziac amec beren umentzat duten amodioaren aldean? Amec beren haurrac ezin gehiago maite dituzte; beti heien ona nahi dute eta bilhatzen. Maria ametan hoherena da, eta bere amodio pare gabecoa iracutsi daucu, guretzat Calbarioan Jesus bere semea eman duenean, eta bihotzez sacrificatu.

Beraz, pare gabecoa da Mariaren gure alderaco amodioa, gure laguntzeco duen nahia eta lehia; pare gabecoa da halaber haren ahala. Erran ditake, ala bata ala bertzea, negurriric gabecoa direla. Eta horra zergatic Maria bertze saindu guziac baino gehiago, hainitz gehiago, othoiztu behar dugun; horra zergatic beti egia den eta beti egia izanen San

Bernatekin Andre-dena Mariari egiten diogun othoitz : Orhoit zaite, ô Birjina Maria guziz ona, ez dela egundaiño aditu norbeitec zure laguntza galdegin izan duela, eta ez ardietsi !

..

Ohore beraz eta othoitz Mariari ; nahi dugun, ahal dugun bezembat ohore eta othoitz.

—

§ II. Birjina Maria behar dela salbatzeco baitezpada ohoratu eta othoiztu.

Ez uste izan Mariaren ohoratzea eta othoiztea, zerurat heltzeco har edo utz ditaken gauza dela. Ez uste izan Maria ohoratuz eta othoiztuz errechkiago dela bakharric salbatzen ; bainan ez ohoraturic eta othoizturic ere, salba ditakela. Ez : Maria gabe, Maria othoiztu gabe, Mariac lagundu gabe, ez gaitezke nihondic ere salba. Alabainan, graziaric gabe ez da zeruric !

Gauza jakina da, Jaincoa bera dela grazia guzien ithurria. Bainan nola

ithurrico ura·churrutatic heldu baitzai-cu, halaber Jaincoaren grazia heldu zaicu Mariaren bidez. Hola nahi du Jaincoac. Maria ganic ethorri zaio munduari Jesu-Cristo Salbatzailea ; Maria ganic ethorri behar zaizco Jesu Cristoc salbatzeco merezitu diozcan grazia guziac. Egia handi eta gozo hori ederki argitan ezartzen du San Agustinec, eta huna nola : — Jon Doni Pauloren iracaspenen arabera, Eliza da gorphutz bat. Gorphutz horren buruzagia edo burua da Jesu Cristo ; giristino guziac aldiz, elgarri sede beraz josiak, dire gorphutz horren membroac. Eta Birjina Maria, zer da ? Birjina Maria da gorphutz horren *lephoa*. Lephoa burua baino aphalago da, bainan bertze membro guziac baino gorago ; lephoa da buruaren eta membroen bitarteko bezala. Eta deus ez da burutic membroetarat jausten, ez eta ere membroetaric bururat igaten, lephoaan barna baizic.

Halaber, Elizan, Andre-dēna Maria da Jesusen eta giristinoen bitartecoa, Jesus baino aphalago, bainan giristino guziac baino gorago. Eta Jesusec ez

diote behinere graziaric giristinoeri ematen Mariaren bidez eta escuz baizic; eta giristinoen othoitzac ez daitezke Jesusen bihotzerat hel Mariaren bihotzean barna baizic. Berritz ere errateco, hola da Jaincoaren nahia. Eta horra zergatic Maria deitua den : *Zeruco athea : Janua cæli.* Zeruan ez ditake sar gordeca eta ebasca. Han sartzen denac behar du baitezpada athetic iragan. Eta ez da atheist bat baizic, Maria, eta guzientzat atheist bera, ttipientzat ala handientzat, deus ez dutenentzatala aberatsentzat, emazte kientzat eta gizonentzat, giristino choilentzat eta Elizaco buruzagientzat. Nihor ez da zeruraco Maria ohoratuz eta othoiztuz baizic.

Bainan, hala hala, Maria zinez ohoratzen eta othoizten dutenetaric nihor ez da zerutic campo geldituco.

« Sinhets nazazue, dio San Ligorio
 « handiac, Andre-dena Maria maite
 « baduzue, eta bertzeri ahalaz maitaraz-
 « ten ; baldin hil artio beti ama on hori
 « ohoratzen eta othoizten baduzue, zuen
 « salbamendua segura da. »

..

Dezagun beraz guziec zinez eta khar-tsuki Maria ohora eta othoitz, eta, Mariari esker, guziac salbatuco gare; Maria izanen da egiazki gu guzientzat ZERUCO ATHEA.

--

II — ZERTACO DIREN MARIAREN CONGREGAZIONEAC

Giristino guziec behardute Maria ohoratu eta othoiztu ; Maria ohoratuz eta othoitzuz baizic ez ditake nihor zerurat hel. Bainan, ondicotz ! zembat eta zembat arima ez da munduan, Maria batere ohoratzen eta othoizten ez dutenic ! Eta Maria osoki ahanzten ez dutenen artean ere, zembat hoztasun eta lazokeria amaguziz on eta botheretsu horren ohoratzeko eta othoizteco !

Mariaren congregazioneac eginac dire, hoztasun eta lazokeria hortaric begiratzeko, Mariaren orhoitzapena arimentan beti piztua idukitzeko, arimen susstatzeco Mariaren ohoratzerat eta othoitzerat. Eta egiazki, nekhe da congregazionalean den, congregazionaleari jarraiki-tzen den arima batec Maria ahantz dezan, nekhe ez dezan Maria ongi ohora eta othoitz.

*
**

Hasteco, bere izenaz beraz ohore egiten dio Mariari. Deitzen da, eta guziec deitzen dute : *Mariaren haurra*. Beraz goraki aithortzen du, Maria hartu duela bere amatzat bertze giristinoec baino are berezikiago ; goraki iracusten du, Mariaren urhats beretan nahi duela ibili bertze giristinoec baino are chuchennago eta chehekiago. Diogu, ohore dela hori Mariarentzat. Guzien arabera, ohore da Jesu-Cristo gure Jaunarentzat, norbeitec jenden artean beldurric gabe erran dezan : Giristino naiz, Jesusen haurra naiz. Hala hala ohore da Mariarentzat, norbeitec erraten duenean : Mariaren haurra naiz.

*
**

Izenaz bezala, arropaz ere congreganistac iracusten du Mariaren haur nahi dela, eta bere amari ohore egiten dio. Congreganisten arropa! Urdin eta churi: zeru eta elhur colore. Bere arropari behatuz, congreganista orhoituco da ez

.ditakela zeruan sar elhurra bezen churi
edo garbi izanez baizic, nola baitzen
Andre-dena Maria.

Eta bai izenac, bai arropac, ekharrico
dute garbiki bizitzerat, garbiki bizitzen
lagunduco. Alabainan, izen hori duena,
arropa horrekin agertzen dena, nola ez
litake ahalke asco bide tzarretan abia-
tzeco, afinkerian eta ergelkerian ibil-
tzeco ! Bera orhoitzen ez balitz ere, ba-
lituzke segurki bazterretic orhoitaraztai-
leac, balituzke erraileac : « Utz zure
« izena eta zure arropa, edo, desohorez
« ere, utz urhats horiec ! »

* * *

Bainan, congregazonean, bertze la-
guntzaric eta indarric ere causitzen da
sainduki bizitzeco. Laguntza eta indar
handiac !

Lehembizicoric, bilcuretan elgarrekin
aurkituz, elgarri etsemplu ona emanez,
ongiraco elgar atchikitzen da eta bero-
tzen.

Bigarrenecoric, bilcuretan, Maria gu-
ziec elgarrekin ohoratzen dute eta

othoizten. Bada badakigu elgarrekin eginac othoitzac indar berezi bat baiduila. Jesus Jaunac berac errana da : « Non ere bi edo hiru lagun bilduac « baitire ene othoizteco, heiekin naiz. » Han da, heien entzuteco, heieri graziaric nasaienen emateco.

Hirugarrenecoric, bilcuretan aditzen dire aphez aintzindariaren hitzac. Han aphezac Mariaren haurri ematen diozate berezikiago doazcoten iracaspenac; han ardura argitzen eta sustatzen ditu, beren zeruko amaren urhatseri hobeki jarraikitzeco.

Laugarrenecoric, congreganista batec nombeit gauza on bat egiten duenean, nola caritate bat, othoitz edo comunione khartsu bat, nongo-nahico Mariaren congregazionetaco bertze haurride guziac hartan partalier dire, partalier *bereziki*.

Azkenecotz osteca bezala Elizac ematen diozate congreganisteri indulientziac, bai berentzat, bai Purgatoriota arima gaichoentzat.

..

Horietaric ageri da, zembat laguntza eta errechtasun betezi causitzen den congregazionalean Mariaren ohoratzeko eta othoizteco, zembat laguntza eta errechta sun salbatzeco.

Erraten dute batzuetan mundutarrec : « Salba ditake congregazionalean ez iza- « nic ere. » Egia da : Bainan hainitz errechkiago eta segurkiago congregazionalean izanez. Bada, holaco egiteco baitezpadacoan nola baita salbamendua, ez othe litake ahalaz segurenetic hari behar!

Bai, salba ditake Andre-dena Mariaren congregazionetaric campo. Bainan, saindu handi baten arabera, congregazone batean denac hamar aldiz grazia gehiago izanen du salbatzeco. « Con- « gregazionaleac, » dio Aita Saindu Benedito XIV^{arrenac}, « congregazionaleac « dire Jaincozco escola batzu bezala ; « han gazteriac icasten du egiazco gi- « ristino bizitza; han arimec segura- « tzen dute beren salbamendua. »

Doi-doia aiphatu saindu handi, san Ligorio, haimbertze misione eman, haimbertze liburu eder egin, haimbertze arima salbatu duenac, erraten dauku : « Geronec, gure misionetan, eza- « gutu dugu, zembat on eta salbagarri « diren Andre-dena Mariaren congrega- « gazioneac. Maizenic, congregazio- « nean ez den batec badu berac han di- « ren bertze hogoiec betan baino be- « khatu gehiago. » Zuzenez mintzo da « beraz Aita misionest famatu bat, Aita *Binet*, dioenean : Andre-dena Mariaren congregacionez. hein batean erran ditakela san Bernatec comentuez erraten zuena. Han :

1^{ic} Garbikiingo bizi da;

2^{ic} Bekhatuan bakhanago erortzen da;

3^{ic} Erortzen denean ere, bekhatu tti-
kiagoetan;

4^{ic} Errechkiago altchatzen da;

5^{ic} Arta gehiagorekin ibiltzen da ze-
ruco bidean;

6^{ic} Bakhe gehiago da bihotzean;

7^{ic} Grazia eta laguntza gehiago izaten
da zerutic;

8^{ic} Errechkiago pagatzen dire Jain-


coaren alderaco zorrac, eta horrela Purgatoriotaric libratzen da;

9^{ie} Fidantzia eta atsegin gehiagorekin hiltzen da;

10^{ie} Azkenecotz, zeruan loria gehiagoz da gozatzen.

- - - . . .

Chuhur baduzu beraz, sar zaite Mariaren congregazionean, eta beti jarraic congreganist on baten urhatseri.



III

**NOLA EGITEN ETA FINCATZEN DIREN
MARIAREN CONGREGAZIONEAC**

—

Andre-dena Mariaren congregazione nausia, bertze guzien ama bezala dena, Erroman da. Deitzen da : *Lehen lehena*. Congregazione hori Elizac aberastu du hainitz fagorez, indulientziez bereziki. Fagore eta indulientzia berez errechki goza ditazke bertze Mariaren congregazioneac. Eta huna nola, bi hitzez :—Gauza jakina da, congregazione bat egiten denean, congregazione hura ezartzen eta casic jartzen dela, edo eliza batean, edo capera batean, edo aldare batean. Eliza, capera, aldare hura izaten da ordutic congregacionearen lurra eta etchea, congregacionearen egōñ-tokia eta bizitegia bezala.

Bertzalde, congregazione guziac Mariaren ohoratzeko eginac direlacotz, gu-

ziec hartaraco izena behar dute. Mariaren baitan ohora ditake gauza bat edo bertze bat, nola haren bihotz saindua, nola haren bekhaturic gabe contzebitzea, nola haren zerurat altchatze dohatsua ; eta congregazionea, araberaco izena hartuz, deituco da : *Mariaren bihotz sainduaren congregazionea, Maria bekhaturic gabe contzebitzaren congregazionea, Mariaren zerurat altchatzaren congregazionea* ; erran nahi da : Mariaren edo bihotz saindua, edo bekhaturic gabe contzebitzea, edo zerurat altchatzea ohoratzen duen congregazionea.

Bainan, zer-nahi izen har dezan congregazioneac Mariaren ohoratzeco, gozatzen ahal da *Lehen lehenaren aberastasun guziez*. Hortaracotz :

^{1^{ic}} Jadanic, diosesaco Jaun Aphezpicuac congregazionea egina eta fincatua balin-bada, *Jesuisten jeneralari galde*, beti Jaun Aphezpicuaren baiarekin, congregazione hura ezar dezan *Lehen lehenaren aberastasun guzietan partalier*, erraten zaiolaric, zoin izen duen congregazioneac, zoin elizetan, caperetan

edo aldaretan den fincatua, eta noren-
tzat den egina, ala gizonentzat, ala emaz-
tentzat, ala ezconduentzat, ala ezcon-
gaienzat.

^{2^{ic}} Congregazionea ez bada oraino
egina, chehetasun berac emanez, Jaun
Aphezpicuaren baiarekin, galde Jesuis-
ten jeneralari berac egin eta finca de-
zan congregazionea, *Lehen lehenaren*
aberastasun guziekin (1).



Horiec dire bakharric baitezpada egin
beharrac. Bertzeric ere segurki on lita-
ke, nola congregazionean, aphezaz
campo, bertze zembeit buruzagi ezar-
tea, nola congregacioneco haurridec
beren buruzagiac hautatzea, nola indu-
lientziac eta bertze fagoreac dakharzcan
Jesuisten papera congregacioneco eli-
zan edo caperan agerian ematea. Bainan,
herri bacotchean jaun errotorac icusi

(1) Hoberena eta errechena horietan guzietan
da, Aphezpicutegian jakinaraztea zer nahi den.
Han eginean dute gero behar dena.

behar du, horietaric zer egin ditaken,
zer den on egitea.

Berritz ere diogu : horiec guziac, berenaz on izana-gatic, ez dire bizkitartean baitezpadaco gauzac indulientzien irabazteco, congregazionea egiazki jarría eta fincatua izateco. Hortaco, aski da Jaun Aphezpicuaren baimena, eta Jesuisten papera.



IV

CONGREGAZIONECO INDULIENTZIAC

—

Guziec badakigu zoin gauza baliosac diren indulientziac, bai biziertzat, bai hilentzat. Indulientzien bidez, Eliza, ama guziz samurra, bere haur bekhato-rosen ordain bezala jartzen da, heientzat penitentzia egiteco, heien Purgatorioa eztitzeco eta laburtzeco. Eskergabetasun handia litake beraz Elizaren alderat, urricalmenduzco agintza eta emaitza hori, deus ez balitz bezala, baliatu gabe uztea, indulientzien irabazteco artaric ez hartzea. Bertzalde, ongi gogor izatea litake, bai bacotcha bere-tzat, bai giristino lagunarentzat. Zer! hoin errechki, ala bere burua, ala bertzeac, Purgatoriotoric libratzen ahal, eta ez nahi!

Bertzelaco lehiaric dute saīñduec eta arima Jaincotiarrec indulientzieri buruz. «Ene semea», dio san Luis Frantziaco erregeac bere testamentaren acabantzan,

« orhoit zaite Eliza sainduaren indulien-
 « tziac iñabazteaz. » Eta berize Jaincoa-
 ren zerbitzari handi batec erraten du :
 « Ez baneza ere icus Andre-dena Maria-
 « ren congregazionetan indulientziez
 « bertze abantailic, bihotz guziz onhets
 « netzazke, eta nahi nuke barne izan. »

--
..

Luzegi litake hemen aipatzea con-
 gregazionean irabaz ditazken indulien-
 tzia guziac.

Aiphatuco ditugu bakharric *indulien-
 tzia osoac*, eta bertzetalic, errechkienic
 irabaz ditazkenac.

Indulientzia osoac

Indulientzia osoa irabazten da :

I^{ie} *Cofesatuz* (1) eta *comuniatuz* (congre-
 gacioneko elizan edo bertze non-nahi) : sar

(1) Hemen, behin beticotz, eman behar ditugu, indulientzieri buruz, zembeit argi eta chehetasun :

Indulientzia baten irabazteco behar balin-
 bada cofesatu eta comuniatu, cofesa eta co-
 munia ditake indulientzia den egun berean, edo,

egunean, Eguberriz, Jon Doni Salbatorez, Hotsailaren 2^{an}, Martchoaren 25^{ean}, Aboztua-ren 15^{ean}, Buruilarren 8^{an}, Abendoaren 8^{an}.

2^e *Cofesataz, comuniatuz eta congrega-zioneo elizan edo caperan Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez* (edo-zoin othoitz egin ditake; bainan maizenic erraten dire bortz *Gure Aita eta bortz Agur Maria*) :

Aste guziz, aldi bat, bilcura den egunean. (Bilcura arratsaldearekin balin-bada, induien-

salbo jubilaneco indulientziarentzat, bezperan. Baionaco diosesan, bi astetaric behin bederen cofesatzen denean, arte hartan gertatzen diren indulientzia guziaz irabaz ditazke berritz cofe-satu gabe.

Indulientziaren irabazteco behar balin-bada, cofesioaz eta comunioneaz campo, eliza batean zerbeit othoitz egin, maizenic egin ditake eta egin behar da indulientzia den egun bercan, gauerditic gauerdirat. Bizkitartean besta batzuez, nola Porzioneula den elizetan Agorrila-ren 2^{an}, eta Arrosioroco confrarioa den elizetan Urriaren lehen igandean, othoitzac has ditazke bezperan, arratsaldeco bi orenetaric goiti. Hala hala, bi besta egun horietan, iguzkia sartuz geroz othoitz eginez, ez litake indulien-tziarie irabaz

Othoitzac egin behar diren elizan comunia-tzen bada indulientzia den egun berean, ez da batere othoitz heien egiteco elizatic ateratze

tzia irabaz ditake, bai egun hartan, bai bihamurunean).

3^{ic} *Cofesatuz, comuniatuz eta eliza batean edo congregazioneco caperan, zazpi Gure Aita eta zazpi Agur Maria erranez : Bazcoeta eta Ortzegun Sainduz.*

4^c Eri handi delaric, comuniatzen den alde guziz. (Indulientzia hau ematen du congregacionearen aphez aintzindariac, behin beti cotz Jaun Aphezpicuaren ganic ardiesten duen baiarekin. Hartaracotz, eria ekharri ondoan

eta berritz sartze beharric. Lehembizico sartzetan hartan berean egin ditazke othoitzac, eta meza bera balia ditake hortaracotzat; bainan esigandetan. Ezen igandetan meza obligacionezko coa da; eta ez ditake indulientziaric irabaz obligacionezko othoitzentz bidez, salbo Bazcoetako comunioneaz. Igandetan beraz, meza bertze zerbeit othoitz erran, ala aintzinean, ala ondoan.

Bertzalde, egun berean cofesio eta comunione batekin indulientzia bat baino gehiago irabaz balin-baditake, indulientzia bacotcharrentzat eliza sartze berezi bat egin beharco daberze gaineratecoac ere, indulientzia bacotcharrentzat berech egin beharco dire, indulientzia bacotchac galdetzen duenaren arabera.

Indulientzien irabazteco manatuac diren othoitzac ez da aski barnez eta bihotzez errantea; erran behar dire ahoz eta hitzez.

berē gaitzaren pazientziarekin jasaterat, eta herioa, Jaincoac igortzen badio, onhartzerat, erranarazten diozca hiru *Gure Aita* eta hiru *Agur Maria* gurutzefica baten aintzinean).

5^o Hiltzeco menean (*cofesatz*, *comuniatuz* eta *bihotsez bederen*, *ahoz ez baditake*, *Jesusen izen saindua debozionerekin deitatuz*. (Ezin cofesa eta comunia ditakenean, aski da egiazco urrikia izatea.)

Hogoi-ta-hamar urtheren eta hogoi-ta-hamar garizumen indulientziac :

Indulientzia horiec irabazten dire, zazpi *Gure Aita* eta *Agur María* erranez, congregacioneko caperan edo bertze eliza batean :

Urte berriz, Trufania egunean, Garizuma aintzineko hiru igandetan, ortzirale eta larumbat sainduz, Bazco ondoko asto guzian eta igandean, Mendecostez eta ondoko zazpi egunetan, Aphirilaren 25^{ean}, Abendoaren 26^{ean} 27^{an} eta 28^{an}.

Zazpi urtheren indulientziac :

Indulientzia horiec irabazten dire : Astelhegunarekin meza entzunez, haucu batean aurkituz, arratsean contzientzia etsaminatuz, eri baten icusterat joanez, hil edo hagonia ez-

kila aditzean, hilarentzat edo eriarentzat othoitz eginez.

..

Indulientzia horiec guziac, bai osoac, bai bertzeac, irabaz ditazke Purgatorio-taco arimentzat.

Bertzalde, edo-zoin aphezec eman dezan meza congregazioneco aldarean congregazioneco hilentzat, beti meza harrec badu indulientzia osoa.

Zer aberastasunac congregazionean! Zer laguntzac! Zer errechta sunac Purgatorioaren husteco eta zerauren bethetzeco!



V — CONGREGAZIONEAN SARTZEA

Congregazonean badire bi haurride andana; osoki barne direnac; eta frogantzan direnac, icusteco heia osoki barne sartzeco on izanen diren.

Frogantzan hartua izan ditake, lehen comunionea egin den bezen laster. Frogantzac iraun behar du bederen hiru hilabethe. Luza ditake urthe batetaraino, bainan ez gehiago. Maizenic, on izanen da urthe bat iraunaztea. Frogantzaren buruan, gai ezagutua balinbada, sartzen da osoki barne, edo-zoin adinetacoa izana-gatic.

•
•

Gauza jakina da, ez dela nihor congregazonean hartu behar, ez badu iracusten nahi dela zinez Andre-dena Mariaren haur izan, zinez Andre-dena Mariaren urhatseri jarraiki.

Bardin, gauza jakina da, ez dela nihor congregazonean atchiki behar, arinke

rieten eta erge'kerietan bere burua iracusten badu, hitzez edo egintzez ttikitzen badu congregacionearen aiphu ona.

Gauza horieri bñuz, toki bacotchean, congregacionearen aphez aintzindariac ematen ditu behar diren argiac, harrec berac egiten du, behar diren chehetasunekin, congregacionearen *erregela*, hemen hertsichago, han largo chago, tokien arabera (1).

Huna erregela bat, Baionaco Jaun Aphezpicuac Escual-herrico nescatcha congregacione batentzat bere baiaz fincatu duena :

1^{ic} Orzaizeco *Mariaren haurren Congregaziona* egina da AMA BIRJINA BEKHATURIG GABE CONTZEBITUAREN ohoretan.

2^{ic} Congregazionean sar ditake lehen comunionea egin den bezen laster.

3^{ic} Hastetic sartzen da *frogantzan*, urthe batentzat, eta gero, gai balin-bida, osoki barne.

4^{ic} Congregacionearen bilcurac badire ha-

(1) Hoberena da, beti eta non-nahi, congregacionearen *erregela* fincatzea Jaun Aphezpicuaren baiaz.

mabortzetic, igandetan, bezperetaric lecora (1). *Hiru bilcura terroan* huts egiten dituenac, behar-dio jaun errotorari jakinarazi zergatic huts egin dituen.

5^{ic} Hilabetheco lehen ortziraletan, meza berezi bat emanen da congregazionearentzat. Hiru hilabetherataric behin, edo beharrez maizago, *ofrenda* bat eginen da meza horien sariarentzat (2).

6^{ic} Congreganistec behar dute hilabhetic bederen sacramenduetarat hurbildu, ahalaz lehen ortziralean, edo ondoko igandean.

7^{ic} Congreganista bat hiltzen denean, congregazonea haucuan aurkituco da, bere arroparekin eta banderarekin. Bertzalde, congreganista bacotchac comunione bat eginen du eta arrosorio bat erranen bere haurridearen arimarentzat.

8^{ic} Congreganistac lehiatuco dire modestia handi bat, eta bereziki caritate handi bat, bai elgarren artean, bai nor-nahirekin, izaterat.

9^{ic} Zerbait huts handiz bere burua desoh-

(1) Nahi bada, ezartzen dire māizago edo bakhanago, bertze egun batez, bertze tenore batez.

(2) Hainitz tokitan, urthetic ematen da zerbait congregazoneco gastuentzat.

ratzen duen congreganista, ordu beretic congregazionetic campo da.

10^{ie} Congreganisteri bereziki debecatua zaiote plaza-dantzetan haritza, bai eta beha *egotea*. Huts hortan erortzen dena campo emana izanen da ; lehen aldiari, hiru hilabete-rentzat, eta bigarren aldiari, beticotz (1).

(1) Hamargarren phondu horri buruz, eman behar ditugu zembeit chehetasun.

Zahar guziec diotenaz, oraico plaza-dantzac lehenagocoac baino hainitz itsusiagoac dire, eta egunetik egunerat itsustuz doatz. Halako dantzetan haritza nihorentzat ez da on ez eder, bainan gutiago congreganistentzat, Mariaren haurrentzat. Hortan, gure ustez, apiez guziac bat dire; eta nihon congreganisteri ez zaiote haizu *plaza-dantzetan* haritza. — Bainan zembeit tokitan uzten omen dituzte dantza heieri beha *egotea*. Garbiki mintzatzeko, ezin onhetsia, eta batere plantaric gabecoa zaicu gauza hori. -- Zer! dantzari haritza debecatua, eta beha egotea haizu!

Oren laurden bat dantzari hari balin-bada, congregazionetic campo ; eta arratsalde osoa beha egonican ere, aintzinat barne! Bainan, gaizki balin-bada dantzari haritza, ez othe da bada gaizki dantzarien ondoan egotea, lorietan heieri beha, on den, onhartzen den, eta sustatu nahi den gauza bat balitz bezala! Hori othe da herrian congreganistec eman behar duten etsemplua? Hori othe da Jaincoari, Andre-dena

VI — CONGREGAZIONEAN SARTZECO ZEREMONIAK

§ I. Frogantzan sartzeco zeremonia.

Congregazionean sar ditake edo-zoin egunez, bai frogantzaco, bai osoki barne. Gisa litake bizkitartean Andre-dena Mariaren besta egun bat hautatzea.

(Sartzeco zeremonien egiteco, aphe-

Mariari zor dioten ohorea eta amo lioa? Ez dire dantzan hari, ez; bainan lorietan beha egoten, bai. Badakite bizkitartean dantza harrec atsegabe egiten diola Jaincoari. Eta Jaincoari atsegabe egiten dion gauza hartaz loriatzen dire, harren ondotic dabilta, han dagotzi gozatzen oren osoac! Berritz ere diogu : hori othe da congreganistee eman behar duten etsemplua? Haur batec bere aita, bere ama jotzen du : hori itsusi, hori zorroski debecatua. Bainan haur dohacabe harrec bere aita edo ama jotzen duenean, bertze haurridea lasterca, irri carcaraz, icusterat joaki, icusten han egoki, eta hori haizu, edo bederen ez debecatua!

Ez, ez, egiazco congregazione bat nahidenean, congreganisteri et - zaiote haizu utzi behar plaza-dantzetan haritzea, ez eta beha *egotea*.

Diogu *egotea*. — Batzueta ez da errech

zac hartzen ditu eliza-athorra eta estola churia) [1].

Cantica bateman ditake hasteco. Gero cantatzen da edo erraten : VENI CREATOR :

dantzatic ez hurbiltzea, han doi-doiaco bat ez tricatzea.

Bestalieriekin doanean plazarat, han denean dantza plaza ezkinean, behatzetto bat ematea iragaitean, den gutieneco bat tricatzea etcheco bestalieren lagun : segur hobe litake ez egitea ; bainan et-zaicu iduri hori hain itsusi dela, hor badela congregantentzat berentzat halaco hirriscuric, eta bertzentzat halaco etsemplu tzarric. Ageri da orduan dantza ez dela onhartzen ; nor hari den icuzteco, edo lagunen gatic behatze bat egiten zaiola ; eta et-zaicu iduri, hori aski litakela congregazionetic campo ezartzeko.

Erregela hortan errana da, plaza-dantzetan haritzen edo beha egoten denean, lehen aldian campo emana izaten dela hiru hilabetherentzat, eta bigarren aldian beticotz. Hori ongi da, arras bakhan baizic dantzaric ez den tokietaco ; bainan maiz edo maichco dantza den tokietan, hobe litake ematea campo : lehen aldian, hiru hilabetherentzat ; bigarrenean, seientzat ; eta hirugarrenean, beticotz.

Azken hitz bat. — Erregela bat egin denean, harri atchic, beti eta nor-nahiren alderat. Justiziariic gabeco congregazione bat deus ez da ; han ez da zainic ez indarric ongiraco.

(1) Zeremonia horiec arras on dire, bainan

I

Veni, Creator Spiritus,
 Mentes tuorum visita,
 Imple supernâ gratiâ
 Quæ tu creasti pectora.

2

Qui diceris Paraclitus,
 Altissimi donum Dei,
 Fons vivus, ignis, charitas,
 Et spiritalis unctio.

3

Tu septiformis munere
 Digitus paternæ dexteræ,
 Tu rite promissum Patris
 Sermone ditans guttura.

ez baitezpadaco. Horiec gabe sartua izan ditake congregazionalean, eta congregazioneco abantailez goza. Congregazionalean izateco, bi gauza dire bakharri osoki beharrac : 1^{ic} sartu nahi duenac behar dio jakinarazi aphez aintzindariari; 2^{ic} aphez aintzindariac haren izena ezarri edo ezarrarazi behar du congregazioneco *errechistroan*, Izenen liburu edo *errechistro* hori baitezpada behar da congregazionalean.

Zeremoniac egin detzazke aphez aintzindariac, edo, haren baiarekin, bertze edo zoin aphezec.

Zin egin du Jaunac,
eta etzaio damuturen :
zu seculacotz Melchise-
deren molderaco aphez
zare. - -

Jauna zure escuin-
taric dago; bere hasar-
reco egunean chehatu-
ren ditu erregeac.

Jendetzen artean juje
jarrico da, osoki hon-
datuco ditu, hainitzen
buruac lurrean leher-
tuco.

Ibaietic bidean eda-
nen du : horren-gatic
burua altchaturen.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Antif. Erregea zela-
ric bere etzantzan, ene
nardoac (1) usainic
gozoena eman du.

Antif. Haren ezkerra.

Juravit Dominus,
et non pœnitabit eum:
tu es sacerdos in æter-
num secundum ordi-
nem Melchisedech.

Dominus à dextris
tuis, confregit in die
iræ suæ reges.

Judicabit in natio-
nibus, implebit rui-
nas : conquassabit
capita in terrâ multo-
rum.

De torrente in viâ
bibet, propterea exal-
tabit caput.

Gloria Patri, etc.

Ant. Dum esset rex
in accubitu suo, nar-
dus mea dedit odorem
suavitatis.

Ant. Læva ejus.

(1) Usain oncez olio bat.

¶. Emitte spiritum tuum, et creabuntur ;
 R. Et renovabis faciem terræ.

OREMUS

Deus, qui corda fidelium Sancti Spiritus illustratione docuisti, da nobis in eodem Spiritu recta sapere, et de ejus semper consolatione gaudere. Per Christum Dominum nostrum. — Amen.

(Hemen, aphezac zeremoniari doaz-con zembeit hitz erraten ditu. Gero, sartu nahi duten guziac belhaunico dagotzilaric, aphezac galde batzu egiten diozcate; eta guziec betan, edo batec guzien izenean, ihardesten dute. Huna galde ihardeste hec) :

— Ene haurrac, zertaco ethorri zarete Andre-dena Mariaren aldare aintzinerat?

— Gure (ene) Aita, biziki nahi ginukelacotz Andre-dena Mariaren congregazionalean sartu.

— Hitzematen duzue, lehiatuco zaretela Mariaren haurretan causitu behar diren bertutten izaterat : garbitasuna, humiltasuna, obedientzia eta caritatea?

— Bai, Aita, egin ahala eginen dugu bertute horien izateco, eta horrela merezitzeco izen eder hau : *Mariaren haur*.

Eta aphezac orduan erraten du :

Icusicric zuen nahi khartsua eta zuen chede onac, hartzen zaituztegu frogantzaco Mariaren congregazionalean. Eta orai, zuen agintzeri indar gehiago ematea-gatic, lagun guziec entzuten zaituztelaric, eman zaitezte eta contsecra Andre-dena-Mariari.

CONTSECRAZIONEA, erran nahi da, BERE BURUAREN EMAITZA MARIARI.

Congregazionalean frogantzaco sartu bezen laster, huna non garen, ô Ama guziz garbia, zure aldarearen aintzinean belhaunico, zuri errateco zembat beroa den osoki zure haur bilhacatzeco bihotzean dugun gutizia.

Fagore handi horren merezitzea-gatic, zin-zinez eta goraki hitz-ematen dautzugu, egin-ahala Jaincotiar izanen garela, ez diotegula gure laguneri etsemplu onic baizic emanen ; hitz batez, lehiatuco garela zure haurretan icusi nahi ditutzun bertute guzien izaterat.

Bainan, ondicotz, ô Maria, badakizu zembat ahulac garen, zembat ahanzcorrac eta macur-errechac. Hel zakizkigu beraz, Ama ona, eta ardiets iezaguzu Jesusen Bihotz adora-garriaren ganic, gure chede onetan hazcar

egoteco eta, bizi gareno, heieri jarraikitzeko grazia. Horrela merezituco dugu zure haur izatea, bai lur hunen gainean, bai zeruan. Halabiz.

Aphezac bacotchari aldizca ematen dio Mariaren haurren escu-liburua, diolaric :

Har zazu eta atchic liburu hau. Huntan icusico duzu zer egin behar den congregazio-
nean, eta nola den hobekienic Maria ohoratzen. Hunec erranac eginez, segurki ardietsico ditutzu zure Ama guziz sainduaren laguntza nasaienac.

Aphezac ur benedicatua ichurtzen du chingolen gainerat, eta gero ematen diozcate aldizca, diolaric :

Ene haur maitea, har zazu chingola hau. Hau da zure agintzen ageria. Eta hau ibiltzean, orhoit zaite, orai beretic behar duzula zure bizi garbiaz Mariaren egiazco haur agertu.

(Osoki barne sartzecoric balin-bada, orai egiten da heien sartzeco zeremonia. Bertzenaz, berehala hasten da) :

Magnificat..... beherachago bezperetan causitzen den bezala.

Magnificat erran ondoan :

ŷ. Tota pulchra es, amica mea;

R. Et macula originalis nunquam fuit in te.

OREMUS

Domine Jesu-Christe, qui in cruce moriens
Immaculatam Virginem Mariam Genitricem
tuam, Mañrem nobis misericorditer dedisti,
concede, ut tanti beneficij memores, vitæ inno-
centiâ sincerâque pietate nos dignos Mariæ
filios comprobemus. Qui vivis et regnas, Deus,
etc.

Cor Jesu sacratissimum, miserere nobis.

Cor Mariæ immaculatum, ora pro nobis.

Acabatzeco, eman ditake cantica bat.

—

§ II. Osoki barne sartzeco zeremonia.

Galde-ihardestetaraino, guziac egiten
dire frogantzan sartzeco bezala. Huna
orai hemengo galde-ihardesteac :

— Ene haurrac, zerc zakhartzate Andre-
dena Mariaren aldare aintzinerat?

— Gure (ene) Aita, Andre-dena Mariaren

congregazionean osoki barne sartzeco dugun gutizia handiac.

— Hitz-ematen duzue artarekin jarraikico zaretela congregazioneac galdegiten dituen urhatseri.

— Bai, Aita, hitz-ematen dugu, eta gure hitza atchikico dugu, Jaincoaren graziarekin eta Mariaren laguntzarekin batean (1).

— Hitz-ematen duzue lehiatuco zaretela Mariaren haurretan causitu behar diren bertutten izaterat : garbitasuna, humiltasuna, obedientzia eta caritatea ?

— Bai, Aita, hitz-ematen dugu. Ezen, Mariaren haur, nahi dugu izen hori behar den bezala ekharri, nahi dugu gure zeruko Ama ezagutarazi eta ohorarazi.

— Zembat demborarentzat nahi duzue Mariaren haur izan ?

— Beticotz.

Aphezac erraten du orduan :

Icusiric zuen nahi khartsua eta zuen chede

(1) Erran gabe doa, congregazioneac galdetzen dituen gauza horiec ez eginic ere, ez dela bekhaturic, ez handiric, ez ttipiric. Bainan zertaco sar congregazionean, congrezioneac galdetzen dituenac ez egitecotz!

onac, gogotic hartzen zaituztegu osoki barne Mariaren haurren congregazionean. Zuen agintzec indar gehiago izan dezatentzat, lagun guzien aintzinean, egiozue zuen buruaren emaitza edo contsecrazionea Ama Birjinari.

MARIAREN HAURREN CONTSECRAZIONEA, erran nahi da EMAITZA.

AMA ZERUCOARI

O Maria, behkaturic gabe contzebitua, egun ematen gare zure geriza bereziaren azpian, eta hautatzen zaitugu gure zaintzaletzat, jabetzat eta amatzat. Egin-ahal guziac egin nahi ditugu zure hobeki ezagutarazteco, maitarazteco eta ohorarazteco ; zin-zinez zure oinetan hartzen dugu chede hori. Hemendic harat, goraki eta garbiki iracutsi nahi dugu zureac garela, osoki zureac, zure urhatseri nahi garela ahal bezen hurbildanic jarraiki, beti begien bichtan ditugularic, bereziki zure garbitasun, humiltasun, obedientzia eta caritate pare-gabecoac. Hori hitz-ematen dugu hemen, zure aldarearen aintzinean, entzuten gaituztelaric, bai zeruco Aingeruec eta Sainduec, bai congregacioneko gure lagunec.

Har gaitzatzu, othoi, ô Ama samurra, zure

bihotzeco haurren artean, eta ardiets iezaguzu gure hitzaren atchikitzeco grazia. Ereman gaitzatzu zeronec Jesus zure seme Jaincoaren ganat, icas iezaguzu Jesusen maitatzen eta zerbitzatzen, zuc maitatua eta zerbitzatua izan dadin nahi duzun bezala ; eta horrela merezi dezagula, eternitate guzian, izatea Jesusen eta Mariaren Bihotz sacratuaren haur benedicatuac, Aitaren, eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz.

Medailen benedicatza.

- ŷ. Adjutorium nostrum in nomine Domini ;
 R. Qui fecit cœlum et terram.
 ŷ. Dominus vobiscum ;
 R. Et cum spiritu tuo.

OREMUS

Omnipotens sempiterne Deus, qui sanctorum tuorum imagines sculpi aut fingi non reprobas, ut quoties illas oculis corporis intuemur, toties eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriæ oculis meditemur : hanc (vel has), quæsumus, imaginem (vel imagines) in honorem et memoriam Beatissimæ Virginis Mariæ, matris Domini Nostri Jesu-Christi adaptatam (vel adaptatas) bene + dicere, et sancti + ficare

digneris ; et præsta ut quicumque coram illa (vel illis) beatissimam Virginem suppliciter colere et honorare studuerit, illius meritis et obtentū à te gratiam in præsenti, et æternam gloriam obtineat in futurum.

Per Christum Dominum nostrum. Amen.

Aphezac ur benedicatua ichurtzen du medailen gainerat ; gero congreganista bacotchari berea ematen dio, diolaric :

Har zazu, ene haur maitea, medaila benedicatu hau. Hau da Andre-dena Mariaren congregazioneco ageria, hunec begiratuko zaitu zure ariman eta gorputzean. Orhoit zaite, hau ibiltzean, Mariaren haurra zarela, eta izen eder hori ohoratu behar duzula bizitze garbi et saindu batez.

Aphezac, Mariaren haur berri guziac belhaunico dagotzilaric, erraten du :

Ego, auctoritate quâ fungor, et mihi à sanctâ sede concessa, admitto te (vos) in aggregatione Immaculatæ Conceptionis beatæ Mariæ Virginis, et te (vos) facio participem (participes) omnium bonorum spiritualium ejusdem societatis. In nomine Patris + et Filii, et Spiritus Sancti. Amen.

Suscipiat te (vos) Christus in numero consociarum nostrarum et suarum famularum, et concedat tibi (vobis) tempus benè vivendi, donum benè agendi, constantiam benè permanendi, et ad æternæ vitæ hæreditatem feliciter perveniendi.

Et sicut nos hodiè fraterna charitas spiritualiter jungit in terris, ità divina pietas, quæ dilectionis est auctrix et amatrix, nos cum fidelibus suis conjungere dignetur in cœlis. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

ŷ. Ecce quām bonum et quām jucundum,

R. Habitare fratres in unum.

ŷ. Confirma hoc, Deus, quod operatus es in nobis,

R. A templo sancto tuo, quod est in Jerusalem.

ŷ. Salvam (salvas) fac ancillam tuam (ancillas tuas),

R. Deus meus, sperantem (sperantes) in te.

ŷ. Mitte ei (eis) auxilium de Sancto,

R. Et de Sion tuere eam (eas).

ŷ. Ora pro nobis, Sancta Dei Génitrix,

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

ŷ. Domine, exaudi orationem meam,

R. Et clamor meus ad te veniat.

V. Dominus vobiscum,

R. Et cum spiritu tuo.

OREMUS

Adesto, - Domine, supplicationibus nostris,
et hanc famulam tuam quam (has famulas
tuas quas) congregationi beatæ Mariæ Virgi-
nis aggregavimus, bene † dicere dignare ; et
præsta, ut statuta nostra, per auxilium gratiæ
tuæ, sanctè, piè, et religiosè vivendo, valeat
(valeant) observare, et observando vitam pro-
mereri sempiternam. Per Christum Dominum
nostrum. Amen.

Gero, *Magnificat*, eta gaineratecoac,
frogantzan sartzeco zeremonian bezala.



MARIAREN HAURREN DE BOZIONE NAUSIAC

I — MEDITAZIONEA

Mariaren haurrec behar dute beren Ama zeruoa bertze giristinoec baino hobeki othoiztu eta ohoratu. Hortaraco, arras on da :

1^{ic} Egun guziz, seculan hutsic egin gabe, gauza bat, beti bera, den ttikiena izanic ere, edo othoitz edo bertze zerbeit, Mariaren ohoretan egitea.

2^{ic} Mariaren besta egunac artoski atchikitzea, mezan ahalaz aurkituz, ma-hain saindurat hurbilduz, Ama guziz maite harri zerbeit othoitz berezi eginez.

3^{ic} Mariaren medailac eta abituac ibiltzea; medailetan, *miracuiluzcoa* deitzen dena bereziki; abituetan, bereziki urdina eta beltcha, eta guziz beltcha.

4^{ic} Mariaren beila tokietarat joatea,

nola Lourderat, Betharramerat, Buglozerat, edo bertze zoimbetetarat.

5^{ic} Mariaren izenean elizac, caperac, aldareac egitea ; eliza, capera, aldare hec ahal bezen aberaski aphaintza, argiz, lorez, eta bertze edergailuz.

6^{ic} Etchetan aldaretto baten egitea, Andre-dena Mariaren potret batekin...

• •

Bainan, dio Saindu handi batec, Andre-dena Mariari eman diezokegun ohoreric handiena, gozoena, beharrena, da : geroni, bai geroni, bilhacatzea harren potret biziak bezala, hura bezala biziz, harrecegin dituenac ahalaz eginez. Eta egiazki, dio Elizaco Aita batec, San Crisostomoc, Maria zinez goresten eta laudatzen balin-badugu, guc ere hura bezalaco nahico dugu izan. Eta nola izanen gare Maria bezalaco ? Mariac egin dituenac eginez. Beraz, edo ez dezagun gehiago Maria lauda, edo lehia gaiten harrec egin dituenac egiterat, harren urhatseri jarraikitzerat. Mariaz burlatzea bezala litake, erratea : « Oi, Ama

« ona, zoin ederra zaren, zoin saindua,
 « zoin maitagarria ! Zombat atsegin du-
 « tan zu hoin eder, saindu, maitagarri
 « icustea ! »

Eta gero, Maria bezalacoa izateco deus
 ez egitea.

Ez, ez, ez ditake Andre-dena Maria
 egiazki ohora, ez bada lehiatzen harrec-
 egin dituenac egiterat, haren etsem-
 plueri jarraikitzerat. Eta nola behar da
 hortarat lehiatu eta heldu? Huna :

Norbeitec lagun baten potreta egin
 nahi duenean, ez nolazpeitcoa, bainan
 chuchena eta iduria, zer egiten du? —
 Lehen lehenic, lagun harren begitarteari
 behatzen dio, behatzen artarekin, luzeki
 eta behin baino gehiagotan; behatzen
 beharbada gauza berarentzat, edo begi,
 edo beharri, edo ezpain, hamarretan,
 hogoieta. Gero, lana hasi duenean,
 huni beha, lagunaren begitarteari beha,
 bilhatzen du cheheki, ala chuchen doan,
 ala macur. Macur balin-badoa, egin
 duena ezeztaturic, berritz hasten da; eta
 aldiz, chuchen iduritzen bazaio, hartan
 hobeki fincatzen.

Hola hola behar du hari, Andre-dena

Maria bezalacoa izan nahi duenac, bere bizia Mariaren biziaren gainean negurtu eta moldatu nahi duenac. Arimaco begien aintzinean ezarri behar du Mariaren bizia, eta han luzaz atchiki, ahalaz cheheki bilhatzen duelaric nolacoa izan den bizi hura ; eta gero, icusi eta ezagutu duenaren arabera, lehiatu behar du bide beretan ibiltzerat, gauza beren egiterat, barnez eta campoz Maria bezalacoa izaterat. Hitz batez horiec guziac errateco, Andra-dena Maria bezalacoa izan nahi duenac, behar ditu haren etsempluac maiz eta funtski gogoan eta bihotzean erabili, behar ditu maiz eta funtski etsemplu hec *meditatu*. Bai, hori da : egiazco Mariaren haurrac behar du egin *meditazionea*.

*
..

MEDITAZIONEA! Hainitz jendec, sobra jendec, uste dute meditazionea ez dela aphezentzat, traidentzat eta serorentzat baizic. Edo bederen, hala uste balute bezala bizi dire. Debruaren amarrua! Arimen itsumendua! Hortaric, medi-

tazione escasetic, heldu dire bekhatu gehienac, erran ditake guziac. *Gachakriac leher egin du bazter guzietan.* diote Liburu Sainduec, *nihor ez declatz bere baitan sartzen denic*, beraz, nihorc meditazioneric egiten ez duelacotz. Ezen, meditazionea, hori da, eta ez deus bertzeric : bere baitan sartzea, ichiltasunean eta bildutasunean zerbeit funtski gogoan erabiltzea. Edo-zoin gauzetan, meditazioneric gabe, ez ditake deus onic egin. Etche bat egin nahi bada, behar da artarekin gogoan erabili, nondic izanen den harria, nondic zura, nondic hargina eta zurgina. Udan belharra chuhur denean, laborariac behar du bere baitan sartu, icusteco bere behiac nola hazico dituen neguan. Eri denac, bere baitan sarturic, ahalaz bilhatu eta ezagutu behar du nondic heldu zaion gaitza, eta nola den sendatuco. Hitz batez, munduko gauzetan beretan deus onic egitecotz, behar du bacotchac bere baitan sartu, behar ditu cheheki-bere go-goetac eta contuac egin, behar du *meditatu*.

Hala hala da arimaco gauzetan. Medi-

tazioneric gabe, arras nekhez helduco da zerurat. Haimbertze bide macur bada, haimbertze galbide! Eta zeruco bideric, bat baizic ez, bat bakharra. Hain errech da bide bakhar hura huts egitea! Eta bide on, chuchen hartan berean, zembaletsai ez da, zembatzilo, zembatarri zorrotz, zembatlaphar! Ah! ongi behatuz eta icusiz, erne ibiltzen ez balin-bada, laster erorico da, colpatuco, zaurredituco. Bichtan da hori.

*
*
*

Bainan, ondicotz! maiz eta ardura zera gertatzen! Munduko eta gorpbutzeco gauzentzat hainitz zuhurtzia eta arta gehiago dela ezen-ez arimacoentzat, eternitatecoentzat. Munduko gauzentzat cheheki bilhatzen dire baiac eta ezac, on eta tchar guziac; alde baterat edo bertzerat hartu baino lehen, ongi icusi nahi izaten da nondic den bideric hoberen; eta bide bati lotu ondoan ere, ascotan gelditzen da, jakiteco zertan den eta norat doan.

Eta arimaco gauzatan aldiz, zer arin-

keria, zer lazokeria, zer ezacholakeria ! Egiazki harrigarri da, eta casic ezin sin-hetsia ! Bai, bai, lan bat bakharra izaki baitezpada egitecoa : salbamendua ; eta lan hora bakharric ez-acholaki, nolaz-peitca, egiten, larri larria murruscatuz, artatzea balio ez balu bezala, gaizki egi-teco beldurric ez balitz bezala ; seculan funtski gogoan erabili gabe, icusteco zertan den lan harri buruz, non huts egin den, nola den chuchenduco, nola hobeki eta segurkiago bururatuko.

Eta horra, berritz ere diogu Liburu Sainduekin, horra zergatic den haimbertze giristino tzar edo ahul, zergatic haimbertze arima galtze : meditazione escasa-gatic !

•
•

Hala hala, deusec ez du arima hain biziki sustatzen bekhatuaren uzteco, bekhatutic urruntzeco, nola meditazio-neac. Alabainan, gogoan eta bihotzean ongi hartzen eta sartzen balitz zer den Jaincoa, zer gurutzea, zer heriotzea, zer zerua, zer ifernua, zer eternitatea, norc nahi luke bekhatuan bizi ?

Behar litake izan, edo feder gabea, edo adimendu gabea. Horren-gatic erran ahal izan du Santa Teresac : « Hitz-eman « iezadazue egunero oren laurden bat « meditazione, eta nic hitz-ematen dau- « tzuet zerua. »

Oi! zer gauza ona litaken Mariaren haurrarentzat, egun guziz oren laurden-tto bat meditazione horren egitea !

Ez da segurki hainitz; dembora gehichagoric galtzen dugu ez-deuskerietan.

Bainan, egun guziz ez bada, astean biz-pa-hiruetan bederen aphurtto bat meditatu behar litake.

*
..

Noiz nahi egin ditake meditazionea; bainan goizetan da tenoreric hoherena, goizeco othoitzaren ondotic, orduan baita errechkienic gogoa bildua atchikitzen. Meditazionea egin ditake, bai liburu baten laguntzarekin, bai liburu-ric gabe. Gehienentzat hobe da liburuarrekin egitea. Bainan ez uste izan, meditatzeko aski dela liburu on baten ira-

curtzea. Ez, iracurtzea ez da meditatzea. Meditatzeco, liburuan emeki emeki, artarekin, zembeit lerro iracurtu ondoan, bere baitan zembeit gogoeta egiten dire, ala liburuaren iracaspenac barnago bihotzean sarrarazteco, ala icusteco zertan den liburua mintzo den egieri eta etsemplu oneri buruz; eta gero, hartzen dire araberaco chede zinac.

..

Zerbeit othoitx egiten da : 1^{ic} meditazionea hasteracoan, Izpiritu Sainduaren argien escatzeco ; 2^{ic} acabatzean, bai eman graziez Jaincoari eskerren bihurtzeco, bai hartu diren chede onen bethetzeco behar diren indarren galdeztzeco.



II — OFIZIO TTIKIA

—

Ba othe da, Andre-dena Mariari egi-ten zaizcon othoitzetan *ofizio ttikia* bezen onic? Ez dugu uste; hoheric behinic-behin; ez. Icus dezagun zer den *ofizio ttikia*, eta gero segur aithortu beharco dugu, ez dakiokela Mariari othoitz hoheric egin.

*
*
*

Guziec badakigu aphezec erraten dutela egun oroz *ofizioa*. Ofizioco othoitz gehienac Liburu Sainduetaric hartuac dire; bertzeac, edo Elizac eginac, edo norbeitec eginic, Elizac onhetsiac eta beretuac.

Bada Liburu Sainduac buruen buru Jaincoaren hitza dire. Egia da asco gizonec eginac direla; bainan bardin egia, gizon hec guziec ez dutela Liburu hetan ezarri Jaincoacezartzeco manatu diotena baizic.

Beraz, Jaincoa bera da beti Liburu hetan mintzo.

Beraz, Liburu Sainduec Jaincoa laudatzen eta benedicatzen dutenean, Jaincoac berac du bere burua laudatzen eta benedicatzen. Alta, norc Jaincoa lauda, berac bere burua bezala? Nihorc, segurki. Non beraz causi othoitz hain onic nola Liburu Sainduetaco hitzac, nola ofizioco othoitz gehienac? Nihon ere ez.

Ofizioco bertze othoitzac ere hainitz onac dire, Jaincoaren hitzaren ondotik izan ditazken hoberenac. Alabainan, othoitz hec dire edo Elizac eginac, edo Elizac beretuac. Bada Izpiritu Sainduac Eliza beti argitzen eta sustatzen du. Arima gure gorputzaren bizia den bezala, Izpiritu Saindua da Elizaren bizia. Guc ez ginakike gure baitaric nola Jaincoa lauda eta ohora, Jaincoari zer galda. Izpiritu Sainduac aldiz hori Elizari eza-guitarazten eta adiarazten dio. Eta Elizaren ganic othoitz bat heldu zaicunean, erran diakete Izpiritu Sainduaren ganic heldu zaicula, Izpiritu Sainduaç ezarria delacotz Elizaren bihotzean eta ezpaine-tan, Izpiritu Sainduac sustatzen dituelacotz Elizaren othoitzac. Eta horra zer-gatic, Jaincoaren hitza direnez campo

ere, ez ditaken izan othoitzic ofizioco othoitzac bezen onic. Ofizioa erraten duena, Elizarekin hari da othoitzean; eta Elizarekin hari dena, hari da Izpiritú Sainduarekin. Zer indar ez du izanen holaco othoitzac (1)?

Bai, bai, edo-zoin aldetaric har dezagun, ofizioa da othoitz nausia, Jaincoari egiten ahal zaion othoitzic hoherena.

• •

Bada aphezen ofizioaz erran ditugun guziac, bardin bardina erran behar dire Adre-dena Mariaren *ofizio ttikiaz*. Huncaco othoitzac ere hartacoac bezala, gehienac Liburu Sainduetaric hartuac dire, bertzeac, Elizac eginac edo beretuac.

Elizac Liburu Sainduetan hautatu ditu eta *ofizio ttikian* ezarri Mariaz hetan er-

(1) Bertzalde. aphezac ofizioa erraten dueñeán, otho tzean hari da *Elizaren izenean*, Elizaren ordain bezala; horren-gatik, aphezac erran ofizioac badu indar berezi bat Jaincoaren bihotzaren ukitzeco. Indar berezi hori ez da ofizioan aurkitzen, giristino choil batec erraten duenean.

ranac direnac. Ezen, oi egia gozoa ! Jaincoa Mariaz mintzatu da, mintzatu nasaiki Liburu Sainduetan. Alta, norc dakizca Jaincoac bezen ongi, nor detzazke hain ongi aipha eta argitan ezar Mariaren handitasunac eta bertuteac ! Nola beraz, *osizio ttikiaz* bezen ederki, lauda eta ohora zeru lurren erregina ! *Osizio ttikia* erranez, Maiia laudatzen eta ohoratzen dugu Jaincoac berac laudatu eta ohoratu duen bezala. Laudorio eta ohore pare gabecoac !

Laudatzen eta ohoratzen dugu oraino Elizac egiten duen bezala. Eta gorachago icusi dugu, Jaincoaren hitzaz campo, ez dela othoitzic Elizac iracusten dauzkigun, Elizarekin batasunean egiten ditugun othoitzac bezen onic.

Beraz, hastean ginionaren arabera, ez daki oke Mariari *osizio ttikia* baino othoitz hoberic egin, ez eta ere naski hain onic.

• • - -

Horiec hola dire. Eta bizkitartean, Mariaren *osizio ttikia* guti erraten da, arras guti, casic batere. Hainitz tokie-

tan ez da ezagutua, eta ezagutua den tokietan ere, maizenic, ez balitz bezala bazterrerat uzten dute.

Badakit ez dela errech egun guziz erratea, eta frangoc, nahirican ere, ez dezaketela erran. Bainan, egun guziz erratetic seculan ez erraterat bada arte. Ongi nahi balitz, ez othe litake bada erraten ahal larumbatedo igande gehienetan, edo bederen Andre-dena Mariaren besta handienetan? Bertze asco othoitz egiten dute beharbada orduan Mariaren haurrec. Zergaticez lehia *ofizio ttikiaren* erraterat? Guzia ez baditake, zerbeit bederen!

Diote batzuec, *ofiziottikia* latinez dela, ez dakitela latina, eta nahiago dutelacotz, othoitzean hari direnean, jakin zer erraten duten, horren-gatic uzten dutela *ofizio ttikia*.

Bada chuchenic eta macurric solas hortan. Beha :

Bi hazcurric zure amari on eta atsegin egiten diote; batec bizkitartean bertzeac baino gehiago. Bainan gehienic on eta atsegin egiten dion hora, ez dakizu **chuchen** zer den; bertzea aldiz bai,

zeronec egina duzulacotz. Zer bada ! Jakinki chuchen ezagutzen ez duzun hazcurri harrec, bertzeac baino are on eta atsegin gehiago egiten diola zure amari , eta et-zinioke emanen ! Hala hala, ez dakizu chuchen zer dion *ofizio ttikico* latinac ; bainan badakizu Mariari erraten diozcala gehi-nic bihotzerat doazcon gauzac, laudorioric ederrenac, othoitzic hoberenac. Eta ahal duzularic, noiztenca bederen ez zinuke *ofizio ttikia* erran nahi !

..

Aithortu behar da bizkitartean, nahiz, arras othoitz onaren egiteco, aski den Jaincoaz orhoitza eta Jaincoa ohoratu nahi izatea, aithortu behar da, errechago dela gogoa bildua atchikitza eta bihotza Jaincoaren ganat itzulia, othoitzeco hitzec zer dioten ezagutzen eta ohartzen denean. Bertzenaz, maiz gogoa barraiatzen da, eta bihotza hotz egotēñ. Horra zergatic *ofizio ttikia* latinetic escuararat itzuli dugun, eta escuara hura latinaren aldean ezarri. Horrela, nahi dutenec

errechki jakin dezakete, *osizio ttikian* hari direnean, chuchen zer dioten Jaincoari eta Andre-dena-Mariari.

..


Hitz bat erran behar dugu hemen, bide nabar, igandetaco bezperez. — Oraico giristinoec ez dute lehengoec bezembat lehia bezperetan aurkitzeco. Ez baitute hec bezen fede hazcarra eta argitua!

Erran dugu jadanic, eta ez ditake aski errepica, othoitzic hoheren dela Elizarekin batean egiten den othoitz. Alabainan, Eliza da Jesu-Cristoc ezarria, guri iracusteco zer behar dugun egin zerurat heltzeco; beraz, nola othoitzid gabe ez baita zeruric, guri iracustecoz nola behar dugun othoitz egin. Elizarekin, Elizac berac egiten dituen othoitzac egiteco orde, nahiago izatea bertzezerbeit othoitzetan hari, hori gauza mazcurra da. Hola hari denac ez daki zeden egiazco giristino bizia; ez daki zembatenaz ere giristino bat batasun handiagoan bizi baita Elizarekin, eta

hambatenaz ere giristino hobea dela,
Jaincoaren ganic hurbilago.

Maita beraz, maita Elizarekin othoitzean haritza. Mezaren ondotic guzien gainetic maita igandetaco bezperac; ofizioco othoitzac dire, Elizaren othoitzac, Elizac, bere haurrac bilduric, bere Espos sacratuaren ohoratzeko ahal bezan ederki egiten dituen othoitzac; eta bertzalde, Jesu-Cristoc errana eta hitzeman da, zembeit lagun bilduac direnean haren othoizteco, bezperetan beza-la, han izanen dela heien erdian heien othoitzaren hobeki entzuteco.

Maiz bezperetan dabilana, hogoiataric hemeretzietan, giristino ona izanen da. Eta, errechki ibil ditakelaric, maiz bezperac huts egiten dituena, hogoiataric hemeretzietan giristino ahula.



ANDRE-DENA MARIAREN OFIZIO TTIKIA (1)

BESPERAC

Agur Maria... (*ahapetic*). Ave Maria...

Phertsuz. Jaincoa, *V.* Deus, in adjutorium meum intende.

Ihardesta. Jauna, *R.* Domine, ad adjuvandum me festina.

ene laguntzerat laster
egizu. *V.* Gloria Patri, et
Sainduari. *Filio, et Spiritui Sancto.*

I. Hastapenean zen
bezala, eta orai, eta beti, *R.* Sicut erat in principio, et nunc et

(1) Ofizio osba erraten da gauerditic gauerdilrat : *Matutinac*, *Laudesac* eta *Oren Chumeac*, eguerdi aintzinean; *Bezperac* eta *Completag*, eguerdi ondoan. Bizkitartean, *Matutinac* eta *Laudesac* erran ditazke bezperatic, udan arratsaldeko lau orenetaric, neguan hiru orenetaric lecora.

semper et in sæcula eta menderen mende-
sæculorum. Amen. tan. Halabiz. *Alleluia*(1)
(Alleluia).

Ant. Dum esset *Antifona.* Erregea
rex. zelaric.

109^{sacred} Psalmoa

Dixit Dominus Do- Jaunac erran dio-
mino meo : * sede à Jaunari : jar zaite ene-
dextris meis. escuinean.

Donec ponam ini- Nic zure etsaiac ez-
micos tuos scabellum arri artean zure oinen-
pedum tuorum. peco alki.

Virgam virtutis tuæ Zure indarrezco zi-
emittet Dominus ex gorra Jaunac Sionetic
Sion : * dominare in igorriren du : izan zaite
medio inimicorum tu- nausi zure etsaien er-
orum. dian.

Tecum principium Zure nausitasuna
in die virtutis tuæ in agerico da zure indar-
splendoribus sancto- rezco egunean , sain-
rum ; * ex utero ante duen distiraduren ar-
luciferum genui te. tean : ene erraietaric
argi - izarraz - goizago
atera zaitut.

(1) Hitz harrerrec erran n. hi du : *Lauda bedi Jauna.*

Zin egin du Jaunac,
eta etzaio damuturen :
zu seculacotz Melchise-
deren molderaco aphez
zare.

Jauna zure escuin-
taric dago; bere hasarr-
reco egunean chehatu-
ren ditu erregeac.

Jendetzen artean juje
jarrico da, osoki hon-
datuco ditu, hainitzen
buruac lurrean leher-
tuko.

Ibaietic bidean eda-
nen du : horren-gatic
burua altchaturen.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Antif. Erregea zela-
ric bere etzantzan, ene
nardoac (1) usainic
gozoena eman du.

Antif. Haren ezkerra.

Juravit Dominus ,
et non pœnitabit eum :
tu es sacerdos in æter-
num secundum ordi-
nem Melchisedech.

Dominus à dextris
tuis, confregit in die
iræ suæ reges.

Judicabit in natio-
nibus , implebit rui-
nas : conquassabit
capita in terrâ multo-
rum.

De torrente in viâ
bibet, proptereâ exal-
tabit caput.

Gloria Patri, etc.

Ant. Dum esset rex
in accubitu suo, nar-
dus mea dedit odorem
suavitatis.

Ant. Læva ejus.

(1) Usain oncez olio bat.

131.^{arron} Psalmoa

Laudate, pueri, Dominum, laudate nomen Domini.

Sit nomen Domini benedictum, ex hoc nunc et usquè in sæculum.

A solis ortù usquè ad occasum, laudabile nomen Domini.

Excelsus super omnes gentes Dominus, et super cœlos gloria ejus.

Quis sicut Dominus Deus noster, qui in altis habitat, et humilia respicit in cœlo et in terrâ?

Suscitans à terrâ inopem, et de stercore erigens pauperem.

Ut collocet eum cum

Lauda zazue, zerbitzariec, Nausia; lauda Jaincoaren izena.

Izan bedi Jaunaren izena benedicatua, orai che huntaric eta menderen mendetan.

Iguzkia ateratzen den tokitic sartzen den tokiraino, laudatu beharra da Jaunaren izena

Jendetze guziez gorago altchatua da Jau na, eta zeruez gorago haren loria.

Nor duke pareric gure Jainco Jaun gai netan dagoenac, eta zerruan ala lurrean apha leri behatzen diotenac.

Altchatzen du lurretic herbaila, eta erro mesa ongarritic jalgitzen.

Harren ezartzeko bu

ruzagiekin, bere populuaren buruzagiekin.

Etchean agor zagon emaztea, egiten du asco haurren ama bozcariotua.

Loria Aitari... (eta gaineratecōāc).

Antif. Haren ezkerra nere buru gibelean, eta haren escuinac besarcituco nau.

Antif. Beltza naiz.

Bozcario! u naiz erran izan zaizkidan hautan : Jaincoaren etcherat joanen gare.

Bazauden gure oinac zure athetan, ô Jerusalem.

Jerusalem, hiri baten paro egina zarena, non guziac guzienac baitire.

Harat alabainan igan

principibus, cum principibus populi sui.

Qui habitare facit sterilem in domo, matrem filiorum lætantem.

Gloria Patri, etc...

Ant. Læva ejus sub capite meo, et dextera illius amplexabitur me.

Ant. Nigra sum.

121^{garren} Psalmoa

Lætatus sum in his quæ dicta sunt mihi : in domum Domini ibimus.

Stantes erant pedes nostri in atriis tuis, Jerusalem.

Jerusalem quæ ædificatur ut civitas, cuius participatio ejus in idipsum.

Illùc enim ascende-

runt tribus , tribus
Domini, testimonium
Israel, ad confitendum
nomini Domini.

Quia illic sederunt
sedes in judicio, * se-
des super domum Da-
vid.

Rogate quæ ad pa-
cem sunt Jerusalem, *
et abundantia diligen-
tibus te.

Fiat pax in virtute
tuâ , * et abundantia
in turribus tuis.

Propter fratres meos
et proximos meos, *
loquebar pacem de te.

Propter domum Do-
mini Dei nostri * quæ-
sivi bona tibi.

Gloria Patri, etc...

dire jendakiac, jendaki
Jaincoarenac , Izraeli
manatu zaion bezala
Jaunaren izenaren go-
resteco.

Han fincatuac dire-
lacotz jujen alkia, Da-
biten etcheco errege-
alkiac.

Galde zazue bakhea
Jerusalematzat , eta
nasaitasunean bizi hitez
zu maite zaituztenac (oi
Jerusalem).

Bakhea izan bedi zure
harrasi barnetan , eta
nasaitasuna zure egoi-
tza ederretan.

Nere anaien eta nere
hurbilecoen gatic min-
tzo nintzan bakhez zu-
retzat.

Gure Jainco Jauna-
ren etchearen gatic dut
zure ongia bilhatu.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Antif. Beltza naiz,
bainan ederra, Jerusa-
lemēco nescatchac: hor-
rengatic nau Erregec
maitatu, eta bere egoi-
tzan sarrarazi.

Antif. Ja negua ira-
gan da. - -

Ant. Nigra sum,
sed formosa, filiae Je-
rusalem : ideò dilexit
me Rex, et introduxit
me in cubiculum
suum.

Ant. Jàm hiems
transiit.

126^{garren} Psalmoa

Ez badu Jaunac et-
chea obratzen, alferre-
tan hari dire hora obra-
tzen dutenac.

Ez badu Jaunac hi-
ria zaintzen, alferretan
dago atzarriric hora
zaintzen duena.

Debalde duzue argi
aintzinean jekitzea :
jeki zaitezte pausatu
ondoan, atsegabezco
ogia jaten duzuenac.

Pausua bere maiteri
eman dioten ondoan,
huna non Jaincoac

Nisi Dominus ædi-
ficaverit domum, in
vanum laboraverunt
qui ædificant eam.

Nisi Dominus cus-
todierit civitatem,
frustra vigilat qui cus-
todit eam.

Vanum est vobis
antè lucem surgere :
surgite postquam se-
deritis, qui manduca-
tis panem doloris.

Cùm dederit dilectis
suis somnum : ecce
hæreditas Domini, fi-

lii : merces, fructus ventris.

Sicut sagittae in manu potentis, ita filii excusorum.

Beatus vir qui implavit desiderium suum ex ipsis; non confundetur, cum loquetur inimicis suis in portâ.

Gloria Patri, etc.

Ant. Jàm hiems transiit, imber abiit et recessit : surge, amica mea, et veni.

Ant. Speciosa facta es.

ematen diozcaten, primantzatzat : haurrac ; saritzat : sableco fruituac.

Nola *fletchac* (1) gizon indartsuaren escuau, hala osticatuuen semeac.

Dohatsu hetaric bere nahiaren bethe dukena : ez du ahalkeric izanen, bere etsaieri hiri athean mintzaturen zaiotenean.

Loria Aitari... (eta gaineratecoac).

Antif. Ja negua iragan da, joan dire eta urrundu uriteac ; jeki zaite, nere adichkidea, eta zatozkit.

Antif. Ederra egina zare.

(1) Burdin ziri bat, buru batetic chorroch-tua. Lehenago, gerlan, orai chizparekin *balac* bezala, *fletchac* igortzen, *tiratzen* ziren *arcuarekin*.

147;^{avven} Psalmoa

Lauda zazu Nausia,
Jerusalem; lauda zure
Jaincoa, Sion.

Zeren hazcartu di-
tuen zure athe-heste-
coac, benedicatu zure-
kin dauzcatzun semeac.

Harrec du ezarri zure
mugetan bakhea, eta
ogi bihotzetic asean
zauzca.

Harrec dio bere hitza
lurrari igortzen: laster
dabila haren errana.

Harrec du ilearen pare
elhurra ematen, lanhoa
hautsaren pare hedat-
zen.

Igortzen du bere hor-
ma ogi pusken pare:
haren hotzari buruz
norci duke ihardokiren?

Igorrico du bere hi-
tza, eta hec urthuren
ditu: ufatuco du haren

Lauda, Jerusalem,
Dominum: lauda
Deum tuum, Sion.

Quoniam conforta-
vit seras portarum
tuarum, benedixit
filiis tuis in te:

Qui posuit fines
tuos pacem: et adipe
frumenti satiat te.

Qui emittit eloquium
suum terræ; velociter
currit sermo ejus.

Qui dat nivem sicut
lanam, nebulam sicut
ut cinerem spargit.

Mittit crystallum
suam sicut buccellas:
antè faciem frigoris
ejus quis sustinebit?

Emitte verbum
suum, et liquefaciet
ea: flabit spiritus

ejus, et fluent aquæ. haizeac, eta uretan joanen dire.

Qui annuntiat verbum suum Jacob, justitias et judicia sua Israel.

Non fecit taliter omni nationi, et iudicia sua non manifestavit eis.

Gloria Patri, etc.

Ant. Speciosa facta es et suavis in deliciis tuis, Sancta Dei Genitrix.

Harrec diozca adiarazten bere hitzac Jacobi; bere nahi zuzenac eta legeac Israeli.

Ez diote holachet egin jendetze orori, eta bere legeac ez diozcazle agertu.

Loria Aitari... (eta gaineratecoac).

Antif. Ederra egina zare eta zure gozoetan amultsu, ô Jaincoaren Ama Saindua.

Capitulua

Ab initio et antè sæcula creata sum, et usquè ad futurum sæculum non desinam, et in habitatione sanctâ coram ipso ministrai.

R. Deo gratias.

Haste hastetic eta mendez goizago egina naiz; eta ez naiz gero seulan ezeztatua izzanen; eta egoitza sainduan, Jaincoaren aintzinean, haren zerbitzari izan naiz.

I. Jaincoari eskerrac.

Himnoa

Agur, itsas-izarra,
Jaincoaren Ama amul-
tsua,
Eta beti birjina,
Zeruko athe dohatsua.

Harturic Ave hura
Gabrielen ahotic, [an,
Finca gaitzatzu bakhe-
Itzuliz Evaren (1) izena.

Hauts-otzute gatheac
hobenduneri
Argia ekhar itzueri;
Gaitzac guitaric urrunt
zatzu,
Ongi guziac guretzat
esca.

Ager azu amazarela;
Onhets betza zutaz gure
othoitzac
Gure gatic sorturic
Zurea izatea jasan due-
nac.

Ave, maris stella,
Dei mater alma,
Atque semper virgo,
Felix cœli porta.

Sumens illud Ave
Gabrielis oræ,
Funda nos in pace,
Mutans Evæ nomen.
Solve vincla reis,
Profer lumen cæcis,
Mala nostra pelle,
Bona cuncta posce.

Monstra te esse ma-
trem,
Sumat per te preces,
Qui, pro nobis natus,
Tulit esse tuus.

(1) *Ave*. Hitz horrek latinez erran nahi du : agur. Eta hitz hori gibel aintzin hartuz, itzuliz, heldu da : *Eva*.

- Virgo singularis,
Inter omnes mitis,
Nos culpis solutos
Mites fac et castos.
- Vitam præsta pu-
ram,
Iter para tutum,
Ut videntes Jesum
Semper collætemur.
- Sit laus Deo Patri,
Summo Christo de-
cus,
Spiritui Sancto,
Tribus honor unus.
- Amen.
- ¶. Diffusa est gra-
tia in labiis tuis.
- R. Propterea bene-
dixit te Deus in æter-
num.
- Ant. Beata Mater.
- Birjina paregabecoa,
Ororen artean eztia,
Gure huts etaric libra-
turic
- Ezti egin gaitzatzu eta
garbi.
- Eman iezaguzu bizi-
tze garbi bat,
Idec bide segur bat,
Jesus icustearekin
Elgarrekin beti bozca-
riatzeco.
- Laudorio dagiola
Jainco Aitari,
Loria Cristo guziz han-
diari,
Halaber Izpiritu-Sain-
duari,
Ber-ohore hirueri.
Halabiz.
- Ph. Grazia hedatua
da zure espainetan.
- I. Horren-gatic zaitu
Jaincoac betierecotz be-
nedicatu.
- Antif. Ama doha-
tsua.

Mariaren cantica

**Ene arimac goresten
du Jaun-Haundia.**

**Eta ene izpiritua boz-
carioz jauzi da , ene
Jainco Salbatzailea bai-
tan.**

**Zeren bēre nescatoa-
ren aphaltasunari be-
hatu baitio : eta huna
non oraidanic dohatsu
deituren nauten sortu
diren guziec.**

**Ezen gauza handiac
egin dauzkit guziz bo-
theretsua denac , eta
saindua da haren izena.**

**Eta haren urrical-
mendua haurretaric
haurretarat hedatzen
da , haren beldurra
daucatenetan.**

**Indar egin du bere
besoaz, barraiatu ditu
beren bihotzeco gogoe-
tetan hampatuac zaude-
nac.**

**Magnificat anima
mea Dominum.**

**Et exultavit spiritus
meus, in Deo salutari
meo.**

**Quia respexit humi-
litatem ancillæ suæ ;
ecce enim ex hoc bea-
tam me dicent omnes
generationes.**

**Quia fecit mihi ma-
gna qui potens est,
et sanctum nomen
ejus.**

**Etmisericordia ejus
à progenie in proge-
nies timentibus eum.**

**Fecit potentiam in
brachio suo : disper-
sit superbos mente
cordis sui.**

Deposuit potentes
de sede; et exaltavit
humiles.

Esurientes implevit
bonis, et divites di-
misit inanes.

Suscepit Israel pue-
rum suum, recorda-
tus misericordiae suæ.

Sicut locutus est ad
patres nostros, Abraham et semini ejus in
sæcula.

Gloria Patri, etc.

Ant. Beata Mater
et intacta Virgo, glo-
riosa Regina mundi,
intercede pro nobis ad
Dominum.

Kyrie, eleison. Chri-
ste, eleison. Kyrie, eleison.

Artiki ditu bothere-
retsuac beren jar-to-
kietaric; aphalac aldiz
altchatu.

Gose zirenac bethe
ditu ontasunez, eta abe-
ratsac hutsic igorri.

Israel bere zerbitza-
ria hartu du bere geri-
zan, orhoituric bere ur-
ricalmenduaz.

Hitzeman zioten be-
zala gure aiteri, Abra-
hami eta haren seculaco
ondocoeri.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Antif. Ama dohat-
sua, eta notha gabeco
Birjina, munduko Er-
regina loriosa, izan
zaite Jaincoaren aintzi-
nean gure ararteko.

Jauna, urrical ga-
kizkitzu. Cristo, urri-
cal gakizkitzu. Jauna,
urrical gakizkitzu.

Ph. Jauna, entzun-
azu ene othoitza.

Ih. Eta ene oihua
zutarat hel bedi.

V. Domine, exaudi
orationem meam.

R. Et clamor meus
ad te veniat.

OTHOITZA.

Emaguzu gu zure
zerbitzariēri , othoi ,
Jainco Jauna, arimaco
eta gorphutzeco osasun
betierecoaz gozatzea ,
eta Maria dohatsu beti
Birjinaren arartecota-
sunaz , oraico bihotz-
minetaric libratuac iza-
tea, eta seculaco zorio-
naz jabetzea. Cristo
gure Jaunaz. Halabiz.

Ph. Fededunen ari-
mac, Jaincoaren urri-
calmenduz , bakhean
dagotzila. Halabiz.

Gure Aita...

OREMUS.

Concede nos famu-
los tuos, quæsumus,
Domine Deus, perpe-
tuâ mentis et corporis
sanitate gaudere : et
gloriosâ beatæ Mariæ
semper Virginis inter-
cessione, à presenti
liberari tristitiâ, et æ-
ternâ perfrui lætitiâ.
Per Dominum no-
strum, etc.

V. Fidelium animæ,
per misericordiam Dei,
requiescant in pace.
Amen.

Pater noster...

COMPLETAC

Ave Maria... Agur Maria... (*ahapetic*).

¶. Converte nos,
Deus salutaris noster.

Ph. Onerat itzul gaitzatzu, Jainco gure Salbatzailea.

R. Et averte iram
tuam à nobis.

Ih. Eta bazter zazu
zure hasarregoa gure
ganic.

¶. Deus, in adjuto-
rium meum intende.

Ph. Jauna, egizu ene
laguntzerat.

R. Domine, ad ad-
juvandum me festina.

Ih. Jauna, ene lagun-
tzerat laster egizu.

Gloria Patri, etc.

Loria Aitari... (eta
bertzeac, bezperetan
bezala).

128^{aren} Psalmoa

Sæpè expugnave-
runt me à juventute
meā, dicat nunc Is-
rael.

Maiz, gazte nintza-
netic, jazarri zaizkit,
erran beza orai Israe-
lec.

Sæpè expugnave-

Maiz, gazte nintza-

netic, jazarri zaizkit ; bainan ezin niri deus egin.

Ene bizcarraren gainean hari izan dire behatoreac ; luzaz iraundute heien gachtake-riecc.

Jainco zuzenac lurreratu ditu behatoren buruac : ahalca bitez eta gibelerat itzul, Sion hastio dutenac oro.

Egin bitez teiletaco belhar, khendu baino lehen, ihartzen denaren pare.

Hartaric ez baitu escua betheco ephaileac, ez eta ere galtzarra azau (1) biltzaileac.

Eta ez dute erran iragaiten zirenec : Jain-

runt me à juventute meà, etenim non potuerunt mihi.

Suprà dorsum meum fabricaverunt peccatores ; prolongaverunt iniquitatem suam.

Dominus justus concidit cervices peccatorum : confundantur et convertantur retrorsùm omnes qui oderunt Sion.

Fiant sicut fœnum tectorum , quod , priusquam evellatur , exaruit.

De quo non implevit manum suam qui metit, et sinum suum qui manipulos colligit.

Et non dixerunt qui præteribant : benedi-

(1) *Azaua*, tokî batzuetan deitzen da : *pia laedo iżphala*.

ctio Domini super vos; benediximus vobis in nomine Domini. coaren benedizionea dela zuen gainerat; benedicatzen zaituztegu Jaunaren izanean.

Gloria Patri, etc.

Loria Aitari... (eta gaineratecoac).

129; arren Psalmoa

De profundis clamaui ad te, Domine; Domine, exaudi vocem meam.

Fiant aures tuæ intendententes in vocem deprecationis meæ.

Si iniquitates observaveris, Domine, Domine, quis sustinebit?

Quia apud te propitiatio est, et propter legem tuam, sustinuite Domine.

Sustinuit anima mea in verbo ejus, spera-

Leze zoletaric oihu egin dautzut, Jauna; Jauna, ene oihua entzun-azu.

Zure beharriac oharbitez ene othoitzaren auhenari.

Gachtakerieri behatzten badiozute, Jauna, Jauna, norc du ihardokiren?

Zure baitaric barkhaterat ekharria zarelacotz, eta hori duzulacotz legetzat, zuri beha egotu naiz, Jauna.

Beha egotu da ene arima haren hitzaren

gainean; nere arimac
esperantza izan du Jau-
na baitan.

Goizeco beilatic eta
arratseraino, Israelec
esperantza izan beza
Jaunaren baitan.

Urrical mendua Jauna
baitan delacotz, eta har-
ren baitan erospen na-
saia.

Eta berac du Israel
bere macur guzietaric
libraturen.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

vit anima mea in Do-
mino.

A custodiâ matuti-
nâ usque ad noctem
speret Israel in Do-
mino.

Quia apud Domi-
num misericordia, et
copiosa apud eum re-
demptio.

Et ipse redimet Is-
rael, ex omnibus
iniquitatibus ejus.

Gloria Patri, etc.

130^{garren} Psalmoa

Jauna, ez da ene bi-
hotza hampatu; eta nere
begiac ez dire altchatu.

Ez naiz handi lerroan
ibili, ez eta ere nitaz
goragoco espantuetan.

Baldin ez baninda-
gon aphal ene ustetan,

Domine, non est
exaltatum cor meum,
neque elati sunt oculi
mei.

Neque ambulavi in
magnis, neque in
mirabilibus super me.

Si non humiliter
sentiebam, sed exal-

tavi animam meam.

Sicut ablactatus est
super matre suâ, ita
retributio in animâ
meâ.

Speret Israel in Do-
mino, ex hoc nunc
et usquè in sæculum.

Gloria Patri, etc.

bainan sobra goratu
badut ene arima,

Amac bulharra khen-
du dionari bezala, hala
hala gerta dakiola nere
arimari.

Esperantza izan beza
Israelec Jaunaren bai-
tan, oraiche-danic eta
menderen mendetan.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Himnoa

Memento , rerum
Conditor,

Nostri quod olim cor-
poris

Sacratâ ab alvo Vir-
ginis

Nascendo formam
sumpseris.

Maria Mater gra-
tiæ,

Dulcis Paren̄s cle-nen-
tiæ,

Orhoit zaite, guzien
Egilea,

Egun batez gure gor-
phutzeco molde
bera

Birjinaren sabel sacra-
tutic

Sortzean hartu duzula.

Maria , ġraziaren
ama,

Barkhamen luaren ith-
urburu eztia,

Zuc etsaietic begira Tu nos ab hoste pro-
gaitzatzu, tege,
Eta zurekin har herio- Et mortis horâ susci-
tzeco orenean. pe.
Loria zuri, Jesus, Jesu, tibi sit gloria,
Birjina ganic sortu za- Qui natus es de Vir-
renari, gine,
Aitarekin eta Izpiritum Cum Patre et almo
Sainduarekin, Spiritù,
Betiereco mendetan. In sempiterna sæcula.
Halabiz. Amen.

Capitulua

Ni naiz amodio eder-
raren, eta beldurraren
eta jakitatearen, eta es-
perantza sainduaren
ama.

I. Jaincoari eskerrac.
Ph. Othoitz egizu
guretzat, Jaincoaren
Ama Saindua.

Ih. Cristoc hitzema-
nac merezi detzagun-
tzat.

Antif. Zure geriza-
rat.

Ego mater pulchræ
dilectionis, et timoris
et agnitionis, et sanctæ
spei.

R. Deo gratias.
V. Ora pro nobis,
Sancta Dei Genitrix.

R. Ut digni efficia-
mur promissionibus
Christi.

Ant. Sub tuum præ-
sidiū.

Simeonen Cantica

Nunc dimittis ser-
vum tuum, Domine, secundùm verbum
tuum in pace.

Quia viderunt oculi
mei salutare tuum.

Quod parasti, ante
faciem omnium popu-
lorum.

Lumen ad revela-
tionem gentium, et
gloriam plebis tuæ Is-
rael.

Gloria Patri, etc.

Ant. Sub tuum præ-
sidium configimus,
Sancta Dei Genitrix;
nostras deprecationes
ne despicias in neces-
sitatibus; sed à peri-
culis cunctis libera
nos semper, Virgo
gloriosa et benedicta.

Kyrie, eleison. Chris-

Orai, Jauna, utz-azu
zure zerbitzaria, zure
hitzaren arabera, ba-
khean joaterat.

Ene begiec icusi du-
tenaz geroz zure salba-
garria.

Ezarri duzuna popu-
lu guzien arpegien
aintzinean.

Jendetzeic icusteco
argi, eta Israel zure
populuaren ohore.

Loria Aitari... (eta
gaineratecoac).

Ant. Zure gerizarat
ihes egiten dugu, Jain-
coaren Ama Saindua;
gure othoitzac ez det-
zatzula gure behar-or-
duetan arbuia; bainan
atheca gachto guzieta-
ric atera gaitzatzu beti,
Birjina lorios eta bene-
dicatua.

Jauna, urrical ga-

kizkitzu. Cristo, urri-
cal gakizkitzu. Jauna,
urrical gakizkitzu.

Ph. Jauna, entzun-
azu ene othoitza.

Ih. Eta ene oihua zu-
tarat hel bedi.

OTHOITZA.

Maria beti Birjina
dohatsu eta loriosaren
arartecotasun loriosac,
othoi, Jauna, begira
gaitzala, eta helaraz
betiereco bizitzerat.
Halabiz.

Ph. Jauna, entzun-
azu ene othoitza.

Ih. Eta ene oihua
zutarat hel bedi.

Ph. Benedica deza-
gun Jauna.

Ih. Jaincoari esker-
rac.

Benedizionea. Bene-
dica eta begira gaitzala
guziz botheretsu eta

te, eleison. Kyrie, e-
leison.

ÿ. Domine, exaudi
orationem meam.

R. Et clamor meus
ad te veniat.

OREMUS.

Beatae et gloriosae
semperque Virginis
Mariæ, quæsumus,
Domine, intercessio
gloriosa nos protegat,
et ad vitam perducat
æternam. Amen.

ÿ. Domine, exaudi
orationem meam.

R. Et clamor meus
ad te veniat.

ÿ. Benedicamus
Domino.

R. Deo gratias.

Benedictio. Bene-
dicat et custodiat nos
omnipotens et miseri-

cors Dominus, Pater, urricalmendutsu den
et Filius, et Spiritus Jaun, Aita, Seme eta
Sanctus. Izpiritua Sainduac.

R. Amen.

Ih. Halabiz.

Birjina Sainduari Antifonac

In Adventu.

Alma Redemptoris
Mater, quæ pervia
cœli porta manes, et
stella maris, succurre
cadenti, surgere qui
curat populo : tu quæ
genuisti, naturâ mi-
rante, tuum sanctum
genitorem, Virgo priùs
ac posteriùs, Gabrie-
lis ab ore sumens illud
ave, peccatorum mi-
serere.

¶. Angelus Domini
nuntiavit Mariæ.

Abendoan.

Eroslearen Ama gar-
bia, zeruko athe beti
idekia, eta itsasoco
izarra, hel zakizkio
erortzen hari den, bai-
nan altchatu nahi luken
populuari : oi zu, natu-
raleza harritua zagola-
ric, sorrarazi zaituena
sorrarazi duzuna; ain-
tzinean eta ondoan Bir-
jina, Gabrielen ahotic
agur hora ukhan du-
zuna, bekhatorosac
urrical dakizkitzu.

Ph. Jauñāren Ain-
geruac mezutu zion
Mariari,

R. Et concepit de

Ih. Eta contzebitu

zuen Izpiritua Saindua- Spiritù Sancto.
ren ganic.

OTHOITZA.

Zure grazia, othoi
Jauna, gure arimetarat
ichur-azu, amoreagatic
eta, Aingeruac mezutu-
ric, Cristo zure Semea-
ren gizon egitea eza-
gutu dugunac, haren
pasionearen eta guru-
tzearen bidez, piztearen
loriarat hel gaitezten.
Ber Cristo gure Jaunaz.
Halabiz.

(*Abendotic Purifica-
zione artean*) :

Eroslearen Ama.....
(*gorago bezala*).

Ph. Haurra izan eta
ere osoki Birjina zare
gelditu.

OREMUS.

Gratiam tuam, quæ-
sumus, Domine, men-
tibus nostris infunde;
ut qui, Angelo nun-
tiante, Christi Filii tui
incarnationem cognos-
cimus, per passionem
eius et crucem ad re-
surrectionis gloriam
perducamur. Per eum-
dem Christum Domini-
num nostrum. Amen.

(*A vesper. Sabb.
antè Dom. primam
Advent. usquè ad Pu-
rificationem inclusi-
vè*) :

Alma Redemptoris,
ut suprà.

¶. Post partum
Virgo inviolata per-
mansisti.

R. Dei Genitrix, intercede pro nobis.

Ih. Jaincoaren Ama, izan zaite gure bitarteko.

OREMUS.

Deus, qui salutis æternæ, beatæ Mariæ virginitate fœcundà, humano generi præmia præstitisti : tribue quæsumus; ut ipsam pro nobis intercedere sentiamus, per quam meruimus auctorem vitæ suscipere Dominum nostrum Jesum Christum Filium tuum.

Jainco, Maria doha-hatsuaren Birjinitate fruitudunaren bidez, gizonaren ethorkiari salbamendu eternalarren bahia eman diozuna : iguzu, othoi, bizia-ren ithurburua, zure Seme Jesu Cristo gure Jauna eman daucun hura bera arartecotzat balia dakigun.

Ih. Halabiz.

R. Amen.

Purificationetic Bazco artean.

Ave, Regina cœlorum,	Agur, zeruko Erregina,
Ave, Domina Angelorum :	Agur, Aingeruen manatzailea,
Salve, Radix, salve, Porta,	Agur, Erroa, agur, Athea,

- Nondic baitzaio mun- Ex quâ mundo lux
duari argia atera. est orta.
- Bozcaria zaite, Birjina Gaude, Virgo glorio-
loriosa,
- Oroz gainetic ederra Super omnes specio-
zarena :
- Agur, ô guziz distianta, Vale, ô valdè decora,
Cristo dezazula gure- Et pro nobis Christum
tzat othoitz.
- Ph.* Onhets-azu lau- ÿ. Dignare me
da zaitzadan, Birjina laudare te, Virgo sa-
sacrata.
- Ih.* Indar emadazu R. Da mihi virtu-
zure etsaieri buruz. tem contra hostes tuos.

OTHOITZA.

Jainco urricalmen-
dutsua, emaguzu gure
herbaitasunean lagun-
tza; amoreoa-gatic eta,
Jaincoaren Ama Sain-
duaren orhoitzapena
egiten dugunac, haren
arartecotasunaren in-
darrez gure urhats ma-
curretaric atera gaite-
zen. Ber Cristo gure
Jaunaz. Halabiz.

OREMUS.

Concede, miseri-
cors Deus, fragilitati
nostræ præsidium :
ut qui Sanctæ Dei Ge-
nitricis memoriam
agimus, intercessionis
ejus auxilio à nostris
iniquitatibus resurga-
mus. Per eumdem
Christum Dominum
nostrum.

Amen.

(Tempore Paschali).	<i>Bazco demboran.</i>
Regina cœli, lætare, Zeruco Erregina, boz-	caria zaite, alleluia.
alleluia.	
Quia quem meruisti portare, alleluia.	Zeren garraiatzea me-
Resurrexit sicut dixit,	rezitu duzuna, allel.
alleluia.	Piztu baita berac erran
Ora pro nobis Deum,	bezala, alleluia.
alleluia.	Othoitz - azu guretzat
¶. Gaude et lætare,	Jaincoa, alleluia.
Virgo Maria, alleluia.	<i>Ph.</i> Bozcaria zaite
R. Quia surrexit	eta alegera, Birjina Ma-
Dominus verè, alle-	ria, alleluia.
luia.	<i>Ih.</i> Jauna egiazki
	piztu delacotz, alleluia.

OREMUS.

OTHOITZA.

Deus, qui per resurrectionem Filii tui Domini nostri Jesu Christi mundum læticare dignatus es : præsta quæsumus; ut per ejus Genitricem Virginem Mariam perpetuæ capiamus gaudia vitæ. Per eum- Jainco, zure Seme Jesu Cristo gure Jau- naren pizteaz mundua bozcariatu nahi izan duzuna: emaguzu othoi, haren Ama Birjinaren arartecotasunaz, betiereco bizitzearen zorio- naz jabe egitea. Ber Cristo gure Jaunaz.

Halabiz.

*Trinitatetic Abendoa
arrean :*

Agur, Erregina, ur-
ricalmenduaren ama ,
gure bizia, gure gozoa,
gare esperantza, agur.
Zuri gagotzu oihuz ,
Ebaren haur desterra-
tuac; zuri hatsbehera-
penez, auhenez eta mar-
rascaz, nigarrezco ha-
ran huntan. Hots beraz,
gure arartecoa, zure
begi amultsu horiec gu-
ganat itzul-atzu. Eta
.Jesus zure sabeleko frui-
tu benedicatua, dester-
ru huntaric lecorat ira-
cuts iezaguzu! Oi beti
barkhatzerat, oi beti
ongi egiterat ekharria,
oi beti eztia zaren Bir-
jina Maria.

dem Christum Domi-
num nostrum. Amen.

(*A primis Vesperis
Festi SS. Trinitatis
usquè ad Nonam sab-
bati antè Adventum*) :

Salve, Regina, ma-
ter misericordiæ, vita,
dulcedo, et spes nostra
salve. Ad te clamamus
exules, filii Hevæ. Ad
te suspiramus gemen-
tes et flentes in hac
lacrymarum valle. Eia
ergo, advocata nostra,
illos tuos misericordes
oculos ad nos conver-
te. Et Jesum benedi-
ctum fructum ventris
tui nobis post hoc
exilium ostende. O
clemens, o pia, o dul-
cis Virgo Maria.

V. Ora pro nobis,
sancta Dei Genitrix.

Ph. Othoitz egizu
guretzat Jaincoaren
Ama Saindua.

R. Ut digni efficia-
mur promissionibus
Christi.

Ih. Cristoc bitzema-
nac merezi detzagun-
tzat.

OREMUS.

Omnipotens sempi-
terne Deus, qui glo-
riosæ Virginis Matris
Mariæ corpus et ani-
mam, ut dignum Filii
tui habitaculum effici
mereretur, Spiritù
Sancto cooperante
præparasti: da, ut cu-
jus commemoratione
lætamur, ejus piâ in-
tercessione ab instan-
tibus malis et à morte
perpetuâ liberemur.
Per eumdem Christum
Dominum nostrum.
Amen.

OTHOITZA.

Betiereco Jainco gu-
ziz botheretsua, Ama
Birjinaren gorphutza
eta arima, zure Semeari
zoacon egoitza bilhaca
zitezentzat, Izpiritu
Sainduaren obraz mol-
datu ditutzuna; ema-
guzu, haren orhoitza-
penac alegeratzen gai-
tuen bezala, haren arar-
tecotasun amultsuac,
hertsatzen gaituzten
gaitzetalic, bai eta be-
tiereco heriotzetic li-
bra gaitzan. Ber Cri-
sto gure Jaunaz.
Halabiz.

MATUTINAC

Agur Maria... (ahapetic).

Ph. Jauna, ene ez-painac idekiren ditutzu.

Ih. Eta ene ahoac adiarazico du zure laudorioa.

Ph. Jaincoa, egizu ene laguntzerat.

Ih. Jauna, ene laguntzerat laster egizu.

Loria Aitari... (eta gaineratecoac).

Ave Maria...

ŷ. Domine, labia mea aperies.

R. Et os meum annuntiabit laudem tuam.

ŷ. Deus, in adjutorium meum intende.

R. Domine, ad advandum me festina.

Gloria Patri, etc.

Deia

Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin.

(*Denec errempica*) : Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin.

Ph. Zatozte, bozcaria gaiten Jaincoari buruz,

Ave, Maria, gratiæ plena, Dominus tecum.

(*Repetitur*) : Ave, Maria, gratiæ plena, Dominus tecum.

ŷ. Venite, exulte-

mus Domino, jubi-

lemus Deo salutari nostro ; præoccupemus faciem ejus in confessione, et in psalmis jubilemus ei.

R. Ave, Maria, gratiâ plena, Dominus tecum.

℣. Quoniam Deus magnus Dominus et Rex magnus super omnes deos; quoniam non repellat Dominus plebem suam; quia in manu ejus sunt omnes fines terræ, et altitudines montium ipse conspicit.

R. Dominus tecum.

℣. Quoniam ipsius est mare, et ipse fecit illud, et aridam fundaverunt manus ejus;

bozcaria goraki gure Jainco salbatzaileari buruz; aintzin dezagun haren hasarrea gure aithormenez, eta gure cantuez dezagun handiets.

Ih. Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin.

Ph. Zeren Jauna Jainco handia baita, Errege handi jainco-orde guziez goragocoa; zeren ez baitu Jaunac berre populua arbuiatzen; zeren haren escuetan baitire lurraren muga guziac, eta mendiric gorenac haren begipean.

Ih. Jauna da zurekin.

Ph. Zereñ harena baita itsasoa, eta berac, egina, eta leihorra haren escuec fincatua :

zatozte, dezagun adora, eta gaiten ahuspezeman rez gaudezen Jaunaren aintzinean, hora delacotz gure Jainco Jauna, gu aldiz haren bazcaco ardiac. - .

Ih. Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin.

 nekin bai elizetan bai elizez campo ibil-
 tzen.

*
**

Horietaric guzietaric ageri da, zer de-
 bozione izan behar duen Mariaren haur-
 rac Sacramendu Sainduarentzat, nahi
 balin-badu bere ama zor zaion bezala
 ohoratu, nahi balin-badu bere amaren

urhatseri jarraiki, bere ama bezalacoa izan.

Gorphutz-saindua sacrificio da eta sacramendu; sacrificio mezan, sacramendu comunionean. Beraz mezaco sacrificioa eta Sacramendu Saindua ez dire gauza bera; ez, ez dire hala, eta huna nola.

..

Sacrificioa da Jaincoari zerbeiten escaintzea, ematea : escaintze, emaite hori gabe ez da sacrificioric. Bada, mezan Jaincoari escaintzen zaizco Jesu-Cristoren gorputza eta odola, eta horren-gatic da meza sacrificioa. Bainan gorputz eta odol adoragarri hec Tabernaclean dagotzinean, edo comuniatzen duteneri aphezac ematen diozcatenean, orduan ez dire Jaincoari escaintzen, orduan beraz ez dire sacrificio.

Sacramendu Saindua da mezari buruz fruitua arbolari buruz bezala. Arbolari gabe ez da fruituric. Bainan, arbolak fruitua egin eta ekharri duenean, fruitu hura bildu eta altchatu denean, fruitu hura badago, fruitu harrec irauten du

arbolic berech. — Hala hala, mezaric gabe ez litake Gorphutz-Sainduric; mezan egiten da. Bainan eginez geroz, mezaren fruitua, Gorphutz-Saindua, Elizaren escuetan dago meza ondoan ere; Elizac altchatzen bezala eta oho-rezki atchikitzen du bere aldaretan.

Eta han, Elizaren haurrec nahi dutenean adora dezakete Sacramendu Saindua, nahi dutenean Sacramendu Sainduaz haz ditazke mahain sainduan.

Horra zergatic, Gorphutz-Sainduari buruz, mintzatu behar dugun : lehembizicoric, meza sainduaz : bigarrenecoric, comunione sainduaz : hirugarrenecoric, Sacramendu Sainduari bisita egiteaz.

II. Meza Saindua.

Meza saindua da Jesu-Cristo gure Jau-naren gorphutzaren eta odolaren sacrifizioa, ogiaren eta arnoaren itchuran. Aldarean gurutzean bezala, Jesu-Cristo da sacrificatua, eta Jesu-Cristo sacrificatzaile; ezen apheza Jesusen ordaina da, Jesusen izenean mintzo eta hari da. Mezaco sacrificioa gurutzeco sacrificio

ber-bera da beraz, nahiz bertzela egina. Bai, hala da; eta hala delacotz, ez da eta ez ditake, ez lurrean, ez zeruan, deus meza baino handiagoric, sainduagoric, salbagarriagoric, deus Jaincoa gehiago ohora dezakenic, deus arimerion gehiago egin diezoketenic. Mezan, Jesu-Cristo, Jaincoaren Seme egiazco Jaincoa, Jaincoari escainia zaio! Mezan, Calbarioco sacrificioa, mundua salbatu duena, miliunca mundu salba zetzakena, egiaz erreberritua da! Bai egiaz, guc ez jakinic ere nola, misterioa baita; bai egiaz, nahiz aldarean gurutzean bezala Jesus Jaunac ez duen bere odola ichurtzen, bainan gurutzean ichuria berritz escaintzen.

Ez, ez, dezagun goraki errepica, deusec ez du Jaincoa hala ohoratzen, deusec hala arima graziaz bethetzen, nola mezac. Meza, dio Trentaco contzilioco catichimac, da Jaincoarentzat usain guziz on eta gozozco sacrificioa; mezan eta mezaren bidez, gurutzean Salbatzaileac merezitu graziac gure ganat jausten dire nasaiki eta casic ibaica.

..

Gauza jakina da, deusec ez duela Jaincoa sacrificioac bezembatohoratzen.

Alabainan, bizia duen zerbeit Jaincoaren ohoretan hilez, ahal bezembatean iracusten da, Jaincoa ezagutzen dela gauza guzien nausitzat eta jabetzat. Ezen gauzaric hoherenac harenac balin-badire, nola ez dire bertzeac harenac izanen! Bada, deus ez da bizia balio dueñic. Biziaren aldean zer dire munduko ontasun guziac? Bizia gabe zertaco litazke?

Bertzalde, ohorezco frogatzen bezemba, sacrificioa da Jaincoari buruz amodiozco frogatzen. Bai, gauza bizi bat Jaincoaren ohoretan hiltzen duenac, garbiki iracusten du zer-nahiren egiterat ekharria dela harrentzat; ekharria dela harrentzat, eta harri, ematerat, harenac direlakotz, bere ontasun guziac, bere gorputzeco eta arimako indar eta ahal guziac; ekharria dela, behar balitz, bere biziaren ematerat. Othe da amodiozco frogatzen hoheric, seguragoric, ederragoric? Eta zembatenaz ere sacrificioa hobea baita,

baliosagoa ; hambatenaz ere, bichtan den bezala, Jaincoa hobeki ohoratzen du, hambatenaz chuchenago eta barnago doaco bihotzerat.

Eta horra zergatic ez ditaken deus meza bezalacoric, Jaincoari ohore emateco, amodio iracusteco, atsegin egiteco, mezan Jesus Jauna delacotz aphez eta bitima, beraz : Jaincoa sacrificatua, eta Jaincoa sacrificatzaile.

*
..

Mezac halaber indarric handiena du arimetan bekhatuaren ezeztatzeco, graziaren bizia sorrarazteco eta hazcartzeco.

Bai, segur, mezaco sacrificioac bekhatua ezeztatzen du. Bekhatuan badire hiru gauza ; bekhatua bera ; bekhatuari zor zaion gaztigua ; bekhatuac ematen eta uzten duen gaizkiraco jaidura. Bada hiru gauza horietaric libratzeco, indar handia du mezac.

Lehembizicoric, mezac indar handia du bihotzean urrikiaren sorrarazteco. Jaincoaren ganat itzultzeco nahicunde zerbeit duen bekhatorosa dathorla mezarat ; Jesu-Cristo bere odolaz mintza-

tuco da haren alde, bere Aitaren hasarrea eztituco du, eta bekhatoros gaichoari ardietsico dio egiazco urrikia. Alabainan, Salbatzaileac berac errana da, gorphutz-saindua egin zuenean : Calitz huntan da nere odola, bekhatuuen barkatzeco ichuria izanen dena. — Ez dugu erraten, mezaco sacrificioac bekhatuac barkhatzen dituela bathaioac eta penitentziaco sacramenduac bezala : ez : sacramenduec berec ematen diote arimari graziaren bizia ; mezac aldiz ariman urrikia sorraraziz, gai egiten du barkhamenduaren izateco eta graziazco bizirat itzultzeco. Bainan urrikia denean barkhamendua nahi denean segur da. Eta, diogu berritz ere, urrikiaren sorrarazteco indar handia, arras handia duela mezac.

Bigarrenecoric, indar handia du mezac bekhatuari zor zaion gaztiguaren ezeztatceco. Alabainan, gurutzean hile guretzat egin eta bere Aitari escain ziozcan penitentziac, mezan dauzkigu Salbatzaileac nasaiki ematen, mezaren bidez bereziki ditu gure eta gure escucc egiten. Eta horren-gatic, mezaren in-

darraz ttikituac dire, eta batzuetan oso-ki ezeztatuac, gure bekhatuentzat Jain-coaren justiziari giniozcan zorrac, gure bekhatuentzat jasan behar ginituen gaz-tiguac. Eta, bide nabar hemen errateco, mezaren indar hori baliatzen zaiote ala bizieri, ala hileri. Elizaco Aita guzien arabera, Purgatoriota arimen lagun-tzeco, ez da bide hoberic, laburragoric eta seguragoric, mezaco sacrificioa baino.

Hirugarrenecoric, mezaco sacrificioac indar handia du gutan gaizkiraco jaiduren ezeztatzeco, bereziki comunione saindua egiten bada, bederen gutiziaz, gogoz eta bihotzez. Ezen urac sua ezti-tzen eta hiltzen duen bezala, Jesusen odolac eztitzen eta hiltzen du gure pa-sione tzarren kharra. — Bertzalde mezan izaten dituen graziec — eta hainitz izan dezake bihotzez bederen comuniatuz! — arima hazcartzen dute; eta ordutic errechkiago azpitic atchikitzen ditu eta garhaitzen bere etsaiac, bere-baitacoac nola bertzeac. Etsaiac emeki emeki, asco-tan uste baino lasterrago, ahultzen dire.

Aita Saindu Pio bigarrenac erraten

daucu, bazela Istriaco escualdean aitoron seme bat, etsimenduzco tentazione batekin izigarrico borroca zuena : egun guziz, egunean zembat aldiz, ukho egiteco menean zen! Jo hunat, jo harat; hau egin, hora egin, othoitz, barur eta bertze : nihondic ere onic ez. Azkenean, fraide saindu batec erraten dio, doala egun oroz mezarat. Fraideac errana egiten du; eta dembora laburric artean, haimbertze iraun zion tentazione izigarriac uzten du, osoki libratua da.

- Bertzalde, Jaincoac ez du gure bihotzeco lurra belhar gachtoetaric garbitu nahi, landare onez, lore ederrac eta fruitu gozoac ekharrico dituzten landarez aberasteco baizic. Bizioac erotic khendu eta, berthuteac nahi ditu landatu. Bekhatua gu baitan hil ondoan, grazia nahi du piztu, caritatearen kharra sustatu. Eta hortacotzat ere, ez da deus mezaco sacrificioa baino hoheric. Beha : Norbeiti zerbeit fagore handi galdegin nahi diogunean, ahalaz ez goatzi escuac hutsic. Iduritzen zaicu, eta halada, zerbeit onic eremanez errechkiago ardietsico dugula galdetzen duguna.

Halaber, Jaincoari othoitzean hari garenean behar ditugunen escatzeco, zer indar ez du izanen gure othoitzac, baldin Jaincoari heltzen bazaio Jesusen odolaz lagundua, Jesusen odolaz eder-tua eta hazcartua !

Bada, meza entzuten dugunean, hala hari gare othoitzean, hala diogu gure galdezco oihua Jaincoari helarazten, Jesusekin batean, Jesusen odolaren oihuarekin baltsan. Edo, hobeki errateco, Jesus bera, Jesusen odola da orduan guretzat mintzo ; Jesusec diozca bere Aitari, bere zauriac iracutsiz, bere odola escainiz, behar ditugunac galdetzen. O Jaincoaren bihotz aberats eta samurra, Jesusen odolaren coloreac eta usainac bozcarioz choratzen eta amodioz gainditzen duten bihotza, zembat gogotic eta osoki den orduan idekitzen, bere haur, mezan aurkhitzen diren, Jesusen odolaz casic jauntziac eta aphainduac direnen gainerat, graziazco erauntsi nasaienen jautsarazteco !

Bai, bai, dio Trentaco contzilio sainduac, mezaren bidez badituzkegu lagunta guziac behar den tenorean ; arima-

coac bereziki : ezen arimen salbatzeco du Jesus Jaunac bere odola ichuri ; bainan gorphutzecoac ere maiz : ezen gauza segura da, gorphutzeko gaitzetaric begiratzeco indar handia duela mezac. Eta horra zergatic arras on den erientzat mezac emanaraztea. « Ah ! dio Jaincoa-
 « ren zerbitzari handi batec, Aita Je-
 « suista Colombierec, zembat on lita-
 « ken ongi ezagutzea zer aberastasuna
 « dugun escuetan ! Dohatsu eta miletan
 « dohatsu giristinoac, balakite eginac
 « zaizcoten dohainez baliatzen ! Onta-
 « sun guziac heldu zaizcote mezaco sa-
 « crifizio adoragarritic, ezin agortuzco
 « ithuri batetaric bezala.

« Zembat grazia mezan eta mezatic,
 « zembat laguntza, zembat aberastasun,
 « mundu huntaco eta bertzeco, arimaco
 « eta gorphutzeco ! »

*
..

Bainan, ondicotz, hainitz eta hainitz giristino ez dire mezaz behar bezala baliatzen. Ez dakite meza zer den ; edo, ez balakite bezala bizi dire. Batzu ur-

theac eta urtheac egonen dire, eliza batean zangoric sartu gabe. Bertze batzuec ez dute mezaric entzunen urthean zembeit aldi bakharrez baizic. Eta igande guziz dabiltzanac ere, ascotan zertaco dabiltza? Meza gauza guziz ona zaiotelacotz? Ez; dabiltza bertzeac badabilzalacotz, edo dabiltza, bortchaz bezala, ifernuaren beldurrez. Nahi dugu beren egimbidea bethetzen duten, bai; bainan othe dute mezarentzat behar luketen estimua eta amodioa? Nekhez. Beha :

Zembat giristino ez da asteleheguna-rekin, beti edo maiz ez bada, aldi bakhar batzuez bederen, errechki, arras errechki, mezan causi ditakenic, eta bizkitartean seculan joaten ez denic! Mezaric badenez ere orhoitzen ez denic! Dembora galdua zaiote naski, meza entzuteco dembora. Ez lakiokete ez hala, mezatic ahur bat urhe ekharri behar balute. Fede ttikico jendeac! Giristino ahulac!

Segur, holacoec ez dute mezarentzat behar den amodioa eta estimua. Ez bide zaiote iduri, lehengo zaharreri bezala,

burdinazco oinetacoac higatzea balio luke, meza baten entzuteco zorionerat heltzeco! Eta horra zergatic hainitz girstino, igande guziz urthe bat, bi urthe, hamar urthe eta gehiago mezan ibili ondoan, beti bardin diren, beti lazokeria, aztura tzar, bekhatu berekin. Ez baitute meza funtski entzuten. Han baitagotzi, gogoa nombeit, bihotza hotz, doi-doia ezpainez zerbeit othoitz egiten dutelaric, maiz han egoteaz unhatuac. Zer lastima! Egarriac erretzen hari, ithurria han berean, eta ez edan nahi!

*
..

Mariaren haurretan bederen ez ahal da holacoric gertatuco. Mariaren haurrec, beren Amac bezala, hainitz maitatuco dute meza saindua; Maria bezala astelehegunetan ere meza sainduan ahalic maizena aurkituco dire. Beti, erran gabe doa, beren egimbidetan hutsic egin gabe!

Badakigu hainitzac, nahirican ere, ez ditazkela astelehegunetako mezetarat hel. Bainan bertze frango ez othe da

ibiltzen ez denic, eta ibil ditakenic, beti ez bada, batzuetan bederen! Bai, ongi nahi balute, balakite goitzchago jekitzen, beren lanetan hobekichago ernaltzen, ez-deuskerietan dembora guti-chago galtzen; iduritzen zaicu ibiltzen den baino Mariaren haur gehiago ibili behar litakela egun guzietaco mezetan. Hots bada, Mariaren haurrac, zuen ari-mac egiazki maite baditutzue, zuen amaren urhatseri jarraiki nahi bazarete, ahal bezembat meza entzun! Eta astele-hegunetan ezin joan bazarete, gutizia bederen izan, mezaz orhoit, gogoz eta bihotzez entzun. Badakizue noiz diren herrico mezac; bertzalde noiz-nahi, egunaz ala gauaz, nombeit munduan mezac erraten hari dire. Bihotzez joan ardura meza hec erranac diren aldaren oinetarat; eta, aldarean den aphezarekin batean, Jaincoari escain Jesusen gor-phutz eta odol sacratuac. Ah! estimu, amodio hori balin-baduzue mezarentzat, lehia hori mezan, gorphutzez ez dezake-zuenean, gogoz bederen aurkhitzeco, segur ongi entzunen duzue igandetaco meza; meza hartaz Jaincoa hainitz oho-

ratuco duzue, zuen arima hainitz graziaz aberastuco.

..

Mezaren ongi entzuteco, orhoit me-zaco sacrificioa Calbarioco sacrificio ber-bera dela ; eta aldare aintzinean egon gurutze aintzinean egonen ginen bezala. Han, irriac eta solasac barnachco izanen ziren ! Han, et-ziren begiac eta gogoa norapeit alhatuco eta barraiatico ! Ez, han, gogoa nola begiac gurutzean landatuac, bihotza bai urrikiz bai amodioz bethea ; urrikiz, zeren gure bekhatuec zuten Jesus Jauna gurutzean itzatu ; amodioz, zeren gure salbatzeco, batere gure beharric izan gabe, zuen Jesus Jaunac bere odola ichurtzen ; han, humilki eta fidantzia khartsu batekin escainico ginion Jaincoari bere Seme bakharraren sacrificioa ; humilki eta fidantzia khartsu batekin, sacrificio horren bidez, galdetuco gure bekhatuen barkhamendua, sainduki bizitzeco eta zerurat heltzeco grazia. Eta escaintza eta galde horiec eginen ginituen Maria Saindua ararteko, Mariarekin batean.

Ezen Maria han zen chutic gurutzearen ondoan; eta bere bihotzean gogotic, bai Jaincoari bihurtzeco bekhatuac khenduzion ohorea, bai gizona debruaren aztaparretaric libratzeco, gogotic egiten zuen Mariac bere Semearen sacrificioa, eta harrekin batean haren odola gogotic escaintzen zion Jainco zuzen eta urricalmendutsuari! Bada, orai ere, meza erraten hari den aldare guzien ondoan, Andre-dena Maria han da. Han da, gurutzearen ondoan bezala, Jesusen gorphutzaren eta odolaren sacrificioa Jaincoari escaintzeco; han da, aphezac meza ongi erraten, giristino choilac ongi entzuten laguntzeco, batzuen eta bertzen bihotzac bere fedearen eta amodioaren pindarrez sustatzeco, batzuen eta bertzen othoitzac, berekin batean, bere seme adoragarriaren oinetarat, Trinitate Sainduaren aintzinerat eremateco. Eta, bichtan dena da, ez dela meza hobeki entzunic, Mariarekin batasunean entzun meza baino.

Horra zergatic, ez gure baitaric, bainan saindu ascoc iracutsiric, eta bereziki San Leonardo Port-Maurizecoac, hemen

ezartzen dugun mezaren Mariarekin batean entzuteco molde bat, hainitz ona eta hainitz errecha. Hola meza entzunez, graziaric nasaienac ardietsico dire. Eta iduri zaicu, guziz Mariaren haurreri laket izanen zaiotela meza hola entzutea, beren amarekilaco batasunean.

MEZA MARIAREKIN BATEAN ENTZUNA

Guziec Jaincoari buruz baditugu lau zor handi : 1^{ic} adoratzea eta laudatzea; 2^{ic} bekhatuen barkhamendua galdetzea, eta hetaz penitentzia egitea; 3^{ic} egin dauzkigun ongi guzientzat eskerren bi-hurtzea; 4^{ic} behar ditugun grazien es-catzea. Bada, lau zor horiec paga detzazkegu mezan eta mezaz; eta banazca hobeki pagatzeco, on da meza lau zati bezala egitea; zati bacotcha zor baten-tzat.

Meza hastean.

(Apheza, aldare beherean, *Cofesatzen natzaio* erraten hari delaric) :

Mariaren haurra, emozu gogoari Calbarioan zarela zure amarekin, gurutzearen ondoan.

Orhoit zaite zure bekhatuen gatic, zuretzat amodioz, hiltzen hari dela Jesus; eta, urrikia bihotzean, egiozu othoitz hau :

O Jesus, ene Salbatzaile adoragarria, zin-zinez sinhesten dut gurutzean neratzat hil zarela; sinhesten aldare huntas, aphezaren escuz, sacrificio beraren erreberritzerat zoazila, guri gurutzean merezitu grazien emateco. Eskerric minenac dauzkitzut, ô Jesus; eta Maria, zure eta ene Ama guziz ona, othoizten dut, berac bai gurutze bai aldare aintzinean zuen fedea eta amodioa pitz dezan nere bihotzean; hola meza entzunez, graziaric handienac segur ardietsico baititut.

LEHEN ZATIA

(Apheza aldarerat igatetic eta Ebanjelio ondoraino)

Jaincoaren adoratzea (1)

Ene Jaincoa, adoratzen zaitut; ezagu-

(1) Othoitz hau, eta bertze ondoocoac, emeki emeki erran behar dire; zer dioten ongi icusteco, eta gero bihotz barnagotic egiteco. Dem-bora balin-bada, behin baino gehiagotan erratea arras on da.

tzen dutene creatzailea zarela, ene biziaren nausia. Aithortzen dut deus ez naizela nere baitaric; aithortzen goraki, naizen guzia, ditudan guziac, zure ganic direla, zuc emanac. Izariz goiticoa delacotz zure handitasuna, izariz goiticoa da zuri zuzenez zor zaitzun ohorea. O Jauna, nic, hain herbaila, hain ez-deusa naizenac, nola zor hori, hurbiltzeco ere, paga?

Bainan huna non, aldarean, Jesus Jaunac merezi duzun bezembat ohoratzentzaituen bere sacrificioaz. Aphaltzen da, humiliatzen zure aintzinean; ni ere harrekin aphaltzen naiz gogotic, eta humiliatzen. Jesusekin bihotzez bat, Jesusec egiten duena egin nahi dut nic ere. Oi, zer atsegina, zer zoriona neretzat, Jesus nere ordain bilhacatzea, eta nere ordain bilhacaturic, Jesusec zuri ematea nic zor dauzkitzudan ohoreac! Zor hori oraino hobeki pagatzea-gatic, ô Jainco ona, Jesusen adorazioneac escaintzen dauzkitzut Mariarekin batean, Maria ararteko.

Ene ama maitea, lagun nazazu Jaincoaren behar den bezala ohoratzen eta

laudatzen. Emazu ene bihotza zurean, edo hobeki zure bihotza nerean; biac bat eginac escaintzen diozcat Jaincoari, bozcarioz gainditua, zeren meza huntan, meza huntaz, Jaincoa zor zaion bezem- bat ohoratzen ahal baitut.

BIGARREN ZATIA

(Ebanjelio ondotic eta Contsecrazione-raino)

Barkhamendu galdetzea

Huna, Jauna, haimbertzetan jazarri zaitzun arima esker-gabea. Bihotzetic orai damu dut nere bekhatu guziez. Bekhatu hetaric nere arimaren garbitzeco, escaintzen dautzut Jesusen odola, escaintzen Jesus bera, Jainco eta gizon, gurutzean neretzat hil izan dena, eta neretzat amodioz, aldare huntan, gurutzeco sacrificioa erreberritzen duena. Jesus aldarean nere bitarteko egiten da; Jesusen odola mintzatuco zaitzu nere alde; odol sacratu harec galdeginen dautzu neretzat urricalmendu. O Jauna, ni ere odol sacratu harekin batean oihuz

nagozu. Barkha, barkha, erraten dautzu Jesusen odolac; eta harekin batean, nere bihotz urrikiz zaurituac gauza bera dio : Barkha, barkha. — Jainco ona, nere nigarrec ez zintuzkete beharbada ukituco; uki zaitzatela zure Semearen auhenec eta Mariaren othoitzec. Gurutzean Jésusec gizon guzientzat barkhamendua ardietsi zuen; ez othe du aldare huntan neretzat ardietsico! Bai, fida naiz, Jesusen odolari esker, Andredena Mariarentzat duzun amodioaren gatic, barkhatuco dauzkidatzu nere hutsac; eta nic hetaz nigar eginen dut bizi naizeno.

O Maria, Ama guziz ona, asco saindu bada, nola Jon Doni Petri, nola Santa Madalena, bekhatuan erori izan denic. Bainan gero, egiazki urrikituric, beren arimac beren nigarrez garbituric, pententzia eginez, Jaincozco bideri jarraiki dire. Nic ere, hala egin nahi dut. Bekhatorosa naiz, bekhatoros handia. Othoi, mezaco sacrificioaren indarrez, ardiets iezadazu nere bekhatuen urrikia eta barkhamendua.

HIRUGARREN ZATIA

(Contsecrazionetic eta Comunioneraino
Eskerren bihurtzea)

Contsecrazionean, gorputzez eta arimaz ahal bezemba bat aphalduric, adora zazu zuretzat amodioz aldare gainerat jausten den Jesu-Cristo gure Jauna, eta gero, contsecrazione ondoan, errazu :

O Jauna, zer eskerrac ez dauzkitzut zor, zure ganic orai artio izan ditudan ontasunentzat, bai eta hemendic harat, mundu huntan eta bertzean, eman nahi dauzkidatzunentzat! Aithor dut izari gabecoa dela zure nere alderaco amodio samurra, izari gabecoa direla zure emaitzac, ongi-eginac; eta bizkitartean, nahi zaitut ordainez pagatu osoki eta casic azken arditeraino. Har-azu, beraz, Jauna, eta onhets, nere zorraren pagamendutzat, Mariarekin batean aphezen escuz hemen orai escaintzen dautzudan bitima garbia eta saindua. Badakit gai dela zure ongi-eginentzat dautzudan zor guziaren pagatzeco; bai, zure Semea, zu bezala eta zurekin Jainco dena, dela-cotz aldarean bitima, bitima horrec

balio ditu egundaino eman eta emanen dauzkidatzun grazia guziac.

Eta zuec, zeruco aingeruec eta sainduec, zuc bereziki, Birjina Maria nere amac, lagun nazazue ene Jainco onari eskerren bihurtzen, eta chede hortarat escain-otzue egun munduaren lau bazterretan emanac izanen diren meza guziac (1).

(1) Comuniatu nahi denean, arras on izanen da hemen ezartzen ditugun othoitz hauien egitea :

Fedezco acta. — Jesus Jauna, gorputzeco begiez icusten bazintut baino hobeki sinhesten dut, oso osoa aurkhitzen zarela ostia sainduan.

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, adoratzan zaitut ogiaren itchuran gordea; zu zare egiazki nere Jaincoa.

Humiltasunezco acta. — Jesus Jauna, ez naiz gai nere bihotzean sar zaiten, hambat bekhatu egin dudan ondoan; bainan errazu choilki hitz bat, eta nere bihotza sendatua izanen da.

Esperantzazco acta. — Jesus Jauna, esperantza dut, ni baitan egoterat ethorriz, nere arima garbituco duzula, eta sustatuco zure amodiaaz.

Urrikizco acta. — Jesus Jauna, guziz ona, guziz maitagarria, handizki damu dut nere behatuez egin dauzkitzudan laidoez; othoi, bar-kha; zin-zinez hitz dautzut, zure graziarekin

LAUGARREN ZATIA

(Comunionetic eta acabantzaraino)

Grazia galdetzea.

Ene Jaincoa, badakizu ez naizela gai zure grazien ardiesteco; ez, aithortzen dut goraki, hoimbertze bekhatu egin ondoan, ez dut merezi nere galdeac onhets detzatzun. Bainan, nola ez zinituzke entzunen neretzat aldare hortan zure Semeac egiten dauzkitzun othoitzac! Neretzat bere odola, neretzat bere bizia escaintzen dautzu. Onhets-atzu beraz haren galdeac; eta, Jesusec merezituri, eman iezadatzu salbatzeco behar ditudan grazia guziac. Berritz ere, Jauna, Jesusen odolari esker, barkha nere

batean, beti eta gauza guzietan eginen dudala zure nahi saindua.

Amodiozeo acta. — Jesus Jauna, zembat maite naizun! Nahi naizu zure haragiaz eta odolaz hazi. Ah! nic ere maite zaitut, maite nere bihotz guziaz, nere arima guziaz, nere indar guziez. Nahi naiz bizi eta hil zure amodioan.

Gutiziazco acta. — Zato beraz, Jesus Jauna, zato nere ganat; zato, egon zaite ni baitan, eta egin zazu nitaz nahi duzuna Zurea naiz, zuri gogotic ematen latzaitzu, osoki eta beticotz.

bekhatuac; eta, zure graziaren indarrez egunetic egunerat finca nazazu zeruko bidean. — Gauza bera galdegiten dautzutene ahaide eta adichkide guzientzat.

« Galdegiten dautzut mundu guzico bekhatorosac, eta bereziki herri huntacoac, zure maitatzerat ekhar detzatzun. Eta azkenean, zure eta nere Amaren izenean, galdegiten dautzut, bai herri huntaco, bai mundu guzico Mariaren haurrac gero-ta hobeki jarraic ditezen Andre-dena Mariaren urhatseri.

Aphezaren azken benedizionean.

Jesu Cristoren Ama samurra, zero lurren Erregina, Maria Saindua, zure errai garbietan ororen creatzailea, aldare huntan orai sacrificatzen den Jaincoa, ekharri izan duzuna; othoi, izan zaite nere ararteko; ardiets iezadazu meza hunen entzutean egin ditudan huts guzien barkhamendua. Galde zozuzu beti entzuten zaituen Seme adoragarriari, eman diezadan, bere benedizionearrekin, egun hunen sainduki iragaiteco grazia.

Halabiz.

§ III. Comunione Saindua

Arima, nola gorputza, janez bizi da. Comunione Saindua da arimaren hazcurri nausia. Ogiac eta arnoac gorputza hazten duten bezala, Jesusen haragiak eta odolac hazten dute arima. Gorputzac, ez hiltzeco, noiztenca bederen jan behar du; arimac ere bai, urthean behin bederen: Bazcoco comunionea baitezpadacoa da arimaren biziric atchikitzeo. — Bainan bakhan janez, gorputza ez da doi-doia baizic bizico; ez du indar handiric izanen; eta lan borthitzic balin-badu, ez du egiten ahalco. Hazcar izateco, lanean haritzeco, gorputzac behar du ardura jan eta edan. Eta nekhatzen balin-bada, bere indarrac lanean higatzen balin-baditu, orduan beharco du are hobeki hazi.

Gauza bera da arimarentzat. Urhetic baizic comuniatzen ez duena, giristino ahula izanen da; doi-doia bizi, gorenaz. Arima hazcar nahi balin-bada, comunia maizago, hainitz maizago; eta etsaieri ihardokitzeko bortitzki guducatu behar balin-bada, orduan are maizago.

..

Gauza jakina da, gaztec bereziki dituztela etsai gachtoarekin guducaric izigarrienac. Odola bero, gogoa arin, eta galbideac alde guzietaric! Ah! gazte maiteac, maiz, arras maiz, comuniatzen ez balin-baduzue, zer bilhacatuco zarete?... Debruaren bazca!

..

Giristino guziec, eta guziz Mariaren haurrec, behar lukete luzenaz hilabhetic comuniatu. Ahal duclaric, hilabhetic bederen comuniatzen ez duenac ez du amodio handirc Gorphutz-Sainduarentzat, ez eta zeruco bidean aintzinatzeco grina handirc. Zer! jakinki Jesus Jaunaren gutiziariic biziena eta zorionic gozoena dela gure bihotzetan sartzea : *Deliciae meae esse cum filiis hominum*, eta guc Salbatzaile amultsuari, guretzat bere odola ichuri duenari, guc hilabhetic ere gure bihotza ez ideki nahi! Jakinki comunioneac Jesusekin osoki bat egiten gaituela, ezeztatzen dituela gure jaidura tzarrac, ematen daucula

ongiraco errechta sunic handiena ; eta, ahal dugularic, hilabethetic ere ez comuniatu nahi !

Bai, giristino guziec behar lukete hilabethetic comuniatu. Eta maizago egiten bada, hobe, hainitz hobe : atsegin gehiago Jesus Jaunarentzat; grazia gehiago arimarentzat. Khartsu diren, edo khartsu bilhacatu nahi duten giristino guziec, ahalaz hainitz ardurago comuniatzen dute. Eta bekhatorosentzat ere, hori da bekhaturtic ateratzeco bide hoberen, batzuetan bakharra : arras ardura comuniatzea ; urac sua eztitzen eta hiltzen duen bezala, Jesusen odolac eztitzen eta hiltzen baitu lohikeriaraco kharra. Elizaren chedea litake, giristino ecomuniatzea aurkhitzen diren meza guzietan.

• •

Mariaren haurrec lehia berezi bat izan behar dute maiz eta ongi comuniatzeco. Eta huna zergatic :

Hasteko, ez ditake Maria hobeki ohora Jesusekin bat eginez baino. Andre-dena, Mariac berac errana da, dio san Ligo-

rioc, deusec ez diola comunione sainduac bezembat atsegin ematen. Eta Elizac Mariaren bihotzeco oihu bat bezala adiarazten dauzkigu Liburu Sainduetaco hitz hauc : « Zatozte, jan-azue ene ogia, « eta edan nic zuentzateginicaco arnoa ».

Gero, comuniatuz eta bereziki ardura comuniatuz, Mariac egin duena egiten da : ezen, icusi dugu Mariac egun guziz comuniatzen zuela.

Azkenecotz, comuniatuz, Maria iduri, bertze Maria bat bezala da bilhacatzen. Ezen comuniatzen duenac bere baitan du Mariac bederatzi hilabethez bere sabel dohatsuan erabili duen Jainco berria. Hura orduan, Maria bezala, Jesus Jaunaren templo da, Ostia sainduaren ziborio (1) bizi.

Beraz, Mariaren haurrac, zuen amaren urhatsetan ibiltzeco, zuen amari ohore eta atsegin egiteco, maiz eta ardura comunia. Mahain saindurat hurbil fede, humilitate, amodio handi batekin.

(1) *Ziborioa* da al larean, tabernaclean, Ostia sainduac atxikitzen diren zilharrezco eta urhezco untzia.

..

Eta gero.... artarekin egin *eskerren bihurtzea*; bai, othoi, egin eskerren bihurtza. Harrigarri da Escual-herrian zoin lazo diren, eta ascotan giristinoric jarraikienac berac, egimbide horren be-thetzeco. Comuniatu eta ahalic lasterrena, meza erran orduco, tarrapataca camporat! Badakite bizkitartean, edo jakin behar lukete, zer den Gorphutz-Saindua. Badakite hartu duten Ostia sainduac ogiaren itchura galdu artio, Jesus heien bihotzean dela, iguzki sainduan eta zeruan bezen egiazki, han dela beraz oren laurdentto baten heina. Jesus han, badakite, eta han ez balute bezala casuric egin gabe uzten dute, eta badoatzi elheketarat, jostatzerat, edo bertze zerbeitetarat. Hori othe da Jesusi zor zaion ohorearen ematea! Ah! segur, errege bat ethor balakiote etcherat, ez lezakete hola bakharric utz; harekin egon litazke gogotic. Eta errege hura ekharria balitz nahi den guziaren ematerat, galdetzea aski, balakikete mintzatzan eta behar dutenaren galdetzen.

Bainan erregen erregearekin oren laurdentto bat ezin egon; Salbatzaile amultsuarekin berehala unhatzen; eta beren ganat ethorria dutenean grazia nasaienac eman nahiz, zer erran, zer galde ez jakinki; ez jakinki othoitz baten egiten!

-- ..

Mariaren haurrac, zuen artean bederen agian ez da holacoric gertatuco. Comuniatu eta, ahal bezembatean, oren laurdentto baten heina bederen egonen zarete elizan, bihotzean duzuen Jesus Jaunaren adoratzen, Jesusi eskerren bihurtzen, bárkhambetu escatzen, grazia galdegiten. Zinez, noiz ditake tenore eta arte hoberic grazia galdegiteco! Jesus bera oso osoa eman zaitzue: zer da eman nahico ez dautzuenic! Othoitz beraz, galde ausarki: othoitz zuentzat, othoitz burhasoentzat, haurridentzat, ahaidentzat, adichkidentzat, herritarrentzat, munduko bekhatoros guzientzat; othoitz Eliza Ama Sainduarentzat eta haren buruzagi den Aita Sainduarentzat. Galde arimaco laguntzac; galde gorputzecoac ere, Jaincoari on zaizcon negurrian. —

Horiec guziac egin Andre-dena Mariarekin batasunean. Eta gero, ez badakizue gehiago Jesusi zer erran, Mariari galde zuen orde mintza dakion. Mariari erran : « Ene ama guziz ona, eman iezadazu « aphur batentzat zure bihotz amodioz « sustatua, bihotz hortarat Jesus Jauna « ezar dezadantzat nere bihotz epheletic. « Hor laketuco zaio segur; zuc nere orde « jakinen duzu nola ohora, nola othoitz; « eta eginen duzu! »

Eta orduan, Mariarekin batean erre-pica *Magnificat*, Mariac berac egin eta iracutsi esker-onezco othoitz ; edo arrosorioan erran zembeit hamarreco.

Nahiz comunione aintzineco, nahiz ondoko, ez da baitezpadaco othoitzic ; bacotchac egin detzazke nahi dituenac. Catichimacoac arras onac dire (1). Bizkitartean, Mariaren haurrac

(1) Huná, comunione ondoko, catichimacoac bezalacotsu othoitz batzu :

Adorazionezco acta. — Jesus Jauna, zero lurren nausia, adoratzen zaitut nere bihotzean; adoratzen aingeruekin, eta zero zu eta lurreko sainduekin batean; adoratzen bereziki Andre-dena Mariarekin batean.

Esker-onezco acta. — Jesus Jauna, eskerric minenac dauzkitzut, ni ganat ethorri nahi izan

eskerren-bihurtzea egiten laguntzeco, hemen ezartzen ditugu zembeit othoitz, hainitz ederrac, aphezec ere meza ondoan maiz erraten dituztenac. Othoitz hauc iracur artarekin, bihotzez begiz bezembat; Jesusi atsegin handia eginen diozue, zuen arimari ongi handia.

SAN THOMASEN OTHOITZA

Eskerrac derauzkitzut, Jaun Saindu,
Aita guziz botheretsu, Jainco betierecoa,

duzulacotz comunione sainduan. Ordainez, zer egin dezaket zuretzat?

Emaitzazco acta. — Jesus Jauna, ematen natzaitzu osoki eta naizen guzia, zu niri eman zaren bezala; egidazu grazia. zuretzat baizic ez bizitzeco.


Amodiozco acta. — Jesus Jauna, nahi zaitut ahalaz maitatu; pitz-azu zeronec ni baitan zure amodioa, eta amodio garbi horren suac bero, erre, suntsi beza nere bihotza.

Galdezco acta. — Jesus Jauna, emadatzu, othoi, zure manamendu sainduen begiratzeko behar ditudan grazia guziac.

Chede-zinezco acta. — Jesus Jauna, hartzen dut chede zin-zina, zuc hastio ditutzun gauza guzietaric begiratzeko, eta egiteco nere ganic galdegiten ditutzun guziac. Egidazu zure maitatzeko grazia, bai bizi naizeno mundu huntan, bai hil ondoan zeruan, betiereco zorionean. Halabiz.

ni bekhatoros zure sehi herbaila, ez batere nic merezituri, bainan zure urrical-menduzco nahi choilaz, Jesu-Cristo zure Seme gure Jaunaren gorputz baliosas eta odolaz nasaiki hazi nahi izan nau-zuna. Eta othoizten zaitut, comunione saindu hau ez dakidan izan gaztigna darraicon hoben bat, bainan bai barkhamendua dakharken ararteko salbagarri bat. Eman bezo indar ene fedeari, begira betza ene chede onac. Agor betza ene bizioac, ene jaidura eta khar gach-toac ezezta, ene caritatea eta pazientzia, humilitatea eta obedientzia, eta bertute guziac emenda; nere etsai guzien, ala agerien, ala gorden amarruetaric zain nazala; geldiaraz detzala osoki bai nere gorputzeco bai nere arimaco jauzteac; zu, ene Jainco bakhar eta egiazco zarena-rekin, tinki lot nazala, eta deitua naizen zorionaz beticotz gozaraz. Halaber othoizten zaitut, ni bekhatorosa helaraz nazazun mahain ezin-erranezco hartarat, non zu, zure Semearekin eta Izpiritu-Sainduarekin, baitzare zure sainduent-zat egiazco argia, asetze osoa, bozcario betierecoa, zorion gaindizcacoa, eta do-

hatsutasun osoen-osoena. Ber Cristo
gure Jaunaz. Halabiz.



HUNA, O JESUS ONA

Ohoitz hau gurutzefica baten aintzinean erranez (hor berean duzue gurutzefica) indulientzia oso bat irabazten da, egunean behin, confesatuz, comuniatuz, eta Aita Sainduaren chedetarat ohoitz zerbeit eginez.

Huna, o Jesus ona eta guziz eztia, non naizen zure aintzinean belhaunico emana; eta arimaco khar handienarekin ohoizten zaitut eta errekeritzen, barna

sar detzatzun ene bihotzean fedezco, esperantzazco eta caritatezco sentimenduric bizienac, ene bekhatuen egiazco urrikia, eta gehiago ez egiteco chederic hazcarrena; nic, bihotzeco amodio eta min handi batekin, zure bortz zauriac ene baitan icusten ditudalaric eta go-goan erabiltzen, begien aintzinean atchikiz zutaz David profetac zure ahoan ezartzen zituen hitz hauc : « *Zilatu dituzte
« ene escuac eta ene oinac; condatu ene
« hezur guziac.* »

CRISTOREN ARIMA.....

(Othoitz hau erranez irabazten dire : *300 egunetaco* indulientzia, aldi guziz; *zazpi urthe-tacoa*, egunean behin comuniatu ondoan; *osoa*, hilabethean behin, cofesatuz, comuniatuz eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez.)

Cristoren arima, saindu nazazu.
 Cristoren gorputza, salba nazazu.
 Cristoren odola, bero nazazu.
 Cristoren sahetseco ura, garbi nazazu.
 Cristoren Pasionea, hazcar nazazu.
 O Jesus ona, entzun nazazu.

Zure zaurien barnean, gorde nazazu.
 Zu ganic berechterat utz ez nazazu.
 Etsai gachtotic begira nazazu.
 Nere hiltzeco orenean deit nazazu.
 Eta zure ganat ethortzea mana iezadazu,
 Zure sainduekin batean zure goresteco,
 Menderēn mendetan. Halabiz.

O MARIA

O Maria, Birjina eta Ama guziz saindua, huna non errezebitu dutan zuc hambat maite duzun seme, zure errai osoki garbietan contzebitu, mundurat eman, zure esneaz hazi, eta besarca gochoenetan tincatu duzuna. Haren icusteac bozcariatzentzintuen eta zorion guziez bethetzen ; huna non hora bera dautzudan humilki eta amodiorekin berritz aintzinerat ematen, eta escaintzen, zure besoetan tinca dezazuntzat eta bihotzez maita ; escain-ozu Trinitate guziz sainduari, egin ditaken bezen ongi adoratzeko, escain zeronen ohorearentzat eta loriarentzat, bai eta nere eta mundu guziaren beharrentzat. Othoi beraz, Ama guziz amultsua, ardiets iezadazu nere bekhatu guzien barkhamendua, bai eta

nasaiki grazia zure semearen zerbitzuari hobeki jarraikitzeco ; eta guzien buruan, ardiets iezadazu azken grazia, hura baita : zurekin batean zure semearen gorestea menderen mende guzietan. Halabiz (1).

§ IV. Sacramendu Sainduari bisita

Sobra luza beldur ez bagine, baginuke zer erran Sacramendu Sainduari egiten zaion bisitaz. Beharren beharrenac bederen detzagun aipha, hitz laburrez.

* * *

Mariaren haurreri galdegiten diotegu :

(1) Mezan ez baduzu mahain saindurat hurbiltzeco zoriona, arras on da bederen gogozco eta bihotzezco comunionearen egitea : gauza hainitz salbagarria dela, dio Trentaco Contzilio sainduac. Comunione hori egin ditake noiz-nahi eta non-nahi; bainan hobekienic mezan. — Gogoz eta bibotzez comuniatzeco, lehia zaite zu baitan pizterat Jesusen haragiaz orduan berean, ahal balitz, hazteco gutizia bizi bat; eta gero, gutizia harec Jesus egiazki zure bihotzerat jautsarazi balu bezala, han Maria-rekin batean adora zazu, eskerrac bihur-otzu, zure bekhatuez barkhamendu galde zozu, eta azkenean, esca zotzu zuretzat eta bertzentzat nahi ditutzun guziac, hitz batez, eskerren bihurtzea egizu comunione ondoan bezala.

Maria Saindua oraino lur hunen gainean balitz, norat uste duzue ereman lezakela maizenic bere bihotzac? Dendaric ez da : aldare aintzinerat, bere seme maitearen oinetarāt. — Mariaren haurrac, zueri ere beraz, zuen amari bezala, laket izan behar zaitzue Sacramendu Sainduari bisita egitea. Adichkide zinezco bat nombeit badenean, atsegin izaten da harekin causitzea eta mintzatzea; ahalaz maiz haren ganat joaten da. Jesus, gure adichkideric hoherena, guretzat bere odol guzia ichuri duena, bere haragiaz hazten gaituena, Jesus beti gutartean dago. Eta zembañ giristino ez da, frangotan egun oso batez, aste oso batez, orhoitzen ere ez denic, gure elizetan dela Jesus! Zembañ, elizatic hurbil, ondo ondoan bizi denic, elizaren aldetic maiz iragaten denic, eta seculan sartzen ez denic, Jesusi agur baten egiteco, benedizione baten galdetzeco! Hori othe da adichkide egitatea! Hori othe da Jesus maite izatea!

Zuec, Mariaren haurrac, ahal bezen maiz joanen zarete Sacramendu Sainduaren aintzinerat, Jesusi Gorphutz-

Sainduan bisita egiterat. Egun oroz ahal bazinute! Egiazki loriatuco da Jesus, eta zer-nahi grazia emanen dautzue.

*
..

Eta Jesusen ganat hola joaten zarete-nean, zer erranen diozue, zertaz mintzatuco zaitzazcote? Asco giristinoec orduan arrosorioa erraten dute, edo debozinezko liburu batean iracurtzen. Arras on da hori; bainan bada hoheric egiteco, eta huna zer: Jesus adoratu ondoan, gorphutzeco begiez icusten bazinute bezala mintza zakizkiote lañoki, heldu den bezala, mintza nahi duzuen guziez, beti Andre-dena Maria ararteko. — Mintza zuen etcheco harat hunatez, holacoaren edo halacoaren ganic dituzuen atsegabez, zuen ontasunetaco edo osagarrico macurrez; galde araberaco laguntzac. — Mintza zuen bekhatuez, jaidura tzarrez; erran bihotzetic: «Jauna, nahi baduzu, sendatzen ahal nauzu.» — Mintza bertzez ere, bertzen alde. Ah! hori doaco chuchen eta ondoraino Jesusi bihotzerat, gizon guzientzat amodiaz bere odola eman duen bihotz samur

hartarat! Bai, Jesusen bihotzari atseginaic handiena eginen diozue, bertzentzat othoitzuz. Othoitz beraz Jesus ezagutzen edo maite ez duten guzientzat, othoitz Purgatoriotaoco arimentzat, othoitz hagonian direnentzat (1).

(1) Bai, othoitz, othoitz hainitz hagonian direnentzat. — Jaincoac begira gaitzala deus erratetic, Purgatoriotaoco arimac gutiago laguntzerat ekhar dezakenic. Arima gaichoac! Ez ditugu seculan sobra lagunduco, seculan aski. Bainan egiac behar du bere bidea. Eta egia da, Purgatoriotaoco arimen laguntzea caritate handia balin-bada, caritate are handiagoa dela hagonian direnen laguntzea. — Alabainan, Purgatoriotacon dena, segur salbatua da; hura, goiz edo berant, zeruraco da. Bainan hagonian direnac! Ah! heientzat orai da harat-hunata, eternitate guzicotzat! Jesus han da, heien ondoan; egin-ahala hari da, hec beretzat beharrez, berekin betiereco zorionerat ereman nahiz. Eta Satan ere han da; eta hura ere egin-ahala hari, arima hec beretzat beharrez, berekin betiereco zorigaitzerat ereman nahiz. — Norentzat eta nongotzat izanen othe dire? Ala Jesus onarentzat, ala Satanentzat? Zerucotzat, ala ifernucotzat!!

Oi, zer caritate pare gabecoa, zer pare gabeco atsegina Jesus Jaunaren bihotzarentzat, baldin Satanec berizenaz beretuco zuen arima hetarie bat bakarra, guri esker, salbatzen

Azkenecotz, Jesusi mintza bere buruaz; hori ez ahantz. Erran, zin-zinez zembat atsegin duzuen ematen zaizcon ohorez, zembat atsegin jakiteaz haren erlisione saindua egunetic egunerat hedatzen hari dela paganoen artean; erran,

balitz, baldin gure laguntzac zeruko biderat bihurrarazten balu eta Jesus Jaunari ematen!

Mariaren haurrec bereziki behar dute lehiatu hagonian direnen laguntzerat. Andre - dena Mariari ere, mundu huntan bizi zelaric, hainitz laket zitza on hagonian zireneng ondoan egotea, heriotze on baten egiten laguntzeco; eta heientzat khartsuki othoztzen zuen bere semea. Hori, Ama Birjinae berac ezigutarazi zion bere zerbitzari handi bati, Maria d'Agredari, eta gero erran zioen : « Zue ere, nic egin dutana eginazu zure bizico egun oroz. » Segur, gauza bera galdezen diote Mariac bere haur guzieri.

Beraz othoitz, Mariaren haurrec, othoitz hainitz hagonian direnentzat.

Heientzat : 1^{re} maiz Jaincoari escain nombet beti erraten hari diren mezac; 2^{re} maiz othoitz hau egin : « Jesusen Bihotz hagonian emana, urrical dakizkitzu hil urran direnac »; 3^{re} maiz errepicia *Agu*: *Mariaco* hitz hauc : « Maria saindua... egizu othoitz gu bekhatorosentzat... gure heriotzeco orenean ».

Azken hitz bat : Mariaren haurrec, lehia zaitezteapheza tenorez, ahalaz ausarki tenorez, erietarat ekharrarazterat.

zembat bihotz-min duzuen icusiz bere haurretarichaimbertzec ahanzten dutela eta laidoztatzen. Erran, zuen gutiziari biziiena dela, eta zuen zorionic handiena izanen dela, denec gero-ta-gehiago ezagut dezaten, maita eta zerbitza ; erran, hori galdetzen diozuela bihotzaren erditic Jaincō guziz on eta botheretsuari. — Eta orduan, *Gure Aita* bat eta *Agur Maria* bat erranic, etcherat itzul.

Jesusen eta Mariaren haurrac, hola eginez, zembat grazia eremanen duzuen zuekin !



V — BIHOTZ SACRATUA

Egun batez, Santa Gertrudac galdegin zion Jesus Jaunari : « Ene Salbatzaile « adoragarria, dakizunaz geroz ni deu- « setaco ez naizela, iracuts iezadazu ze- « ronec nola ohora dezakedan zure Ama « Saindua. »

Eta Jesusec ihardetsi zion : « Ene bi- « hotz, haren errai garbietan egina izan « dena, ohoratuz eta maitatuz. »

Alabainan, nihorc ez du Bihotz Sacratua Mariac bezen ongi ezagutu, nihorc beraz hain ongi ohoratu eta maitatu. Eta hortaric ageri da, Mariaren egiazco haur dela, harec bezala Bihotz Sacratua ohoratzen denean eta maitatzen.

Bertzalde, Bihotz Sacratua Mariaren semearen bihotza da. Bada, gauza jakina da, deusec ez dituela amac hala bozcariatzen, nola icusteac beren haurrac ohoratuac eta maitatuac; erran behar bada, chuchenago eta barnago doazcote bihotzerat haurreri egin laudorioac, ohoreac eta emaitzac, ezen-ez

bereri eginac. Hori egia da amaien izena merezi duten guzientzat; eta miletan egiago Andre-dena Mariarentzat, haren semea delacotz Jesus, Jesus ontasun guzien ithurria, oroz gaineco laudorioa, ohorea, amodioa zor zaion Jaincoa.

Beraz, Mariaren haurrac, zuen Ama-ren urhatseri jarraikitzeko, zuen Ama atsegin gozoenaz bethetzeko, izan debo-zione handi bat Jesusen Bihotz Sacra-tuarentzat.

*
..

Debozione horrec izan behar du adorazionezco, amodiozco, eta guziz erre-parazionezco debozione bat.

*
..

Jesusen bihotza adoratu beharra dela, bichtan da, bihotz hori Jaincoaren bihotza denaz geroz. Jesusen baitan guziac adoratzekoac dire : Jaincotasuna, eiran gabe doa; bai eta ere gorputza, odola eta arima. Ezen, Jainco Semeac hartu eta beretu dituen gorputza, odola eta arima dire, beraz Jainco Semearen gorputza, odola eta arima; eta hec ado-

ratuz, Jainco Semea dugu adoratzen, Jainco Seme bere Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin Jainco bakharra dena, beti adorazionea zor diogun Jaincoa.

*
**

Bihotz sacratua maitatu behar dugu. Jesusen baitan oro osoki maitagarriac dire. Eta bizkitartean, Jesusen bihotzac merezi du amodio berezi bat; eta huna zergatic : Badakigu Jesusec salbatu gaituela, gurutzean bere odola ichuriz. Bada, zerc ekharri du Jesus guretzat hola hiltzerat? Zerc? Guretzatzuen amodioac. Jaincoaren Semeac etzuen batere gure beharric; gu zeruan edo ifernuan izan, bardin zorion du : Jaincoaren zoriona deusec ez dezake handi, deusec ttiki. Guc ginuen, guc, Jainco Semearen beharra; eta gu-gatic, gure urricariz, guretzat amodioz, gizon egin izan da eta gurutzean itzaturic hil. Bai, dio Apostoluac, « maitatu nau, eta bere « burua eman du neretzat ».

Bainan amodioa nondic heldu da? Iguzkitic argia, ithurritic ura, mahatsettic arnoa bezala, amodioa heldu da bi-

hotzetic. Begiac icusten duen bezala, eta beharriac entzuten, bihotzac maitatzen du. Beraz, Jesusen amodioac gaituenaz geroz salbatu, eta amodio hora Jesusen bihotzetic heldu denaz geroz, gauzac erotic hartuz, Bihotz Sacratuac gaitu salbatu. Eta horra zergatic maitatu behar dugun, maitatu khar berezi batekin, haimbertze maitatu gaituen bihotza; ezen amodioac amodioa galdegiten du, amodioa ez da amodioz baizic pagatzan. — Errech da Bihotz Sacratuari erratea : Maite zaitut. Bainan norbeit egiazki maite delaco frogat zoin da? Frogat segura : maite denarentzat nahitarat sofritza. Jesus Jaunac guretzat nahitarat sofritu du; Jesus Jauna guretzat nahitarat hil izan da. Eta hortan eman daucu bere amodioaren frogaric hoherena. Ezen, dio Salbatzaileac berac, « nihorci ez dezake amodiozco frogat » handiagoric eman, maite duenarentzat hiltza baino. » Horrengatic Jesus Jaunac bere bihotza Margarita Maria dohatsuari iracutsi zion, su lamez betea, elhorrizco coro batez inguratua, gurutze bat gainean landatua. Su lamac,

bere amodio bizi eta beroaren ezagutazteco ; elhorriac eta gurutzea, jasan zituen sofricarioez eta heriotzeaz orhoitarazteco : « Huna, zion Salbatzaileac, « huna gizonac haimbertze maitatu di- « tuen bihotza ! »

Eta guc, ordainez, Bihotz Sacratua maite othe dugu, maite egiazki?

Harentzat sofritzen balin-badakigu, bai; bertzenaz, ez. Ez, zer-nahi othoitz ezpainez eginican ere; ez, zin-zinez uste izanican ere maite dugula. Otoi, ez gure buruac itsu! Bihotz Sacratuarentzat ez dugu sofritu nahi : beraz ez dugu maite. Eta zembatenaz ere gehiago eta gogoticago sofrituco baitugu, araberan maite dugulaco froga segura.

Bihotz sacratuarentzat sofritzen da, haren ohoretan, harekin batasunean, eztiki eta pazientziarekin hartuz atsegabeac, eritasunac, ontasun galtzeac, giristino lagunaren elhe edo egitate tcharrac. Bihotz sacratuarentzat sofritzen da, haren ez zauritzeco, bekhatuan ez erortzeco, bere buruari batere barkhatu gabe jaidura gachtoekin guducatuz, beti heien ezeztatzerat eginez, galbidetaric

urrunduz. Bihotz sacratuarentzat sofrí-tzen da, Bihotz amultsu hari atsegin egiteco, gero-ta artoskiago giristino egi-tecoetan bermatuz, bere burua hobeki iharrotsiz othoitzen khartsuki egiteco, sacramenduetarat maiz hurbiltzeco. Zer-tan othe gare horieri guzieri buruz? Zer amodio othe dugu Bihotz sacratuaren-tzat?

*
..

Azkenecotz, Bihotz sacratuarentzat izan behar dugu erreparazionezco debo-zione bat. Eta segur izanen dugu, baldin egiazki maite badugu; bai, hori segur. Alabainan, maite den norbeití min edo calte egin bazaio, nahi izaten zaio min edo calte hura ahalaz ttikitu eta khendu; egin bazaio atsegabe, nahi izaten zaio atseginez ahantzarázi. Bardin, maite den norbeit icusten bada bertzez gaizki ekharria, laidoztatua, nigarretan dagola; hola icusten bada aita bat, ama bat, egin-ahala egiten da haren nigarren chucatzeco, bihotz-minen eztitzeco, lau-senguz eta ohorez estaltzeco eta ahan-tzarazteco jasan dituen burlac eta tzar-

keriac. Bada, norc seculan jasateco izan du Jesusen bihotzac bezemba eskergabetasun eta laido? Eta norc du hain guti merezitu? Jesusec gizonac haimbertze maite! Heientzat, hetaric bacotcharentzat bere odol guzia ichuri! Eta gizonac beti haren Bihotzaren zauritzen, zilatzen, erdiratzen hari! Bekhatuac, alabainan, leher egin du munduan... Eta gu ere, ondicotz, gu guziac, gutichago edo gehichago, gutienaz ere hainitz sobra, bai guziac hoben hortan sartzen gare. Guziec bekhatu egin izan dugu, sobra bekhatu!

Beraz, Bihotz sacratua zinez maite balin-badugu, nahico diogu ahalaz atsegabe eman diogun bezemba atsegina eman. Gure eta bertzen laidoen, gure eta bertzen eskergabetasunen estaltzeo eta ahantzazteco, nahico dugu gero-ta hobeki ohoratu eta zerbitzatu. Lehia handi bat izanen dugu Bihotz sacratuaren atsegaben eztitzeco, chede hortarat hartuz gure nekheac, ez ongiac, macur guziac; chede hortarat, goiz guziz bederen, Bihotz sacratuari escainiz, Andre-dena Maria ararteko, egun har-

taco lan eta gertacari guziac. Ahalaz hola contsolatuco dugu Jesusen bihotza, ahalaz gure hitzez eta obrez, hobeki ezagutarazico, ohorarazico eta maitarazico. Hori da erreparazionezco debozionea. Eta, berritz erran dezagun, bichtan da ez ditakela Bihotz sacratua egiazki maita, debozione hori izan gabe.

Bertzalde, debozione hori Jesusen Bihotzari hainitz-hainitz laket zaiola badakigu segurki; badakigu Jesus Jau-nac berac erranic, Maria Margarita do-hatsuari auhenez galdegin zionean Eli-zac, erreparazionezco chede hortarat, egin ziezon besta berezi bat. Hala egiten ere baitzaio, Besta-berri otaba ondoko ortziralean.

Mariaren haurrac, zuec ez izatecotz, nor izanen da debozione eder horri atchikia! — Chede hortarat arras on da : Bihotz sacratuaren bestan comuniatzea, bai eta hilabetheco lehen ortzirale guziz; ortziraletan estazionen egitea, mezaren entzutea, etchean ageri-agerian Bihotz sacratuaren potret baten ezartzea, Erearoan, nola Maiatzean Mariari, Bihotz sacratuari egunero zerbeitothoitz berezi egitea.....

Huna zembeit othoitz labur Bihotz sacratuari :


Jesusen Bihotz ez̄tia, izan zaite ene amodioa (300 egunen indulientzia).

Jesusen Bihots sacratua, urrical gakizkitzu.

Jesusen Bihotz ez̄tia, egizu maita zaitzadan gero-ta-gehiago.

Jesus, Bihotzez ez̄ti eta humila, egizu ene bihotza zure bihotza bezalaco.

Azken hitza. — Bihotz sacratuarentzat debozione duteneri, huna zer hitzematzen dioten Bihotz sacratuac berac : « Heien ihes-lecu segura izanen naiz « bizi direno , eta bereziki heriotzeco « oreanean. »



VI

GURUTZEAREN BIDEA edo **ESTAZIONEAC**

—

Doi-doia icusi dugu, Bihotz sacratuarren ohoretan egin ditazken gauza hoberenetaric bat dela : *Gurutzearen bidea*. Alabainan, gurutzearen bidean, estazioonetan, orhoitzen da Jesusen sofricarioez eta heriotzeaz; eta zinez, ba othe da deus bihotz-ukigarriagoric, deus bekhatuaren urriki eta herra biziagoa ariman sorraraz dezakenic!

Betidanic funtsezko giristinoec maite izan dute debozione hori, eta Elizac hainitz indulientziaz aberastu izan du.

Mariaren haurrac, herri bacotchean, lehenac izan behar zintazkete debozione hortaco. Ezen, zuen Ama Saindua ere lehena izan da. Mariac egin zuen lehen lehenic gurutzearen bidea, bere semearen ondotic Calbarioco mendirat joan zenean; eta han egon zen chutic Jesu-sen azken hatseraino, bere bihotzean Jaincoari escaintzen ziolaric gurutzea

behera zoan Jesusen odola. Bai, Jaincoarentzat amodioz, gizonentzat urricalmenduz, bere semearekin bihotzez bat egina, Mariac gogotic, harekin eta haren bezala, egin zuen haren biziaren emaitza eta sacrificioa. Nor seculan sar ditake Maria bezen barna Jesusen sentimenduetan! Norc, Jesusekin batean, egin dezake Mariac bezen osoki Jesusen sacrificioa! Norc Jesusekin batasunean sofri dezake Mariac bezemba! Maria *martiren erregina* da. Eta horra zergatic arras on den estazionen egitea Mariarekin batasunean.

Estazionen egiteco, bi gauza dire baitezpadacoac ; lehena, Salbatzailearen pasionea, erran nahi da sofricarioac eta heriotzea, gogoan erabiltzea ; bigarrena, hamalau estazionetan, lehembizicotik hasiz, batetic bertzerat lerroan ibiltzea.

Beraz ez da aski estazionetan hitzezco othoitz zembeiten egitea, nola zembeit *Gure Aita eta Agur Maria*. Baitezpada behar da, den gutiena bederen, Jesusen pasionea gogoan erabili. (Bichtan da hortacotz aski dela, eta on, pasioneaz mintzo den liburu batean zerbeiten ira-

curtza edo iracurtzen entzutea.) — Bertzalde, nahiz usaia den estazione bacotchean pasioneco zerbeit gauza berezi gogoan erabiltzea, bardin ongi egiten da gurutzearen bidea, estazione guzietan beti gauza bera gogoan erabiliric ere, nola bailitake : Jesusen gurutzearen pean erortzea; edo Jesusen gurutzean itzatzea eta hiltzea; edo bertze zerbeit. Horrela, iracurtzen ez dakitenee ere errechki egin detzazkete estacioneac, bai eta elizan, iracurtzeco argi aski ez delaric, aurkitzen direnec.

Estacionez estazione ibiltzeaz bezembatean, hori ere, erran dugun bezala, baitezpadaco gauza da, bederen gurutzearen bidea bakharca egiten denean. Orduan bere tokitic, han chutituric eta estazione bacotchari buruz emanic ere, gurutzearen bidea egin lezakenac, ez lezake ongi egin; eta ez lezake indulientziaric irabaz.

Bainan aphezac populuarekin batean egiten duenean gurutzearen bidea, orduan aski da apheza bi beattarrekin ibil dadin estacionetan; populua egon ditake bere tokian. On da bizkitartean, apheza

estazione batetaric bertzerat doalaric, populua ere chuti dadin eta gero, ahalaz, apheza gelditzen den estazioneari buruz itzul.

Erran dugu estazionentzat hitzezco othoitzac ez direla aski. Gehiago dena, othoitz horietaric batere ez erranic ere, estazioneac ongi egiten dire. Bizkitartean usaia da, eta arras ona, estazione bacotchean zerbeit othoitz laburren errateco. Arras on litake, estazione bacotchean, edo bederen haste-hastean, contrizionezco acta baten egitea.

(Mariaren haurrac debozione hortan laguntzeco, hemen ezartzen ditugu estazione labur batzu.)

Has aintzin eco othoitz za.

O Jesus, ene Salbatzaile amultsua, huna non naizen zure oinetan ahuspez, enetzat eta munduko bekhatoros guzientzat, bai eta Purgatoriako arimentzat, urricalmendu eta barkhamendu galdeztzeco. Baliaraz gaitzatzu, othoi, hec eta ni, zure Pasioneko merezimendu izari-gabecoez. Nigarrezco eta auhenezco bide huntan, hain urriki mina sorraraz-

azuene bihotzean, non ekharria izanen bainaiz bizi huntaco nekhe eta atsegabe guzien gogotic jasaterat zu-gatic. Eta zu, gurutzearen bidea lehen-lehenic iracatsi daucuzuna, Maria Saindua, ardiets ieza-dazu Trinitate Sainduac, egiten zaizcon laido guzien ordainetan, onhets detzan Izpiritu Sainduac orai ni baitan piztuco dituzken urrikia eta amodia.

LEHEN ESTAZIONEA

Jesus hiltzerat condenatua da

Adoramus te, Christe, Adoratzen zaitugu, ô
et benedicimus tibi; Jesus, eta benedica-
tzen;

Quia per sanctam Cru- Zure Gurutze sainduaz
cem tuam redemisti duzulacotz mundua
mundum. erosí.

O Jesus, zuzen contra zintuen Pilatu-
sec hiltzerat condenatu. Nic ere zembat
aldiz ez zaitut nere bekhatuez bardin
condenatu! Salbatzaile amultsua, merezi
gabe hiltzerat condenatua, libra nazazu
hainbertzetan merezitu dudan betiereco
heriotzetic.

Pater...

Gure Aita...

Ave Maria... Agur Maria...
 Miserere nostri, Domine, miserere nostri. Urrical gakizkitzu, Jauna, urrical gakizkitzu.

(Estazione batetic bertzerat doalaric, erran ditake :)

Sancta Mater,	istud Ama Saindua,	hau egidas,	zu :
Crucifixi fige plagas	Gurutzeficatuaren zauriac sar		
Cordi meo valide.	Barna nera bihotzean.		

BIGARRENA

Jesusi gurutzea ematen diote bizcarrean.

Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

O Jesus, hain gogotic garraiatu duzun gurutze dorpea, ene bekhatuez egina zen. Indazu heien belztasuna ongi ezagutzeco, eta hetaz ene bizi guzian nigar egiteco grazia.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

HIRUGARRENA

*Jesus gurutzearen pean erortzen da lchen
aldicotz.*

Adoramus te...

Adoratzen zaitugu...

Ene bekhatusen cargo izigarriac, ô Jesus, erorrarazi zintuen gurutzearen pean. Damu handi dut guziez; guzien barkhamendua escatzen derautzut; eta, zure graziarekin batean, ez dut gehiago secularan egin nahi.

Pater...

Gure Aita...

Ave Maria...

Agur Maria...

Misericere...

Urrical...

LAUGARRENA

*Jesusen buruz kuru egiten du bere Ama
Sainduarekin.*

Adoramus te...

Adoratzen zaitugu...

O Jesus, ô Maria, nere bekhatusengatic duzue garrazki nigar egin; nere bekhaturec zaituzte atsegabez gainditu; eta nic, orai artio, hain errechki egin dut bekhatu! Ah! hemendic harat, Jaincoaren graziarekin, ez da hala izanen; hil artio beti nahi zaituztet maitatu.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical....

BORTZGARRENA

Simon Zirenecoac Jesus laguntzen du gurutzearen garraiatzen.

Adoramus te...	Adoratzen zaitugu...
----------------	----------------------

Dohatsu, miletan dohatsu, o Jesus, gurutzearen garraiatzen lagundu zintuen arima ona. Nic ere, zinez, nahi zaitut gurutzearen jasaten lagundu, zuretzat eta zurekin batean, eztiki eta gogotic hartuz nere nekheac, ez-ongiac, macur guziac. O Jesus, indazu grazia hori.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

SEIGARRENA

Beronicac begitarteachucatzen dio Jesusi.

Adoramus te...	Adoratzen zaitugu...
----------------	----------------------

O Jesus guziz eztia, Beronicac chucatu zintuenean, zure begitartearen iduria eman eta utzi zinuen haren oiuhalean.

Halaber, othoi, ene ariman ezar-azu eta beti atchic zure sofricarioen orhoitzapena.

Pater... Gure Aita...

Ave Maria... Agur Maria....

Miserere... Urrical...

ZAZPIGARRENA

Jesus erortzen da bigarren aldicotz.

Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

Ni behin baino gehiagotan bekhatuan erori naizelacotz, zare zu, ô Jesus, berritz ere lurrerat erortzen. Lagun nazazu, othoi, behar direnen egiten, gehiago bekhatuan ez erortzeco.

Pater... Gure Aita...

Ave Maria... Agur Maria...

Miserere... Urrical...

ZORTZIGARRENA

Jesusec contsolatzen ditu Jerusalemeco emaztekiac.

Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

O Jesus, contsolatzen ditutzu, zu haimbertze sofritzen icuziz nigarrez za-

gotzin Jerusalemeco emaztekiac. Halaber, nere arima gaichoa urricalduric, contsola zazu bere nahigabetan. Zure bihotz samurra da nere ihes-lecu bakharra; haren nahiaren arabera nahi dut beti bizi.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

BEDERATZIGARRENA

Jesus erortzen da hirugarren aldicotz.
Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

Gurutzeac lehertua, hirugarren aldicotz lurrerat eroria, zembat egitate tzar, ô Jesus, zembat trufa, laido eta ostico etzinuen jasan, handic altchatzeco! Eta horiec ere nere-gatic, berritz ere eta beti bekhatu beretarat itzultzen naizelacotz! Bainan ez dut gehiago hola bizi nahi; ez, ez dut nahi. Hil nadila, ô Jesus, bekhaturic eginen dutan baino lehen.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

HAMARGARRENA*Jesus bilhuzten dute*

Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

O Jesus, soineco guziac khenduric, bilhuza agerrarazten zaituzte. Eta hor zaude ahälkez ikharetan, nere gatic, nere arinkerien eta lohikerien gatic. Salbatzaile urricalmendutsua, ni ere biluz nazazuene jaidura gachto eta atchikimendu tzarretaric. Egidazu lizunkeria guzietaric begiratzeco grazia.

Pater... Gure Aita...

Ave Maria... Agur Maria...

Miserere... Urrical...

HAMECAGARRENA*Jesus gurutzean itzatzen dute.*

Adoramus te... Adoratzen zaitugu...

Zer oinaze izigarriac, ô Jesus, itzeac zure escuetan eta oinetan sartu zituzte-nean, gurutzean itzetaric dilindan zi-naudenean! Egidazu, othoi, nere haragiaren gurutzeficatzeko indarra, nere gorphutzari seculan haizu ez denic ez emanez, eta haizu direnac ere, ez beti.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

HAMABIGARRENA

Jesus gurutzean hiltzen da.

Adoramus te...	Adoratzen zaitugu...
----------------	----------------------

O Jesus, hiru oren hagonian egonic, oinazeric minenetan hil izan zare neretzat, neretzat amodioz. Othoi, Jauna, hilaraz nazazu, berritz bekhatuaz zure heriotza erreberrituco dudan baino lehen; eta bizi behar badut, bizi nadila beti zuretzat, zure maitatzeco eta zerbitzatzeco.

Pater...	Gure Aita...
Ave Maria...	Agur Maria...
Miserere...	Urrical...

HAMAHIRUGARRENA

Jesus, gurutzetic jautsiric, bere Amari ematen diote.

Adoramus te...	Adoratzen zaitugu...
O Maria, ama guziz samurra, zer bihotz-min ezin erranezcoa zuretzat, Je-	

sus zure Seme maitea hila icustea zure besoetan ! Nere bekhatuec, ondicotz, hilarazi dute, nere bekhatuec zure bihotza zauritu eta erdiratu. Ama ona, ardiets iezadazu nere bekhatuen urriki bizi bat. Hemendic harat, nahi dut girstinoki bizi, nere arimaren salbatzeco.

Pater...

Gure Aita...

Ave Maria...

Agur Maria...

Miserere...

Urrical...

HAMAL AUGARRENA

Jesus ezartzen dute hobian.

Adoramus te...

Adoratzen zaitugu...

Oene Jesus, zurea nahi dut izan osoki, eta badadakit ez ditakela zurea izan, bere buruari ukho eginez, bere nahiac ehortziz baizic. Egizu beraz mundu hundtan beti zuretzat bizi nadin, ez neretzat; zure nahia eginez, ez nerea ; gero, bertzean, zurekin beti gozatzeko zure Passioneaz merezitu dautazun zeru ederrean.

Pater...

Gure Aita...

Ave Maria...

Agur Maria...

Miserere...

Urrical...

*Acabantzaco othoitzá
(aldare aintzinean)*

Jainco Jauna, zure Seme Jesu-Cristoc guretzat ichuri duen odolaz, Andredena Maria ararteco, gure bekhatuac barkhaturic, helaraz gaitzazu, othoi, betiereco zorionerat.

Parce Domine, parce populo tuo : ne in æternum irascaris nobis (*ter*). Barkha, Jauna, barce kha zure populuari. Ez zaitezela guretzat hasarre izan betico (*hi-ruetan*).

Arras on da azkenean *Gure Aita, Agur Maria eta Gloria erratea, Aita Sainduaren chedetarat* (1).

(1) Elizarat joan ez ditakenean, edo eriz, edo urrunegiz, edo destenore delacotz, edo bertze zerbeiten gatic, orduan non-nahi estazioneac egin ditazke, eta indulientziac irabaz. Huna nola : Hartaracotzat benedicatua den gurutzefica bat escuan delaric, erraten dire hogoi *Gure Aita, Agur Maria eta Gloria Patri* : lehen hamalauac, hamalau eztazionen orde; bertze bortz, Jesus Jaunaren bortz zaurien ohoretan; eta azkena, Aita Sainduarentzat. — Lagun multchu batec elgarrekin gurutzearen bidea hola egiten dutenean, aski da bakhar batec gurutzefica escuan izan dezan.

VII — SAN JOSEP

Mariaren haurrec ahalaz egin behar dute Mariac egin duena. Bada Mariac san Josep hainitz ohoratu du eta maitatu; Mariac san Josepi maiz eta ardura diozca bere galdeac, othoitzac adiarazi. Beraz egiazco Mariaren haurrec lehia khartsu bat izan behar dute san Josepen ohoratzeko, maitatzeko, othoizteko. Horrela, Mariac egin duena eginez, segur dire gauza hainitz ona egiten dutela, segur beren Ama sainduaren bihotza bozcarioz eta gozoz gaindituco dutela.

Bai, dio Aita Saindu Leon hamahirugarrenac, « arras on da populu giristinoa » jar dadin, debozione eta fidantzia « handi batekin othoizterat, Andre-dena « Mariarekin batean, haren espos guziz « garbia, San Josep dohatsua; eta ba- « dakigu segurki eta diogu, Andre-dena « Mariac berac hori galdetzen duela, « horrec Andre-dena Mariari atsegin « egiten diola. »

San Josep izan da : Jesus Jaunaren aita ordaina, Andre-dena Mariaren esposa , Familia Sainduaren buruzagia. Zer ohorea !

Jaincoac munduan et-zuen eta et-zezaken izan deus eta nihor Jesus eta Maria baino maiteagoric ; eta Jesus eta Maria Jaincoa ezartzen ditu Josepen escuetan, Josepen meneco. Zoin saindu et-zuen behar Josepec Jaincoaren hautu hori, cargu pare-gabeco hori, merezitzeco ! Zoin saindu, lur hunen gainean Aita Eternalaren ordaina eta casic itzala iza-teco , eta Jaincoaren semeac *aita* dei-tzeco ! — Zoin saindu, Andre-dena Mariaren espos bilhacatzeko, eta bilhacaturic ! Ezen ezcontzac berenaz galdegiten du, eta badakharke, esposac ontasunez bardin edo bederen bardintsu izan ditezen. Eta nahiz nihor ez ditaken Mariaren saindutasunerat hurbil, hargatic zemba saindu et-zuen behar Josep , Mariaren esposac , Mariarekin sobra desbardin, Mariaren ganic sobra urrun ez iza-teco !

..

Jesusec eta Mariac san Josep ohoratu dute eta obeditu, batec aita bezala, bertzeac espos bezala; eta biec beren behar-ordu guzietan san Josepi hel egin diote.

Eta san Josepec Jesus eta Maria ezin gehiagočo artarekin eta amodioarekin zaindu ditu; begiratu ditu etsaien amarruetaric; hazi ditu bere lanaren eta nekhearen bidez.

..

Guc ere beraz san Josep ohora dezagun eta maita, guc ere othoitz nasaiki. Eta gu ere zainduco gaitu san Josepec, guri ere emanen dauzkigu laguntzaric hoberenac.

« Ez naiz orhoitzen, dio santa Teresac,
 « egundaiño san Josepi zerbeit galdegi-
 « nic, ardietsi gabe. Saindu handi horri
 « esker, Jaincoac arimaco eta gorphu-
 « tzeco gaitz hainitzetaric nau begiratu.
 « Oi, zer icusgarria, hec guziac batean
 « ezartzen eta iracusten ahal banitu!
 « Jaincoac bertze saindueri ez diote
 « ematen behar-ordu batean edo ber-

« tzean baizic gure laguntzeco ahala;
 « san Josepen ahala aldiz, frogaturic
 « badakit, hedatzen da denetarat. Hor-
 « rela Jesu-Cristo gure Jaunac adiarazi
 « nahi daucu, lurrean bezala zeruan ere
 « Josepen nahiac bethetzen dituela,
 « Josepec galdetuac egiten. »

Aita Saindu Pio bederatzigarrenac san Josep hautatu izan du Elizaren patrointzat, erran nahi baita : zaintzaletzat. Alabainan, Josep Familia sainduaren buruzagi zen eta zaintzaile. Eta Eliza bertze Familia saindu bat bezala da, Jesu-Cristoren haurren bilcura. — Gehiago dena, erran ditake Eliza zainduz, Jesu-Cristo bera duela aintzinat eta beti san Josepec zaintzen. Ezen Jesu-Cristo beti bere Elizarekin da, Jesu-Cristoren Izpiritua, Izpiritu-Saindua, da Elizaren arima eta bizia.

Othoitz beraz san Josepi, khartsuki othoitz Eliza Ama Sainduarentzat. Haimbertze etsai du Elizac ichil eta ageri, hain hazcarrac, hain amarrutsuac! Maiz eta ardura san Josepi galde, Jesusentzat duen amodioaz, begira eta lagun dezan Eliza, begira eta lagun bereziki Eliza-

ren buruzagia, Jesu-Cristoren lurreco ordaina, Aita Saindua.

*
*
*

San Josepec izan du zoriona Jesusen eta Mariaren besoetan eta besarcan hil-tzeco. Heriotze guziz dohatsu horren orhoitzapenetan, san Josepi galde heriotze on baten grazia. Ez da grazia handiagoric eta beharragoric; ezen ongi hilez, Jaincoaren adichkide hilez, zerua segur da. Egun oroz beraz, hutsic egin gabe, grazia hori galde san Josepi, galde guretzat eta bertzentzat; galde bereziki egun hartan hilen direnentzat.

*
*
*

San Josep errege odoletic zen, Dabid erregearen ethorkitic. Eta bizkitartean, bizi izan da beti langile eta nekhazale. San Josep lanean haritu da Jesusentzat eta Jesusekin! Eta Jesus Jauna ere langile izan da eta nekhazale, Jesus zero lurren nausia! Zer etsempluac, zer argiac, egiazco bihotz-altchagarriac, jende

chehearentzat, lanetic bizi denarentzat! Segurki haizu zaio jende beharrari, nekhev bizi denari, ontasun gehiago, bizi tzeco errechetasun gehiago zuzenez bilhatzea. Bainan, nahi eta ez, beti izanen dire ongi izertuz baizic bizitzen ahalco ez direnac, beti izanen dire pobreac.

Ochala guziec, Josepec bezala, bihotz onez har baletzate beren nekheac eta escasiac! Ochala guziac, Josep bezala, aberasteco gutizia sobrakinic gabe, eta bereziki Jaincoari jazarri gabe, pazientziarekin balagotzi aurkitzen diren heinean edo estatuan! Ochala guziac, Josep bezala, lanean hari balire Jaincoarentzat, Jesusekin batasunean!

Hola eginen duzue zuec bederen, Mariaren haur, lanetic, nekhatuz, bizi behar duzuene. Grazia hori maiz galde zozue san Josepi zuentzat eta bertzen-tzat.

..

Gauza jakina da Martchoa dela san Josepen hilabethea, nola Maiatza Andredena Mariarena. Elizaren chedetan osoki sartzeco, on litake Martchaco egun oroz

zerbeit othoitz berezi egitea san Josepi. Hortarat lehiatuco dire Mariaren haurrac; eta bertzalde, Martchoaren heme-retzian, san Josepen bestan, ahalaz hurbilduko dire mahain sainduetarat.

San Josepi egin ditazken zembeit othoitz

San Josep, othoitz egizu guretzat.

San Josep, Bihotz Sacratuaren adichkidea, othoitz egizu guretzat. (*100 egunen indulientzia, egunean behin.*)

Gure bizia garbiki iraganaraz iezaguzu, Josep; eta beti segurean izan bedi zure gerizan. (*300 egunen indulientzia, egunean behin.*)

Orhoit zaite, Maria Birjinaren espos guziz garbia, ene begirale guziz maitagarria, ez dela seculan erraten aditu, norbeitec begira dezazun galdegin dautzula eta lagun dezazun escatu, contsolatua izan gabe. Fidantzia beraz sustatua, zure ganat heldu naiz, eta zuri othoizca nagozu nere arimaco khartsutasun guziarekin.

Oi, zu, Salbatzailearen aitatzat atchikia izan zarena, et-zazula arbua ene othoitzoa, bainan bai onhets amultsuki. Halabiz.

Huna orai, acabatzeko, othoitz bat

hainitz ederra, Aita Saindu Leon hamahirugarrenac munduko giristino guzieri igorria, eta Urrian egun oroz, Andredena Mariari elizetan egin behar zaizcon ohoitzen ondotik, erratea manatu duna. (*7 urtheren eta 7 gari Zumen indumentzia.*)

Zure ganat, Josep dohatsua, ihes egiten dugu gure hersturan; eta Maria zure espos sainduaren laguntza galdetu ondoan, zuc ere begira gaitzatzun fidantziarekin escatzen dautzugu. Birjina notha gabe, Jaincoaren Amarekin bat egin zaituen amodioaz, eta Jesus haurrarentzat iracutsi duzun Aita on bihotzaz, humilki ohoizten zaitugu, begi onez beha diezozun Jesu-Cristoc bere odolaz beretu duen primantzari, eta gure behar-orduetan hel zakizki-gun zure bothere handiarekin. O Familia Sainduaren begirale guziz zuhurra, zain zazu Jesu-Cristoren ethorki hautatua; Aita guziz samurra, gutaric urrun zatzu iracaspen macurren eta lizunkerien zikhin guziac. Gure alde eman zaite, gure zaintzale boheretsua, eta zerutic lagun gaitzatzu Satanekin dugun guduan. Eta bertze orduz Jesus Haurra hiltzeco menetic libratu zinuen bezala, hala hala orai Jaincoaren

Eliza saindua libra zazu etsaien amarruetaric, eta gaitz guzietaric. Guteric bacotcha atchicazu zure gerizan ; zuri jarraikiz eta zure laguntzac hazcarturic, bizi ahal gaitezentzat sainduki, hil sainduki, eta zeruan bétiereco zorionaz jabe egin. Halabiz.

- - -



VIII — ABITUAC

¶ I. Zer diren

Giristinoec gehienic ibiltzen dituzten abituac dire : beltcha, eta urdina. Gauza segura da, Andre-dena Mariari atsegin handia egiten zaiola, haren abituac ibiliz ; ezen abitua da : Andre-dena Mariaren arropa ttikia ; abituac iracusten du Mariaren haur izan eta agertu nahi dela. Non-nahi norbeit hil dadin, abitua balin-badu, ezagutuco da giristinoa zela, Andre-dena Maria maite zuela.

..

Abituaren oihalac izar behar du ilez-coa ; oihalari jos ditake *saindu* bat ; bainan ez eginican ere, bardin on da.

Abitua ibili behar da lephotic behera, alde bat aintzinerat, bertzea gibelerat, eta ez, batuetan egiten den bezala, bi aldeac batean aintzinerat edo gibelerat. Gutiago eman behar da sakelan, edo utzi ohe muturrean itze batetic dilin-

dan. Abitua ez ibiliz, ez dire ez abituco indulientziac, ez bertze fagoreac irabazten. Larru arrasean ez ibiliric ere, bardin balio du.

Abitu bat baino gehiago denean, guziac ibil ditazke lokharri beretic; bainan ez dire-bat bertzeari osoki alde guzietaric josi behar. Abitu bat higatzen edo hausten denean, aski da bertze baten hartza, batere benedicarazi gabe; lehembizicoaren benedizionea hedatzen da bertze guzietarat.

* * *

Abituan izateco, behar da ahala duen aphez batec sartua izan. Bertzalde, abitu beltcharentzat, baitezpada behar du sartzen denaren izenac abitu horren confrarioco liburuan ezarria izan.

? II — Abitu beltcha ⁽¹⁾

Abitu hau ibiltzen da Andre-dena Maria Carmelecoaren ohoretan.

Andre-dena Mariac hitzeman du, abi-

(1) Hain ongi edo hobeki ibil ditake gaztain colorca.

tu beltcha soinean hiltzen denac ez di
tuela icusico ifernuco suac.

Agintza hori Mariac egin duela sinhestea, ez daucu Elizac manatzen. Ez sinhestea haizu da; bainan sinhestea ere bai, arras haizu. Gehiago dena, Elizac onhartzen du aphezec agintza hori egiazcoa dela iracats dezaten. Egiazcoa delaco itchuraric handiena badu beraz; eta hoherena da, sinheste eta esperantza gozo horrekin abitu beltcha beti-beti ibiltzea, ibiltzea errespeturekin eta amo-diorekin.

Bertzalde, abitu beltchean direneri bereziki baliatzen zaizcote, bizi huntan eta bertzean, Carmeleco ala fraidec, ala serorec, egiten dituzten othoitzac, obra onac eta penitentziac. Eta Jaincoac daki zembat duten egiten!

Huna abitu beltchean direnec irabaz detzazketen indulientzia zembeit.

INDULIENTZIA OSOAC

(*Cofesatz, comuniatuz, eta Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez.*)

Sar egunean, Andre-dena Maria Carmele-

coaren bestan, hori baita Uztailaren 16^{an}, edo ondoko igandean.

(*Cofesatuz, comuniatuz, eta confrarioco elizan cdo, ez bada, herrico elizan Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez.*)

Hotsailaren 2^{an} eta 4^{ean}; Martchoaren 19^{an} eta 25^{ean}; Ortzegun Sainduz, Bazcoz, Salbatorez; Maiatzaren 5^{ean}, 16^{ean} eta 25^{ean}.

Uztailaren 2^{an}, 16^{ean}, 20^{ean} eta 26^{ean}; Aboztuaren 7^{an}, 15^{ean} eta Andre-dena Maria ondoko igandean; Buruilaren 8^{an}; Urriaren, 15^{ean}; Hazilaren 21^{ean} eta 24^{ean}; Abendoaren 8^{an}; Eguberriz...

3 III. Abitu urdina

Abitu hau ibiltzen da Andre-dena Maria, notharic gabe contzebitua delacotz, ohoratzeco. Hantan sartuac direneri galdegina zaiote, othoitz egin dezaten bereziki bekhatorosen Jaincoaren ganat itzularazteco.

Abitu urdinean sartua denean, eta soinean balin-bada, sei *Gure Aita, Agur Maria* eta *Gloria Patri* erraten diren

aldi oroz, *egunean bchin*, irabazten da *hainitz indulientzia oso* eta ez oso, cofesatu eta comuniatu gabe. Mariaren haurrec hainitz maite izan behar dute othoitz guziz aberats hori. Zertaco ez lukete egun oroz erranen!

INDULIENTZIAC

(*Cofesatuz, comuniatuz, eta eliza batean Aita Sainduaren chedetarat othoitz eginez, indulientzia osoa irabazten da.*)

Sar egunean; hilabetheco lehen igandetan; garizumaco larumbat guziz, Pasioneeco igan-dean eta ondoko ortziralean; Eguberriz, Trufaniaz, Ortzegun Sainduz, Bazcoz, Salbatorez, Mendecostez, Trinitatez, Abendoaren 8^{an}; Hotsailaren 2^{an}; Buruilaren 8^{an}; Andre-dena Maria Martchocoan eta Aboztucoan; Martchoaren 19^{an}, Erearoaren 29^{an}; Buruilaren 29^{an}; Urriaren 2^{an} eta 15^{eán}; Omia Sainduz...

Bai abitu beltcheco, bai urdineco, indulientzia guziac irabaz ditazke Purgatoriotaco arimentzat.



IX — ANDRE-DENA MARIARI EGITEN ZAIZCON ZEMBEIT OTHOITZ EDER

Litaniac

Kyrie, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, eleison.

Christe, eleison.

Kyrie, eleison.

Kyrie, eleison.

Christe, audi nos.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Christe, exaudi nos.

Pater de cœlis, Deus, miserere nobis.

Fili, Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.

Spiritus sancte, Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas, unus Deus, miserere...

Sancta Maria, ora pro nobis.

Sancta Dei genitrix, ora pro nobis.

Sancta Virgo virginum, ora pro nobis.

Mater Christi, ora pro nobis.

Mater divinæ gratiæ, ora pro nobis.

Mater purissima,
Mater castissima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater amabilis,
Mater admirabilis,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentissima,
Virgo veneranda,
Virgo prædicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiæ,
Sedes sapientiæ,
Causa nostræ lætitiaæ,
Vas spirituale,
Vas honorabile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris Davidica,
Turris eburnea,
Domus aurea,
Fœderis arca,
Janua cœli,
Stella matutina,

Ora pro nobis.

Ora pro nobis.

Salus infirmorum,
 Refugium peccatorum,
 Consolatrix afflictorum,
 Auxilium Christianorum,
 Regina Angelorum,
 Regina Patriarcharum,
 Regina Prophetarum,
 Regina Apostolorum,
 Regina Martyrum,
 Regina Confessorum,
 Regina Virginum,
 Regina Sanctorum omnium,
 Regina sine labe originali concepta,
 Regina Sacratissimi Rosarii,
 Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,
 parce nobis, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,
 exaudi nos, Domine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi,
 miserere nobis.

Christe, audi nos.

Christe, audi nos.

Christe, exaudi nos.

Christe, exaudi nos.

v. Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix,

R. Ut digni efficiamur promissionibus

Christi.

Ora pro nobis.

OREMUS

Gratiam tuam, quæsumus Domine,
 mentibus nostris infunde, ut qui, An-
 gelo nuntiante, Christi Filii tui incarna-
 tionem cognovimus, per passionem ejus
 et crucem ad resurrectionis gloriam
 perducamur. Per eumdem Christum
 Dominum nostrum. Amen.

Orhoit zaite

(San Bernaten othoitz famatua eta guziz indar-
 tsua.)

Orhoit zaite, ô Birjina guziz urrical-
 mendutsua, ez dela egundaiño aditu,
 nihor zure ganat ihes egin duenic, zure
 laguntza galdegin duenic, zure ararteco-
 tasuna escatu duenic, izan dela lagun-
 tzaric gabe utzia. Fidantzia beraz susta-
 tua, nic ere, Birjina Birjinen Ama, zure
 ganat laster egiten dut, zure ganat heldu
 naiz, bekhatorosa auhenez nago zure
 aintzinean. Et-zatzula arbua ene othoi-
 tzac, Jainco Semearen Ama, bainan bai
 entzun fagorezki eta onhets. Halabiz.

Sub tuum præsidium

Sub tuum præsidium consugimus,

Sancta Dei Genitrix : nostras deprecationes ne despicias in necessitatibus : sed à periculis cunctis libera nos semper, Virgo gloriosa et benedicta.

Escuaraζ :

Zure gerizarat ihes egiten dugu, Jaincoaren Ama Saindua ; gure othoitzac ez detzatzula arbuia behar-orduetan ; bainan libra gaitzatzu beti herstura guzietaric, Birjina loriosa eta benedicatua.

Inviolata

Inviolata, integra et casta es, Maria,
Quæ es effecta fulgida cœli porta.

O Mater alma Christi charissima,
Suscipe pia laudum præconia.

Nostra ut pura pectora sint et corpora,
Te nunc flagitant devota corda et ora.

Tua per precata dulcisona

Nobis concedas veniam per sœcula.

O benigna ! O Regina ! O Maria !

Quæ sola inviolata permansisti.

Escuaraζ :

Osoki chahu eta garbi zare, Maria,
Zeruko athe distirant egina izan zarena.

O Cristoren Ama ezti guziz maitea,
Onhets-atzu gure laudorio amodio-
tsuac.

Garbi izan ditezen gure arimac eta
gorphutzac,

Khartsvki galdetzen dautzugu orai
bihotzez eta ahoz.

Jaincoari hain laket zaizcon zure
othoitzec,

Eman diezagutela betiereco barkha-
mendua.

O zu hain ona! O Erregina! O Maria!
O zu bakharric osoki garbi egon za-
rena.

Angelus

Angelus Domini nuntiavit Mariæ, et
concepit de Spiritu Sancto.

Ave Maria...

Ecce ancilla Domini, fiat mihi secun-
dum verbum tuum.

Ave Maria...

Et Verbum caro factum est, et habi-
tavit in nobis.

Ave Maria...

Ora pro nobis, sancta Dei Genitrix.

Ut digni efficiamur promissionibus
Christi.

Oremus.

Gratiam tuam, quæsumus... (Litanien ondotic den bezala, 281^{garren} plaman).

Escuaraz :

Jaunaren Aingeruac berria ekharri zion Mariari, eta contzebitu zuen Izpiritu Sainduaren ganic.

Agur Maria...

Huna Jaincoaren nescatoa; egina izan bekit zure hitzaren arabera.

Agur Maria...

Eta Jainco Semea gizon egin da, eta egotu da gu-tartean.

Agur Maria...

Othoitz egizu guretzat, Jaincoaren Ama Saindua.

Cristoc hitzemanac merezi detzaguntzat.

Othoitzā.

Zure grazia, othoi Jauna, gure arimenterat ichur-azu, amoreagatic eta, Aingeruac mezuturic, Cristo zure Semearen gizon egitea ezagutu dugunac, harren Pasionearen eta gurutzearen bidez,

Piztearen loriarat hel gaitezen. Ber
Cristo gure Jaunaz. Halabiz.

*
..

*Mariaren bihotz eztia, izan zaite ene
salbamendua (300 egunen indulientzia).*

*O Maria bekhaturic gabe kontzebitua,
othoitz egizu guretzat, zuri gaude (100
egunen indulientzia, egunean behin).*



HOGOI BAT MEDITAZIONE

1^{ic} Meditazione hautaric zembeit aski luze dire bi alditaco.

Oso osoan aldi batez egiten direnac, arras on izanen da ondoko aldian hec berac berritz egitea.

2^{ic} Egun guziz meditazione puchca bat egin ez baditake, egin bederen egun bat arte, edo astean bi, hiruetan, edo gutien-gutienaz igandetan ; bainan orduan funtski, ahalaz oren erdi batez.

3^{ic} Orhoit santa Teresaren hitzaz : « Hitze- « man iezadazue egunero oren laurden bat « meditazione, eta nic hitzematen dautzuet « zerua. »

I — ZERTACO GAREN MUNDUAN

Ene Jaincoa, zero lurren nausia, sinhesten dut zure begien aintzinean naizela, sinhesten hemen zarela nerekin, nere baitan.

Adoratzen zaitut creatura guziekin, beretiki sainduenekin, batasunean. Eskerrac derauzkitsut orai artio eman dauzkidatzun graziez.

Barkhamendu escatzen dautzut neru hutzez, amodio escasez.

Orai, ene Jainco Janna, nere ez-deustasuna urricalduric, nere bekhatuac ahantziric, argi zazu, othoi, nere arima, uki zazu nere bihotza eta zure ganat itzul. Grazia hori galdetzen dautzut Andre-dena Maria ararteko. Agur Maria.

— Zertaco gare mundu huntan? —
Jostatzeco?... Aberasteco?... Ohorez gozatzeco?... Ez, ez, Jaincoac ez gaitu hortacotzategin. Jaincoac egin gaitu harren ezagutzeco, maitatzeco, zerbitzatzeco, eta bide hortaz zerurat heltzeco.

Zerucotzat eginac gare beraz; gure

lan handia, gure lan bakharra mundu huntan da : zeruaren irabaztea. Zerua irabazten badugu, behar diren guziac izanen ditugu; eta aldiz zerua galtzen baginu, guziac galduac litazke... Aski sinhesten othe dugu egia handi hori? Aski barña sartua othe da gure bihotzean? Aski maiz orhoitzen othe gare egiteco dugun lan handiaz, lan bakharraz, zeruaren irabazteaz?...



Aithor dezagun lañoki : ez, ez, munduan zertaco garen ez gare aski maiz eta funtski orhoitzen. Gure gogoetac, gure gutziac, gure lehia guzia, lur huntaco gauzentzat dire; lur huntaco gauzez gare gose eta egarri; lur huntaco gauzen ondotic gabiltza hatsangatuac, akhituac. Eta zerua! Eta salbamendua!... Alta, dio Jesu-Cristo gure Jaunac, « zer « doaco gizonari, mundu guzia beretu « ric ere, bere arima galtzen badu? » O itsumendua! ô zorokeria! Gauza bakhar bat izaki egiteco, eta gauza bakhar hura bazterrerauzten, orhoitu ere gabe! Bai, beharbada egun osoac, aste,

hilabethe osoac iragaten ditugu, lan
hura funtski gogoan erabili gabe. Eta
bizkitartean lan batez orhoitzen ez ba-
da, funtski gogoan erabiltzen ez bada,
lan hora nola eginen da ongi? nola ja-
kinen da chuchen zertan den lan hari
buruz?

Zerurat behar dugu, salbatu behar
gare, hori da gure lan bakharra. Beraz
maiz ohar lan horri; maiz gogoan era-
bil, nola dugun lan hori bururatuco, zer
egin behar dugun, eta zer ez, zerurat
heltzeco. Maiz, gure baitan sarturic,
icus heia lan hortan hari garen, heia
zeruko, salbamenduco bidean garen...

•
•

Bertzalde, lan hori gogoan erabilt-
zeac, errechituco daucu eta maitarazico.
Lan guziec baditzte beren nekheac;
bainan nekheac gogotic jasaten dire,
sari ona iguricatzen denean. Beti lurra-
rekin borroca hari den laboraria bozten
da, gogotic lanari lotzen da eta jarrai-
kitzen, icusten duenean uzta eder baten
itchura eta agintza. Eta guc, gure giris-

tino lanentzat, zer sari izanen dugu? Betiereco zoriona; Jaincoa bera. Bai, hala da : Jaincoac beretzat egin gaitu, Jaincoa bera izan nahi da gure saria menderen mendetan; Jaincoa bere handitasun, elertasun, gozotasun, maitagarritasun guziarekin. Lana hoin ttikia eta laburra! Saria negurri-gabecoa, betierecoa!

O Jainco ona, Jainco guziz ona, holaco saria escaintzen dautazu, holaco zorioneco nauzu egin! Eta ni casic ez orhoitzen ere! ni zorion horren merezitzetaratz ez lehiatzen; ni, giristinoki bizi-tzeac lotsatzen eta izitzen! Bai, egiazki, izitzen eta lotsatzen. Eta bizkitartean, ez da harat-hunatic; betiereco zoriona ez badut irabazten, betiereco zorigaitza izanen dut; zero choragarrirat ez banaiz heltzen, erorico naiz ifernu izigarrirat. Edo beti goza, edo beti erre, nahi-ta ez hau edo hora behar dut. Eta ni, ondicotz, beti lur hunen gainean egon behar banu bezala bizi! O Jainco ona, barkha nere adimendu eta fede escasa, barkha eta senda nere eskergabetasuna eta lazokeria.

CHEDE ZINA :

Ahalaz maiz eta funtski orhoituco naiz, mundu huntan naizela zeruaren irabazteco, salbatzeco, eta ez bertze deusetaco. — Egunean behin bederen, eta ahalaz hiruetan, goizean, eguerditan, arratsean, nere buruarekin eginen dut : zerurat othe noa? Zerucotzat hari othe naiz lanean?

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



II — BEKHATU MORTALA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman. bezañ). —

Salbatu behar dugu, zerurat behar dugu. — Eta zerc gibelatuco gaitu salbatzetic, zerc huts eginarazico daucu zerua, zerc eremanen gaitu ifernurat?... Bekhatu mortalac.

Bekhatu mortala da beraz gure gaitzic handiena, gure etsairic izigarriena. Eta guc beharbada bekhatu mortala errechki egiten! Gu beharbada bekhatu mortalean bizi! Guc beharbada bekhatu mortalarentzat ez izaki behar den beldurra eta higuintza! O Jainco ona, indazu zure graziaz beldur eta higuintza saindu hori.

* * *

Bekhatu mortalac Jaincoa gure bihotzetic casatzen du. — Graziazco estatuan garenean, Jaincoac gu baitan egiten du

bere egoitza, eta berac erranic badakigu osoki laket zaiola gu baitaco egoitza hori. Bekhatu mortalac, grazia galaraziz, Jaincoa khentzen du gure bihotzetic; Jaincoaren orde gure bihotzean sarratzten du debrua. Zer! baditake Jaincoa baino nahiago izan dadin debrua! Bai, baditake; eta ondicotz! hala da, bekhatu mortala egiten denean; ezen bekhatu mortala hori da: Jaincoaren uztea, debruaren hartzeco. Jaincoa alde batetic, debrua bertzetic, eta bekhatorosac debrua hautatzen du, Jaincoari erraten dio: «Et-zaitut zu nahi, zoazi ni ganic urrun», debruari aldiz: «Zato, zu, sar zaite nere bihotzean; zu Jaincoa baino nahiago zaitut adichkidetzat eta nausitzat». Bai hola mintzo zaio bekhatorosa Jainco guziz maitagarriari; hola debru madaricatu izigarriari. Zer itsuskeria! Zer erhokeria! Eta beharbada, neroni naiz hola mintzatu!... Juduec Jesus baino nahiago izan zuten Barrabas. Eta ni ere beharbada, Jesus utziric, ibili naiz creaturen ondotic; nic ere creaturac nahiago izan ditut Jesus baino!... Judasec Jesus Jauna saldu zuen hogoi-ta hamar

diru pusketan. Eta nic ere saldu dut, saldu nere jaidura eta gutizia tzarreri, saldu naski Judasec baino merkeago..... doi-doiaco atsegin lizun batentzat, elhe batentzat, irri batentzat... Eta zembat al-diz saldu!... O ene Jainco ona, barkha, barkha neñe bekhatuac! Bihotzetic guziez damu dut. Orai danic, ez dut deus ere zu baino gehiago maitatu nahi : guziac utzico ditut zuretzat. Zu zare oroz gaineco ontasuna ; zurekin nahi dut bizian eta hilean.

•
•

Bekhatu mortalac Jesus Jauna gurutzeficatzén du! — Alabainan, gauza segura da, gure bekhatuec dutela Jesus Jauna pairarazi eta hilarazi : « Gure gachtakerien gatic, diote Liburu Sainduec, izan da colpatua ; lehertua izan da gure hoben izigarrien gatic. » Jon Doni Pauloc bertzalde garbiki erraten daucu, bekhatu mortala egiten dugun aldi guziz, « berriz gu baitan gurutzeficatzén dugula Salbatzailea ». 18.01.2017

Bai, hola da : Jesusec, Jainco zelacotz, bere gurutzearen gainetic icusi ditu

mende guzietaco bekhatu mortalac; eta bekhatu hetaric bacotcharen gatic jasan du oinaze berezi bat: hiltzeco oinazea, ez balu haren biziak miracuiluz hazcar- turic iraun. Erran ditake beraz, eta egiaz erran behar da, bekhatu mortal bezem- bat heriotze jasan dituela Jesus Jaudac. Eta norc jasanarazi diozca?... Behar- bada nic... Nic segurki, baldin bekhatu mortala egin badut; nic, bekhatu mor- tala egin dudan aldi guziz. Zer esker- gabetasuna! Zer beltztasuna! Zer fede escasa! Ah! iduritzen zait, Jesus Jauna hemen banu nere aintzinean, deusetan ere ez nezakela jo, azota, gurutzeari itza. Iduritzen, bai; bainan egin baitut! Han bainintzen, han, Pasione eco demboran, judeukin eta Erromaco soldadoekin; han icusi bainauzu zure aldean, ô Salbatzaile amultsua, nere bekhatuac escuan be- zala, hetaz zu harricatzeco, zauritzeco, lehertzeco, hiltzeco! Eta egiazki, nere bekhatuec dautzute haimbertze paira- razi, nere bekhatuec zaituzte gurutzean itzez josi eta hilarazi. O Jesus ona, urri- kiric minena bihotzean, zure oin zila- tuac besarcatzen ditudalaric, barkha-

mendu escatzen dautzut. Othoi, zure odolaz garbi zazu nere arima. Ez, ez, etzaitut gehiago gurutzeficatuco ; seculan, seculan.

..

Bekhatu mortalac zerua galarazten daucu, eta ifernua merezitzet. — Zerua, betiereco zoriona ! Ifernua, betiereco zorigaitza !

Bekhatu mortalac galarazten balauzkigu bai gure ontasunac, bai ahaideac, bai osagarria, bai jenden arteco aiphu ona, zembaez ginuke hastio ! Zer urriki ez ginuke eginic !... Bada, zer dire horiec guziac zerauren aldean ? Deus, hauts eta herrauts baizic. Bekhatuac zerua galarazten daucu, eta bizkitartean bekhatuari lotuac gaude. Non dugu sedea, non adimendua ?

Gure bekhatu mortalen gatic, behar baginu escua edo zangoa oren batez bakharriac suan atchiki, zer intzirinac, zer marrascac, zer urrikia ! Zer chede zina gehiago ez egiteco !

Alta, zer da oren bat eternitate luzea-

ri, beti iraunen duen eternitateari buruz!...

Zer da mundu huntaco suric biziola eta hazcarrena, ifernuco suaren aldean?

Ur frescoa iduri... Eta gorputz eta arima, oso osoa nahi nuke su hartan eternitate guzian bizi! Ez naski, ez segurki!...

Bizkitartean, bekhatu mortala egin badut, ez badit bekhatu mortala utzi nahi, ez banaiz zin-zinez urrikitzen!...

O bai, ene Jainco ona, urrikitzen naiz; utzico dut bekhatu mortala; ez dut seculan eginen; ez dut eternitate guzian zure ganic urrun egon nahi; zurekin nahi dut zero ederrean.

CHEDE-ZINA :

Ahalaz maiz orhotuco naiz bekhatu mortalac Jesus Jauna gurutzeficatzen duela, eta ifernua merezitzen. Zer-nahi gerta dakidan, ez dat seculan bekhatu mortalic eginen.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ami, lagun nazazu chede horren bethetzen.

III — BEKHATU BENIALA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{arren} plaman bezala).

Saindu guzien arabera, bekhatu mortalaren ondòtic, ez da bekhatu beniala bezen gaitz handiric. Eta egiazki hala da, bai Jaincoari buruz, bai guhauri buruz.

Jaincoari buruz. — Bekhatu beniala eginez, Jaincoaren nahia eta manamendua dugu hausten. Jaincoac orduan ez daucu erraten : « Iobe zinuke hau edo hora egitea; nahiago, atseginago nuke hau edo hora egin bazinez. » Ez, erraten daucu : « Holaco gauza egin behar duzu; nahi dut eta manatzen egin dezazun; egiten ez baduzu, atsegabe hartuko dut ». Eta guc, ez egiten. Bai, Jaincoac erraten : Egizu hau, eta guc ihardesten : ez, ez dut eginen; eta ez egiten. Jaincoac erraten : Et-zazula hori egin; eta

guc ihardesten : Bai, eginen dut, eta egiten!... Zer atrebentzia! — Hola bi-hurtzeac eta jazartzeac, nola Jaincoa laidoztatzen duen, nola dion bihotza zauritzen jakiteco, jakin behar litake Jaincoa zoin den handia eta ona, gu aldiz zoin ttikiac, herbailac, ez-deusac; jakin Jaincoac zemba merez duen gu ohoratzea, maitatzea, obeditzea!... Ah! gure lurreco aitari hola bihur baginte!

Hemen mintzo gare bereziki ongi oharturic eta nahitarat egiten diren bekhatu benialez. Bertzec ere, segurki, Jaincoaren bihotza colpatzen dute, bainan ez hain barna.

Alabainan, uste gabetan bezala, bere jite biziak laster eginic, arinkeriaz, ahulkeriaz egiten diren bekhatuetan, ez da sartzen haimbertze ezagutza eta nahi. Horiec Jaincoac errechki barkhatzen ditu, baldin lehiatzen balin-bada, edo lehiatu nahi, gero-ta gutiago egiterat, atzartasun eta bildutasun gehiagorekin biziz, othoitzac hobeki eginez, sacramendueri jarraikiz.

Bainan bekhatua egiten denean, zer egiten den garbiki icusiric, aintzina ca-

sic odol hotzean, hora zaio, hora dorpe eta garratz Jaincoari. O Jainco ona, begira gaitzatzu holaco bekhatu guzieta-ric!

..

Bada bekhatu benialetan, Jaincoari hori baino are dorpeago eta garratzago zaion zerbeit. Hura da : bekhatu bat ez utzi nahi izatea ; bekhatu bati atchikia delacotz, bekhatu hora maite delacotz, hartan aintzina bizi nahi izatea. Bai, hori zaio Jaincoari gehienic dorpe eta garratz. Eta hala izan behar dela, icus-tea errech da.

Beha : Haur batec badaki gauza batez bere aitari atsegabe eta min egiten dio-la. Ez naski izigarrico atsegabea, ez hil-tzeco mina ; bainan beti atsegabea eta mina. Eta gauza hora ez du utzi nahi ; aintzina nahi du egin, gutizia edo arte-on a duken aldi guziz, egin beharbada egun oroz, beharbada egunean bi, hiru, hamarretan. Aita gaichoa ! urrictze-coa ! — Ez dea hala ? ... Haur dohacabea ! bihotz gabea ! ... Bada, gu gare menturaz haur hora, eta guc dugu gaizki ekhar-

tzen aitetan hoberena, gure Jaincoa! Hala da segurki, baldin bekhatu benial bati atchikiac bagare, baldin ez badugu utzi nahi edo, batetarat doana, uzteco deus egin nahi.

Sar gaiten gure baitan, eta zinezco urrikiarekin, Jaincoari barkhamendu galde diezogun egin diozcagun atsegabez eta minez, barkhamendu gure bekhatu benial guziez.

..
..

Ezen bekhatu benialaz, egiazki min egiten zaio Jaincoari! Gauza segura da, bekhatu mortalen gatic bezala, benialen gatic ere Jesu-Cristoc bere odola ichuri duela. Beraz bekhatu benialec ere Jesus onari pairarazi diote. Bai guc, deus ez direlacoan hain errechki egiten ditugun bekhatu hetaz, guc dugu Jesus Jauna jo eta azotatu, guc ditugu haren gorphutza eta arima sarraskitu. Eta menturaz, gure burua gisacotzat ginaucan! O Jesus ona, barkha! barkha!!

..
..

Gure buruarentzat ere zer calte et-

zaicu heldu bekhatu benialetic, bereziki osoki oharturic egiten badugu, eta are berezikiago, utzi nahi ez badugu, maite badugu! Egun oroz hozten hari da Jaincoaren gurekilaco adichkidantza. Bekhatu benialac hainitz grazia gibelatzen eta urruntzen du gu ganic; galarazten daucu beraz hainitz merezimendu.

Bertzalde, grazia gutiago, eta indar gutiago, debruari, jaidura gachtoeri ihardokitzeco. Gure arima gaichoa!

Emeki, emeki, beharbada frango laster, aiseki, deus ez balitz bezala, casic jostetan Jaincoaren nahia gauza ttikietan hautsiz, helduco da gauza handietan hausterat. Norbeiti, acholaric gabe, beti eta beti orratz chiztaca hari bazaio, ez othe da goiz edo berant caniet sistaco baten ematerat lerratuco! Hola gertatu behar dela garbiki erraten daucu Izpiritu Sainduac : *Qui modica spernit, pauplatim decidet.* Gauza ttikiez acholaric ez duena, emeki emeki handietan erorico da!... Erorico eta nekhev altchatuco.. Ilhunari aise jartzen baita ilhuntzetic lecora!...

Azkenic, nahi balin-badugu jakin zer gaitz den guretzat bekhatu beniala, orhoit zer gaztigu daucun merezitu : Purgatorioa. Purgatorioco oinazen aldean, dio san Agustinec, deus ez dire mundu huntaco oinazeric bortitzzenac. Eta bertze asco saindu garrazkiago mintzo dire. Diote, mundu huntaco oinaze guziac, batean emanic ere, deus ez direla Purgatoriocoen aldean.

Bada, gure bekhatu benialentzat, behar baginitu mundu huntaco oinazeric bizienac jasan, zer damu ginuken egin bekhatuez, eta berritz egitetic zer artarekin begira gintazken ! Non dugu arren feda, non adimendua !

Bertzalde , Purgatorioco oinaze izigarriez iracusten daucute , zoin gaitz handia den bekhatu beniala Jaincoaren begietan, eta geroztic zoin handia izan behar den gure begietan. — Jaincoa zuzena da; gaztigua hobenaren araberacoa ematen du. Zer hoben ez da beraz bekhatu beniala, Purgatorioaz Jaincoac gaztigatzen duen bekhatua ! Eta nic,


itsua, nic, zoroa, bekhatu beniala hain
aise egiten !

CHEDE ZINA :

Jesus gurutze ficitua eta Purgatorioco oinazeac gogoan hartaz, ardura sustatuko dut nere burua gero-ta bekhatu benial gutiagoren egiterat.

Ongi oharturic, ongi nahitarat, ez dut seculan eginen.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen !



IV — HERIOTZEA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{arren} plaman bezala).

Hil behar dugu ; gauza segura da. Orai artio, sortzen diren guziac hil izan dire, eta gu ere hilen gare. Hil behar dugu : beraz utzi behar ditugu mundu huntaco gauzac, ahaideac, adichkideac, atseginac, ohoreac, ontasunac, denac ; utzi behar beticotz. Eta gu beharbada bizi, seculacotz hemiengo bagine bezala, bizi Iurrari, lurreco gauzeri lotuac, josiac ! Zer itsumendua !

..

Hilen gare ; bainan zembat aldiz ? — Behin ; bai, behin bakharric ! Ah ! behin baino gehiagotan hiltzen balitz ; Jaincoaren aintzinean agertu ondoan , icusi ondoan zer diren zerua, ifernua, purgatorioa, berritz mundu huntarat itzultzen balitz, segur bertzela bizi litake. Bertze beldurric litake bekhatuaz ; bertze lehia-

ric salbatzeco! Galbide hec utz litazke... Cofesioan gorjetzen diren bekhatu hec ager gogotic... Atzartasun eta arta gehiago litake bekhatu benialetic ere begiratzeko , Jaincoaren amodioa bere baitan sustatzeko. Bainan ez, ez da behin baizic hiltzen. Behin galtza, seculacotz da, diote Liburu Sainduec. Zoin aldetarat ere erortzen baita arbola, eta han dago beticotz. Orai hil banadi, zoin aldetarat egin othe nezake? Zeruco alderat, edo ifernurat!



Hilen gare ; bainan noiz? — Ez dakigu. Menturaz zaharturic, menturaz gazteric. Bihar menturaz, mentuiaz egun! Nahi othe ginuke orai berean hil? On othe gintazke Jaincoaren aintzinean agertzeco. Zer dio contzientziac?...

Noiz hilen gare? Ez dakigu. Bainan baditugu hamabortz, hogoi, hogoi-ta hamar, berrogoi urthe. Huna beraz hamabortz, hogoi, hogoi-ta hamar, berrogoi urthe, Jaincoac herioari erran dio-la : « Hoakit arima harren bilha. » Eta geroztic herioa beti bidean da.

Heldu da gure ganat, heldu behinere gelditu gabe, oren guziz, hats hartze guziz hurbilago. Noiz eginen dugu buruz buru herioarekin? Noiz hartuco du gure arima eta, gorphutzetic berechiric, Jaincoaren aintzinerateremanen? Gero, noizpeit, eritasun luze baten ondotic? Bihar, casic eri izan gabe?... Sarri?... Orai berean, iracurtze, meditazione hau egiten hari garelaric?... Norc erran dezake ezetz?... Bet-betaco heriotzeac ez dire segurki bakhantzen hari! Eta gu beharbada bizi, hil nahi ez ginuken bezala. O zoroac! Zeren beha gaude bada, bertzela bizitzeco, bekhatutic ateratzeco!

Noiz hilen gare? Ez dakigu. Bainan badazkigu bi gauza. Lehena : Hilen garela laster, arras laster; ezen bizi luzenac amets bat du iduri. Gure egunac, urtheac, gain behera eternitaterat badoatzi, mendico urac itsasorat bezala.

— Bigarrena : Hilen garela gutienic ustean; ezen herioa, dio Izpiritu Sainduac, da ohoina bezala. Ohoinac ez du jakinarazten non den, noiz heldu den; ichilca, gordeca dabila. Halaber herioa.

Eta horra zergatic Izpiritu Sainduac erraten daucun : « Egon erne, egon prest. »

Bai, egiaz, gauden prest, gauden hiltzeco orenean izan nahi ginuken bezala ; ezen, ongi hiltzetic gaizki hiltzerat zer artea !

* * *

Heriotze ona, zeruco athea ; gachtoa aldiz, ifernucoa.

Ongi hiltzen denarentzat, acabo guduac, nekheac, atsegabeac, nigarrac, acabo tentazioneac, arimaco ikharac, bekhatusac. Orai, beticotz bakhea eta dohatsutasuna ! Badoa zero ederrerat, guzien gainetic maitatu duen Jaincoaren icusterat, haren zorionaz betiere gozatzerat.

Gaizki hiltzen denarentzataldiz, acabo haimbertze maite zuen mundu hau bere gozo guziekin ; acabo ohoreac, ontasunac, irriac eta bestac, acabo seculacotz. Debrua nahiago izan du nausitzat eta adichkidetzat Jaincoa baino ; debruac badarama bere suzco etcherat ; han dire ilhumbeac eta hortz carrascac.

Han, ifernuan, ez du atsegaberic eta

oinazeric baizic izanen; dohacabe da eternitate guzico.

Heriotze ona, gauza guziz eztia ! Heriotze gachtoa, gauza izigarria.

..

Nola hilen othe gare? Nola?... Nahi dugun bezala. Guhauri doaku Jaincoaren grazian bizitzea beti, heriotze on baten egiteco behar den bezala. Bai, beti, ezen den-gutieneco bat ere bertzela bizi bagine, norc daki ez othe litzaicun orduan ethorrico herioa !

Bai, hala bizi nahi dut beti, ene Jainco ona ; bizi nahi beraz bederen bekhatu mortalic gabe. Eta hartaraco, bekhaturic ez egiteco, zeronec iracutsi daucuzun bezala, maiz eta ardura orhoituco naiz heriotzeaz. « Orhoit zaite hiltzeaz, « dioguzu Liburu Sainduetan, eta secu- « lan ez duzu bekhaturic eginen. »

CHEDE-ZINA :

Astean behin bederen, nere baitan ongi sarturic, aphurtto bat egonen naiz heriotzea gogoan. — Egunean behin bederen, nere buruari eginen diot : Nahi othe nuke hola hil?...

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.


itsua, nic, zoroa, bekhatu beniala hain
aise egiten !

CHEDE ZINA :

Jesus gurutze ficitua eta Purgatorioco oinazeac gogoan hartaz, ardura sustatuko dut nere burua gero-ta bekhatu benial gutiagoren egiterat.

Ongi oharturic, ongi nahitarat, ez dut seculan eginen.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen !



ditakela ere, bai batere atsegaberic gabeco bizi bat baditakela, nola sinhets, Jaincoac berac ez balaucu erran! Alabainan, mundu huntan, alde guzietaric atsegabez inguratuac bizi gare. Edo gorphutzean, edo ariman, edo bihotzean, beti zerbeit jasateco, pairatzeco badugu. Ba othe dugu egun bakhai bat hedoiric gabe? Eta aldiz, zemba^t egun osoki goibelac! Bainan, zeruan, seculan hedoiric, seculan deuseren beldurric, seculan deuseren galtzeric, seculan deuseren escasic, seculan gaitzic, seculan nekheric, seculan bihotz-minic eta nigarric; hitz batez, seculan atsegaberic batere. Zer gozoa!...

Zeruan, atsegin guziac beticotz. Lur huntan ere zembeit atsegin badugu, bai. Bainan bat balin-bada, beti bertze bat escas. Eta zemba^t nahi izanican ere, badakigu ez dutela luzaz iraunen, laster, — bai laster, ezen zer da biziric luzena? — laster iraganen eta suntsituco direla. Eta beldur horrec, segurtamen horrec ilhundura bat ematen dio bihotzari. Egun irriz, bihar menturaz nigarez; egun ongi, bihar eri, egun bizi, bihar hila!

Zeruan ez da holacoric : atsegin guziac badire, eta guziac beticotz. Eta zeruan denac badaki segurki, gozatzen duen zoriona ez duela seculan galduco, zorion hura beti lehen orenean bezen oso eta bardin berri izanen duela.

Zeruan, dohatsuen begiac, beharriac, bihotza, gogoa, hitz batez arima eta gorphutza asean bezala egonen dire. Asean, bainan seculan bethedurari gabe. Beti hazcurri ausarkirekin, beti nasaitasunean igeri, bainan beti harkidin, beti casic jankidin eta edankidin !

Zer dire munduko gauza guziac zeruaren aldean ? Deus. Mundua ez da gizonearen egoitza baizic ; zerua aldiz Jaincoaren egoitza, Jaincoaren etchea, Jaincoac bere adichkiden saristatzeco ahal bezen ongi aphaindu eta aberastu duen. Alta mundu huntan ere bada gauza ederric, gozoric, maitagarriric. Zer izenen dire beraz zerucoac ! O Jaincoa, guzuraz erurat deitzen eta sarrarazi nahi gaituzuna, zoin ona zaren, ô Jainco handia !

*
..

Zeruan, aingeruekin, arcanjeluekin,

izpiritudo hatsu guziekin izanen gare, bai eta lur huntan agertu izan diren arima garbienekin eta amultsuenekin. Han izanen gare Andre-dena Mariarekin; izanen gare Jesu-Cristo gure Jau-narekin. Bai, icusico dugu eta beti begien aintzinean izanen Maria, Jaincoaren ama eta gure ama guziz samurra eta boteretsua; icusico dugu eta beti begien aintzinean izanen Salbatzailearen begitarte adoragarria. Eta Maria mintzatuco zaicu, irri ezti batekin besoac zabaltzen dauzkigularic; eta Jesusen aintzinean ahuspez, gure ezpainac ezartzen ahalco ditugu Salbatzailearen oin eta escu, guretzat gurutzean zilatuac izan diren oin eta escu sacratuen gainean!... Zer zoriona!... Eta horiec guziac nere-tzat! Eta beticotz!! O Jaincoa, zembat maite duzun zure haur herbail eta esker-gabea!...

* * *

Eta bizkitartean, horiec baizic ez bali-re, zerua ez litake zerua : zerua horiez guziez gaineco zerbeit da.

« Ez du gizonaren begiac icusi, ez

beharriac aditu, ez bihotzac asmatu, Jaincoac zer daucan sainduentzat! »

Zer da beraz zerua? Zer dauca Jaincoac sainduentzat? — Zer daucan?...

Bera! Bai Jaincoa bera izan nahi da sainduen saria eta zoriona. Eta hori da egiazki zerua : Jaincoaren icustea eta Jaincoaz gozatzea. Jaincoaren icustea, ez mundu huntan bezala, casic lanho-petic, bainan garbi garbia eta bekhoz-bekho, dena-den, bere handitasun, bere edertasun, bere saindutasun, bere mai-tagarritasun guziarekin ; eta Jaincoaz, erran nahi da, negurri gabeco edertasun, gozotasun, aberastasun hortaz betiere gozatzea ; horra zerua. Zer dohat-sutasuna!...

Egun batez, gizon jakintsun bati galdegin zioten : « Zer da Jaincoa? » Hiru egunen buruan erranen dautuet». Hiru egunen buruan : « Bertze hiru egun behar ditut oraino, jakiteco zer den Jaincoa. » Eta bertze hiru egun heien ondotic : « Oh! du erraten jakintsunac, bazterrlic eta ondoric gabeco itsaso batean bezala ithoa nago, haimbertze saindutasunen, edertasunen, maitagarritasun-

nen erdian; barnago eta choratuago. Eta beti haste! Ez, ez, ez dezaket erran zer den Jaincoa!... » Eta horiec guziac, Jaincoa dena-den, guretzat... *nahi badugu!*

*
*
*

Bai, egiaz, nahi badugu. — Aski balitz nahi izatea osagarriaren, ontasunen, atseginen, ohoren izateco! — Eta bizkitartean, zеруarentzat hala da. Zinez nahi duenac badu. Beti Jaincoac graziaric aski, maizenic grazia frango escaintzen daucu, zerurat heltzeco egin behar direnen egiteco. Guri doaku, graziaren laguntzarekin, irabaztea eta merezitzea.

Gauza segura da, hartacotzat behar dela bermatu: Zerua sari bat da, sari guzien gaineco saria. Saria et-zaiote al-ferreri ematen. Zeruan sartzeco, behar dire bere jaidura tzarrac zapatu, garhaitu, ezeztatu; behar da tentazioneri ihardoki, galbidetaric urrundu, Jaincoaren manamendueri jarraiki. Lana da; bai, hala da. Bainan lan hori zer da sariaren aldean? Jaincoa bera saritzat.

Lana zembeit egun laburrez; saria beticotz.

Ah! mundu hantan, ederki izertzen da eta nekhatzen, zembeit egunez nolazpeitca bizitzeco. Eta betiere osoki dohatsu bizitzeco, ukho egin giniezoke lanari eta nekheari! Ez, ez, Jainco ona, ez gare hoin feder eta adimendu gabe, hoin eskergabe izanen. Behar diren guziac nahi ditugu egin zeruaz, zutaz, betiere gozatzeco.

CHEDE-ZINA :

Maiz eta ardura, eta bereziki nahigabean, orhoituco naiz san Agustinen hitzaz : « Lanac izitzen bazaitu, susta zaitzala sariac. » Eta nere buruarekin eginen dut : Nekheac, guduac eta nigarrac, zembeit egun laburrez, eta gero, nahi badut, betiereko gozoa, zeruco zoriona!

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.

VI — IFERNUA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Hil behar dugu. Hiltzearekin, eternitatea haste! Eternitatean badire bi egoitza; zorionezco egoitza, zerua; zorigaitzezco egoitza, ifernua. Zoin izanen othe da guretzat?

Guziec segurki zerurat nahi ginuke; nihorez da ifernurat nahi lukanic. Bada, dio saindu batec, ifernurat hil ondoan ez joateco, zoazte maiz, bizi zaretelaric. Gogoz ifernuan ibiliz, icus-atzue hango oinaze pare gabecoac, adi hango deidar eta nigar erdiragarriac. Ikhara saindu bat lotuco zaitzue, eta bizico zarete ifernurat ez erortzeco behar den bezala. Goazen beraz ifernurat, sar gaiten ifernuan, icus dezagun zer den ifernua.

∴

Zer den ifernua? Ifernua da Jaincoac bere etsaiac jotzen eta gaztigatzen di-

tuen tokia. Eta egiazki, diote Liburu Sainduec, « izigarri da Jainco biziaren escuetarat erortzea. »

Discedite à me, maledicti ; ite in ignem æternum. « Urrun zaitezte nitaric, madaricatuac ; zoazte su eternalerat. » Horra, azken judizioan, Jesus Jaunac ezkerreko aldecoeri, ifernurat beharreri, erranen diozcaten hitz lazgarriac. Hitz horietaric, ahal bezembatean, icusico dugu zer ditaken ifernua.

Discedite à me, maledicti : « Urrun zaitezte nitaric, madaricatuac. » Beraz, ifernuan direnac Jaincoaren ganic urrun dire! Zuzen da : bizi zireno et-zuten Jaincoa nahi berekin; hil ondoan, Jaincoac ere ez ditu nahi. Jaincoa ez dute icusten, ez seculan icusico ; beticotz galdua dute, osoki galdua. Eta hori da ifernuko tormentaric ezin jasanena. Guri beharbada, ondicotz, et-zaicu hala! Hain dugu sede guti! Hain guti dugu gure Jaincoa ezagutzen eta maitatzen! Hain gare lur huntaco gauzeri lotuac, josiac! Eta ascotan, Jaincoa bekhatuaz galdurican ere, ez acholac, bardin irriz hari gare... Bainan ifernuan ez da hola.

Han direnec ezagutzen dute Jaincoa galduz zer galdu duten, ezagutzen Jaincoa dela ontasun guzien gaineco ontasuna, ontasun beharrena, baitezpada beharra; ezagutzen dute Jaincoa gabe ez ditakela heientzat bakheric, gozoric, zorionic. Hori ezagutzen dute eta sentitzen. Bai, beren baitan sentitzen dute Jaincoaren ganaco gose eta egarri bizi bat bezala, Jaincoaren behar eta escasia handi bat; Jaincoaren ganat nahi lukete nihola ere, Jaincoaren ganat saminki oihuca dagotzi, Jaincoaren ganat casic jauzten dire... Bainan bekhatuaren cargac eta Jaincoaren madarizoneac beti ifernuco zolarat artikitzen ditu. Eta beti haste. Beti khechu, hatsangatuac, nekhatuac, han hari dire, seculan soseguric gabe, beren buruarekin borroca, seculan izanen ez dutenaren nahiz eta beharrez, seculan causituco ez dutenaren ondotic; eta etsimenduac erretzen eta jaten diote bihotza! Zer tormenta! Zer tormenta, egarriac ithoac egon behar baginu beti ithurri fresco baten ondoan; eta seculan chortic ezin edan! Alta, egartsuric handiena deus ez da,

deus, ifernuan Jaincoaz den gutiziaren aldean.

..

Han, dohacabeac orhoitzen dire zoin errechki irabaz zezaketen zerua, zer ez-deuskerientzat galdu eta saldu duten Jaincoa, betiereco zoriona. Ah! bertze holaco eta halaco lagunec bezala egin balute, hec bezala galbidetaric, munduko ergelkerietaric urrunduz, hec bezala othoitzari, sacramendueri jarraikiz, ongi cofesatuz, egiazco urrikiarekin!... Sinhetsi balitzte herrico artzainaren, cofesoraren erranac!

Orduan giristino bizia sobra garratz zitzaioten, orduan bihotza hesten zioten aphezen iracaspeneri. Haste balitz!....

Bainan ez; berantegi da; ifernuraz geroz ez da salbatzeric. Eta dohacabec, marrascaz, hortz carrascaz, beren etsimenduan ez dakite hitz hau baizic erraten : *Ergò erravimus.* « Huts egin dugu beraz, » huts egin dugu ! Bekhatuzco bidetan lehertuac ibili gare zorionaren ondotic, eta ez dugu atzeman; eta zorionaren orde zorigaitza dugu, ezin ja-

sanezco, eta bizkitartean jasan beharco dugun zorigaitza. Bai, bai, huts egin dugu, huts osoki. *Ergò erravimus.*

O Jainco ona, ifernuan berantegi eta itsumenduan erraten da hitz hori. Othoi, emaguzu grazia tenorez errateco, errateco berehala, errateco zure misericordian esperantza handi batekin. Aithor dut, Jauna, ni ere ascotan, huts eginic, — huts, hala nahi nuelacotz — ibili nai-zela bekhatuzco, ifernuco bidetan.

Barkha, Salbatzaile amultsua ; har nazazu zurekin, ereman nazazu zeruco biderat, eta han atchic beticotz.

..

Discedite à me, maledicti : Urrun zaitzte ni ganic, madaricatuac. — *Ite in ignem* : « Zoazte surat. » Sua bada beraz ifernuan. Bai, sua bada, su bat izigarria, hain izigarria non, su harren aldean, mundu huntaco suric borthitzenec ur frescoa iduri baitute. Alta, mundu huntan ere bada su hazcarric ; badire burdina bardin urina bezala urtzen dute-nac. Norc nahi luke halaco su batean sartu eta egon ! Norc nahi luke sartu eta

egon gure etchētaco su tcharrenetan! Zer oihuac, zer marrascac, su tchar horietan behar baginu escua edo zangoa atchiki? Eta, bekhatuaren gatic atchiki behar baginu, zer urrikia eginic! Zer gehiago ez egiteco chede zina!...

Bada ifernuco suan, bekhatuaren gatic, erre beharco du ez bakharric escuac edo zangoac, bainan gorphutz guziac, eta gorphutzarekin arimac. Bai, ifernuco suac, ez dakigu nola bainan egiazki, erreco du arima nola gorputza. Bata ala bertzea erreco ditu, bainan ez suntsituko. Beti gorputza errea izanen da, eta beti erretzecoa; beti arima errea, eta beti erretzecoa. Eta su harri Jaincoac adimendua eman balio bezala, su harrec, zerc ere bekhatu gehiago egin baitu, eta hura du bere asiki zorrotzez gehiago tormentatuco; escuac egin badu bekhatu, escua; mihiac egin badu, mihiac; bihotzac egin badu, bihotza. Ifernuko sua, gauza ikharagarria! Su harren orhoitzapenac eta beldurrac zembat arima ez du bekhatutic ateratu!

Bi gazte, dugu iracurtzen Sainduen bizian, bi gazte elgarrekin bekhatuan

bizi ziren. Egun batez, gazte hetaric bat badoa bertzearen ganat, eta causitzen du su-pazterrean, oin hutsic, hari zela zango bat suan ezar, eta khen, bertzea ezar, eta khen.— Zer hari zare hola? dio erraten. — Zer hari naizen? Icisten eta frogatzen, heia ifernuco sua jasaten ahalco dutan; ezen bizi garen bezala biziz, segur ifernurat behar ginuke.

Bainan, ez; ez dezaket hemengo su ahul hau bera jasan. Nola beraz jasan nezake ifernuoa!..... Eta Jaincoaren graziac argituric eta ukituric, bi gazteac ordutic eman ziren penitentziari, zinzinez giristino biziari; eta biac saindutu ziren... O Jaincoa, sarraraz-azu nere hezurretan barna ifernuaren ikhara!... Ez, ez, zer-nahi gerta, zer-nahi gosta, ez dut ifernurat nahi. Izitzen nau ifernuac, osoki izitzen!...

..

Eta bizkitartean, hori baizic, orai artio icusi dutana baizic ez balitz, ifernua ez litake ifernua. Ez, ez litake ifernua, Jaincoaren galtzeac, su izigarriac, ez balute

iraun beharzembeitegun, zembeit urthe, zembeit mende baizic; nahi bezen luze izanicere, noizpeit acabatu behar balute. Ezen, gaitz bat acabatuco delaco esprantzac, segurtamenac, hainitz arintzen da gaitz hora; indar handia ematen du gaitz harren-jasateco.

Bainan ifernua beticotz baita, bai beticotz!

Ite, dio Jesu-Cristoc, in ignem æternum. «Zoazte su eternalerat.» Seculacotz dire beraz ifernuco oinazeac. Egunac iraganen dire, iraganen urtheac, mendeac, milaca mendeac; eta beti eternitatea haste. Eta ordu artio, eta gero, eta menderen mende, beti erre, beti Jaincoa gabe, beti Jaincoaren justiziak lehertua, beti Jaincoa beharrez erhotua, etsimenduan, gaitzguzien bazca... bai beti han! Han, debruuen artean, munduan izan diren jende tzar eta zikin guzien erdian; han, su lametan ihausca, Jaincoari errabian holdartua, Jaincoa, Andre-dena Maria, mundu huntaco lagunac, bere burua madaricatzen direla... han beti, beti... beti... Eta nic, han nahi nuke!... Hala nahi nuke! Ez naski, ez


segurki. — Eta bizkitartean, bizi naizen bezala biziz!...

O Jaincoa, ifernutic nere begiratzeko gurutzean zure odola ichuri duzuna, urrical nakizu. Nere salbatzeco behar balin-bada, jo nazazu, zafra, lurrerat artic, bertzen zangopean ezar, leher, zatica, porrosca, erre eta suntsi... Bainan, othoi, othoi, ez nazazula ifernurat utz... Jainco ona, salba nazazu ; salba nazazu.

CHEDE-ZINA :

Maiz eta ardura, eta bereziki debruac tentatzen nauenean, ifernuaz orhoituco naiz, eta nere buruarekin eginen dut : Doi-doiaco atsegin batentzat, nahi othe nuke betiere Jaincoaz gabetua izan, betiere su izigarri batean erre!

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



VII — JAINCOA BETI GUREKIN DELA

Ene Jaincoa, zeru lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Saindutu behar dugu ; saindutzeko gare mundu huntan. Saindutuz, zerauan izanen gare beticotz ; bertzela, beticotz ifernuan. Norc duke aski fede edo adimendu guti, saindu ez nahi izateco !

Bada saindutzeratdeitzen gaituen Jaincoac, berac garbiki iracasten daucu nola garen saindutuco, iracasten saindutzeko bide segura. Huna bertze orduz Abraham patriarchari erran ziozcan hitzac : *Ambula coràm me, et esto perfectus* ; « ibil hadi nere aintzinean, eta izan « hadi osoki ona, perfeta. » Izan hadi osoki ona, erran nahi baita hemen : izanen haiz osoki ona, izanen haiz saindua. Ezen saindua, hori da : osoki ona dena ; deus gaizkiriegina gabe, behar den ongi guzia egiten duena.

Eta, egiazki, gaizkitic urruntzeco, ongiari jarraikitzeo, ez da deus hoheric

Jaincoaren aintzinean ibiltza baino. Ezen, zer da Jaincoaren aintzinean ibiltzea? Hori da orhoitza Jaincoa beti gurekin dugula; hori da maiz eta ardura gure buruarekin egitea: Jaincoa hemen da, nere ondoan, nere baitan; icusten nau, entzuten nau. Eta nere barneco berri ere badaki; nere gogoetac, gutziac, chedeac, guziac badazki. Bai, bai, Jaincoaz hola maiz eta ardura orhoit baginte, segur saindu gintazke.

Hasteko, zembat gauza macur ez dugu egiten, norbeiten aintzinean egin nahiz ez ginukenic? — Casic guziac. — Buruan eta bihotzean darabiltzagun gogoeta lizun, gutizia lohi hec, ez ginuke nahi nihorc jakitea, nihorc icustea. — Jaincoac icusten ditu, Jaincoac badazki. — Eta haimbertze gure baitaco urguilu, herra, mendecuzco chede, ahalke gintazke bertzeri agertzeco! — Jaincoac guziac icusten ditu; Jaincoac guziac badazki! Hitz batez, bekhatu gehienac, ichilca egiten ditugu, gordeca, gauaz, chochoetan.... Bainan Jaincoac guziac icusten; Jaincoac guziac jakinki!

Eta jende batzuen aintzinean egiten

ditugun bekhatuac ere, bertze batzuen aintzinean egin nahi othe ginituzke? Elhe tzar hec, arinkeria hura, gezur hura, ohointza hura, edo zerbeit bertze, nahi othe ginuke gure aitac, gure amac, herrico jaun errotorac aditzea, icustea, jakitea? Han izan balire gure ondoan, ez ginene segurki bekhatu horietarat lerratuco. Eta jende baten aintzinean egin nahi ez ginukena, egiten dugu Jaincoaren aintzinean! Non dugu fedea? Non adimendua?

Ah! feder biziago bat baginu, ez ginezake Jaincoa hain luzaz ahantz; ez ginetzazke egun osoac iragaiterat utz orhoitu gabe Jaincoa gurekin dugula beti, guziac icusten dituela, guziac entzuten. Eta hortaz orhoituz, aski adimendu baginuke naski, Jaincoaren aintzinean lagun baten aintzinean egin nahi ez ginukeren ez egiteco, aski adimendu beti guri beha dagon, jujatu behar gaituen Jaincoari ez jazartzeco, haren manamenduen haren aintzinean ez hausteco. O Jainco ona, pitz-azu othoi nere fedea; eta maiz, gorphutzeco begiez icusten bazintut bezala, nere baitan egin dezadala : « Jaincoa hor da! »

..

Jaincoaren orhoitzapenac ez gaitu bakharric gauza tzarretaric urrunduko ; behar diren gauza on guziac ere eginarazico dauzkigu, eta ongi eginarazico. Nausia han duenean, nausiac icusten duenean, zerbitzaria lan manatuan hari da ; eta ahalaz ongi egiten du. Guc ere, Nausi handiac icusten gaituela orhoitzen bagare, harrec manatuac eginen ditugu, dudaric ez da, eta eginen ongi. Oh ! Jaincoac ez du nahi zerbitzari lazoric, lanean ebasca bezala hari zaionic. Liburu Sainduetan madaricatzen du lazoki zerbitzatzen duena. *Maledictus, qui facit opus Domini fraudulenter.* « Madarica- « tua , Jaincoaren lana ebasca bezala, « erran nahi da lazoki, egiten duena. » Noiz haritzen da hala zerbitzari bat lanean ? Nausia han ez denean , nausiac lana icusi behar ez duenean. Orduan, maizenic, nolazpeitca , guti nekhatuz, ahal bezen laster egiterat haritzen da... Hala hala gertatzen da Jaincoaren gauzatan. Ez bada orhoitzen Jaincoa han dela, Jaincoaren begien azpian dela,...

othoitz, meza entzute, cofesio, egun guzietaco egimbide eta bertze, guziac eginen dire arinki, achaletic, ez acholki... Eta aldiz artoski, funtski, Jaincoaz orhoitzen bada.

Bai : Jaincoari mintzo natzaio ; Jaincoarentzat hari naiz eta Jaincoac icusten nau ; orhoitzapen horrec sustatuco gaitu gauza guzien ahal bezen ongi egiterat.

Beldur gintazke Jaincoaren begi zorrotzaz, beldur Jaincoaren zigorraz, baldin gaizki egiten baginu haren lana.

• •

Bertzalde, Jaincoaz orhoitzen denean, Jaincoac manatuac, beldurrez bezembat, eta gehiago, egiten dire amodioz.

Alabainan, gurekin den, guri beha dagon Jainco hura hain maitagarria da, hain ona guretzat ! Jaincoaz orhoituz, errechki orhoitzen da guretzat egin dituen guziez ; orhoitzen gurutzeaz... ma hain sainduaz... zeruaz. Eta orduan, batere bihotzic balinbada, nahi izaten da Jaincoaren amodioa amodioz pagatu, eta lehiatzen da Jaincoari atsegin ematerat, harrec manatuac chuchen eta ar-

tarekin eginez. Etsai gachtoari ez baitzaio hori eder; eta ez baita guti hari gu Jaincoaren lanetic geldiarazi beharrez, guri Jaincoaren lana gaizki egina-razi beharrez.

Bainan soldadua gerlan aintzindaria-ren bozac eta sariaren esperantzac sus-tatzen duten bezala, gu ere susta gaiten etsaiari ihardokitzerat, orhoituz gure aintzindari handiaren hitzaz : « Ez bel-dur izan; mundua garhaitu dut »; or-hoituz agintzen daucun sariaz, zeruaz.

Bertzalde, gurekin den, guri beha da-gon Jaincoac berac emanen daucu, gal-degiten badiogu, emanen gogotic eta nasaiki behar dugun indarra. Hel egin beraz Jaincoari; eta berehala escua he-datuco daucu; eta Jaincoac escutic gauzcano, ez gare erorico; chutic, haz-car egonen gare zeruco bidean.

* * *

Oi! zer egiac horiec guziac, zer egia handi eta salbagarriac! Bai, zer indarra nuken nere arimaco etsai guzien contra, Jaincoa nerekirik dudala orhoitzen ba-nintz, Jaincoari, laguntzerat dathorki-

dan, oihu egiten banio ! Jaincoa nerekin dudala orhoit banintz, berari hartaraco grazia galdetuz, zer lehia, zer kharra nuken gauza on guzien, Jaincoac nahi dituen -guzien egiteco, eta artarekin egiteco !

Bainan nic, ondicotz ! Jaincoa sobra maiz, sobra luzaz ahanzten ! Ahanzten, mundua sobra maite dutalacotz, sobra maite ditudalacotz munduco buila, bilcurac, jostetac, solasac..... Ahanzten, ichiltasuna eta bakhartasuna aski maite ez ditudalacotz. Calerna haizeac zimurtzen eta nahasten duen urean ez dire ongi ageri izarrac, zeruco argiac; ur gel-dian aldiz, bai, ederki. Iduc beraz bihotza mundutic berech, munduco builari hetsia; eta beti gu baitan biziric, pizturiac, egonen da Jaincoaren orhoitzapen salbagarria.

Ambula coràm me, et esto perfectus.
 Ibil hadi nere aintzinean, eta izanen haiz perfeta. Bai, Jauna, hemendic harat, zure graziarekin batean, hala nahi dut ibili; eta hala ibiliz, saindutu.

CHEDE ZINA :

*Goiz guziz, eguerdi guziz, eta arrats
guziz bederen, eta gero, tentatua naizen aldi
guziz, nere buruarekin eginen dut; Jaincoac
icusten hau; Jaincoac jujatuco hau.*

*O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun
nazazu chede horren bethetzen.*

288

VIII — OTHOITZA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Saindutu behar dugu, saindutuz zerurat heldu. — Bainan ez gaitezke gure baitaric, gure indarrez saindu; Jaincoaren laguntza gabe ez gaitezke zeturat hel. « Ni gabe, dio Jesu-Cristo gure Jaunac, ez dezakezue deus egin; » deus salbatzeco on denic. « Adi ongi, dio san Agustinec; Jesus Jaunac ez du erraten: guti edo hainitz; erraten du, deus. » Hura gabe-beraz, haren graziaren laguntza gabe, ez ditake deus egin zerucotzat. Bainan, hala hala, graziarekin zer-nahi egiten ahal da : arimaco etsai guziac garhaitzen ahal dire, Jaincoaren nahi guziac bethetzen : « Guziac, dio Apostoluac, egin detzazket Jaincoaren indarrez. »

*
*
*

Bainan Jaincoaren indarra, grazia, nola izan, nola ardiets? — Nola? —

Galdetuz. — Jesus Jaunac berac errana da : « Galde zazue, eta izanen duzue. » Bai graziaren, behar den grazia guziaren izateco, aski da galdetzea. Ah ! hola balitz mundu huntaco gauzentzat ! Aski balitz, osagarriaren, ontasunen, atseginnen, ohoren izateco, aski balitz galdetzea !... Bada hola da arimaco gauzentzat. Bainan, ondicotz ! sobra maiz zer da gertatzen ? Ez dela arimaren bizia eta indarra den grazia galdetzen, edo galdetzen dela bakhan, lazoki, kharric gabe, casic ardiesteco gutiziariic gabe. Hitz batez, gertatzen da sobra maiz, othoitzic ez dela egiten, edo egiten dela arinkiegi edo gutiegi.

Alabainan, othoitzta eta graziaren galdea, horiec biac bat dire. « Othoitzta, dio san Bonabenturac, da Jaincoari behar denaren galdegitea. » Eta horra zergatic Elizaco Aitec othoitzta deitzen duten : zeruco gakhoa. Gakho harrekin zeruan segur sartzen da ; gakho hori gabe aldiz, zerutic campo egoten.

Bai, othoitzic gabe zeruan sartuko den baino lehen, mahatsic gabe eginen da arnoa, hariric gabe oihala. Othoitzic

ez, graziaric ez. Graziaric ez, zeruric ez.

..

Othoitz egiten othe dugu? — Dendaric ez da, noiztenca bederen, beharbada askitto maiz, zembeit *Gure Aita* eta *Agur María* erraten ditugula, erraten menturaz goizeco eta arratseco othoitza, eta menturaz arrosorio pusca bat ere bai. Eta bizkitartean berritz ere diogu : othoitz egiten othe dugu?

Othoitzza ez da bakharic ahoz, hitzez egiten.

Othoitzac beti bihotzean behar du sortu, bihotzetic ezpainerat igan. Bihotzetic Jain-oari mintzo ez dena, ez da othoitzean hari. Ezpinez erran detzazke arrosorio osoac ; oren oso bat egon ditake othoitzeco hitzen errepicatzan. Ez du othoitzic egiten.

Eta gūc, egiten othe dugu?

Hasteco, frangotan, alferkeriaz, nagi-keriaz, ez nahiz zaluchago higitu, gure burua puchca bat bortchatu, den gutiene o estacuruarengatic, ez othe dugu goizeco edo arratseco othoitzza, goizecoa bereziki, osoki bazterrerat uzten?

Bazterreraat uzten gure arrosorioa?... Eta, iduriz othoitzean hari garenean ere, non dugu gogoa? bihotza?..... Jaincoarekin?... ala maizenic, ondicotz! bertze nombeit, bertzezerbeiten condotic!... Ez, ez, aithor dezagun, ez dugu othoitz hainitzic, batere balinbada ere, egiten; bihotzetic ez diogu gauza hainitzic Jaincoari galdetzen.

Eta horra zergatic Jaincoac ez gaituen entzuten, zergatic beti bardin garen; beti bekhatu berekin, beti ahul, uzcurgiristino egimbiden bethetzeco. Indarra escas dugu, escas gure faltaz, galdetzen ez dugulacotz. Har dezagun chede zina othoitzari jarraikitzeco, bainan egiazco othoitzari, bihotzez Jaincoari egiten zaion galdeari.

..

Hola egiten baginu othoitz, orhoituz Jaincoari mintzo garela, zemibat artarekin, errespeturekin, egin ginezaken! Ezen mintzo gatzaizcon Jainco hora, gure nausia da, oroz gaineco nausia, eternitatecotzat jujatu behar gaituena. — Zemibat amodiorekin eta fidantziare-

kin! Ezen nausi hora gure aita da, aite-tan hoberena, salbatzeco bere Seme Jaincoa gurutzean eman daucuna. — Zembat humiltasunekin! Ezen, nausi handi hari haimbertzetan oldartu gatzaitzco; aita on harren bihotza haimbertzetan zaúritu dugu. Hain gare bekhatorrosac! — Alta segur, errespetu, fidantzia eta aphaltasun horrekin eginicaco othoitzia chuchen chuchena Jaincoaren ganat doa, heltzen zaio, sartzen bihotz barne barneraino; eta bihotz aberats eta samur hartaric, jautsarazten ditu arimetarat graziaric nasaienac. — Hola egin detzagun beraz gure othoitzac; eta hola eginen ditugu, baldin orhoitzen bagare Jaincoari mintzo garela.

Bertze gauza bat ere bizkitartean behar da, nahi badugu gure othoitzec Jaincoaren bihotza segurki ukitzea: othoitz egin behar dugu Jesu-Cristo gure Jaunarekin batasunean.

Alabainan, Jesu-Cristo bitartekoentzitakoak da, eta grazia bihiric ez deza-kegu ardiets haren merezimendueri esker baizic. Salbatzailea bera errencuratu zitzaioten Apostolueri, et-zutelacotz

haren izenean othoitz egiten. « Orai artio, zion, ez duzue deus nere izenean galdetu. » Bada « zer-nahi galde diezozuen nere Aita zerukoari nere izenean, emanen dautzue. » Eta horra zergatic Eliza gure Ama Sainduac, bere orazioneac, erran nahi da othoitzac, beti acabatzen dituen hitz hautaz : *Per Christum Dominum nostrum.... Per eundem Dominum Jesum Christum.* — « Cristo gure Jaunaren bidez ». — « Per Cristo gure Jaunaren izenean. » Bai, Eliza beti Jesu-Cristoren izenean, Jesu-Cristorekin batasunean hari da othoitzean. Eta gu ere, Elizaren haurrac, hala hari gaiten.

Othoitza hasteracoan, laket izan dakigula, chedez, bihotzez, gure othoitza Jesus Jaunaren othoitzarekin batean, eta baltsan bezala ezartzea ; eta gure othoitz ahulac, orduan, hartuco du Jesusen othoitzaren indarra, Jaincoac beti entzuten eta onhartzen duen othoitz harren indarra.

O Jauna, hola egin banitu orai artio nere othoitzac, naizenaz bertzelacoric nintake. O Jauna, urrical nakizu, eta zeronec icas iezadazu othoitz egiten.

* * *

Salbatzeco othoitz egin behar dugu beraz, egiazki othoitz. Bainan janari bat nahi bezen ona izana-gatic, ez da aski behin edo bertze hartzea gorputzaren hazteco, eta bereziki gorputzeco biziaren hazcar idukitzeco. Gorputzac maiz jan behar du; edo, bertzenaz, ez du lan handiric eginen.

Halaber, nahi badugu gure arima bizi dadin, nahi hazcar izan dadin, eman diezogun ardura bere hazcurria, grazia; beraz ardura othoitz egin dezagun; ezen, icusi dugunaren arabera, othoitzaz ardiesten du arimac grazia. — « Behar da beti othoitz egin, dio Izpiritu Sainduac, eta ez seculan gelditu. » Ez gaitezke bizkitartean beti othoitzean hari; bertzeric ere bada egiteco?

Egia. Bainan hitz horiec erran nahi dute : 1^{er} ez dugula luzaz egon behar othoitzic egin gabe; 2^{er} egiten ditugun gauza guziac Jaincoarentzat egin behar ditugula; eta orduan, zer-nahi egin dezagun, lan, aphairu, lo,... guziac othoitz izanen dire, guziez Jaincoa ohoratuco

baitugu, guziez Jaincoari atsegin emanen baitiogu.

Beraz, Izpiritua Sainduaren hitz horiecz argituric, maiz eta ardura othoitz egin dezagun... goiz guziz eta arrats guziz bederen, eta orduan aphur batez. Goizetan, gure eguna hartaco lanac eta harat hunat guziac escain dietzogun Jaincoari, Jesu-Cristorekin batasunean; eta gero, egunaz ere, gure lanen artetic, Jaincoaz orhoit, zembeit bihotz altchazte, zembeit othoitz labur egin; ezpainez ere batzuetan, eta bihotzez maizago, aipha Jesusen eta Mariaren izen sainduac : Jesus! Maria! aipha bereziki debruac tentatzen gaituenean.

Otsoa icustearekin, bildotchac ihes egiten du artzainaren ganat. Norbeitec jo nahi duenean, haurrac oihu egiten dio bere amari. Jesus gure artzain ona da ; Maria gure ama guziz samurra. Debruia jocatzen zaicunean, edo amarruz bildu nahi gaituenean, ihes Jesusen ganat, hel egin Mariari. Jesus! Maria! Eta Satanec ez daucu deus egiten ahalco.




O Jainco ona, nere falta izanen da, nere falta handia, ez badiot Satani ihar-dokitzan, ez banaiz zure gogoraco urhatsetan ibiltzen, hitz batez, ez banaiz salbatzen. Ezen, gaitz guzietaric begiratze-co, nere egimbide guzien bethetzeco, aski dut zure grazia. Eta zure graziaren izateco, aski dut galdetzea.

Oh! hemendic harat, galdetuco dut, othoitz eginen dut, maiz eta ongi.

CHEDE ZINA :

Seculan othoitzic ez dut hasico, nere buruarekin egin gabe : « Jaincoarekin mintzatzerait noa. »

O Maria, Jaincoaren eta nere ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



IX — GURE AITA

Ene Jaincoa, zeru lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

— Salbatzecotz othoitz egin behar dugu.
 — Othoitzic hoberena da *Gure Aita*. Othoitz hori Jesu-Cristoc berac iracatsia dugu; othoitz hortan sartzen dire laburzki, bertze othoitzetan Jaincoari galdetzen ahal diozcagun guziac.— *Gure Aita* behar ginuke beraz bertze othoitz guziac baino maiteago izan, bertze othoitz guziac baino maizago eta khartsukiago erran. Hala erraten othe dugu?....

Gure Aitan badire zazpi galde : lehen hiruac Jaincoari behatzen zaizconac, bertze lauac gizonari behatzen zaizconac. Ala zuzen baino zuzenago baita, lehenic Jaincoaren ona galdetzea, eta gero, harren ondotic, gurea!

..

Gure Aita, zeruetan zarena. — Bai, egiazki gure aita da Jaincoa. — *Gure*

aita da, harren ganic dugulacotz bizia, arimaco eta gorphutzeco bizia. — Gure aita da, harrec gaituelacotz hazten: gure arima hazten du bere hitzaz, bere graziaz, mahain sainduan bere haragiaz eta odolaz; gure gorphutza hazten du lur huntan hain nasaiki ezarri dituen jatecoez eta edatecoez.

Gure aita da, etsai gachtotic begiratzen gaituelacotz, bai bere graziaren argiez eta indarrez, bai bere aingeruez, bai bere Eliza, gure Ama Sainduaz. — Gure aita da, primantzaric ederrena guretzat daducalacotz: bera, zerruan, izan nahi da gure primantza.

Bai, bai, gure Jaincoac osoki eta gaindizca merezi du *Aita* izen eder eta gozo hori. « Nihor, errana izan da zuzenez, ez « da Jaincoa bezemba gure aita. »

Aita bati bere haurrac gogotic galdetzen diozca behar dituenac. Horra zergatic Jesus Jaunac, berac egin eta iracatsi othoitzean, hitz hori ezarri duen lehen lehenic: *Gure Aita*, nahi baitu, lañotasun eta fidantzia osoarekin mintza gakizkion gure Jainco onari. — O Jesus, egizu zure graziaz, beti othoitzen has-

teracoan, lañotasun eta fidantzia amo-diotsu hori aurki dadin ene bihotzean.

•
•

Gure Aita zерuetan zarena,
Erabil bedi sainduki zure izena. —
 Haur bati, alabainan, et-zaio laket bere
 aitzaz gaizki mintzatzen aditzea; ez, ez,
 aitaren laudorioac nahi lituzke beti en-
 tzun, hec doazco bihotzerat. — Ene Jain-
 coa, ene Aita ona, zemba haur doha-
 cabe ez duzu, egungo egunean bereziki,
 zutaz gaizki mintzo denic, zutaz burla-
 tzen denic! Eta nic beharbada ez dut
 hortaz aski bihotz-min izatu; ni, zutaz
 gaizki mintzo zirenean, ichil-ichila egotu
 naiz, ahalkez edo beldurrez; nic mentu-
 raz bertzekin irri egin dut, bihotzez ez
 bazen, ezpainez bederen!

Jaincoaren izena sainduki erabili be-
 harra da, saindua delacotz. Eta nic biz-
 kitartean, ez othe dut ascotan arinki
 erabili, bertze edo-zoin izen bezala, ca-
 sic jostetan, irri egiteco solas batzuen
 erdian!

O Jainco handia, Jainco ona, barkha!
 Hemendic harat zure izena sainduki

erabilico dut; eta bihotzaren erditic nahi nuke, bertze guziec ere hala erabil balezate.

* * *

Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena,

Ethor bedi zure erresuma : Zure erresuma, erran nahi baita : Zure erregetasuna, zure oroz gaineco nausitasuna. — Ethor bedi zure erresuma, erran nahi baita : ochala bazter guzietan jende guziec ezagutzen, maitatzen, eta zerbitzatzan bazintuzte beren erregea, oroz gaineco nausia bezala !

Alabainan, haur batec bere aita ohoratua nahi du icusi; eta bihotza zaurtzen zaio, icusten duenean bere etchetic, bere ontasunetic, bere herritic campo ezarria. — Egiazco Jaincoaren haur othe gare?... Bertze orduz, Pasionean, Juduac Jesus Jaunaz oihuca hari ziren : « Ez dugu hori nahi erregetzat ». Eta orai ere, ondicotz, oihu bera aditzen da alde guzietaric : Ez dute Jaincoa nahi erregetzat, nausitzat... Jaincoric ez balitz bezala doatzi beren urhatsetan, lege-

tan... Eta guc, aski atsegabe ba othe
dugu gauza hortaz?

Egin ahala egiten othe dugu Jaincoaren hobeki ezagutarazteco eta maitarazteco, Jaincoa nausitzat eta erregetzat harrarazteco? Bai, egin ahala, othoitzez, solasez, diruz?... Maiz, maiz, zin-zinez, eta galde horri darraizcon chedeac bihotzean ditugularic, erran diezogun gure Jaincoari : *Ethor bedi zure erre-suma.*

..

Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sainduki zure izena, ethor bedi zure erre-suma,

Egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean cre... Ah! Jauna, nausitzat eta erregetzat ezagutzen ez zaituztenec ez dute zure nahiric egiten. Bainan guc ere, gure nausitzat eta erregetzat goraki aithortzen zaitugunec, ez othe dugu sobera maiz zure nahi saindua hausten! Eta bethetzen dugunean ere, nola egiten dugu? Ez segurki, zeruko aingeruec bezala, gogotic, eta laster, eta suharki; bainan bai, maizenic bederen, nagiki,

lazoki, nolazpeitca! O Jainco ona, indazu zure borondatearen beti eta beti ahalic hobekiena egiteco grazia. Grazia bera galdetzen dautzut nere ahidentzat, adichkidentzat, herritarrentzat, giristino lagun guzientzat, munduko arima guzientzat.

Egin bedi zure borondatea. — Bai, nahi ditutzun guziac nahi ditut. Igortzen badauzkidatzu atseginac, benedicatuco zaitut. Igortzen badauzkidatzu atsegabeac, orduan ere benedicatuco zaitut. Zu zare nausi, nausi ona, aita. Nic baino hobeki badakizu zer behar dutan; eta, maite nauzu!



Gure Aita...

Iguzu egun gure eguneco ogia. — Alabainan, deus ez gare, deus ez dugu gure baitaric. — Jaincoac eman ondoan bai gure arima, bai gure gorputza, Jaincoaren ganic behar dugu beti ala arimaco ala gorputzeco ogia. — Arimaren ogia, erran nahi da : arimac, salbatzeco, behar dituen laguntza, grazia guziac. — Gor-

phutzeco ogia : gorphutzaren biziric atchikitzeco behar den jan edana.

Arimaco ogia behar dugu lehen lehenic galdetu ; bainan gorphutzecoa ere galdetzea haizu da ; haizu eta behar : ezen bata ala bertzea Jaincoaren emaitzac dire, Jaincoac baizic eman ez detzazken gauzac. Othoi beraz, Jauna, iguzu gure ogia !

Salbatzaileac erranarazten daucu : iguzu *egun*, iguzu gure *eguneco* ogia. Egunean egunecoa galdetzea nahi du. Zergatic ?

Humiltasunean gure atchikitzeco, eta maizago Jaincoari eskerren bihurrarazteco. Egun oroz Jaincoaren ganat eske joanez, ez dugu ahantzico zoin erromesac eta ez-deusac garen ; eta nola egun oroz Jaincoac behar duguna emanen baiteraucu, dudaric ez da *esker-mila* maiz eta ardura erranen diogula. Bada, deus et-zaio Jaincoari laketago bere haurren *esker-mila* baino, deusec ez du hala ekhartzen grazia gehiagoren ematerat.

Iguzu *gure* ogia. — Jesus Jaunac nahi du ogia Jaincoari galde diozogun, ez bakharric guretzat, bainan munduko

jende guzientzat. Ezen guziac eta bereziki giristinoac, Jesusen haur dire, guziac gure haurride. Eta aita batec bere haur guzien ona nahi du; eta haurridec elgar lagundu behar dute. Beraz, Jainco Jauna, arimaco eta gorphutzeco ogia galdegiten dautzugu, bai geronentzat, bai munduco jende guzientzat, bereziki giristinoentzat.

∴

Barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatzen dioztagun bezala.

Ai, Jainco ona, zure barkhamenduaren behar handitan naiz. Nere bekhatuez haimbertze zor egin dut, eta egun guziz oraino egiten, zure justiziari buruz! Barkha, Jauna, barkha! Barkha niri, barkha bekhatu egin duten guzieri.

Barkha zagutzu gure zorrac, guc gure ganat zordun direneri barkhatzen dioztagun bezala. — Beraz, nola giristino lagunari barkhatuco baitiozcagu bere zorrac, erran nahi da, egin dauzkigun gachtakeriac eta laidoac; eta negurri berean

Jaincoac ere barkhatuco dauzkigu gure bekhatuac. Aita guziz ona! Miletan eta miletan zor gehiago diogu, ezen-ez giristino lagunac guri : Eta bizkitartean, lagunari barkhatzen badiogu, aita on harrec ere barkhatu nahi daucu... Bайнан, hala hala, lagunari ez badiogu barkhatu nahi, Jaincoac ere ez daucu barkhatuco.

Zuzen da, arras zuzen. Zer, guc, behatoros herbailec, giristino lagunari ez barkhatu nahi, eta Jaincoac, zero lurren nausiac, guri barkhatzea nahiгинуке! Ez, ez; ez da holacoric. Nola egiten baitiot lagunari; eta hala eginen daut Jaincoac.

Izan othe dezaket Jaincoaren barkhamenduaren esperantza gozoa? Neronec barkhatzen othe diot lagunari, barkhatzen zinez, bihotzetic?... Ala beti herran othe nago, edo bederen barneco hisia batean, kirestasunean, hoztasunean!... Jainco ona, emadazu lagunari osoki barkatzeko grazia, nic ere zure ganic nere zorren, nere hutsen, barkhamendu osoa izan dezadantzat!

• •

Eta ez gaitzatzula utz tentamendutan erortzera. Seguir da, ez gaitezkela batere tentazioneric gabe izan. Beti etsai gachtoa gure arimaren inguruan dabil, nondic lotuco zaion, nondic duen bekhaturat ekharrico. Sobra errechki irabazia, sobra merke litake zerua, tentazioneric, etsaiarekilaco guduric ez balitz! — Bainan, Jauna, badakizu zoin ahula naizen, zoin eror-errecha. Othoi beraz, nere ganic urrun zazu etsai gachtoa; bakhan eta arinki baizic ez dakidala jazar.

Eta hori ezbaditake, zure nahia balinbada maiz eta bortizki guduca nadin; bederen, bederen, ô Aita ona, zeronec hazcar nazazu eta beti chutic atchic.

Zeronec iracats iezadazu erne egoten eta othoitzari jarraikitzen : ezen, Salbatzaileac apostolueri zioten bezala, atzartasuna eta othoitza, horra zer behar den tentazionearren urruantzeco. Zu gabe deus ez naiz; bainan hala hala, zurekin, zure graziaren indarrarekin, guzieri ihardokico diotet. Othoi beraz, ez gaitzazula utz tentamendutan erortzerat.

* * *

Bainan begira gaitzatzu gaitzetic.

Bai, ni eta bertzeac, Jauna, begira gaitzatzu gaitz guzietaric; lehenic, ari-máco gaitzetic, bekhatutic; eta gero, hala on bazaitzu, mundu huntaco maccurretaric, eritasunetaric, ontasun gal-tzetalic...

* * *

Halabiz.

Erran nahi baita : Hala izan bedi : Bai, Jaúna, agian entzunen ditutzu eta onhartuco nere galde horiec guziac. Halabiz.

Oi, *Gure Aita* hola erraten baginu, hitzec zer dioten ahalaz ohartuz, bihotzetic, emeki, emeki!..... Holaco *Gure Aita* bakhar batec asco othoitz luzec baino gehiago balio luke.

CHEDE-ZINA :

Ahalic maizena, artarekin erranen dat Gure Aita. Maiz eta ardura bereziki hitz hauec errepicatuco diozcat nere Aita zeru-coari : Ethor bedi zure erresuma...

Begira gaitzatzu gaitzetic.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.

X — AGUR MARIA

—

Ene Jaincoa, zeru lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Gauza jakina da, Jaincoaren ondotic, nihor ez dugula hala ohoratu eta othoiztu behar nola Andre-dena-Maria. Gehiago dena, Jaincoa ez dezakegu ongi ohora eta othoitz Mariaren bidez baizic.

— Bada, nola *Gure Aitan* sartzen baitire laburzki Jaincoari egiten ahal zaizcon ohoreac eta othoitzac, halaber *Agur Marian* sartzen dire Mariari egin ditazkion ohoreac eta othoitzac. Eta horra zergatic deus ez doacon Mariari bihotzerat *Agur Maria* bezen chuchen eta barna; horra zergatic deusec ez daucun *Agur Mariac* bezembat Mariaren laguntza ardietsico.

..

Agur Maria, gehiena zeruticacoa da, *Gure Aita* bezala. « *Agur, graziaz be-
thea, Jauna da zurekin; benedicatua*

« *zare emazten artean* », zion erran Mariari Gabriel aingeruac. Eta santa Elizabethec : « *Benedicatua da zure sabe-leco fruitua* ». — Bada, ala Gabriel aingerua, ala santa Elizabeth, Izpiritu Sainduaren mezuz, Izpiritu Sainduac argituric eta sustaturic mintzo ziren.

Agur Mariaco bertze hitzac Elizac ezarriac dire, Izpiritu Sainduac betiereziki laguntzen duen Elizac, Izpiritu Saindua baita Elizaren arima eta bizia.

Eta hortaric ageri da egiazco giristi-noac ez duela, *Gure Aitarekin*, *Agur Maria* baino othoitz maiteagoric izan behar, eta ez hain maiteric ere. « Ez da « kit nola eta zergatic, » dio saindu batet, « bainan norbeitec Jaincoa maite « duen-ez ezagutzeco, deus hoheric, « deus seguragoric et-zait, jakitea baino « heia laket zaion *Agur Mariaren* eta « arrosorioaren erratea. »

Laket othe zaicu guri?... Maiz eta ardura erraten othe dugu *Agur Maria?* Erraten ongi?... .

. . .

Agur: Ohorezco eta laudoriozco hi-

tza. Eta nor da hitz horren errailea? Nor da hola Mariaren aintzinean aphaltzen dena? Izpiritu dohatsu bat, zeruco izar ederrenetaric bat, Gabriel aingerua. Alabainan Maria, Jaincoaren Ama beharra zelacōtz, aingeru guzien erregina zen, aingeru guziac baino sainduago, Jaincoari hurbilago. Mariari beraz ohore eta laudorio zor zaio bai lurrean, bai zeruan. Eta guc ere, aingeruac bezala, bozcariorekin, amodiorekin, aphaltasunekin, erran diezogun : Agur!

Agur, *Maria!* *Maria!* Jesusen izenaren ondotic, izenic ederrena, eztiena, maitagarriena, salbagarriena! *Maria*, erran nahi da : *erregina*; bai, zeru lurren erregina, bere handitasunaz, saindutasunaz, ohore guziac merezi dituena, bere ontasunaz, amultsutasunaz, bihotz guziac bere-ganatzen dituena. — *Maria*, erran nahi da : *izarra*; ezen, itsasoan dabilanari, calernetan, ilhumbetan, izarrec bere bidea, leihorreco bidea iracusten dioten bezala, Mariac mundu huntaco nahasmenduetan eta gal-orduetan zeruco bidea daucu beti iracusten. — *Maria*, erran nahi da : *esperantza*;

ezen, dio san Bernatec, gure Erospeneco grazia guziac Mariaren escuetan dire, han ditu Jaincoac ezarri. — *Maria*, zero lurrac bozcarioz gainditzen dituen ize-na; hala hala, ifernua ikharatzen due-na. Bai, indar handia du izen horrec debruaren izitzeco eta urruntzeco. Tentazionetan beraz, beti erran, ezpainez edo bederen bihotzez, Jesusen izenarekin, Mariaren izena. — O Maria! izan zaite beti nere erregina, nere izarra, argi segura, izan zaite nere esperantza, nere salbamendua.

..

Agur, Maria, *graziaz bethea*. Bai, egiazki graziaz bethea, haste hastetic, Adamen haurretaric bakharra, bekhaturic gabe graziarekin izan dena; — *graziaz bethea*, egundaiño bekhaturic ttikiena egin ez duena, bainan egunetic egunerat, eta casic hats-hartze guziz, bere arimaco grazia eta saindutasuna emendatu, berretu izan duena; — *graziaz bethea*, guretzat ziren grazia guziac, lehenic harren baitan emanac izan dire-lacotz, harren ganic gure ganat jauste-

co; — *graziaz bethea*, graziaren Ithurria, graziaren Egilea, Jainco-Gizona, bere erraietan erabili duelacotz, Jainco-Gizonearen Ama delacotz. Zure aintzinean ahuspez emana, ô Jaincoaren Ama Saindua, escaintzen dautzut aingeruaren agurrac egin zautzun atsegin gozo eta sarcorra. Ochala urhezco mihi bat banu, urhea bezen garbiricaco mihia, eta susco bihotz bat, zuri aingeruarekin errepicatzeco : Agur, graziaz bethea!

*
**

Agur Maria, graziaz bethea, Jauna da zurekin. Jauna, Jaincoa, saindu guzien arimetan da ; bainan zembat barnago eta hertsikiago Mariaren, saindu guzien Erreginaren ariman! Eta, bertze nihorciaran ez duen zoriona, Mariac betidanic izan du Jauna bere baitan, betidanic graziaz aberastua zelacotz. Eta beti Jaincoa Mariarekin egonen da ; beti elgarrekin amodio khartsuenaz lotuac eta bat eginac izanen dire, Maria delacotz Jainco Aitaren alaba, Jainco Semearen ama, Jainco Izpiritu Sainduaren sposa. — O Ama ona, egizu nerekin ere Jauna

izan dadin beti bere graziaz, egizu beti Jaincoa maita dezadan!

Benedicatua zare emazte guzien artean. Mariac berac *Magnificatean erran zuen*: « Jendetze guziec dohatsu deituco nau-te. » Eta hala da. Non-nahi, lurrazen lau bazterretan, benedicatua, laudatua, othoitzua da Maria; benedicatua, laudatua, othoitzua, Jaincoaren Ama delacotz, Salbatzailea munduari eman diolacotz.

Ilhumbetan denac nola ez benedica argi emailea! Eri denac, osagarri emailea! Preso denac, libertate emailea! Benedicatua zare beraz, ô Maria, emazte guzien artean.

Eta benedicatua da zure sabeleco fruitua, Jesus. Jesusen gatic, Jesus munduari eman diolacotz da Maria benedicatua; benedicatua da, Jesus haren sabeleco fruitua benedicatua delacotz. Alabainan, fruitutic ezagun da arbola: — Jesus, fruitu paregabecoa! — Ebac fruitu de-

becatua, Jaincoa bezalaco izan nahiz, zuen jan; eta fruitu hartaric jateac, grazia galaraziz, galarazi zion Jaincoaren bizia, graziac ematen duen Jaincoareki-laco eitea; Jaincoaren ganic berechi zuen eta urrundu. Mariaren fruituac aldiz, Jesusec, Jaincoarekin bat gaitu egiten, egiazki Jaincoztatzen gaitu, orai graziaz, comunioneaz, eta gero, agian, osokiago zeruco loriaz. — Ebac fruitu debecatuan atsegina, gozotasuna zuen bilhatu, eta ahalkea eta garraztasuna causitu. Jesusec aldiz, Mariaren fruituac, zer bakhe eztia, zer esperantza gozoa ez du ematen bihotzean! Ezen berac errana da: « Nere haragia jaten eta nere odola edatenduenac, badubizitze betierecoa. » — Ebac hartu eta jan fruitua ederra zen.

Bainan miletan ederrago, bainan osoki choragarria Mariaren sabeleco fruitua, Jesus, gizonen haurretan ederrena, Jesus, argi eternalaren distiradura. — Benedica dezagun beraz Jesus gure bizico egun guziez, merezi dezaguntzat harren ganic aditzea: « Zatozte, nere Aitzaz « benedicatuac, zatozte zuentzat mun-

« duaren hastapenetic egina den erre-
 « sumaz gozatzerat. »

*
*
*

*Hunaraino, Gabriel aingeruaren eta
 santa Elizabetzen hitzac ziren. Huna
 orai Elizac heien ondotik ezarri ditue-
 nac :*

Maria Saindua. Bai, saindu guzietan handiena, saindu guzien erregina, jadanic icusi dugun bezala; Maria, egiazco lurreco parabisua, bertute guzien lorez aberastua!

Jaincoaren Ama. Jesus, Mariaren semea, Jainco denaz geroz, Maria Jaincoaren Ama da. Eta deus etzaio Mariari izen hori baino laketago. Alabainan, Jainco ez izatecotz, ez ditake Jaincoaren Ama baino gehiago izan. Jaincoaren Ama! Hori da Mariaren grazia eta ohore pare-gabea, emanac izan zaizcon grazia guzien, eginac zaizcon ohore guzien erroa eta ithurburua. Maiz beraz, amo-diorekin erran diezogun : Jaincoaren Ama!

..

Egi zu othoitz gu bekhatorosentzat. — O Maria, Jaincoaren Ama zare lacotz, zure othoitz guziz indartsua da. Galdetzea aski duzu; galdetzea bezen segur, zuñē seme maiteac beti nahi duzuna ematen dautzu. Jaincoaren Ama zare, ô Maria, bainan orhoit zaite gure ama ere zarela, guri amatzat Jesus ec gurutze gainetic emana. Urrical gakizkitzu beraz, gu zure haurrac, beti bekhatuarekin borroca häri garenac, sobra maiz, ondicotz! bekhatuac garhaitzen gaituenac. Atera gaitzatzu erori garen bekhatuetaric, begira berritz bekhatuan erortzetic, bai ni, bai nere ahaideac, bai nere adichkideac, bai nere herritarac, bai munduco giristino guziac. O Maria, Jaincoaren eta gure Ama, egizu othoitz gu bekhatorosentzat.

Orai. — Beti, alabainan, zure laguntzaren beharretan gare. Beti etsai gachtoa gure arimaren inguruau dabila, nondic lotuko zaion. Zuc begiratzen ez baduzu, haren bazca izanen da gure arima gaichoa. Othoitz egizu beraz guretzat orai, egun guziz, oren guziz,

Eta gure heriotzeco orenean. — Oren lazgarria! Eternitateco athea! Orduan, orduan, egin-ahalac eginen ditu etsaiac gure bere-ganatzeco. Eta guc orduan, eritasunaz ahulduac, ezinduac, nola etsai indartsuari, amarratsuari, ihardokico diogu! O Maria, zu zare gure esprantza. Othoi, othoi, bekhatorosen ihes-lecua, giristinoen socorria, Birjina boteretsua, Birjina urricalmēndutsua, izan zaite orduan gurē aldean, gure hazcar-tzeco, sustatzeco, debruaren ganic zaintzeco, heriotze on baten egiten laguntzeco, zeruco athearen guri zabaltzeco. — O ama ona, nahi dut hil, zure eta Jesusen izen sainduac bihotzean eta ez-painetan.

Halabiż. — Hola gerta bedi ; bai, ehunetan, miletan, hola gerta bedi.

CHEDE ZINA :

Agur Maria erraten dudan aldi gusiz — eta maiz erranen dut — khartsutasun berezi batekin erranen ditut hitz hauc : Jauna da zurekin. Jaincoaren Ama... Egizu othoitz... gure heriotzeco orenean.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.

XI — SACRAMENDUAC

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287 garren plaman bezala).

Othoitzaren bidez izaten dugu grazia; bainan hainitz gehiago sacramenduetan. Othoitzec, erran baditake, grazia ematen daucute chortaca; sacramenduec aldiz burrustan. Uri chortac ez dire aski luraren bustitzeco, uztaren ekharrarazteco; uria behar da noiztenca bederen, eta, lurra heze eta gizen nahi bada, uria behar da ardura. — Halaber, arimaco biziaren hazteco, othoitzta ez da aski, behar dire sacramenduac; eta arima hazcar nahi balin-bada, sacramenduac behar dire maiz eta ardura. Sacramenduac, erran nahi baita hemen: cofesioa eta comunionea. Bai, giristino izateco, behar da noiztenca bederen cofesatu eta comuniatu; eta giristino on, khartsu, izateco, cofesatu eta comuniatu ardura. Sacramenduetarat hurbiltzeco lehia guti duenac, Jaincoaren amodiaa bere baitan

sustatzeco lehia guti du. Zertan othe gare lehia, gutizia horri buruz?...

..

Güzientzat arras on da maiz cofesatzea eta comunitatza ; gaztentzat, behar.

Mariaren haurrec, luzen luzenaz, hilabhetic behar lukete cofesatu. Maizago, hamabortzetic, egin balite, hobe, hainitz hobe. — Ibiltzen othe gare hilabhetic bederen chuchen? Edo-zoin estacuru ez othe dugu aski luzatzeco? Luzamena denean, ez othe dugu halaco atsegin bat bezala gure baitan? — Etsaia dabila segur orduan; etsaia ez entzun, ez onhar. — Ahalaz beraz, hilabhetic bederen ibil; eta, arte hortan zerbeit besta gertatzen balin-bada, gogotic hilabethea hauts, lasterrago sacramenduetarat hurbiltzeco.

..

Hilabhetic edo maizago cofesatzen gare. Bainan nola egiten othe gare?... Artarekin, funtski miatzen othe dugu gure contzientzia, gure burua den bezala ezagutzeco nahi egiazcoarekin? Ala

arinki, achaletic, casic gure buruaz beldur bagine bezala, beldur icusteaz eta jakiteaz chuchen zertan garen, zer bekhauetan eroriac eta beharbada lake-tuac? Ah! ez da gocho bere buruari aithortzea, holaco edo halaco gauza itsusia nahifarāt gogoan erabili dela, gutiziato dela, egin dela. Debrua orduan hari da gu itsutu beharrez, gure urguilua piztuz, gure gogoa barraiatuz. Horra zergatic, bekhauen biltzen abiato baino lehen, behar den othoitz on bat egin, Jaincoari galdezeco guzien, direnac-diren, ezagutzeco grazia.

• •

Bekhatuen ezagutzea ez da aski; behar dire ezagutzen diren bezala erran. Hala erran othe ditugu, lañoki, garbiki, agertu behar direnetaric deus gorde edo itzaldu gabe?

Ahalkeac ez othe ditu batzuetan gure bihotza eta ezpainac hetsi? Eta mintzatu garenean, beti aski garbiki egin othe gare? Mila itzulicaz, elhe alferrez eta aitzakiz, ez othe dugu bilhatu gure bekhauaren estaltzea eta casic edertzea?

Osoki, gure ustez, gezurra erian gabe, ez othe gare bizkitartean haritu, ginuen baino bekhatu mortal gutiago iracutsi beharrez? Lau ziren segurki; eta guc beharbada erran: hiruz-pa-lau. Zortzi ziren, eta guc erran: zazpi-zortzi. Hamabi ziren, eta guc erran: hamar-dotzena bat. Ez baita bada hori chuchen, ez baita hori ongi cofesatzea. — Gure bekhatu handienac ez othe ditugu erran ahaptic, tarrapataca, agian aita cofesorac ongientzunen et-zituelako nahiarekin?... Zer dio contzientziac? — O ene Jainco ona, argi nazazu.

..

Ongi cofesatzeko, bekhatuen erratea ez da aski; behar da hetaz urrikitu. Urrikiric gabe, ez da seculan barkhamenduric; eta urrikia, dakigun bezala, da: egin bekhatuaz damua, eta berritz ez egiteco chedeá.

Egiazco urrikia ez ditake izan Jaincoaren graziaz baizic; eta horra zergatic urriki hori galdegin behar dugun khar-tsuki.

Galdegiten othe dugu beti?...

Bainan urrikia Jaincoari galdegitea ez da aski : guitaric bacotchac behar du, Jaincoaren graziarekin, bere bihotzean sorrarazterat lehiatu. Eta nola hori? — Nola? Orhoituz, bekhatuaz Jainco guziz maitagarriari laido eta atsegabe handia egin zaiola; bekhatuaz Jesus Jauna gurutzean itzatu eta hilarazi dela; bekhatuac duela zero gozoa galarazten, purgatorio garratza eta ifernu izigarria meritzten. Eta orhoitzapen horiec, edo bederen horietaric bat edo bertze, aphur bat funtsez gogoan erabiliz. — Hola egiten othe dugu? Cofesatzen garen aldi guziz, orhoitzapen horien bidez, icusiz bekhatua zoin gauza tzarra den, tzarra Jaincoarentzat, tzarra guretzat, lehiatzen othe gare bekhatuaren damua eta higuintza, bekhatuaren herra, gubaitan pizterat? — Ba othe dugu egiazco urrikia : egin bekhatuaz bihotz-mina, gehiago ez egiteco chede zina? Ala, joan othe gare cofesatzerat, arrosorioan zembeit hamarreco erranic, batere bekhatua higuinarazi behar daucuten gauzac gogoan erabili gabe, bihotz-minic gabe? Eta han, galdetu badaucute heia bekha-

tuez urriki ginuen, heia utzi nahi ginituen, *bai* bat ez othe dugu ihardetsi, ez naski gezurrez, bainan arinki, achaletic, deus gogoari eman gabe, egiazco chedezinic gabe? Hortaric heldu baita naski, beti bekhatu beretaratitzultzen garela!..

• •

Chede - zina ! Bai, egin bekhatuen egiazco urrikiac badakhharke gehiago ez egiteco chedea; chede hori urriki har tan sartzen da. Bainan bekhatuaren uzteco chede egiazcoric ez da, non ez den bekhatuzco *ocasionearen* uzteco chedea. Alabainan, busti nahi ez due nac, ez du urerat joan behar; erre nahi ez duenac, surat. — Badakigu halaco tokitan, halaco lagunekin bekhatu egi ten dugula : egiazco urrikiaren izateco, behar dugu hartu toki hora, lagun hora uzteco chedea. Bertzela ez da barkha menduric. Gure burua engana dezakegu, cosesora ere, bai; bainan Jaincoa, ez. Alta Jaincoac ez dio barkhatzen urrikia duenari baizic; eta galbidetaric urrundu nahi ez duenac, ez du urrikiric, ez baitu zinez bekhatutic urruntzeco chederic...

Zertan othe gare urrikiari buruz? Beti, gure urrikian sartu othe da galbiden uteco, bekhatuzco ocasionaltaric begiratzeco chede-zina?...

• •

Cofesio gachtoac comunione gachtoa dakhark; cofesio onac aldiz comunione ona. Eta zembatenaz urriki handiagoarekin cofesatuco baigare, eta hambatenaz amodio gehiagorekin comuniatuco dugu. Hori hola da : eta bizkitar-teen, ongi cofesatuac izanic ere, ez othe dugu asco comunione hotz egiten, biltutasun escasez, aintzinetic, bezpera arratsean edo goiz hartan, comunioneaz batere orhoitu ez garelacotz, ez dugulacotz aski sinhesten comunionearen behar handitan garela? Eta gero, eskerren bihurtzea, nola egiten dugu? Beharbada ahal bezen laburzki, nolazpeitca, Jesus Jaunarekin unhatzen bagine bezala. Beharbada, batere... Gauza ahalkegarria! Bainan, ondicotz! ez othe da batzueta egia?...

*
**


Barkhamendu esca diezogun Jesus Ostiari, eta bihotzetic hitzeman, haren graziarekin batean, lehia eta arta gehiago izanen dugula, bai aintzinetic, bai ondotic, beti comunione arras onen egiteco.

CHEDE-ZINA :

Hilabethetic bederen sacramenduetarat hura bilduko naiz, seculan ahalaz lazatu gabe. Bekhatu guziac, ezagutzen ditudan bezala, erranen ditut, eta lehiatuco naiz egiazco urrikiaren izaterat.

Comuniatu ondoan, oren laurdentto baten heina egonen naiz eskerrenbihurtzen.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horien bethetzen.



XII — FEDEA

Ene Jaincoa, zera lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Fedea da giristino bizi guziaren erroa. Erroric gabe ez ditake landareric; halaber, federic gabe ez ditake giristino biziric. Fedea da, alabainan, Elizac iracasten dituenen sinhestea, Elizari Jaincoac iracatsiac direlacotz. Elizac daucu iracasten : Jainco bat badela, Jaincoari zer diogun zor, Jaincoac nola gaituen saristatuco edo gaztigatuco. Elizaren erranac ez badire sinhesten, zertaco eginen dire harrec manatuac? Elizaren erranac ez badire sinhesten, zertaco giristinoki bizico da, bere burua bortchatuz, bere jaidurac zapatuz, gutiziak ezeztatuz!...

Ez, ez, federic, sinhesteric gabe, ez da giristino biziric. Berritz ere erran dezagun : landarea errotic heldu den bezala, giristino bizia fedetic, sinhesteric da heldu. Erroric ez, landareric ez;

erro ahula, landare ahula ; ez ditake landare eder, hazcarric izan, erro hazcar batekin baizic. Halaber, federic ez, giristino biziric ez ; fede ahula, giristino bizi ahula ; ez da funtsezko giristino biziric fede hazcarrarekin baizic.

*
**

Zertan gare fedeari buruz?... Ba othe dugu fedea? — Gure fedea aski hazcarra othe da!... — Aski lehiatzen othe gare gure fedearen begiratzerat? — O Jainco ona, argi nazazu.

Ba othe dugu fedea? — Bai, naski, sinhesten ditugu erlisioneco egiac ; bihiric ez ginezake ukha. Zembeit aldiz bizkitartean, ez othe gare nahitarat, edo bederen ongi lazoki, egoten halaco duda batean bezala, gauza tzar batzu entzun edo iracurtu ondoan ! Erlisioneco egiac sinhesten ditugu ; bainan sinhesten othe ditugu Elizac, Jaincoac, iracatsiac direlacotz, ala bakharric haurretic icasiac ditugulacotz?

Fedea bizkitartean hori da : gauza baten sinhestea, Elizac iracasten duelacotz. Eta fedea hori delacotz, ez da aski

zin-zinezco fedearen izateco, erlisioneco egia dakizkigunac sinhestea; behar da oraino ekharria ~~ian~~ bertze guzien ere bardin sinhesteratzagutzen diren bezen laster, jakinez geroz, segurizanez geroz, Eliza mintzo dela, Elizac iracasten dituela. Alabainan, Elizaren hitzac beti indar bera du; eta Elizac erraten daucunean: hau edo hora baitezpada sinhtsi behar da; orduan sinhesten ez duenac, holacoric oraino et-zakielaco, aditu et-zuelaco aitzakian, harrec ez du federic. Uste bai beharbada fedea baduela; bainan ez baitu: sinheste hori gabe, federic ez da. — Zertan gare?... Zin-zinez, bihotzez, ekharriac othe gare Elizaren iracaspen guzien onhartzerat, sinhesterat?...

*
..

Fedea badugu; bainan gure fedea aski hazcarra othe da? — Ai, Jainco ona, hemen berehala erran behar dautzugu, Ebanjelioco muthico eriaren aitarekin: « Sinhesten dut, Jauna; hazcar-azu ene sinheste flacoa. » Bai, ondicotz! ongi flacoa, ongi ahula; eta horra zergatic

naizen hain giristino flaco eta ahul ! Fede hazcar bizi bat banu , maizago orhoit nintake Jaincoaz, eternitateaz, erlisioneco gauzez ; maizago orhoituz, hobeki jarraic nintake ene giristino egimbide guzieri... Jaincoac beti icus-ten nauela orhoituz, galbidetaric begira nintake... Jaincoari mintzo naizela or- hoituz, bertze bildutasunic eta khartsu- tasunic nuke othoitzean..... Eta meza saindua, fede suhar bat banu, sinhesten banu gorphutzeco begiez icusiz bezen biziki, aldarean gurutzean bezala Jesu Cristo neretzat sacrificatzen dela, meza saindua zembat ongi entzun nezaken!... Bainan ez, nere fedea ahula da ; eta hala delacotz, horietaz guzietaz ez naiz bakhan baizic, arinki eta achaetic baizic orhoitzen. Eta nere giristino bizia ez da batere hazcartzen ; ni beti bardin, hoberic gabe.

Sinhesten dut, Jauna , bainan nere fedea flacoa da ; hazcar-azu. — Fede bizi bat banu, ez nintake mundu huntaco ergelkeriez, ez-deuskeriez, naizen bezen hartua, mundu huntaco harat-hunatez haimbertze khechatua, mundu huntaco

gauzeri, ontasuneri, hain hertsiki lotua... Nere gogoetac, nere esperantzac, nere bihotza hobeki finca netzazke eternitateco gauzetan eta ontasunetan. — Fede bizi bat banu, ez nintake, batzuetan menturaz gertatzen zaitan bezala, Jaincoaren eta Elizaren haur egiazco, Mariaren haur naizela agertzeco ahalca edo izi... Bertzeac erlisionearen contra mintzo direnean, erlisioneaz trufatzen direnean, ez nintake burua aphalic egon gachtagin bat, hobendun bat bezala... Ez nezake bertzekin irri egin, *nere buruaren ez iracusteco*. Zer, bertzec debuaren alde beren burua iracusten, eta gu Jaincoaren alde iracusteco beldur! Orhoit gintazke orduan, eta izi, Salbatzailearen hitz hautaz : « Nor ere nitaz ahalcatuco baita, eta ni ere hartaz ahalcatuco naiz... » O Jauna, icusten duzu nere feder escasa, icusten zoin ahula den nere sinhestea. Othoi, urrical nakizu.

* * *

Fedeaz hazcar nahi dugu? Beraz, lehia gaitezen begiratzerat eta hazterat. Landareac ere hala handitzen eta hazcartzen

dire : haize eta erauntsi gachtoetaric begiratuz ; eta gero, haziz, onduz. — Ba-othe dugu aski arta gure sedea hits, cordoca, flaca, beharbada hil dezaketen gauzetalic zaintzeco ? Ez othe gare ascotan, batere beharric gabe, erlisioneaz gaizki edo arinki mintzo diren jendekin egoten ? Ez othe dugu batzuetan erlisio-nearen contraco zerbeit iracurtzen ? Edo liburu, edo gazeta ? Beharbada ez dire garbiki contra mintzo ; bainan, orhoit Salbatzailearen hitzaz : « Nere alde ez dena, nere contra da. »

Fedea hazcar nahi duenac, bertze iracurtzeric du maite, eta bilhatzen. Alabainan, Jaincoaren hitza da fedearen hazcurria. Jaincoaren hitza aurkitzen da oso osoa, garbi garbia, liburu sainduetan, eta Elizaren espanetan ; aurkitzen da ere aphur bat, Elizaco buruzagien baiarekin agerturicaco erlisioneaz mintzo diren liburu on batzuetan. Lehengo zaharreri hambat laket baitzitzaioten holaco iracurtze zerbeiten egi-tea ! Gutiz gehienec bazituzten, edo *Testament Zaharra eta Berria*, edo *Imitazionca*, edo *Meditazioneac*, edo bertze

asco; eta ahal zuten guzian, igandetan bederen, hetan hari ziren, eta gogotic. Ba-othe dugu holaco zembeit liburutto? Laket othe zaicu hetan haritza, gure fedearen argitzeco eta sustatzeco?...

Laket othe zaicu predicuetan aurkitzea? Han baita bada Jaincoaren hitza gure heineraco, gure beharren arabera, chehatua eta argitan ezarria! — Ala predicuec unhatzen othe gaituzte? Beti luzegi othe zaizkigu! Ahalaz hetaric ihesi othe gabiltza? Eta han garenean ere, non dugu gogoa, bihotza?... Ai, fede ahula duke, Jaincoaren hitza entzutea eta iracurtzea maite ez dukenac. — Zertan gare gauza horri buruz? Gure ichtorioa, ondicotz! bertze hainitzen ichtorioa othe da? Edo-zoin bertze gauza gogotic iracurtzen, bainan erlisioneco gauzac, ez; gizonen elheri beha lorietan egoten, bainan Jaincoaren hitzac berehala unhatzen. O Jauna, urrical dakizu nere fede escasa. Emadazu zure hitz sainduaren amodioa, *gustua*.

* * *

Azkenecotz, feda hazcar nahi badu-

gu, behar dugu othoitzari jarraiki. — Fedea Jaincoaren dohaina da; halaber fedearren indarra. Eta Jaincoac bere dohainac othoitzari diozca ematen. Bai, fedea Jaincoaren ganicaco dohaina da, dohain guzietan beharrena; ezen, jadanic icusi dugun bezala, federic gabe ez da giristino biziric, ez da salbamenduric. Maiz eta ardura beraz Jaincoari eskerrac bihur fedea eman dauculacotz, giristino egin gaituelacotz. Sobra maiz, gure othoitzetan, ahanzten dugu Jaincoari eskerren bihurtzea, haimbertze ongi ~~egin~~ eta egiten daucun Aita onari *esker-mila* erratea. Bizkitartean ez da deus zuzenagoric; eta bertzalde, deusec ez du Jaincoaren bihotza hala ekhartzen grazia gehiagoren ematerat. *Esker-mila* beraz ardura Jaincoari, eman eta atchiki daucun fedearentzat.

Eta gero, maiz galde gure fedea begira dezan eta hazcar. Hortaraco, arras on izanen da maiz, humilki eta fidantziarrekin, egitea Apostoluec Salbatzaileari egin zioten othoitzta eta galdea. « Emen da iezaguzu fedea. »

CHEDE-ZINA :

Jaincoaren hitza entzuterat eta iracurtzerat lehiatuco naiz. Maiz Jaincoari erranen diot bihotzaren erditic : Hazcar-azu nere fedea.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



XIII — ESPERANTZA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Federic gabe, ez da esperantzaric. Ezen, ez badugu Jaincoaren hitza sinhesten, nola iguricatuco ditugu segurki Jaincoac hitzeman ontasunac?... Hala hala, esperantzaric gabe ere, ez ditake giristino biziric. — Ezen, esperanza zero da? Esperanza da : Jaincoac hitzeman dituelacotz, iguricatzea zerua eta zerurat heltzeco behar den laguntza, grazia. Ez bada zeroaren esperantzaric, ez bada zerurat heltzeco behar den laguntzaren, indarraren, esperantzaric, zertaco bizico da giristinoki, zertaco bere burua bortchatuco da?... Laboraria ez bidé litake nekha, ez bide litake lanean hari neguko hotzeten eta udaco beroetan, ez balu zerbeiten biltzeco esperantzaric! Tratulariac ez bide lezake haimbertze buru-hauste, haimbertze harat-hunat erabil, ez balu irabaziaren esperantzaric!... Ha-

laber, segur, giristinoa ez litake, bere buruarekin borroca hariz, Jaincoaren nahiaren egiterat lehia, baldin ez balu sariaren esperantza.

Eta zembatenaz ere saria ederrago baita, zembatenaz segurago, eta ham-batenaz gøgoticago egiten da lana.

*
**

Guc, zer dugu esperantza saritzat?
— Zerua. Zerua, erran nahi da : Jaincoa bera, bere handitasun, saindutasun, edertasun, maitagarritasun guziarekin; Jaincoa beticotz. Iguricatzen dugu beraz sari guzietan hoherena, aberatsena, sari guzien gaineco saria.

*
**

Eta zergatic dugu zerua iguricatzen? Jaincoac hitzeman dauculacotz. — Gure esperantza beraz dudaric gabecoa izan behar da, osoa, segura. — Jaincoac hitzeman daucu zerua, hitzeman zerurat heltzeco grazia. — Alta Jaincoa egia bera da; Jaincoa ez ditake gogoaren contra mintza. Hitzeman du, berazeman nahi du. Bai, eman nahi du, eta ber-

tzalde ematen ahal du. Haren ahala nahia bezen segura da; Jaincoac guziac bere meneco ditu; deus ez da Jaincoac eman ez dezakenic.

Hitz batez, Jaincoac betiereco zoriona hitzematen du, eta bere hitzaren atchikitzeo nahia eta ahala badu. Beraz osoki idurica dezakegu, eta iduricatu behar dugu Jaincoac hitzemana, zerua. Hortaz dudaric izatea, hortaz dudan nahitarat egotea, Jaincoari laidoric izigarrienaren egitea litake. Erratea bezala litzaioke : Diozu, eman nahi daucuzula zerua, bainan ez daucuzu eman nahi; edo : diozu, zerua emanen daucuzula, bainan ez duzu emateco ahalic. Alde batetic nola bertzetic, erratea bezala litzaioke : Et-zare Jainco. Ez, ez litake Jainco, baldin bere hitza jan baleza, edo bere hitza atchic ahal ez baleza. Ezen Jaincoa osoki perfecta da; haren baitan ez da, eta ez ditake deus macurric, deusen escasic.

O Jaincoa! ô Aita ona! zure graziaz egizu, zure hitzaren gainean fincaturic, zin-zinez, bihotz guziz sinhets dezadan eta igurica emanen dautazula, Jesu-Cristoren odolari esker, zure zero ederra,

baldin merezitzen badut; sinhets dezan eta igurica, emanen dauzkidatzula zerauren merezitzeco behar ditudan grazia guziac. — Bai, Aita ona, hazcar-azu, susta ene esperantza.

- - * *

Esperantza bizi bat! Deus ez da hoberic giristino urhatseri jarraicarazteco, giristino bidetan zuzen eta zalu ibilarazteco. — Alabainan, egarriac ithoa dena, bozic eta ahalaz zaluric doa edatecoa segur atzemanen duen tokirat. Bidea tcharchcoa izanic ere, zer zaio!... Eri denac gogotichartzen du, kharatsa izanic ere, sendatuco duen gauza... Lanean suharkiago hari da, lanaren araberaco saria segur izanen duela dakiena... Bertzalde, nor litake aski zororic hamar bat egunez lanean hari nahi, ez izateco, segur bada gero bizi guzia, bizi luze bat, nekheric gabe, aisian, orduan irabaziekin iraganen duela.

Bada esperantza dut, nic, badakit eta segur naiz, arimarentzat lanean hariz, giristinoki biziz, saria izanen dutala; eta saritzat, betiereco pausua eta gozoa.

Egia da, Jaincoac batzuetan gauza garra-tzac galdegiten dituela. Bainan lanac, nekheac, nahigabeac, hain guti iraunen du! Zembeit egunez guduca, berma, paira... eta gero laster, arras lastergero... zorionean igeri, zorionean beticotz... Mundu huntan gutiziatzen diren guziac izanic ere, beti zerbeit escas; eta atsegin eztienec ere guti irauten..... Bainan han, zeruan, deuseren escasic ez; han, atsegin guziac gaindi, eta beti bardin berri, bardin oso. — Eta zerua, nahi badut, nerea! ô Jainco ona, ô Jainco guziz ona!

..

Aski orhoitzen othe gare zeruaz? Aski sinhesten othe dugu zeruan osoki, bai osoki, dohatsu izanen garela? Ba othe dugu zeruarén gutizia eta esperantza aski bizia?... Lur huni lotuac, josiac gaude. Zergatic?... Zeruaz aski orhoit ez garelacotz; ezen, dio san Agustinec, «zeruari behatzen diotanean, zoin itsu-«sia eta zikina zautan lurra!» Beraz maizago, hainitz maizago, bihotza goiti itzul, gu baitan pizteco eta sustatzeco

zerurateco gutizia eta esperantza ; eta bertze giristinoric izanen gare.

..

Esperantzan huts egin ditake, bai escasez, bai sobraz.

Escasez. Beharbada, bekhatu hainitz egin dugulacotz, urthe multzu huntan sacrileioan bizi garelacotz, cofesio tzarrac, comunione tzarrac eginez, etsimenduan erori gare; eta gure buruari erran diogu, guretzatez dela zeruric. Etsaiaren gezurra! Bizi gareno, beti, beti, esperantza izan dezakegu, eta izan behar dugu. Gure bekhatuac handiac dire; bainan handiago da Jaincoaren gure alderaco amodioa. Orhoit bekhatorosen ondotic, bekhatorosen bilha, ethorri dela Jainco Semea zerutic! Orhoit guretzat hil izan dela gurutzean, guitaric bacotcharentzat! Orhoit barkhatu diola Jon Doni Petriri, barkhatu Madalenari! Orhoit zeruan badugula Ama bat, bekhatorosen ihes-lecua deitua dena!... Ez, ez, ez etsi : « Jaincoac izitzen bazaítu, daucu erraten san Agustinec, zoazi, laster egizu haren besoetarat. »

Eta Prodigaren aitac bere haurra bezala, samurki, bozcario handirekin besarcatuco gaitu; ahantzico ditu gure macur guziac; sendatuco, garbituco, bere graziaz jauntzico du gure arima gaichoa!

Beharbada, tentazionekin guducan, maiz garhaituac, icusiz beti bardintsu garela, beti huts berekin, lazotasun, nagitasun, hoztasun berekin, et-zaicu iduri gehiagocoric egin dezakegula salbatze-co. « Nahi nuke, diogu, bainan ez deza- « ket; indarric aski ez dut nere buruaren « garhaitzeco. » Etsaiaren gezurra! Ez naski, gure baitaric ez dugu behar den indarra; bainan bai ordean Jaincoaren laguntzarekin : Jaincoaren laguntzarekin deus ez da, deus arimaco gauzetan, egin ez dezakegunic. Bada, Jaincoaren laguntza badakigu nola ardiets segurki : aski da galdetzea. Jaincoac hitzeman du, eta emanen du; emanen beti behar den heinean bederen, maizenic emanen ausarki. Galde beraz, galde. Ez gare osoki fida, ondicotz! ez, ez gare aski fida Jaincoaren hitzari; ez dugu aski esperantza. Galde, eta izanen dugu;... eta, orai ezin-

eginac iduri zaizkigunac, eginen ditugu,
eginen ascotan errechki !

..

Sobraz. Segur da Jaincoac eman nahi daucula žerua, segur eman nahi daucula zerurat hertzeco behar dugun indar guzia. Bainan segur othe da guc Jaincoaren nahiari ihardetsico diogula, segur Jaincoaren graziaz baliatuco garela? Ez, hori ez da segur. Eta hori segur ez delacotz, beldur, ikhara saindu batekin egin behar dugu gure salbamendua. — Beraz, ez laza, Jaincoa ona delacotz. Jaincoa ona da, bainan zuzena ere, bai; eta Jaincoac ez du saristatzen egina, eta ongi egina den lana baizic. Emanen daucu lanaren egiteco eta ongi egiteco indarra. Bainan ez badugu egiten, edo gaizki egiten badugu, ah! orduan sariric ez igurica! Zorokeria litake, zorokeria eta atrebentzia okhaztagarria Jaincoari buruz.

Beraz, Jaincoa ona delacotz, beti bar-khatzerat ekharria, ez gerorat utz be-khatutic ateratzea, giristino urhatseri

funtski jarraikitzea. Geroa ez da gurea. Bihar, egun arratsean beharbada, hilac izanen gare... Eta zer? Jaincoa ona delacotz nahi ginuke aintzinat laidoztatu! Othe da itsuskeria handiagoric!... Bertzalde, nahiz beti salba ditaken, ez da beti bardin errech. Jaincoaren graziac gutitzen dire... Contu!

..

Ene Jaincoa, ene Aita, ez, ez, ona zarelacotz, ez dautzut atsegabe gehiago egin nahi; aitzitic, lehiatu nahi naiz ahal ditudan atsegin guzien zuri egiterat. Bertzenaz ere, zure atsegina bilhatuz, nere ona dut causituco eta seguratuco; zure nahia eginez, zerua dut irabazico. O zero ederra! zero gozoa! betiereko zoriona! Zin-zinez esperantza dut nere-tzat izanen dela.

Hitzemana dautazu, Jainco ona; fida naiz zure hitzari, eta, fida naizelacotz, egin-ahalac egin nahi ditut, zure grazia-rekin batean, zorion gaindizcaco horren merezitzeco.

CHEDE-ZINA :

*Maiz eta ardura zerauren orhoitzapena
nere baitan piztuco dut. Maiz nere buruari
eginen diot : lana laburra, eta saria betiere-
coa.*

*O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun
nazazu chede horren bethetzen.*



XIV — CARITATEA

(JAINCOAREN AMODIOA)

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Fedea eta esperantza gauza ederrac eta beharrac dire. Bainan bada hirugarren gauza bat, hirugarren bertute bat, ederragoa eta beharragoa; eta hura da : Caritatea, Jaincoaren amodioric hoherena. Caritatea duenac badu beti fedea eta esperantza : ezen Jaincoa nola maita, badela eta ona dela sinhesten ez bada. Bainan fedea eta esperantza iza-na-gatic, caritateric gabe ez ditake zerurat hel, ez daiteke salba. Eta hala hala, caritatearekin, zerua segur da. Caritatea da beraz bertute nausia, bertute guzien erregina. Caritateac ditu bertze bertute guziac osatzen, eta betiereco sariaz, zeruko zorionaz gai egiten. O Jaincoa, argi nazazu, ongi icus dezanetzatzer den caritatea; eta zuhaurec

pizturic, zeronec nere bihotzean beti susta zazu hain beharrezcoa, hai baitez-padacoa den bertute hori.

* * *

Caritatea da Jaincoaren amodia. Bainan Jaincoaren edo-zoin amodio ez da caritatea. Jaincoa maita dezakegu, bai guretzat ona delacotz, bai bere gatic, bere baitan dituen edertasunaren eta saindutasunaren gatic.

Jaincoa maitatza guretzat ona delacotz, hori segurki haizu da; haizu eta behar. Ongi-egilea ez maitatza gauza zhalkegarria da; eskergabetasuna, itsuskeria ezin jasanezcoa. Bada nor da, eta nor daiteke guretzat Jaincoa bezalako ongi egileric! Orhoit gaiten Betelemeco aberetegiaz... Calbarioco gurutzeaz... gure elizetaco aldarez eta mahain sainduez... orhoit gaiten zeruaz! Oi! Jaincoac zembat maite gaituen! Zembat ongi egin daucun, eta zembat oraino egin nahi! Berekin, bere zorionean nahi gaitu eternitate guzicotzat. — Zuzen da beraz, osoki zuzen, holaco ongi-egilea maita dezagun, eta hainitz maita. Maiz

eta ardura beraz gure buruari erran diezogun : Jaincoac hoimbertze maite nau ! Nic ere nahi dut ordainez maitatu, eta maite dutala iracutsi haren nahiari gerota-hobeki jarraikiz.

Bai, Jaincoa maita dezakegu, eta maitatu behar dugu, guretzat ona delacotz.

Amodio hori bizkitartean caritatea othe da ? Hori othe da Jaincoaren amodioric garbiiena, hoberena ? — Ez, ez da hala. Beha :

Jaincoa maite dugunean, harren ganic zerbeit onic izan edo iguricatzen dugulacotz, funtserat joan eta, nor dugu maite ? Gure burua ; edo bederen Jaincoa maite dugu gure gatic, Jaincoaren baitan causitzen dugulacotz, Jaincoaren ganic heldu zaiculacotz gure gozoa eta zoriona : Jaincoaren amodio hortan sartzen da gure buruaren amodio hainitz.

— Amodio garbiagoa, amodio hobea litake segur, Jaincoaren maitatza bere gatic, bere baitan delacotz osoki maitagarria.

Haur batec bere ama maite du, behar dituen jan edanac eta soinecoac nasaiki ematen diozcalacotz ; ongi da. Bainan

amadio egiazcoagoa, ederragoa, garbiagoa, hitz batez hobea luke amarentzat, baldin maite balu harren baitan ezagutzen dituen bertuten gatic, maite balu icusten duelacotz ohoitzai, lanari, bere egimbide guzieri jarraikia, eztia, zuzena, laguntza egilea..... Halaber, Jaincoaren maitatzea guretzat ona delacotz, ongi da. Bainan hobe, maitatzea bere baitan dituen ontasunen gatic, maitatzea dela-
cotz guziz saindua, guziz ederra, guziz jakintsuna, hitz batez, osoki perfeta... Hori da caritatea, Jaincoaren amodioric hoherena : Jaincoaren maitatzea, ez gure gatic, bainan bere gatic.

Eta egiazki, batere federic, batere adimenduric balin-bada, ez da nekhe Jaincoaren hola maitatzea, bere gatic. — Mundu huntan berean bada gauza on eta eder, gauza maitagarri eta charmagarri frango. Alta, badakigu munduko gauza guziac ez direla itzal goibel eta hil batzu baizic; Jaincoa miletan eta miletan gauzaric hoherenac baino hobea dela, ederrenac baino ederrago, maitagarrienac baino maitagarriago, charmagarrienac baino charmagarriago. Mundu

hun tan hain laket zaizkigun guziac, gure begiac lilluratzen, gure beharriac choratzen, gure bihotzac gozoz horditzen bezala eta zorionez gainditzen dituzten guziac, bai guziac, Jaincoaren ganic heldu dire; eta Jaincoaren aldean deus ez dire... deus... ur chorta bat itsaso zabalean baino gutiago, argi firrinda bat iguzkiari buruz baino gutiago. Nola beraz ez maita hain ederra, hain maitagarria, edertasun eta maitagarritasun guzien ithurburu ezin agortuzcoa den Jaincoa! «O Jaincoaren edertasuna, behar ginuke maiz erran san Agustinekin, edertasun beti lehengoa, eta beti berria, nola et-zaitutorai artiomaitatu!»

..

Caritatea bekhatu mortalac du khentzen arimatic. Bainan caritateac ere bekhatu mortala khentzen du. Bi etsai dire horiec, elgarrekin egon ez ditazkenac. Alabainan, batec Jaincoari hertsiki lotzen gaitu; bertzeac aldiz Jaincoaren ganic berechten eta urrunten. — Beraz, seculan bekhatu mortalean erortzeco zorigaitza baginu, laster, laster lehia

gaiten caritatearen, Jaincoaren amodio garbiaren gure baitan pizterat, ohoitz eginez, eta orhoituz Jaincoa zemba tbere baitan ona, ederra, maitagarria den, zemba duen bere baitaco ontasunaz eta edertasunaz gure amodioa merezi. Eta berehala, caritatezco sentimendu bat gure baitan piztu deneco, cofesatu ere baino lehen, Jaincoarekin bakhetuco gare, zeruko biderat itzulico... O caritatea, gauza guziz baliosa !

Bertze bideric ez da salbatzeco, behatu mortalarekin aphezic gabe hiltzerat doanean. Contrizione perfetac ere behatuac barkhatzen ditu cofesioric gabe. Bainan contrizione perfeta eta caritatea, biac gauza bera dire, gauza beraren aldea eta ifrentzua bezala. Ezen, contrizione perfeta zer da? Behatuaz urrikitzea, Jaincoari calte egin dilacotz, Jaincoarentzat tzarra delacotz. Bainan holaco urrikiric ez daiteke izan, ez bada Jaincoa maite bere gatic; urriki eta amodio horiec bat bertzean sartzen dire; beti elgarrekin dabiltza.

Maiz eta ardura, beraz, lehia gaiten caritatezco sentimenduen gure baitan

pizterat : baldin bekhatu mortalean bagine , ahalic lasterrena ateratzeco ; eta grazian balin-bagare, arima bekhatu benialetaric garbituz, gure Jaincoarekila co adichkidantz berretzeco eta hazcartze-
co.

• •

Gauza jakina da, alabainan, ez dela bekhatu benialen sendagailu hoberic, caritatea baino. Argiac ilhumbea casatzen duen bezala , caritateac casatzen ditu bekhatu benialac. Argi gehiago, eta ilhumbe gutiago. Halaber, caritatea biziago, eta arima bekhatu benialetaric garbiago. Argi osoa denean, ilhumberic batere. Halaber, caritatea aski suharra denean, bekhaturic ez da batere ariman gelditzen . — Susta dezagun beraz ahalaz gu baitan caritatea ; lehia gaiten gero-ta gehiago maitatzerat gure Jainco ontasun eta edertasun guziez aberats dena. O Jaincoa, zer maitatuco dugu, zu maitatzen ez bazaitugu ! Zure aldean, zer dire munduko gauza guziac !

• •

Eta Jaincoa hola maite balin-badugu,

segur da nahico dugula icusi gero-tahobeki ezagutua, maitatua, zerbitzatua; segur, atsegin izanen dugula ematen zaizcon phorez, atsegabe egiten zaizcon laidoez; eta horiec, caritatezco sentimenduac dire.

Segur da geronec, gure heinean, lehia saindu bat izanen dugula Jaincoaren legea ez dakiteneri iracasteco, Jaincozco urhatsac gure menecoeri bederen atchicarazteco... Eta horiec, caritatezco obrac dire. Eta, egia gozoa! Orhoitzapen contsolagarria! Caritatearekin, den-gutieneco caritatezco sentimenduekin, grazia segur, Jaincoarekilaco bakhea segur.



Caritez, Jaincoaren amodio garbiz orhatua bezala da Jesu-Cristoc iracatsi othoitza, othoitza horren lehembizico erdia bederen. *Gure Aita..., erabil bedi sainduki zure izena..., ethor bedi zure erresuma..., egin bedi zure borondatea zeruan bezala lurrean ere!* Horiec guziac caritatearen, amodio garbiaren oihuac dire, caritatearen gutiziak eta galdeac. Horietan ez dugu gure ona bilhatzen,

ez dugu gure onaz grinaric. Jaincoaren ona dugu bakharric bilhatzen; Jaincoaren ohoreaz eta atseginaz gare gose eta egarri..... Ah! maiz eta ardura, *Gure Aita* bihotzetic, zin-zinez erran bagineza, ez laiteke ifernuric guretzat. Eta zeruan, zer tokia!

CHEDE-ZINA :

Ahalic maizena lehiatuco naiz, caritatearen nere baitan pizterat eta sustatzerat, bihotzetic erranez : O Jaincoa, gauza ederric eta maitagarriric badela munduan! Eta zu, miletan eta miletan ederrago eta maitagariago! O Jaincoa, maite zaitut, maite zaitut!

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



XV — CARITATEA

(LAGUNAREN AMODIOA)

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{arren} plaman bezala).

Egun batez, Jesus Jaunari galdegin zioten : « Zoin da legeco manamendue- « tan handiena? » Salbatzaileac ihar- detsi zuen : « Maitatuco duzu zure Jainco « Jauna zure bihotz guziz, zure arima « guziz, zure gogo guziz ; hori da mana- « menduetan handiena eta lehena. Bi- « garrena aldiz hori iduria da : maita- « tuco duzu zure laguna zure burua « bezala. » — Beraz, Jaincoaren eta la- gunaren amodioa bat bertzean sartzen dire; ez da Jaincoaren amodio egiazco- ric lagunaren amodioric gabe. Batac bertzea baitezpada galdetzen du, batac bertzea ekhartzen.

Alabainan, norbeit zinez maite de- nean, nahi-eta-ez maitatu behar da ha- ren iduria eta potreta. Bada laguna, edo

zoin lagun, Jaincoaren potret bizia da, guziac Jaincoaren idurirat eginac garenaz geroz. Jaincoaren iduria eta potreta da bereziki giristinoa, bathaioaz Jaincoaren haur, Jesu Cristoren haurride egina izan baita, graziac ariman eman baitio Jaincoaren beraren bizia.

Eta horra nola eta zergatic caritatean baitezpada sartzen den, Jaincoaren amodioarekin, lagunaren amodioa. Bai caritatea da : Jaincoaren maitatzea bere gatic, eta laguna bere burua bezala Jaincoaren gatic. Beraz, nola Jaincoaren edo-zoin amodio ez baita caritatea, halaber ez da caritatea lagunaren edo-zoin amodio.

Laguna maitatzea, guretzat ona delacotz, gure gogoracoa delacotz, gure bihotzeco jitez edo beraztasunez, hori ascotan haizu da, ascotan ongi. Bainan hori ez da caritatea. Caritatea da : lagunaren maitatzea Jaincoaren iduria, Jaincoaren obra eta haurra delacotz, maitatzea Jaincoa maite delacotz, Jaincoari atsegin egiteco, hitz batez, maitatzea Jaincoaren gatic.

..

Nola maite othe dugu laguna?... Maite othe dugu egiazki? Ala, ondicotz! mai-tatzeco orde, hastio othe dugu?... Zer dio contzientziac?... Lagunaren alderat, gure nahiz gure baitan atchikitzen othe dugu herraric, kirestasunic, barneco hisiaric, hisduraric?... Lagunaren ca'tea bilhatu othe dugu... gutiziatu? Lagunaz gaizki mintzatu othe gare?... Haren berri guziac, onac eta tcharrac, guziz tcharrac, aisetasun deithoragarri batekin barraiatu othe ditugu?...

Hainitz jende bada, bertze bekhatuetaric artarekin begiratzen denic, bainan lagunaren ohoreaz nola-nahi mintzo denic, ascotan gachtakeriaric gabe, bainan arinkeriaz, bidegabe frango ekhar dezaken errechetasun batekin!... Ez gure burua itsu!...

Uste dugu beharbada, diogu bederen, laguna ez dugula hastio. Eta bizkitartean, zerbeit macur gertatzen zaioenean, atsegin hartzen dugu... haren laudorioac ezin jasan detzazkegu... harren contraco zerbeiten entzuteac loriatzen gaitu..... contu... contu...

..

Laguna egiazki maite denean, ongi icusi nahi izaten da. Haren hutsac ahalaz estaltzen dire, edo bederen ichilic uzten... hartaz ahalaz ongi da mintzatzen.

Laguna egiazki maite denean, harren laguntzerat ekharria da bere behar-ordu guzietan, bai arimacoetan, bai gorphutzecoetan. — Laket othe zaicu haurreri othoitzen, catichimaren iracastea? Laket erien artatzea? Laket bereziki jende beharrari zerbeiten ematea?... Ematen othe dugu gure ahalaren arabera?... Ematen ongi, erran nahi da, bihotz eta begitarte onez? « Pobreri emanac, dio Izpiritu Sainduac, bekhatuac estaltzen ditu, zemba'-nahi izan diten. »

Maita detzagun beraz, maita hainitz, eta ahalaz lagun pobreac. Bertze guziac ere, bai, bainan pobreac dire bereziki Jesu - Cristoren iduriac, bertze Jesu-Cristo batzu bezala, Jesu-Cristo pobre sortu izan delacotz, pobre bizi, pobre hil. Orhoit Salbatzaileac zer erranen duen azken judizioan : « Zatozte, nere « Aitaren benedicatuac, zatozte zuen-

« tzat betidanic egina den erresumarat :
 « Gose izan naiz, eta eman dautazue
 « jaterat; egarri, eta eman dautazue
 « edaterat. Arrotza nintzen, eta eman
 « dautazue aterbea; biluza, eta eman
 « dauzkidatzue soinecoac. Eri nintze-
 « nean, ethorri zatzaizkide icusterat;
 « preso nintzenean, contsolatzerat. »

Bainan, Jauna, non eta noiz holacoric egin ahal dautzugu?

« Egiaz erraten dautzuet, zer ere on-
 « giric egin baitiozue nere haurretaric
 « ttikienari, eta hora guzia neroni egin-
 « tzat hartzen dut. »

Eta hola da; bai, giristino lagunari egiten zaiona Jaincoari berari egina da, giristino laguna Jaincoaren potret bizia eta haurra denaz geroz, Jaincoaren gatic maitatu behar duguna.

* * *


Eta caritatea duenac hola du maita-
 tzen; eta hola maite duelacotz, zerua
 du merezitzen. Ez gaitu orai harritzen
 Liburu Sainduetaco hitz hunec : Norc
 ere baso bat ur ematen baitio lagunari
 Jaincoaren izenean, Jaincoaren gatic,

eta harrec merezitzen du betiereco saria. Maita beraz laguna, maita Jaincoaren gatic; eta zerua gure da.

CHEDE-ZINA :

Maiz eta ardura nere buruari erranen diot : « Giristino lagunari egina, Jaincoari « egina da. Horren gatic, ez naiz seculan « nihortaz gaizki mintzatuco, eta jende be- « harra ahalaz lagunduco dut. »

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



XVI -- HUMILTASUNA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287; arren plaman bezala).

Saindu batec behin izcribatu zion emazte bati : « Deuseri et-zaitezela hala « atchikia izan, nola humiltasunari ; « ezen ez da deus maitagarriagoric. Hu- « miltasunac zaintzen eta begiratzen « ditu bertze bertute guziac. Urguiluac « aldiz, izcribatzen zion san Bernatec « bere arrebari, urguiluac aingeruac be- « rac galdu zituen, hain hazcar zirenac « artiki. »

Saindu guziac bardin mintzo dire. Alabainan, guziec ez dituzte errepicatzen baizic Izpiritua Sainduaren iracaspenac. Huna Liburu Sainduetako hitzak : « Jain- « coac behatzen diote humilen othoitze- « ri : urguilutsueri aldiz gogor egiten. « Grazia ematen diote humileri; urgui- « lutsuacaldiz, hasarreturic, jotzen ditu, « eta heien egoitzac barraiatzen. » Or- hoit temploan zer gertatu zitzaioten fa-

risauari eta publicanoari. Farisaua bere buruaren laudatzen haritu zen egin-ahala : Jaincoac madaricatu zuen ; publicanoacaldiz humilki aithoi tu zuen be-khatorosa zela : Jaincoac barkhatu zion.

Humiltasuna ! Gauza baitezpadacoa, bertze bertute guzien gainetic Salbatzaileac iracatsi nahi daucuna ! « Icas-azue nere ganic, dio Jesus Jaunac, bihotzez eztia eta humila naizela. » Icas-azue nere ganic ! Seculan, dio san Agustinec, Jesus Jauna ez da hola mintzatu, seculan ez gaitu bere ganat, bere bihotzerat, escola baterat bezala deitu. Icas-azue ! Contu ; icasterat goazin gauza ongi handia eta beharra bide da. Zer nahi daucu bada Salbatzaileac iracatsi ? — Mundu berri baten moldatzen ?... Miracuilo egiten ? Ez, ez ; icas-azue... bihotzez « eztia nai- « zela eta humila ». Bai, egiazki, humila da Jesusen bihotza ; humil, osoki humil eta ehti agertzen zaicu gure Nausi ona... bai Betelemen... bai Calbarioan... bai Gorphutz ? ainduan !

Humiltasuna, eta haren lehembizico lorea, eztitatsuna, horra beraz zer nahi duen Salbatzaileac gu baitan icusi.

..

Zer da humiltasuna? — Humiltasuna, dio santa Teresac, da : *egia*.

Jaincoac bere baitan eta bere baitaric badituela-ontasun eta ahal guziac, horra egia. — Guc aldiz, deus ez dugula Jaincoaren ganic, Jaincoari esker baizic; horra egia.

Bai, hala da : deus ez gare, eta deus ez dezakegu gure baitaric. Gure arima Jaincoaren ganic dugu; gure gorputza Jaincoaren ganic; Jaincoaren ganic gure arimaco eta gorputzeco indar guziac; eta Jaincoac atchic ez baletza, bata eta bertzea berehala suntsi litazke. Horra egia.

Eta egia hortaric heldu da humiltasuna, ithurritic ura, iguzkitic argia bezala. Ezen, zuzenez eta berenaz, egia horrec ekharri behar gaitu Jaincoaren aintzinean aphaltzerat, ahuspez ematerat, bihotzetic zin-zinez aithortzeco deus ez garela, deus, hari esker, haren urricalmenduz baizic; eta, eskerrac bihurturic eman dauzkigun indar eta grazia guziez, galdetzeco ez gaitzan escutic utz! Bada,

hori da humiltasuna : Jaincoaren aintzinean aphaltzea, ezagutuz eta aithortuz deus ez garela gure baitaric, garen guzia eta ditugun guziac haren amodioaren emaitzac direla, guziac haren amodioari diozcagula zor.

Hortaric ageri da urguilua zoin gauza macurra den eta gezurrezcoa. — Gure burua bertzeac baino gehiago daucagu. Ala gorputzean, ala ariman ustez bederen ditugun abantailez hampatuac gau-de. Zoroac! Noren ganicacoac dire abantail horiec?

Urhezaphaindu makhilac merezimendu gehiago othe du burdinez eginac baino? — Biec, emana hartu... Baditake Jaincoac bertzeri baino zerbeit gehiago eman daucun. Bainan orhoit, emanaren araberaco condua bihurrarazico daucula; eta, ikhara saindu batekin, galde haren emaitzaz behar den bezala baliatzeco grazia. — Baditake gure burua bertze holacoa edo halacoa baino hobea iduri zaicun; eta hala den ere baditake.

Bainan, bertze hec baino grazia gehiago izan ez baginu, ez othe ginen hec baino are tzarrago izanen! Eta hec, guc

bezembat izan balute, ez othe ziren gu baino hobeac izanen! — Ez beraz urguilutan sar, ez gure buruaz uste handiric izan : Gu baitan diren guziac Jaincoaren obrac eta emaitzac dire. Orhoit beti egia hortaz; egia hortaric eta egia hortan da humiltasuna.

..

Bainan egia othe da hori? Bai, arras egia othe da deus ez dela gu baitan Jaincoaren ganic baizic? — Deus onic eta zuzenic, ez, arras egia. Bainan, ondicotz! baita gu baitan gauza on eta zuzenez bertzeric! Baitire macurrac eta tzarrac! Eta zemba! Zemba bekhatu ez dugu egin, eta egun oroz egiten! Alta bekhatuac, hec bai, gure ganicacoac dire, geronec eginac, osoki gure obrac. Bainan, egiatzki, gure obra horiez behar othe ginuke urguilutan sartu? Pulitac, gure obrac!

Norbeit hil baginu, hil baginu gure aita edo gure ama... urthe multzu bat zuzenez preso egoten bagine... gure urguiluac eta balentriac barnasco litazke naski, behar bederen, seguric! Ez gin-

tazke naski orduan beti airean bezala, nondic gure burua agertuko eta aiphrazico dugun, nondic izanen dugun ohore, lausengu eta laudorio! Jendea gutaz ichiltzea, jendeac ahantztea, nahi ginuke naski!

Bada gure bekhatuez gure Jaincoa dugu hil, bai gure Jaincoa bera; gure bekhatuez susco presondegi izigarri bat merezitu dugu. — Eta deus macurric egin ez baginu bezala, hobendun, osoki hobendun, ez bagine bezala, laudorioz eta ohorez beti gosegare... beti bertzeac baino gorago nahi!... Iduri deus ez dela sobra, ez aski, guretzat! — Eta ahalkea copetan, urriki minena bihotzean, Jaincoari, urrical gakizkion, maiz eta ardura galdegin behar giniokenean, ez dugu gogoan ergelkeriaric baizic..... nola aphainduco dugun gure gorputza, laster, ustelduric, harrec janen duten gorputz hau... nola gure buruac agertuko ditugun holaco tokitan, holaco bilcuretan... nola gutaz jendea mintzo othe den!

Eta Jaincoari haimbertzeta raino huts egin ondoan, Jaincoa haimbertze laidoz-

tatu ondoan, guc gure lagunaren ganic deus ezin jasan..... deus ezin entzun, gure onetan, gure bide macurretic ate-rarazteco izanagatic... begia baino mimberago, deusetan huts egiten badaucute, gu berehala khechu, suhartuac... zerbeit elhe tchar gutaz erraten badute, gu orduan muskertzen, zer-nahiren erraten hasten, guc orduan hasarrez casic burua galtzen. Horiec guziac eta gehiago merezi ez baginitu bezala! — Eta hala hala, geroni Jaincoaren barkhamenduaren hain beharretan garelaric, guc bertzeri ez deus barkhatzen... gure menecoac, sehi, langile, edo bertze, idorki, garrazki, zorrozki ibiltzen...

Humiltasunic ez, eta eztitasunic ez!
 Eman zaicu bada, eman zaicu ohorea eta laudorioa, guri, deus onic gure baitaric ez duguneri! Bai segur, gauza onari laudorioa beti zor zaio. Bainan gu baitan diren gauza onac Jaincoaren ganic baitire : Jaincoari beraz ohore eta laudorio heietaz; hori da zuzen. Eta Jaincoari ohointza baten egitea litake, ohoreea eta laudorioa guretzat bilhatzea, eta atchikitzea.

Eman zaicu, eman zaicu ohorea eta laudorioa, guri, gure Jaincoa gurutzeficatu duguneri, hala laidoztatu dugun Jaincoari urricaltzen ez bagatzaizco, betiereko suan erre beharrac gareneri ! O Jainco ona, othoi, ez gaitzazula beticotz arbuia !

* * *

Deus ez gare, deus, bekhatoros dohacabe batzu baizic. — Horra egia. — Eta egia hortaz orhoitzeac behar gaitu, Jaincoaren graziarekin, aphaltasunean, humiltasunean eta eztitasunean iduki, eta gero-ta gehiago sarrarazi. San Bernatec izcribatzen zion bere arrebari : « Zem- « batenaz ttikiago izanen baitzare zure « begietan, eta hambatenaz handiago « izanen zare Jaincoaren begietan. »

CHEDE-ZINA :

Egunean behin bederen eginen dut othoitz hau : « O Jesus, bihotsez eztia eta humila, « egin-azu nere bihotza zure bihotza bezala- « coa. »

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.

XVII — OBEDIENTZIA

Ene Jaincoa, zeru lurren nansia (287^{garren} plamun bezala).

Loretic fruitua heldu den bezala, humiltasunetic heldu da obedientzia. Lorreric ez, fruituric ez; halaber, humiltasunic ez, obedientziaric ez. Alabainan, humila ez denac, uste du nor-nahi bezembat edo gehiago badela, nor-nahic bezembat edo gehiago badakiela. Zergatic beraz bertzec erranic sinhetsico du, zergatic bertzec iracutsiric eta manaturic eginen?.... Bera aski da bere buruaren bidatzeco.

Izpiritu Sainduac bizkitartean erraten dauçu : « Bere buruari fidatzen dena, « itsu bati da fidatzen. » Eta « itsu batec « bertze itsu bat bidatzen duenean, biac « errekarat erortzen dire. » — Beraz, errekarat erori nahi ez badugu salbamenduko bidean, obeditu behar dugu.

• • •

Nori behar dugu obeditu?

Funtserat joanez, Jaincoari bakharric diogu zor obedientzia. Gizonac, gizon bezala, ez du escuric bertze gizon bat manatzeco; berenaz, zembat-nahi hazcarra, aberatsa edo jakintsuna izanagatic, gizona ez da gizonaren nausi eta aitzindari. Jaincoa da gizon guzien nausi eta aintzindari bakharra; denentzat bardin.

Bainan Jaincoac creatura batzu hau-tatu ditu bere ordaintzat, eta gauza bat-zuetaco bere nausitasunaz jauntsi; crea-tura heieri eman diote zuzena eta ahala, haren izenean, haren ordain bezala, bertze creatureri manatzeco. Beraz, Jaincoaren nausitasunean hala partalier eginac diren creatura hec mintzo dire-nean, zerbeit manatzen dutenean, Jain-coa bera da heien ahoz mintzo, Jaincoac du heien bidez manatzen. Ordutic, heieri desobeditzea, Jaincoari desobe-ditzea da. Bainan, hala hala, heieri obe-ditzea, Jaincoari berari obeditzea. Eta hola, ez diogu obedientzia ematen zor diogunari baizic: Jaincoari diogu ba-kharric zor; eta Jaincoari diogu bakhar-ric ematen.

Egia horrec, egia hortaz orhoitzeac, zembat ohoratzen, edertzen eta errechten duen obedientzia! Zuzen da, alabainan, gizonac Jaincoaren nahia egin dezan. Eta bertze aldetic, ohoragarri da gizonarentzat, ez bertze gizon baten aintzinean, bainan Jaincoaren aintzinean bakharric aphaltzea, Jaincoari bakharric obeditzea.

..

Zertan othe gare obedientziari buruz? Jaincoac nahi du obedi diezoguten : Elizaco buruzagieri, burhasoeri, nausi etcheco-anderereri.

Elizac erranac onhartzen othe ditugu, Elizac manatuac ahalaz egiten? Ala, Elizac zerbeit manatzen duenean, ba othe dugu beti zerbeit erasteco?... Eginen badugu ere, lehenic ez othe gare ez egiterat bezala abiatzen?... Hala iracusten bederen? Azkenean, ez gogotic egiten? Herrico artzainac, herrico aphezec nahi dutenerat errechki erortzen othe gare, ala nekhev, arras nekhev? Beharbada, geroni herrico artzainari bihurturic, ez othe ditugu bertzeac ere guc bezala egit-

terat ekharri, sustatu?... Laket othe zaicu, herricoaphezen laguntzea, arimen onetan galdetzen dituzten gauza guzietan?...

Burhasoac eta nausi etcheco-andereac, burhasoac guziz, nola obeditizen ditugu?

Ez da obeditza, hec manatuac ez egitea..... gutiago, zerbeit manatzen dute-nean, ezetz, ez dela eginen, ihardestea... gutiago oraino, burhasoac samurturic ere, bere *ez* hartañ thematzea.

Ez da obeditza, burhasoec manatuac, han balin-badire, jakin behar balin-badute, egitea; bertzenaz, egin gabe uztea.

Ez da ongi obeditza, manatuac egitea, bainan bihotz eta begitarte gachtoz, marmaricatuz... edo noizpeit, nahi de-nean... edo nolazpeit, lazoki, ez-acholki, herrestan eta dilindan bezala.

Ez, ez, egiazco obedientziac, Jaincoaren araberaco obedientziac, izan behar du..... barneticacoa, eta ez bakharric achaleticacoa... eztia, arraia, lañoa... berantzeric gabecoa... artosa... osoa, erran nahi da, manatu guziac, zembeit

ez gogoracoac izanic ere, egiten dituena.

Oi haurrac! Oi gazteac! Oi sehiac!
hola obeditzen baginiote gure aintzin-
darieri!

*
..

Hola egiten zuen, hola egin du hogoi-
ta-hamar urthez Jesus Jaunac. *Erat sub-
ditus illis*, dio Ebanjelio sainduac :
« Obeditzen zioten. » Bai, hogoi-ta-
hamar urthez, zero lurren nausiac, gure
Jainco handiac, obeditu izan diote Ma-
riari eta Joseperi, obeditu langile bati
eta emazte ez-deusentzat atchikia zen
bati, obeditu gogotic, obeditu beti, obe-
ditu gauza guzietan, obeditu... orotan
hec baino gehiago zelaric eta zakiolaric.
Jesus osoki obedientia izan da, zeren
baitzen osoki humila. Eta gu!... Gu,
gure urguilu tzarraren gatic, maiz obe-
dientziatic campo. Gure Jaincoac obe-
ditzen, eta guc ez.

Zer zorokeria!

*
..

Bai, egiazco zorokeria. — Ezen buru-

zagiac, burhasoac sinhesten balire, hec erranac egiten, zembat galbidetaric, urhats gachtoetaric ez litake begira! Gaztea, alabainan, hain lillura eta engana errecha da, hain macur eta eror errecha!

Behar du argitzaire segur bat, zaintzale eta casic escutic atchikitzaire on bat. Dohacabe, Jaincoaren ordain diren argitzaileri behatu nahi ez diren gazteac, heien begietaric eta escupetic ihes dabiltzanac! Dohacabe, burhasoen ichilic zerbeit urhatsetan abiatzen direnac! Laster, jadanic han ez badire, laster etsaiac aztaparretaratuco ditu. Eta hala uste ez badute, hortaz beldur ez badire, hambat gachto : are lasterrago galduco dire. Ah! naurrec burhasoentzat, bereziki nechcato gaztec beren amentzat, deus gorderic ez balute, beren berri guziac haste-hastetic eta osoki erraten baliozcate, macur, nigar eta desohore gutiago litakela bazterretan! — Gutizia baginuzerbeiten egiteco gure burhasoen ichilic... contu... hala ez gintazke osoki Jaincoac icusi nahi gaituen bidean, obedientzia osoaren bidean ; ez, debrua

hari zaicu orduan, bere ganat zeiharra-
razi eta itzularazi beharrez.

Zertan gare? Zer egin dugu orai arti-
nocoan? Gure bihotza zabal-zabala ideki
othe diogute gure burhasoeri, gure
ameri bederen?... Burhasoen erranac
sinhetsi othe ditugu, sinhetsi eta egin!...
Ala gure buru joçatu othe gare, burha-
soen erraneri behatu gabe?... Hautsi
othe ditugu burhasoen manamenduac?
Hautsi beharbada zerbeit gauza handi-
tan? — Badakigu bekhatu mortala dela
hori. Bai, gauza premiatsuetan, guziz
arima colpa dezaketenetan, burhaso ba-
tec zerbeit, garbiki, hazcarki, debeca-
tzen duenean, nola bailitake libertizio-
ne, bilcura galgarri baterat joatea, edo
lagun tzar batzuekin ibiltzea, edo *bi-bitā*
madaricatu batzuetan egotea... orduan
bekhatu mortala litake desobeditzea.

Aski barna hartua othe dugu egia
hori gure bihotzetan? Egia hortaz aski
orhoitzen othe gare gure cofesioetan?
Larri larria erranen dugu : « Aita amac
desobeditzen ditut batzuetan ». — Bai,
bainan gauza handi batean desobeditu
bazaiote, burhasoec obeditzea nahi zu-

tela zorrozki iracutsi ondoan, aski othe da horren erratea? Horren erratea aski othe da, burhasoeri, obeditzeco orde eta batzuetan obeditzean berean, zernahi elhe idor, garratz, itsusi, ihardetsi zaiotenean?...



Vir obediens loquetur victorias, diote Liburu Sainduec. « Obedienta denac erraten ahalco du etsaia garhaitu due-la? » — Haur prodigoa zerc galdu zuen? Bere aitari obeditu nahi ez izateac, bere aitaren ganic urruntzeac : aitaren begi ernea traba eta pochulu zuen. Eta bihotzeco bakhea, ohorea, zoriona, non causitu zituen? Aitaren ondoan, berritz harren ganat itzuli zenean.

Jainco ona, nic ere etsai gachtoa nahi dut garhaitu : obedienta izanen naiz beraz. Ez naiz haur prodigoa bezala galdu nahi ; beraz egonen naiz gogotic nere aita amekin, heien begien azpian, heieri nere urhats guziac ezagutarazten diozcatedalaric. Eta, ondicotz! hetaric urrunduric, heien ichilic, prodigoa bezala asco hutsetan erori balin-banaiz,

zure graziarekin batean, ô Jainco ona, hemendic aintzinat nahi dut osoki burhasoen ondorat bildu, heien gerizan, heien erranen arabera bizi,

O Jesus, Mariarentzat eta Joseperentzat hain osoki obedient izan zarena, egin nazazu ni ere nere aita amentzat osoki obedient.

CHEDE ZINA :

Hobeki eta errechkiago obeditzea-gatic, maiz nere buruarekin eginen dat : Nere burhasoac, nere buruzagiac, Jaincoaren ordainac dire.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



XVIII — MORTIFICAZIONEA

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Zeruan ezin sar gaitezke Jesusen ondotic baizic, Jesusi jarraikiz, Jesus beza-lacoac, Jesusen iduri biziak izanez bai-zic. Bada, dio Salbatzaileac, « norbeitec « nahi balin-badu nere ondotic ethorri, « bere buruari ukho egin bezo, garraia « beza bere gurutzea, eta jarraic bekit ». Alabainan, « Jesu-Cristoc ez du bere « atsegina bilhatu », *Christus non sibi placuit*; aitzitic, dio Imitazioneac, « Je- « susen bizi guzia gurutze bat izan da « eta martirio bat ». Bi hitzetan sartzen du profetac bizi hora : *virum dolorum; doloretaco gizonia*. Horra zer izan den Jesus Jauna. Beraz Jesusi jarraiki behar garenaz geroz zerurat hertzeco, ez da salbatzeric sofricarioaren, mortificazio-nearen bidez baizic ; ezen bere buruari ukho egitea, bere gurutzearen garraia-tzea, hori da : sofritzea, mortificatzea.

• •

— Mortificatzea! Izen horrec berac izitzen eta lazten ditu mundutarrac.

Eta gu!...

Zer da mortificatza? Izenac, frantzesetic hartuac, garbiki iracusten duen bezala, mortificatza da : ezeztatza, suntsitza, *hiltza*. Bainan zeren ezeztatza eta hiltza?

Huna :

Bekhatuan sorturic, guziec, bizi garen, badugu eta izanen bekhaturaco jitea eta jaidura. Gure gogoac, gure bihotzac, gure gorputzaz, ascotan galdezen dauzkigute behar ez direnac, haizu ez direnac, Jaincoac debecatu gauzac. Gure baitan maiz pizten da gauza debecatuen gutizia, batzueta, gutizia borthitza. Zer egin behar da orduan, giristino urhatsetan egon nahi balin-bada, eta bekhatuaz ez erori? — Gutizia hec zapatu, ahalaz ezeztatu eta hil; jaidura tzar heieri gerla egin, heien flacatzerat, suntsitzerat beti hari. — Lana da; bai, eta ez alfer eta nagi lana; atzartasun, arta eta indar handia galde-

giten duen lana. Ezen, gure baitan dugu etsaia, gurekin bat egina; geroni gare gure etsai; gure buruari behar diogu gerla egin, gure buruarekin hari behar dugu guduca eta borroca. Gudu garra-tza, gerla dorpea, ardura bihotza sarras-kitzen duena. Bainan baitezpadaco gerla eta gudua, osoki baitezpadacoa; gerla eta gudu hori gabe ez baita giristino biziric. Ez, ez, bere jite gachtoac zapatu gabe, bere jaidura tzarreri ihardoki eta gerla egin gabe, ez da giristino biziric; ez da beraz zeruric. « Jesusekin sofritzen « badugu, dio Jon-Doni Pauloc, harre-« kin gozatuco gare zeruco loriaz; » bertzenaz, ez.

::

Hori, ondicotz! sofritu, mortificatu behar delaco hori, sobra giristino gutic baitute sinhesten! Edo bederen, ez balakite, sinhesten ez balute bezala, baitire bizitzen! — Giristino hec ibilico dire bai elizan, sacramenduetan, othoitzac eginen dituzte, arrosorio frango erranen; usteco dute beharbada giristino onac direla. Horiec guziac, segurki, gauza

onac eta beharrac dire; bainan ez aski, giristino on izateco. Horiec ez dire bide batzu baizic bertze norapeit heltzeco, laguntza batzu baizic bertze zerbeiten egiteco. Norat behar du bada heldu giristinoac? Zer du bada egiteco? — Jesus bezalacoa bilhacatzea, horra zer duen giristinoac egiteco, horra norat behar duen heldu, eta baitezpada heldu salbatzecotz. Jesus bezalacoa, Jesus bezala : eztia, humila, obedienta, garbia, zuzena, caritatez bethea. Eta hortarat ez ditake hel bere buruari ukho eginez baizic, bere arimaco eta gorphutzeco nahicunde eta gutizia macurrac zapatuz eta ezeztatuz baizic, hitz batez, mortificatuz baizic. — Behar ez den gogoeta bat, gogoeta lohi bat, heldu zaicu bururat: Ohartuz geroz, berehala khentzerat egin! Gure bihotzean gutizia gachto bat, edo lohikeriazco, edo mendecuzco, edo bertze, sortzen da: Ohartu bezen laster, ezeztatzerat eta hiltzerat egin.

Behar ez den zerbeit nahi luke gure mihiac aiphatu, gure begiac icusi, gure beharriac entzun: Mihiari, begiari, beharriari erran: *εξ*. Eta *εξ* hartan egon,

zer-nahi gaizkiraco su pizturic ere gu baitan; *ez* hartan egon beti, bai gorphutzari, bai bihotzari, bai gogoari buruz; beti, macurrerat doatzino; eta erne izan icusteco heia ez diren macurrerat bederen abian.

*
*.

Horra mortificazionea; horra nola, galbidetaric urruntzeco, tentazioneri ihardokitzeco, giristinoac behar duen bermatu eta bere burua bortchatu; horra nola jite tzarrac, jaidura macurrac ezeztatzen diren, eta emeki emeki hiltzen; hiltzen, ez arras: bizi gareno, iraunen du gure buruarekilaco guduac. Bainan galdetzen duten bazca ez emanez, ez haziz, flacatzen eta ahultzen dire; eta errechkiago gero azpitic atchikitzen.

*
*.

Mortificatza, bere buruaren zapatza eta bortchatza, giristinoaren egimbide hertsia da beraz; ez ditake bekhatutic begira mortificatuz baizic. Alabainan, hastean ginionaren arabera, sobra dakinigu guziec, sobra frogatzen, ongiraco

zoin nagiac garen, gaizkirat zoin ekharriac eta ichuriac. Othoitz bat casic ez dezakegu bildutasunekin egin, gure burua bortchatu gabe. Gure laneri jarraitze, tenorez, artarekin, zembat bortcha ez diogu egin behar gure alferkeriari, gure jite ez-acholari? Eta, burhasoeri edo buruzagieri beti ongi obeditzeco, lagunaren jasateco, gure atsegabuen eztitasunekin hartzeco, elhe zorrotz edo lazoetaric begiratzeco, galbide guzietaric urruntzeco, ez othe dugu beti gure buruarekilaco gudua eta borroca! Gudua eta borroca gure urguiluarekin, bizitasunarekin, arinkeriarekin! Bai, bai, giristino bizitzeco, mortificazionea osoki gauza beharra da, osoki baitezpadacoa.

Hala othe zitzaicun orai artio? Lehiatu othe gare gure buruaren gainean atzarriac egoterat? Lehiatu, gure baitan zerbeit macurric edo macurrerat zoanic ezagutzen ginuencan, contra egiterat, ezeztatzerat?

Ala, nagi-nagia bizi othe gare, beharbada bekhatu handiric — obrazco bekhaturic bederen — egin gabe, bainan bekhatu ttikietaric begiratzeco, urhats

onetan fincatzeco, escas ditugun bertutez gure arimaren aberasteco, batere grinaric eta artaric gabe!... Beti gure *caatera* idor, erre, ergel, mimbera, jauzcor edo hotzarekin, deusetan ere ez dugulacotz nahi gure burua bortchatu eta zapatu, gure burua beti lausengatzen dugulacotz, eta laket zaion alderat uztent!... Bai, beti bardin, gu, mortificazoneac izitzen gaituelacotz, mortificatzan ez garelacotz!...

..

O Jesus, nere bekhatuec gurutzeficatu duten Salbatzaile amultsua, hemendic harat, zure graziarekin batean, nahi diot nere buruari aski contu egin, nahi dut aski bortchatu eta mortificatu, bekhatuan ez erortzeco. Hitzematen dautzut: Nere buruari haizu ez denic deus ez diot emanen, ez utzico, ez gogoz, ez gutiziaz, ez hitzez, ez obraz.

..

Bainan hortarat heltzeco, haizu ez denic seculan gure buruari ez emateco, orhoit sainduec zer erraten daucuten.

Hortaraco, diote sainduec, eta bichtan da, hortaraco, ez diozcagu gure buruari haizu diren guziac ere beti eman behar. Behar diotegu batzuetan gure bihotzari, gure gorphutzari, haizu den gauza baten gutizia luketenean, behar diotegu erran: ez, ez duc izanen; eta, erran bezala, egin. — Bainan haizu da! — Bazakiat, bainan ez duc izanen. Haizu zaitac ez ematea ere; eta, ez dauiat eman nahi. — Hola eginez, eta hola eginez bakharic, gure jaidurez nausituco gare eta jabetuco; eta zerbeit macurric galdetzen daucutenean, errechkiago idukico ditugu heinean, segurkiago gaienduco gatzaizcote. Bertzenaz, beti gure buruari haizu diren guziac uzten edo ematen badiozcagu, beldur izateco dugu ez garela beti, ez garela luzaz haizu ez den zerbeiten ematetic begiratuco. — Beti hegiz hegi dabilana errechki erortzen da. — Norc atchic, norc molda sobra nasaiki, sobra hazcarki hazia den abrea!

Beraz, batzuetan hets gure begiac eta beharriac, idekiac egoten ahal litazkelaric; ichil, mintzatzen ahal gintazkelaric; holaco tokietaric, bilcuretaric urrun

egon, joaten ahal gintazkelaric; holaco atsegina utz, hartzen ahal ginukelaric.
— Hola, hazcartuco gare gure buruaren contra, hola hezico eta escutic atchikico ditugu gure jaidurac; hola ukho eginen diogu gure buruari, eta jarraikico gatzainco Jesus Jaunari..., jarraikico zeruraino.

..

Bertzalde, ez othe da zuzen, miletan zuzen, gure buruari ez ematea haizu diren guziac? Haimbertzetan, ondicotz! eman diozcagu haizu et-zirenac! Haimbertze bekhatu egin dugu eta egiten! Eta guziac, gure burua ez aski bortchatu nahiz, gure buruari, atsegin egiteco, haizu ez direnac utziz eta emanez!

..

Bertzalde oraino, bekhatuen penitentzia osoa gabe ez da zeruric; eta, badakigu bekhatu barkhatuentzat ere, ehu-netaric lauetan hogoi-ta hemeretzietan, badela penitentzia egiteco. Bada, penitentzia hora egin beharco dugu, edo mundu huntan, edo bertzean, purgato-

riotan; ez da hortan harat-hunatic. Bайнан, zer zorokeria bertze munduko үзтэа! Ezen, mundu huntaco penitentziaric garratzenac, mortificazioneric izigarrienac, deus ez dire, deus, purgatorio-taco oinazen aldean. Beraz, chuhur budugu, hemen egin dezagun gure bekhatuen penitentzia : egin dezagun, gure buruari haizu diren atsegin eta gozotasun guziac ez emanez; egin dezagun, eta hau ere mortificazionean sartzen da, bai, penitentzia egin dezagun, gure nahigabeac, macurrac, ez-ongiac, eritasunac, ontasun galtzeac, eztiki, pazientziarekin hartuz, Jaincoaren escutic, Jaincoaren ohoretan, Jesu-Cristorekin battean, gure bekhatuen penitentziatzat. Hori du deitzen Salbatzaileac : gurutzearren garriatzea.

..

Bai, egiazco giristinoac bere gurutzea garriatu behar du; garriatu, eta ez lurrerat utzi. Gurutzea, sofricarioa! Itsuac bezala ez bagine, fede bizi argi bat baginu, icus eta ezagut ginezake gure ongi-egile handia dela, gure adich-

kideric hoherena, sofricarioa; eta maita ginezake.

Alabainan, norbeitec besoaren piztetic libratzen bagintu, erri bat baizic ez picatuz, hora segur ongi-egiletzat atchic ginezake, eta araberan maita. Bada, berritz ere, mundu huntaco sofricarioec sofricario hainitz handiagotaric libratzen gaituzte, libratzen purgatorio ikharagarritic. Amodiorekin beraz eta bozcariorekin hartu behar ginituzke sofricarioac, gure gurutzeac, adimenduric eta guziz federic aski baginu. Bainan bederen, har detzagun beti eztiki, gure baitan erranez; gehiagocoric merezitu dut.

..

« Jesu-Cristorekin sofritzen badugu,
 « dio Jon-Doni Pauloc, harrekin goza-
 « tuco gare zeruco loriaz. » Bai, eta
 zembatenaz Jesusekin gehiago eta gogo-
 ticago sofrituco baitugu, hambatenaz
 loria eta gozo gehiago izanen dugu ze-
 ruan. Hortaz orhoit; eta lanac, nekheac,
 lotsatzen bagaitu, sariac susta gaitzala.

CHEDE ZINA :

*Nere jaidura gachtoeri, atzartasun eta
lehia gehiagorekin eginen diotet gerla. Nere
atsegabeac eta macurrac pazientziarekin
hartuko ditut, Jesu-Cristorekin batean, nere
bekhatuen penitentziatzat.*

*O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun
nasazu chede horren bethetzen.*



XIX — LANA

Ene Jaincoa, zzero lurren nausia (287^{garien} plaman bezala).

Giristino biziric ez da lanic gabe, eta lanac aldiz hainitz errechten du giristino bizia. Giristino biziric ez da lanic gabe. « Iragan naiz, dio Izpiritu-Sainduac Liburu Sainduetan, iragan naiz gizon alferraren landan barna, eta lazoaren mahastian barna; eta guzia asoinez bethea zen, guzia bururen buru lapharrez estalia, eta inguruco harrasia urratua zuen. » Belhartzarrez eta lapharrez bethea, alde orotaric idekia den Iurhura da : jende alferraren bihotza. Han etsaia sartzen da errechki; alabainan, alferrari sobra nekhe zaio, bere buruaren zaintzea, tentazioneri ihardokitzea. Han pasione tzarrec erroac egiten dituzte, eta beren adar madaricatuac alde orotarat hedatzen.

Alferraren bihotza deuseri ez da lotua, deusec ez du atchikitzen. Haizeac

darabilan hostoac bezala, norat-nahi joco du, joco du bereziki, joco segur eta laster, ergelkerietarat, arinkerietarat, lizunkerietarat. Ezen, unhatzen da alferra; bere burua pochulu, ez dezake jasan, ez daki dembora nola hil. Bertzalde ez du deusetaco ere bortchatu eta bermatu nahi; aiseki nahi du bizi. Ordutic, atseginez gose da, atseginac behar ditu, edo-zoin atsegin. Indarric, edo hobeki calapuric gabe bere gogoren, bere bihotzaren zaintzeco, galbidentalic urruntzeco, laster etsaiaren bazca izanen da, laster erorico da ligarat.

Multam malitiam docuit otiositas. «Gachtakeria hainitz iracutsi du alferkeriac,» diote Liburu Sainduec. Eta frogac hor dire. Dabid, Salomon, Samson, hain gizon Jaincotiarrac, eta bertze zembat, zerc galdu ditu? Zerc bekhatu izigarrienetarat ekharri? Alferkeriac. Ez, ez, giristino bizi eta alfer bizi, horiec ez doazke elgarrekin. Giristinoki bizitzeco, behar da lanean hari, lana maitatu; eta lanac, zer-nahic baino hobeki, errechten du giristino bizia. Beha :

Zer behar da giristinoki bizitzeco?

Jesus Jaunac errana : bere buruari ukho egin eta gurutzea garraiatu, erran nahi baita : bere burua bortchatu, bere jaidurac zapatu, bere nahiac ezeztatu. Bainan, lanean hari denac, behar den lana, behar den tenoretan, behar den artarekin egiten duenac, segurki bere burua bortchatzen du, eta maiz eta ardura bere jitea zapatzen. Nekhe da alabainan, eta guzientzat, beti lanari jarraikitzea, lana beti behar den bezala egitea. Nihor edo casic nihor hortarat ez da heltzen, bere nagikeria iharrotsiz, bere jaidureri gerla eginez baizic. Hain errech da deus ez egitea! Eta are errechago, ez-deuskeria batzuetan, harachet-hünachet, lan aisit bat har eta utz, nahi den bezala bizitza!

— Bainan, behar den edo balio duen lanari beti jarraikitzeco, jarraikitzeco artarekin, behar zaio bere buruari astotan ukho egin, behar da bermatu eta bortchatu.

Bada laneco bere buruari egiten zaion bortcha hori, egin arimaco gauzetan, Jaincozco gauzetan, eta horra giristino bizia. Eta bichtan da laneco bere buruaren bortchatzen dakienac, alferrac baino

errechkiago, hainitz errechkiago. bortchatzen ahalco duela Jaincozco gauzetañ ere. Lanac beraz hainitz errechten du giristino bizia.

*
-- --

Bertzalde, diote Liburu Sainduec, « zure escu-lanetic bizi balin-bazare, « urus izanen zare ». Alta, bakhean eta gozoan den bihotzac, ez du duenaz bertzeric bilhatuco. Bihotz hora guti gutziatuco da munduko ergelkeria lilluragarriez, munduko atsegin galgarriez.

Badu behar duen, nahi duen guzia; zeren ondotic ibilico da? Lanean causitzen du bere atsegina, bere gozoa; eta lanac bide macurretaric begiratuco du. Horra zergatic errana den, lanean hari dena ez duela debru batec baizic tentatzen, alferra aldiz zazpi debruec. Bada errechago da etsai bakhar bati ihardokitzea, ezen-ez zazpieri. Icus dezagun geronec, noiz ditugun maizago tentazioneac, noiz tentazioneric bortitzenac; ala lanean egin-ahala hari garenean; ala alfer gaudenean, gogoa nombeit, nagi-nagia, alhan bezala!...

*
**

Lan mota bat baino gehiago bada. Badire escu-lanac, eta badire buruz-coac. Badire campo lanac, eta badire barnecoac. Badire lan bortitzac, eta badire aisitagoac. Badire lan arruntac, nonahic egin detzazkenac, eta badire arta eta jakitate handia galdezen dutenac. Bacotchac lana hartzen eta egiten du, bere heinaren, ahalaren, beharraren, edo egimbidearen araberacoa.

Hala daucu Jesus gure nausiac iracutsi : Haurra zelaric, Jesus Jauna haritu da Maria Sainduarekin etcheco lanetan; gero, handitu ondoan, hogoi-ta-hamar urtheac artio san Josepekin zurgintzan. Eta azkeneco hiru urthetan, Ebanjelioa prediatuz, miracuiluac eginez, haritu da arimen salbatzen. Ohar ongi huni : Jesus Jauna haritu da ala escu lanetan ala bertzetan, guzien etsemplu izateco; bainan gehiago, hainitz luzekiago escu-lanetan : eta zergatic? Jende gehiena escu-lanetic bizi beharra delacotz, escu-lanetic bizi den jendeari bere nekheac, bere aphaltasunac pazientziarekin har-

rarázteco, eta maitarázteco. Alabainan, Jaincoa lanean haritu da, eta gue ez ginuke hari nahi! Ez dea ohore, eta ohore handia guretzat, Jaincoa gehienic haritu den lanetan haritza! Hola estimatu othe dugut orai artio lana? Edo zoin lan, escu-lana bereziki? Estimatu eta maitatu?.... Ala alferkerian bizi izan othe gare?

* * *

Hainitz gisetarat izan ditake alfer:
 Alfer izan ditake, deus ez eginez...
 Alfer izan ditake, behar dena ez eginez...

Alfer izan ditake, behar dena behar denean ez eginez...

Alfer izan ditake, behar dena behar den bezala ez eginez...

Zertan gare phondu horieri buruz?

* * *

Alferkeria, bertzalde, ascotan ohointza bat da. — Sehi gare, lanean gabil-tza; gure lana pagatzen daucute. Bainan alfer balin-bagaude, bainan lana lazoki eta gaizki egiten badugu; egin ez du-

gun, edo gaizki egin dugun lanaren saria hartzea zuzen othe da? Ez othe da egiazco ebascoa? — Sar gure baitan; icus nola egin ditugun pagatu dauzki-guten lanac.

∴

Azkenean, orhoit san Bernatec bere arrebari erraten zionaz :

« Profetac nahi du, gure bihotzac eta
« gure escuac Jaincoari altcha dietzo-
« gun. Bada, nor ere, othoitzari bezala,
« lanari baita jarraikitzen, eta harec
« ditu bere bihotza eta bere escuac ze-
« rurat altchatzen. Beraz, ene arreba
« maitea, behar duzu zure bihotza othoi-
« tzaz Jaincoaren ganat hegaldarazi; eta
« zure escuac ere behar ditutzu gure
« Nausi onaren ganatitzuli eta altchatu,
« lanean harraraziz. »

Lanac beraz Jaincoaren ganat garamatza. Eta horra zergatic errana izan den, lana othoitzza dela. Bai, hala da; bainan lana egiten denean ongi, behar den tenoretan, behar den artarekin; egiten denean Jaincoac nahi duelacotz,

Jaincoaren ohoretan, Jesu-Cristorekin batasunean.

Hola egin lanac segur Jaincoa ohoratzan du, eta bozcariatzen; bertzalde hainitz gogoeta eta gutizia arin eta galgarrietaic begiratzen du; bertzalde oraino, Purgatoriotoric libratzen du, lanari darraizcon bortchac eta nekheac bekhatuen penitentziatzat hartzen balin-badire.

Zer gauza baliosa beraz lana! Eta nic beharbada, orai artio lana guti maitatu!

O Jesus, zure bizi guzia, othoitzean bezala, lanean iragan duzuna, eman iezadazu lanaren amodio egiazcoa. Alferkeriac ez baitakhar deus onic; lanac aldiz hainitz errechten baitu zeruco bidea.

CHEDE-ZINA :

Lanari jarraikico naiz; eta egin behar ditudan lan guziac eginen ditut artarekin, Jaincoarentzat.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.

XX — ZERUCO EIDEAC

Ene Jaincoa, zero lurren nausia (287^{garren} plaman bezala).

Guziac zerucotzat eginac gare, guziac zerurat deituac. Bainan Jaincoac ez gaitu guziac bide beretic zerurat helarazi nahi; eta gutaric bacotchac artarekin bilhatu behar du zoin duken bere bidea, zoin bidetaric Jaincoac nahi duen bere ganat helarazi.

Bai, artarekin behar dugu gure bidea bilhatu; ezen zoin bidetan ere Jaincoac nahi baigaitu, eta bide hartan emanen dauzkigu laguntzaric hoherenac, bide hartan barna errechkienic, hainitzez errechkienic, zerurat helduco gare. Bertze bidetan, bereziki gurea gure faltaz huts egin balin-badugu, bertze bidetan Jaincoaren laguntzac chuhur dituzkegu; nekheago, hainitz nekheago, litzaikegu bide hetaric zerurat heltzea. Gauza premiatsua da beraz zoin bide hartu behar den ezagutzea.

Zerurat hertzeco badire hiru bide :
 1^a ezcontza; 2^a munduan ezcondu gabe
 bizitzea Jaincoaren gatic; 3^a comentua.

*
*
*

1^a *Ezcontza*, gehienen bidea. — Ezcontza gauza ona da, Jesu-Cristoc, sacramendu eginez, saindutu duena. Ezconduac salba ditazke, bilhaca ditazke saindu handi. — Bizkitartean, nola ezcondua denac, nahi-eta-ez, lur huntaco gauzez grina baitu, behar baitu bere familia hazi eta altchatu, haren bihotza ez da hain errechki Jaincoaren ganaitzulia, Jaincoari casic lotua egoten; etzaio hari hain errech osoki Jaincoarena izatea.

Hori egia da bereziki nola-nahi ezcontzen direnentzat, batere icusi gabe heia ezcontzeco on diren, heia gai izanen diren ezcontzaco egimbiden bethetzeco, batere othoitzic egin gabe, Jaincoaren nahia ezagutzeco nihoren argiric galdetu gabe. Dohacabe hala ezcontzen dena! Mundu huntan berean maizenic nigar frango eginen duke. Eta haren arima,

haren arima gaichoa, non izanen da eternitatecotzat!...

*
..

Huna, bi hitzez, Jaincoaren gogora ezcontzeco egin behar litazkenac :

Hasteco, ezcontzan ez lehen-lehenic eta guzien gainetic bilhatu mundu huntasco ontasunac edo ohoreac. Ez, ezcontzan zer-nahitan bezala, lehen den gauza da : arimaren salbatzea.

Lehen-lehenic beraz icus, eta icus artarekin, heia ezcontzan, ezcontza har tan, izanen den Jaincoaren zerbitzatzeko errechertasuna..., ala ezcontza hura ez den traba bat izanen giristino urhatseri jarraikitzeco. Hamarretaric bederatzietan macur dabila, sos pusca baten gatic, erlisioneric gabeco norbeitekin, eta guziz erlisionearen contra zerbeitetan bere burua iracutsi duen muthil gazte batekin ezcontzen dena. Itsu dezake bere burua ; bere baitan egin dezake, muthil gazte hura Jaincozco urhatsetarat bilduco duela. Holacoac ere gertatzen dire ; bainan bakhan. Ardurenic, casic beti, gizonac du emaztea erlisioneco gauzetaco

epheltzen, hozten, eta batzuetan azkenecotz bera bezen sordes egiten. — Holaco ezcontzaric ez egin beraz behar handiz baizic; ez loria errepican, bainan ezin-bertzean, bñitezpadaco sacrificio bat bezala Jaincoaren ohoretan hartuz.

Ez ezcont, burhasoen nahiaren contra; Jaincoac ez du holaco ezcontzaric benedicatzen. Hemen edo han bizkitartean, behin edo bertze, gerta ditazke burhaso batzu, beren haurrac plantaric gabe ezcontzetic gibelatu nahi dituztenc. Orduan, zuhur norbeiten, etaerezki aphez baten baiarekin, aintzinat joan ditake.

Ezcontzeco den gutieneco abiadurari denean : berehala aita cofesorari erran; othoitz egin khartsuki Jaincoaren ganic behar den laguntzaren ardiesteco; sacramenduetarat maiz hurbil. Eta gero, burhasoekin mintza.

Bertzenaz, burhasoen ichilic norbeitekin atchikitzen balin-bada, goiz edo berant zer gertatuco da? Zer?... Gure Escual-herrico izurritea den gauza madaricatua : gazteac buruz-buru, *bi-bitan*, egonen direla!... Eta bizico direla be-

khatuan! Bekhatuan bizico menturaz hilabethe eta urthe osoac... Bizico lo-hikerian, bizico sacrilegioan; ezen gazte hec, bertzec bezala egitea gatic, nahico dute noiztenca bederen sacramenduetarat hurbildu. Eta hurbilduko dire gaizki, urrikiric gabe, ocasionea uzteco chederic gabe. Nahi dut, ezcontzeco bezperan edo bezperagoan, bekhatu guziac erranen dituzten. Bainan, orduan ere, egiazco urrikia izanen othe dute! Baditake; bai, baditake... Bainan... bainan...

O Jainco ona, argi nazazu, eta ezcondu behar balin-badut, tenore hartan escutic bezala atchic nazazu, nere burhasoen gerizan; othoi, Jauna, sacramendu hortarat helaraz nazazu garbi, garbi gogoz nola gorphutzez.

..

2^a Munduan, ezcondu gabe bizitzea Jaincoaren gatic. Bai, Jaincoaren gatic: beraz, Jaincoaren hobeki zerbitzatzeko, haren nahi guziac, eta bereziki garbitasun saindua, artarekin atchikiz.

Munduan hola bizitza berenaz ez-

contzea baino hobe da; segurkiago eta errechkiago da hola biziz zerurat helten. « Bere alaba ezcontarazten due- « nac, dio Jon-Doni Pauloc, ongi egi- « ten du; eta ezcontarazten ez duenac, « hobeki. — « Hobe da, iracusten du « Trentāco contzilioac, munduan garbi « bizitza, ezen-ez ezcontzea.» Eta gauza hori, adimenduac berac icus dezakena da. — Bichtan da, alabainan, ezcondu gabe bizi direnec maizenic errechetasun eta dembora gehiago dutela othoitzean haritzeco, elizan ibiltzeco, obra onen egiteco. Familiaren hazteric eta altchazareric ez dute hec; berenaz egin, eta salbo. Dohatsu beraz eta mundu huntaric beretic, ezen ez dute holacoec ezconduec bezembat buru hauste eta bihotz-min, dohatsu Jaincoaren gatic ezcondu gabe munduan bizi direnac!

Ez baiginuen bada menturaz guc hala uste! Ez baiginuen menturaz hala bizi direnentzat behar den estimua! Menturaz, gure lagunekin trufatu baigare hala bizi direnez, *mutchurdinez*! Eta bizkitartean mutchurdinac, beren nahiz, Jaincoaren gatic hala direnac, hec baitire

munduan Jaincoaren adichkide lehenac, beraz jende guziz errespetagarriac eta ohoragarriac, zeruko bideric chuchene-nean dabilzanac!...

O Jainco ona, gauza horri buruz, bertzelaco sentimenduric behar duket, eta bertzelaco solasic!...

3^a Comentua. — Hau da zerurateco bideric hoberena; eta ez gutiz.

Jesu-Cristo gure Jaunac erraten daucu:
 « Norc ere nere gatic utzico baititu bere
 « etchea, anaiac, arrebac, aita, ama,
 « emaztea, haurrac, lurrac, harec mundu
 « huntan ehun aldiz gehiago izanen du,
 « eta betiereco bizitzeaz gozatuco da. »

Hori egiten dute comenturat doatzi-nec: guziac uzten dituzte Jesus Jaunaren gatic, Jesusentzat amodioz. Beraz, ezen Jesusen erranac beti egiac dire, beraz, mundu huntaric beretic, utzi dituzten guziec baino hainitz gehiago, ehunetan gehiago balio duen zerbeit izanen dute, hura baita: bihotzeco bakhea eta gozoa; eta, bertze munduan, izanen dute zerua.

Horra zergatic sainduec ez dakiten comentuko bizia nola aski lauda eta gorets. « Hasten banaiz, dio san Agus-

tinec, comentuco biziari doazcon laudorioac eman nahiz, bidean gelditu beharco dut, ez dukedalacotz hitzic aski, erran behar eta nahi nituzken guzien errateco.»

San Crisostomoc, San Bernatec, eta bertze ascoc, comentuan bizi direnac deitzen dituzte: lurreco aingeruac. Alabainan beti, aingeruac bezala, gogoz bederen Jaincoarekin bizi dire; aingeruac bezala, beti hari dire Jaincoaren laudatzen eta haren nahi sainduaren egiten. Holaco bizia, nola ez litake zeruko bide segura? «Comentutic, dio « san Bernatec, zeruraco bidea errecha « da, eta nihor guti erortzen da ifernu- « rat. » — « Munduan, dio san Ligorio « handiac, hainitz eta hainitz arima gal- « tzen da, comentuan aldiz arras guti. »

*
*
*

Eta, zinez, nola litake bertzela?

Arimac zerc galtzen ditu? — Lagun tzarrec, gazten arteco nahas-mahasec, solas lizunec, liburu gachtoec, libertimendu ariniec; galtzen ditu ontasuneri eta ohoreri sobera atchikitzeac; galtzen

ditu beren baitan ez sartzeac!... Arimac zerc salbatzen ditu? — Galbidetaric urrun egoteac, lagun Jaincotiarrekin ibiltzeac, maiz Jaincoaren hitza aditzeac, liburu onen iracurtzeac, othoitzari, meditazionaleari eta sacramendueri jarraikitzeac.

Bada, comentuan, ez da behar ez denic ez icusten ez aditzen; han ez da ocasione gachtoric. Han, aitzitic, lagun onen erdian bizi da, han Jaincoaren hitza ardura entzuten edo iracurtzen, han jarraikitzen da othoitzari, meditazionaleari eta sacramendueri. Han sartze-ko, bertzalde, munduko ontasuneri eta ohoreri ukho egin zaiote.

Comentuan beraz, arima begiratua da gal dezaketen gauza gehienetaric; comentuan, arimac baditu nasaiki salbatzeco behar dituen laguntza guziac.

•••

Comentuan ere segurki badire nahigabeac eta tentazioneac. Bainan indar hainitz du han arimac nahigaben jasteko, tentazionen garhaitzeco. Comentuan direnac, alabainan, osoki eman

zaizco Jesus Jaunari, eta Jesus Jauna ordainez osoki ematen zaiote heieri, eta gainditzen ditu bere graziez.

Bertzalde, comentuan direnac harat joanac dire Jesus Jaunaren urhatseri hurbilagodanic jarraikitzeco. Bada Jesusen bizi guzia martirio bat izan da. Gogotic beraz, Jesusekin batean, hartzen dituzte eta garraiatzen beren gurutzeac; eta Jesusec, beren atsegabetan, ematen diote munduko atsegin guzietan causi ez lezaketen gozoa eta zoriona.



Icus beraz, heia Jaincoac comenturat deitzen gaituen. Eta Jaincoaren deia gu baitan entzuten badugu, ez gure bihotza gogor. Ez ez entzunarena egin; ez bilha mila aitzaki eta estacuru Jaincoac iracutsi bidean ez sartzeco!


Bertzalde, orhoit nihorc ez gaitzazkela zuzenez bide hartaric gibela; ez, nihorc, aita edo ama izanic ere : Ezen, Jaincoac norbeiti garbiki erraten dioenean : « Bide hortaric zatozkit zerurat », norc luke zuzena Jaincoari bihurtzeco, eta ihardesteco : « Ez, nic ez dut nahi ; nic

ez dut bide hortarat utzico »? Dohacabe, Jaincoari hola jazar eta holdar lita-kena. Eta dohacabe geroni, holaco bat-ten gatic gure zeruco bidea huts egin bagineza.

CHEDE ZINA :

Neretzat zoin den zeruco bideric hoherena jakiteco, othoitz eginen dut khartsuki, eta cofesor argitu bati nere burua ongi ezagutu-razico diot. Eta Jaincoaren nahia, dena-dela, icusiz geroz, jarraikico natzaio.

O Maria, Jaincoaren eta nere Ama, lagun nazazu chede horren bethetzen.



ANDRE-DENA MARIAREN

BIZITZEA LABURZKI (1)

Andre-dena Mariaren aita amac, san Joakin eta santa Anna, biac Dabid Erregearen ethorkitic ziren. Sortzez Betelemeacoac, etchetto bat bazuten Nazareteko hiri ttikian, eta han bizi ziren. Han, buruilarren 8^{an}, sortu zen Maria Saindua; bai, jadanic saindua. Andre-dena Mariac, alabainan, ez du bekhatu orisinalic izan; haste hastetic, bere amaren erraietan, graziaz aberastua izan da, haste hastetic Jaincoaren adichkide, saindu. Hala izan da, eta zuzenez hala izan behar zen.

(1) Meditazioneaz mintzatzean, erran dugu Mariaren haurrec maiz eta ardura gogoan erabili behar lituzketela beren Amaren etsempluac. Lan horren errechiteco, bai eta Mariaren alderaco fidantziaren sustatzeco, ezartzen dugu heinen Ama Birjinaren ichtorio labur bat.

Guc ere, gure ama egin baginu, macurric gabe egiten ahal, eta macur zerbeitekin eginen othe ginuen? Ez, segurki. Bada, Maria Jaincoaren Ama beharra zen; Jaincoac bere ama guc gurea baino miletan eta miletan maiteago du. Nola beraz, bekhaturic gabe, graziarekin egiten ahal, eta bekhatuarekin, graziaric gabe eginen zuen!

Maria betidanic osoki garbi eta graziaz aberastua izan da, Jesus Jaunaren ama izan behar zuelacotz. — Jesus hura bera, Jaincoaren eta Mariaren semea, gu baitan dago comuniatzen dugunean. Oh! zoin garbi behar ginaken mahain sainduetarat hurbiltze-co! Bederen ez gaiten seculan hurbil, bekhatu mortalean garela uste dugularic!



Sortu eta hogoi egunen buruan, Ama Birjinari eman zioten bere izena : *Maria*. « Izen hori, dio san Ligorioc, da salba- « menduzco izen bat, ez lurreticacoa, « bainan bai zeruticacoa ; horra zerga- « tic, san Epifanioren arabera, Mariari « et-zioten bertzeri bezela izena eman

« bere burhasoec; ez, izen hori emana
 « izan zitzaion Jaincoaren nahiz eta ma-
 « nuz. » *Maria*, erran nahi da : *Erre-
 gina*; *Andre guzien Andrea*; *itsasoco
 Izarra*. Indar handia du izen horrec de-
 bruaren urruntzeco, bihotzean bakhea-
 ren eta esperantzaren sorrarazteco eta
 fincatzeco, graziaric nasaienac arimari
 ardiesteco.

*Maiz eta ardura beraz, amodiorekin eta
 fidantziarekin, gogoan eta ezpainetan erabil
 dezagan Mariaren izen saindua.*

*
**

Hirugarren urthean sartu zenean, Ma-
 ria bere burhasoekin joan zen Jerusale-
 meco templorat. Ordutic han nahi zuen
 bizi, mundutic berech, Jaincoaren zer-
 bitzuan, othoitzean eta lanean.

Ez baitzuten bada burhasoec gibela-
 tu, nahiz haur bakarra zuten! Aitzitic,
 berec, sortu gabe, Jaincoari escainia
 eta contsecratua zioten. — Haur haurra
 zen *Maria*, bainan jadanic adimendu
 osoa bazuen. Eta temploan zagotzin ber-
 tze nechcatchetan, nihor et-zen *Maria*

bezen khartsuric, nihor othoitzari eta lanari hala jarraikiric.

Maria bezala, templo edo comentu batean ez sarturic ere, egon gaiten bizkitartean ahalaz mundutic, munduko builatic eta arin-kerietaric urrun; jarraic gaiten othoitzari eta lanari; gure lanac egin detzagun Jain-koarentzat.



Mariac noiztenca icusten zituen bere burhasoac, Jerusalemerat heldu zirenean Juduen besta handietaco. Azke-nean harat bererat ethorri ziren bizitzerat, Templotic hurbil zuten etchetto batean. Hamabi urthe zituelaric, Mariari hil zitzaion bere aita; eta santa Anna ere laster hil zen san Joakinen ondotic. Beraz, hamahiru hamalau urthetan, umechurtch gelditu zen Maria.

Bada, legearen arabera, aphezac ziren Temploan zauden umechurtchen aita orde. Eta horra zergatic, aphezec bilhaturic eta hautaturic, Mariac, hamalau urthetan, lagun bat hartu zuen: *Josep*, zurgina, gizon osoki Jaincoaren biho-

tzaren araberacoa, Maria bezala Dabid erregearen odolecoa.

*Ochala nihor ez balitz ezcontzen aphez
zuhur bati, eta bereziki bere cofesorari argi
galdetu gabe !*

• • •

Maria eta Josep bizitzerat joan ziren Nazareterat; han Mariac baitzuen etche ttiki bat, bere burhasoec utzia. Bi hilabethe bazuen han zirela, noiz eta ere, martchoaren 25^{ean}, Gabriel aingerua agertu baitzitzaión Mariari, erraten ziolaric : « Agur, graziaz bethea ; Jauna da « zurekin, benedicatua zare emazte gu- « zien artean. »

Hitz horiec ahalkez asaldaturic bezala ezarri zuten Maria ; bainan aingeruac erran zion : « Et-zaitezela batere izi ; « ezen grazia ardietsi duzu Jaincoaren « aintzinean. Mundurat emanen duzu « seme bat, Jesus izendatuco duzuna ; « handia izanen da, eta deituco dute « *oroz gaineco Jaunaren semea.* » Mariac ihardetsi zuen : « Jaincoaren nescatoa « naiz ; egina izan bekit zuc erran du- « zuna. »

Eta orduanchet berean, Izpiritu Sainduaren obraz, Jaincoaren Semeac, Trinitate Sainduco bigarren presunac, gurea bezalako gorphutz bat hartu zuen Birjina Mariaren erraietan. Ordutic beraz, Maria Jaincoaren Ama egina zen, Jesus haren Semea Jainco denaz geroz.

Mariac hori bazakien; bazakien aski zuela bere baiaren ematea, Jaincoaren ama izateco. Ematen du, bainan bere burua ahal bezembat aphalduz; ematen du, erranez: Jaincoaren nescatoa naiz.

Zer humiltasuna! Eta gu, ez-deusentzat urguiluz hampatzen!

..

Aingeruac, sinhetsarazteco egiaz mintzo zela, eta Jaincoac ezin eginic ez dela, Mariari erran zion: « Huna non « zure cusi Elizabethec, zahartzearekin, « seme bat izanen duen; eta jadanic « seigarren hilabethean da. »

Hortaz orhoituric, zortzitto bat egunen buruan, Maria joan zen bere cusia-ren icusterat eta, behar bazen, laguntzerat. Eta etchean sartu zitzaioeneko,

Elizabethec erran zion : « Benedicatua « zare emazte guzien artean. Eta niri « nondic heldu zait zorion hau? Nola « daiteke nere Jainco Jaunaren Ama « ethor dadin nere icusterat! » Mariac ihardetsizuen *Magnificata* erranez, Jaincoari eskerren bihurtzeco. Eta gero, hiru hilabetheren heina egotu zen han, bere cusiaren laguntzeco.

Mariac bi ganza iracusten danzkigu hemen ; 1^{ie} Jaincoari eskerren bihurtzen, giristino gotic baitute bada egimbide hori behar den bezala bethetzen ; 2^{ie} lagunari bere behar-orduetan gogotic heltzen.

* * *

Maria Elizabethen ganic Nazareterat ethorri zenetic aski laster, Erromaco emperadoreac nahi izan zuen jakin zem-bat jende zuken denetarat bere azpico ; eta hartaracotzat, manatu zuen bat-be-derac bere izena eman zezan, nondic ere baitzuen bere ethorkia, eta herri hartan berean. Maria eta Josep joan ziren Betelemerat. Betelemen, alabai-nan, sortu zen Dabid erregea ; eta, icusi

dugun bezala, Maria eta Josep Dabiten familiatik ziren.

Bainan tokiric ez izanic ostatuetan, joan behar izan zuten, hiritic campo, aberetegi erdi ideki batetarat. — Hanguerdi gainerat, abendoaren 25^{ean}, mundurat ethorri zen Jesu-Cristo gure Jauna. Andre-dena Mariac ahal bezala trochatu zuen ekharri zituen puchkekin, eta etzan othalaco baten gainean.

Mariac ez du nihon atzematen aterberic ; harentzat, zeru-lurren erreginarentzat, athe guziac hetsiac dire. Eta Maria ichilic dago, ichilic jasaten du bihotz gogortasun hori. Ah ! gue ere holà har baginetza gure maccurrac eta atsegabeac, eztitasunekin eta pazientziarekin !

• •

Jesus sortu eta berrogoigarren egunean, Maria bere haurrarekin joan zen Jerusalemeko templorat, han legeac manatzen zuen zeremonia baten egiteko; zeremonia hura deitzen zen *Purificazionea* edo *Garbitza*. Ez baitzuen bada segurki lege horrec Maria ukitzen;

ezen, harren baitan seculan et-zen izatu den gutieneco bekhaturic. Bethetzen du bizkitartean, beldurrez, harec egiten ez bazuen, bertze zembeit ere egin gabe geldi zadin. Et-zuen nihola ere nahi, nihorc haren gatic bekhaturic egitea.

Zoin ederki daucun zeremonia hortan Mariac iracasten, bai Elizaco legeri obeditzen, bai bekhatuaren itcharatic beretic begiratzen!

* * *

Maria, Purificazionea egin ondoan, aintzinago sartu zen temploan ; Jaincoari escaini eta eman zion bere haurra, eta gero berritz erosi zuen bertze zerbeit ordain emanez. Alabainan, Jaincoac Judueri erran zioten, harec beretzat nahi zuela familia guzietaco lehen semea, non et-zioten burhasoec, templorat ekharri ondoan, berritz erosten bertze zerbeit ordain emanez. Bacotchac ematen zuen bere ahalaren arabera. Aberatsec eman behar zituzten urtheco bildotch bat, eta etche uso ume bat edo uso ttorttoila bat : Jende chehearentzat aldiz aski ziren bi etche uso ume edo

bi uso ttorttoila. Maria, nahiz errege odolecoa, et-zen aberatsa; ekharri zituen bi uso ttiki.

Mariac Jesus escaini zion Jaincoari. Comunionean Jesus ga baitan, garekin, gurea dugunean, escain diezogun Jaincoari. Gure othoitzac, lanac, gainerateco guziac egin delzagun Jesusekin batasunean.

*
..

Egun hartan eta tenore hartan, chuchen chuchena, Izpiritu Sainduac bidauric, templorat ethorriac ziren : *Simeon* deitzen zen gizon zahar prestu bat, eta *Anna* deitzen zen alharguntsa saindu bat. Izpiritu Sainduac argituric, biec ezagutu zuten Mariaren besoetan zen haur hora munduaren Salbatzailea zela, eta bozcarioz sustatuac, hasi ziren goraki Jaincoaren laudatzen. Gero Simeonec Mariari erran zion, dolorezco ezpata batec zilatuco ziola bihotza : gizon saindua mintzo zen Mariac Jesus bere Semearen Pasionean jasan beharco zituen oinazez ! Eta geroztic, Calbarioraino, han zagon beti dilindan Mariaren begien aintzinean Simeonec aiphatu ezpata

lazgarria. Mariaren bizia, Jesusena bezala, izan behar zen gurutze bat éta martirio bat.

Egiazco giristino izan nahi duenac, behar du garutzea garraiatu, behar du sofritu.

* * *

Purificacionetic lecora, Maria etcherat zeneco, aingeru bat ametsetaric agertu zitzaison Josepi, eta erran zion : « Har- « atzu Haurra eta Ama, ihes egizue « Esiptorat, eta zagozte han nic itzul- « tzeco erran artio ; ezen Herodesec « Haurra bilhatzen du hilarazteco. » Aire berean, Maria eta Josep haurra-rekin abiatu ziren Esiptorat. Goiz alde- rat ethorri ziren Herodesen soldaduac, eta hango eta inguru hetaco haur guziac hil zituzten.

Herodes bera hil zen biz-pa-hiru ur- theren buruco, eta, aingeruac erranic, Familia Saindua itzuli zen bere herrirat, eta Nazareterat bildu.

Gauaz heldu zaiote Josepi eta Mariari Jaincoaren mezua, eta berehala, batere luza- menic gabe, bideari lotzen dire; eta hala

date Jesus haurra salbatzen. Guc ere hola behar ginuke obeditu! Jaincoaren nahia garbiki ezagutaz geroz, berehala egin! — Guc ere atzartasun eta lehia hori behar ginuke ocasionaliaric, Jesus galaraz dezaketen gauzataric, urruntzeco!

*
..

Maria eta Josep bizi ziren beraz Nazareten. Bizi ziren beren escu lanetic, eta Jesus Jauna ahal bezen ongi artatzen zuten.

Lana, zoin gauza ona eta ederra, Jaincoarentzat egiten denez!

..

Bertzalde, nihore et-zituen Josepec eta Mariac baino hobeki lege zaharreco besta egunac atchikitzen. Orduan, legeac zakharken bezala, joaten ziren Jerusalemerat. Behin, Jesus Haurrac hamabi urthe zituelaric, hau ere ereman zuten berekin; eta etcherateco dembora ethorri zenean, Jesus, burhasoen ohar gabean, Jerusalemen gelditu zen. Mariac eta Josepec escas zutela ezagutu zute-

neco, auhenca bilhatu zuten bazter guzietan. Hiru egunen buruan, causitu zuten Temploan, dotoren erdian; eta legeco nausi jakintsun hec harrituac zauden haur harren solasen zuhurtziaz.

Ochala gue ere, Jesus Jauna bekhatuaz galdu dukegunean, bakheric eta soseguric ez baginu, harrekin berritz adichkidetu eta bat egin artio!

..

Holachet bizi izan zen Familia Saindua, Jesus Jauna Ebanjelioaren predicatzen hasi artio. Lehenchago bizkitartean hil zen san Josep, ustez Jerusalemeco hirian, Jesusen eta Mariaren besoetan.

Jesus, predicatzen hasiz geroz, et-zen bakhan baizic Nazareterat itzultzen. Mariac bizkitartean bazakien bere semearen urhats guzien berri. Bera han etzenean, guziac icusten zituen zeruticaco argi batean. Han bide zen Jesusen batthiaoan; bainan segur, et-zitzaison morturat jarraiki.

Behin, Salbatzailea oraino bere apos-

tolu beharren hautatzen hari zelaric, Maria Jesusekin joan zen Canaco hirirat, azcazi batzuen eztaietarat. Eta huna non, bazcariaren erdian, arnoa escasten zaio-ten. Mariac orduan, jende gaicho hec urricalduric, erraten dio Jesusi : « Ez « dute arnoric gehiago. » Eta Jesusec ihardesten dio : « Emacumea, zuc eta « nic, zer egiteco dugu elgarrekin? »

Erran balio bezala : Nic dutan ahala, noren ganic dut? Zure ganic, ala nere aitaren ganic? Alta, nere aitaren ganic badut, bertzeric norc erraten ahal daut, zer dutan egiteco? Ez da oraino ethorria zer ahal, zer indar dutan iracusteco tenorea.

Ez, et-zen ethorria Jesusentzat mi- racuilo egiteco tenorea. Mariac hargat- tic, baitzakien galde guziac onhartzen ziozcala Jesusec, erraten du : « Egizue « horrec errana. » Jesusec orduan, bere amaren gatic, han ziren harrizco sei untzi handi urez betheazten ditu; eta gero, ur hora arno egiten du, arno hautu.

*Mariaren othozitzaren inlar pare gabecoa!
Miracuila ac ard'esten ditu! Ah! gure behar-*

orda guzietan, fidantzia osoarekin hel egin diezogun Mariari.

Bertzalde orhoit, caritatez, lagunarentzat amodioz, miracuilua galdein eta ardietsi zuela Mariac.

--
..

Pasioneeco demboran, Maria beti han zen bere semearekin, gorputzez ez ba-zen, gogoz bederen ; eta guziac icusten zituen, edo bere begiz edo zeruticaco argi batean. Salbatzailea Calbarioco mendirat zaramatelaric, Maria atera zitzzion bide gurutze batean.

Ama gaichoa, abiatzen da bere seme maitea besarcatu nahiz. Bainan soldadoec idorki urruntzen dute. Hori icusiric, bere amaren laidoa eta atsegabea ezin jasanez, Jesus erortzen da. Altcharazten dute osticoca. Eta Mariac deus ezin egin ; ezin hurbil ere : Zer oinazea ama bihotz hartan !

Eta gure bekhatuec dute, Jesusen bihotzarekin, Mariaren bihotza erdiratu. Bekhatua, gauza izigarria !

*
* *

Maria Jesusi jarraikitzen zaio Calbariorat. Bera, Jesus bezala, ahalkez ikharan delaric, icusten du bere Semea biluzia, gure gatic, gure guritasunen eta lohikerien gatic. Aditzen ditu martilu dorpeac Jesusen escuetan eta oinetan itze sartzen hari. Eta gero, gurutza lan datzen dutenean, han da, han dago ondo ondoan, nigarrez, bainan chutic. Chutic, apheza aldarean bezala, onhartzen duelacotz bere semearen sacrificioa, go-gotic bihotzez Jaincoari escaintzen diolacotz Jesusen odola munduaren salbatzeco.

Guc ere hola behar ginituzke jasan gure nahigabeac : chutic, gure bihotza casic erortzerat utzi gabe, guziac Jesusekin batean Jaincoari escainiz gure bekhatuen penitentziatzat, gure salbamenducotzat.

*
* *

Maria han zen beraz gurutzearen ondoan, eta Jon Doni Joani apostolua ere bai harrekin. Jesusec, azken hatsetarat hurbildu zenean, behatu zion bere ama-

ri, eta erran zion amultsuki, Jon Doni Joaniz mintzo zelaric : « Huna zure se- « mea. » Erran zion gero Jon Doni Joa-niri, mintzo zelaric Mariaz : « Huna zure « ama. »

* * *

Gurutzearen ondoan, Jon Doni Joani gi-ristino guzien ordain bezala zen; beraz Andre-dena Mariac guziac bere haurtzat hartz gaitu, Jesusec emanic; eta gure behar dugu Maria amatzat atchiki, eta ama bat bezala ohoratu eta maitatu.

Nahiz Ebanjelioac ez duen aiphatzen, gauza segura da Bazco goizean Jesus piztua lehen lehenic agertu zitzaiola bere amari. Alabainan, Jesusec hain maite zuen bere ama! Eta Maria hain contsolazione beharretan zen! Gero ere segurki behin baino gehiagotan agertu zitzaion, Salbatore eguna artio. — Sal-batorez han zen Maria Jesusen aldean. Eta zer bozcarioa ama harrentzat, lai-doztatua, escarniatua, azotatua, guru-tzean hila icusi zuen seme hora, orai

icustea zero gorenatarat altchatzen, han bere Aitaren escuineco aldean jartzeko!

Orhoit gaiten, Jesusekin sofritzen balinbadakigu, harrekin gozatuco garela betiereco zorionaz.

*
..

Gero Andre-dena Maria hamar egunez Jerusalemen egotu zen apostoluekin, ichiltasunean eta othoitzean, apostoluen buruzagi eta ama bezala, Jesusec hitzeman Izpiritu Sainduaren aiduru. Eta, Mendecoste egunean, Mariaren gainerat jautsi zen lehenic Izpiritu Saindua bere grazia guziekin, suaren itchurran; eta Maria ganic berechi ziren suscomihiac apostolu bacotcharen gainerat.

Hortaric garbiki ageri baita, Mariaren bidez heldu zaizkigula grazia guziac, eta gure ere, gure galde guziac Jaincoari egin behar dioztagula Maria ararteko.

*
..

Jesus Jauna zerurat iganez geroztic, Ama Birjina bizi izan zen oraino hogoi

eta bi urtheren heina, Jon Doni Joani-ren etchean.

Bai apostoluec, bai bertze dizipuluec haren ahotic icasi zituzten erlisioneco gauza asco. Guzieri ematen ziozcaten contseiluric hoberenac, etsempluric ederrenac; eta beti othoitzean hari zen, apostoluen iracaspena, Ebanjelio sain-dua, lehen-bai-lehen munduko bazter guzietan hedatua zadintzat.

Ochala gue ere, Mariac bezala, ardura eta zin-zinez erran baginiezo Jaincqari : Ethor bedi zura erresuma; egin bedi zura borondatea zeruan bezala lurrean ere!

..

Mariaren heriotzea et-zitaken bertzen heriotzea bezalacoa izan. Heriotzea, alabainan, bekhatuaren gaztigua da; eta Mariac et-zuen seculan den gutieneco bekhaturic egin; bekhatu orisinaletic ere begiratua izan zen.

Mariaren baitan amodioaren kharrac, bere seme Jesusentzat zuen amodio su-harrac suntsitu zituen mundu huntan zaucaten trabac. Harat zoan beti, Jesu-

sen ganat, han bizi zen beti, Jesusekin, Mariaren gogoa eta bihotza! Azkenean, fruitu ondu bat adarretic berechten den bezala, Mariaren arima ezti eztia berechi zen haren gorphutzetic, eta zerurat hegaldu.

Heriotze dohatsua! Gu ere, agian, Jaincoaren amodioan hilen gare. O Maria, iguzu, othoi, grazia hori!

* * *

Andre-dena Mariaren gorphutza ezarri zuten hobian. Bainan gorphutz guziz garbi hora et-zitaken ustel, et-zitaken harren bazca bilhaca. Bertzalde et-zen luzaz hobian egotu. Maria hil eta laster, hiru egunen barnean, haren arima eta gorphutza batetaratu ziren; eta aingeruec, atseginezco eta laudoriozco cantu errepicaz, beren erregina ereman zuten zeruetarat. Bere Seme Jaincoa ethorri zitzaison biderat; eta, izpiritu dohatsu guziac baino gorago iganaraziric, casic Trinitate Sainduaren ondo-ondoraino, Jesusec Maria jarrarazi zuen, zero lurren erreginatzat coronatzen zuelaric, eta

haren escuetan ezarri zituen grazia guziac.

Eta zerutiar guziac ahuspez eman ziren, Mariari cantatzen ziotelaric : *Ave, Regina; Agur, gure Erregina.*

Eta guc' ere, bekhatoros gaicho, lur huntas ifernuarekin borroca hari garenec, guc' zero eder gozorat joan nahi ginukenec, guc' guziec, ô Maria, bihotzaren erditic erraten dautzugu : O Erregina, ô Ama, zu zare gure esperantza; zutaz landa, galduac gare. Lagun gaitzatzu beraz, ô Ama guziz ona eta guziz boteretsua, lagun orai eta beti, lagun bereziki heriotzeco orenean!

Halabiz.



AZKEN HITZA

Aphez zahar saindu bati ascotan erraten aditu izan diogu : « Ene haurrac, ifernurat « joaten bazarete, joanen zarete, ez bada be- « khatuac egin ditutzuelacotz, bainan ongi « cofesatu et-zaretelacotz ». Alabainan, cofesio onac bekhatu guzien barkhamendua bada-kharke.

Cofesio ona egiten da, bekhatuac erranez, eta hetaz urrikitzeko. Bekhatuen errateco, eta hetaz urrikitzeko, grazia behar zaio Jaincoari galdeitu othoitz khartsu batez. Gero, bekhatuac artarekin bilhatzen dira; eta azkenean, erran behar guziac ustez ezagutzen direnean, urrikiaren biltzerat, urrikiaren bihotzean sorrarazterat egiten da.

Hortaracotz, gogoan funtski erabili behar da, bekhatua zoin den gauza itsusia, ahalkegarria, zoin gauza tzarra bai Jaincoarentzat, bai guretzat. Seculan, gogoeta horiec egin gabe, gogoeta horien bidez bekhatuen urriki egiazcoa, erran nahi da : egin bekhatuez dama, *pena*, eta gehiago ez egiteco chede zina,

bihotzean ahalaz sorrarazi gabe, ez, seculan cofesatzerat ez sar. Urrikiric gabē ez da cofesio onic; eta, gogoeta horiec gabē, nola izanen da urrikia?

Gauza jakina da, bekhatu mortalac badirenean, aski dela ongi cofesatzeco hetaz ~~urri~~ urkitzea, nahiz hobe den bekhatu benialez urkitzea. — Halaber, oraicoan ez izanic ere, lehen bekhatu mortal bat egin bada, aski da, ongi cofesatzeco, harren urrikia izatea. Hala hala, bekhatu benialic baizic ez denean, ongi cofesatzeco, behar da bederen hetāric baten urrikia izan.

• •

Huna orai hemen, lan horren errechteco, bekhatuen hastiatzen laguntzeco, othoitz bat, bekhatorosac cofesatzeracoan behar lituzken sentimenduac dakharzkena. — Othoitz hau iracur emeki, emeki... bildutasunekin... bihotzez begiz baino are hobeki... hitz hacotcha gure barnetic heldu balitz bezala... ahalaz osoki sartuz othoitz hunec dakharzken sentimenduetan eta chedetan. — Bide hoberic ez dugu uste baditaken, egiazco urrikiaren gu baitan sorrazteco, sorrazteco gu baitan egin bekhatuez damu bizi bat, eta gehiago ez egiteco chede zina.

• •

**

Ene Jaincoa, Jainco handia, Jainco ona, Jainco guziz maitagarria, ene Nau-sia, ene Aita, huna non naizen zure aintzinean ahuspez, zuri nere bekhatuez barkhamendu galdetzeco.

Bekhatorosa naiz, alabainan, bekha-tòros handia : zembat bekhatu ez dut egin, gogoz, hitzez, obraz!

Eta nere bekhatuez, zer laido eta atse-gabe ez dautzut egin, ô Jauna! — Guziz ederra zare, guziz maitagarria, munduco gauza guziac baino miletan eta miletan ederrago eta maitagarriago : ezen mun-duco gauzaric ederrenac, maitagarrie-nac, choragarrienac, ez dire zure eder-tasunaren eta maitagarritasunaren itza-lac baizic; zu zare, ô ene Jaincoa, ontasun guziez gaineco ontasuna. Badakit hori, sinhesten dut. Eta bizkitartean, bertze zerbeit zu baino maiteago eta nahiago izan dut!

Bai, bekhatu mortala egin badut, be-khatu mortala egin dudan bezembat aldiz, zu alde batetic, eta gauza debe-catu bat, gauza tzar bat bertzetic, gauza

hura zu baino nahiago izatu dut : ezen banakien gauza harren gatic, zu galduco zintudala. Eta galdu zaitut, ene Jaincoa. Zu baino maiteago izan dut bekhatua, zu baino maiteago debrua : ezen nere bekhatuaz nere bihotzetic campo ezarri zaitut, eta zure ordain debrua dut sarranzi adichkidetzat eta nausitzat.

Banakien, Jauna. Eta halaric ere, bekhatu egin dut aintzinat, debruari saldu zaitut, zure eta debruaren artean, debrua dut hautatu! Zer laidoa, zer mez prezioa, zer desohorea zuretzat! Eta horiec guziac nere ganic! — Damu dut, Jauna, handizki damu egin dutanaz, damu nere bekhatu mortal guziez. Barkhamendu galdetzen dautzut bihotzaren erditic. Ochala ez banitu egin! Haste balitz, ez nituzke segur egin nahi. Ez, ez, ene Jaincoa, seculan gehiago ez dut deus zu baino maiteago izanen, deusentzat ere et-zaitut nere bihotzetic casatuco. Gauza guziec baino gehiago balio duzu, gauza guzien gainetic nahi zaitut beti maitatu, beti eta zer-nahi gerta; bai, beti eta zer-nahi gerta, zurekin adichkide egon nahi dut, eta agian, zure

graziaren laguntzarekin, hala egonen naiz beti!...

Bainan et-zait hori aski, Jauna. — Badire bekhatu batzu, benialac, zure grazia eta adichkidantz galarazten ez dutenac, bainan zuretzat laido, *afruntu*, eta atsegabe direnac. Alabainan, zuc erraten : Hau egizac; eta nic ihardesten : Ez, eta ez egiten; — zuc erraten : Hau et-zacala egin; eta nic ihardesten : Bai, egin nahi dut; eta egiten. Nola ez litake hori zuretzat *afruntu* eta nahigabe? Eta nic, ondicotz! *afruntu* eta nahigabe hori haimbertzetan eman dautzut: haimbertze bekhatu benial egiten dut egun oroz! Eta oro, creaturac, nere burua sobra maitez; oro, zu, ene Jaincoa, ez aski maitez. Eta bizkitartean guziz ona eta ederra zare, osoki ohoragarria eta maitagarria. O Jauna, hemendic harat nahi zaitut egin-ahala, edo bederen hobeki, gauza ttikietan ere ohoratu, maitatu eta zerbitzatu. Damu dut nere bekhatu benialez; barkha... ez dut gehiago egin nahi. Edo bederen lehiatu nahi naiz gero-ta gutiago egiterat, zu gero-ta gehiago maitatzerat, eta zuri nere amo-

dioaren iracusterat gero-ta hobeki, gauza ttikietan ere, zure nahi saindua eginez.

• •

Bekhatorosa naiz, bekhatoros handia; ezen bekhatu hainitz egin dut, handi edo ttiki, beharbada handi eta ttiki. Eta bekhatusa eginez, zer egin dut?

— Zer? — Jesus Jauna jo, colpatu, eta hil! Ah! nere aita edo nere ama jo banu, colpatu, hil, zer bihotz-mina nuken, zer urrikia! Zer urrikia ez dut beraz behar bekhatu eginic? Ezen bekhatusa zu zaitut jo, colpatu, hil, ô Jesus Jauna. Bai, bai, nere bekhaturen gatic izan zare zauritua, lehertua; nere bekhaturec nigar eginarazi dautzute; nere bekhaturec dute zure begitardea thuz, herrautsez eta odolez estali; nere bekhaturec zaituzte azotatu, elhorriz coronatu, gurutzean itzatu; nere bekhaturec zaituzte hilarazi. Ez baitzinuen bada merezi, ô Jesus guziz saindua, guziz ederra, guziz maitagarria! Ez baitzinuen merezi, ô Jesus ona, nerezat amodioz zure odola azken chortaraino ichuri duzuna! Zuc ohorea, amodia, esker-onac, merezi; merezi secu-

lan ematen ahal nuken baino gehiago. Eta nic, thu egin; nic, osticatu; nic, gurutzeficatu. O bihotz-gabea, ni!... Ah! Jauna, nola behar dut gehiago zure aintzinean agertu ere! Nola behar naiz barkhamendu galdetzerat atrebitu! Hain hobendun naiz, hain hobendun...

Bainan orhoitzen naiz, Jauna, zure urricalmendua izariric gabecoa dela; orhoitzen zeronec erranaz: ez duzula nahi bekhatorosa hil dadin, bainan bai *conberti* eta bizi. Orhoitzen naiz Madalenaz... Jondoni Petriz... haur prodigoaz. Othoi beraz, o Jesus, ni ere urrical nakizu. Gaizki ibili naiz, aithor dut, arras gaizki. Bainan egiazki damu dut eta urriki. Barkha, Salbatzaile amultsua, barkha.— Besoac eta bihotza zabalduac, zure ganat deitzen naizu, zure maitatzerat. Heldu naiz, Jauna, heldu naiz. Bai, hemendic harat, nahi zaitut maitatu: maitatu, zure baitaric eta zure baitan osoki maitagarria zarelacotz; maitatu, zeronec hainbertze maitatu nauzulacotz, neretzatzure odola eman arteraineacoan. Ez, ez, Jauna, et-zaitut gehiago gurutzeficatuco. Ez dut nahi seculan gehiago

bekhatu mortalic egin. Eta bekhatu benialentzat ere, eman iezadazu, othoi, grazia batere, ongi oharturic, ongi nahirat ez egiteco... Bederen, bederen, hitz dautzut, Jauna, eta zure graziarekin nere hitza atchiki nahi dut, hitz dautzut, zin-ziniez harico naizela gero-ta gu-tiago bekhatu benial egiterat!...

* * *

Bertzalde batere federic eta adimenduric balin-badut, batere urricari badut nere burua, ez othe ditut bada nere bekhatuac hastiatu behar? Ez othe dut orotaz damuric minena izan behar? — Damu bainuke segurki eta zinez urriki, nere bekhatuen gatic behar banu escua edo zangoa suan atchiki, oren batez, oren erdi batez, oren laurden batez. Zer oihuac orduan, zer marrascac! Zoin gogotic hitzeman nezaken orduan, bekhatuac utzico ditudala, utzico bekhatuzco *ocasioneac*. Bada, gehiagocoric meritzu daudet bekhatuec. Bekhatu mortalec; ifernua! bekhatu benialec, purgatorioa!

Ifernua! Zerua galduric, Jaincoac ma-

daricatua, betiere erretzea! — Izitzen nau mundu huntaco suac; eta bizkitartean, mundu huntaco suric bizienac, hazcarrenac, ifernuкоaren aldean, ur hotza iduri! — Izitzen nau mundu huntaco suan oren bat, oren erdi bat, oren laurden bat egoteac; eta, ifernuо su izigarrian egon beharco beti, beti, arima eta gorphutz, seculan atera gabe, seculan ateratzeko esperantzaric gabe! O ifernua, gauza ikharagarria! Eta nic ifernua merezitu! Ni ifernurat joanen, bekhatu mortala utzi nahi ez badut! Ni orai beticotz ifernuan izanen, baldin naizen bezala nere bekhatuekin hil izan banintz! — Uruski Jainco onac orai artio biziric atchiki bainau. O Jainco ona, barkha nere bekhatuac. Ez, ez, zer-nahi gerta, zer-nahi gosta, ez dut ifernurat nahi. Urriki dut, Jauna, nere bekhatu mortal guziez; hitz dautzut, zure graziarekin batean, ez dutala seculan gehiago eginen.

Purgatorioa ez da beticotz; ez, bainan, sainduen arabera, hango oinazec nihorc uste baino gehiago irauten dute; hainitz luzeac dire. Eta luze causitzen dire, be-

reziki zeren diren osoki garratzac. Bai, osoki garratzac, egiazkilazgarriak. Gauza segura da, alabainan, mundu huntaco sofricario guziac deus ez direla, deus, purgatoriotaoco sofricarioen aldean. Eta nic, purgatoriatarat joatea merezitu, zembataldiz merezitu!—Purgatoriatarat bekhatu benialentzat joaten da ; eta nic, bekhatu benialac hain errechki egiten, deus ez balire bezala... Nic, bekhatu benialetic begiratzeco, nere buruari batera conturic eta bortcharic ez egin nahi... Nahiago harat, erretzerat, joan! O itsua, o zoroa!

Barkha, Jainco ona, barkha nere bekhatu benialac ere. Hetaz ere zinez damudut; hec ere zinez nahi ditut utzi. Utzi ahalaz guziac; bainan bederen, bederen, eta hau zin-zinez, nahi dut hemendic aintzinat bekhatu benial gutiago egin... holaco edo halaco (*gezur, khechamendu, elhe arin, caritate escias, desobedientzia, édo bertze*) bereziki ; eta hartaracotz, nere buruari contu eta bortcha gehiago eginen diot, hobeki zainduco ditut nere begiac eta mihia, arta gehiagorekin eginen nere othoitzac.... holaco bide

tcharchco utzico dut... halaco bide on hartuko.

Chede horiec finca zatzu ni baitan aphezaren absoluzione sainduaz.

Barkha, Jauna, barkha! Nahi zaitut maitatu, maitatu gero-ta gehiago, mundu huntan eta bertzean, beti (1).



(1) Hiru zati horiec iracurtzen ez badire, iracur bederen bat edo bertze, nahi dena.

ARDURENIC BEZPERETAN

CANTATZEN DIREN

PSALMOAC ETA HIMNOAC

PSALMOAC

PSALMOA 109

Dixit Dominus (65^{garren} plaman).

PSALMOA 110

Confitebor tibi, Domine, in toto corde meo : *
in consilio justorum, et congregatione.

Magna opera Domini : * exquisita in omnes
voluntates ejus.

Confessio et magnificentia opus ejus : * et
justitia ejus manet in sæculum sæculi.

Memoriam fecit mirabilium suorum, miseri-
cors et miserator Dominus : * escam dedit ti-
mentibus se.

Memor erit in sæculum testamenti sui : *
virtutem operum suorum annuntiabit populo
suo.

Ut det illis hæreditatem gentium : * opera
manuum ejus veritas, et judicium.

Fidelia omnia mandata ejus : confirmata in
sæculum sæculi, * facta in veritate et æquitate.

Redemptionem misit populo suo : * manda-
vit in æternum testamentum suum.

Sanctum et terribile nomen ejus : * initium
sapientiæ timor Domini.

Intellectus bonus omnibus facientibus eum : *
laudatio ejus manet in sæculum sæculi.

Gloria Patri, etc.

PSALMOA III

Beatus vir qui timet Dominum, * in mandatis
ejus volet nimis.

Potens in terra erit semen ejus ; * generatio
rectorum benedicetur.

Gloria et divitiæ in domo ejus ; * et justitia
ejus manet in sæculum sæculi.

Exortum est in tenebris lumen rectis ; *
misericors, et miserator, et justus.

Jucundus homo, qui miseretur et commodat ;
disponet sermones suos in judicio, * quia in
æternum non commovebitur.

In memoria æterna erit justus * ab auditione
mala non timebit.

Paratum cor ejus sperare in Domino ; con-
firmatum est cor ejus : * non commovebitur,
donec despiciat inimicos suos.

Dispersit, dedit pauperibus ; justitia ejus

manet in sæculum sæculi : ' cornu ejus exaltabitur in gloria.

Peccator videbit, et irascetur, dentibus suis fremet, et tabescet : ' desiderium peccatorum peribit.

Gloria Pâtri, etc.

PSALMOA 112

Laudate, pueri (67^{tarren} plaman).

PSALMOA 116

Laudate Dominum (158^{tarren} plaman).

PSALMOA 115

Credidi, propter quod locutus sum : ' ego autem humiliatus sum nimis.

Ego dixi in excessu meo : ' Omnis homo mendax.

Quid retribuam Domino : ' pro omnibus quæ retribuit mihi?

Calicem salutaris accipiam : ' et nomen Domini invocabo.

Vota mea Domino reddam coram omni populo ejus : ' pretiosa in conspectu Domini mors sanctorum ejus.

O Domine, quia ego servus tuus : ' ego servus tuus et filius ancillæ tuæ.

Dirupisti vincula mea : * tibi sacrificabo hostiam laudis, et nomen Domini invocabo.

Vota mea Domino reddam in conspectu omnis populi ejus : * in atriis domus Domini, in medio tuī Jerusalem.

Gloria Patri, etc.

PSALMOA 131

Memento, Domine, David : * et omnis mansuetudinis ejus.

Sicut juravit Domino : * votum vovit Deo Jacob.

Si introiero in tabernaculum domus meæ : * si ascendero in lectum strati mei.

Si dedero somnum oculis meis : * et palpebris meis dormitionem.

Et requiem temporibus meis, donec inveniam locum Domino : * tabernaculum Deo Jacob.

Ecce audivimus eam in Ephrata : * invenimus eam in campis sylvæ.

Introibimus in tabernaculum ejus : * adorabimus in loco ubi steterunt pedes ejus.

Surge, Domine, in requiem tuam : * tu et arca sanctificationis tuæ.

Sacerdotes tui induantur justitiam : * et sancti tui exultent.

Propter David servum tuum : * non avertas faciem Christi tui.

Juravit Dominus David veritatem, et non frustrabitur eam : * de fructu ventris tui ponam super sedem tuam.

Si custodierint filii tui testamentum meum : * et testimonia mea hæc quæ docebo eos;

Et filii eorum usque in sæculum : * sedebunt super sedem tuam.

Quoniam elegit Dominus Sion : * elegit eam in habitationem sibi.

Hæc requies mea in sæculum sæculi : * hic habitabo, quoniam elegi eam.

Viduam ejus benedicens benedicam : * pauperes ejus saturabo panibus.

Sacerdotes ejus induam salutari : * et sancti ejus exultatione exultabunt.

Illuc producam cornu David : * paravi lucernam Christo meo.

Inimicos ejus induam confusione : * super ipsum autem efflorebit sanctificatio mea.

Gloria Patri, etc..

PSALMOA 113

In exitu Israel de Ægypto, * domus Jacob de populo barbaro,

Facta est Judæa sanctificatio ejus, * Israel potestas ejus.

Mare vidi, et fugit : * Jordanis conversus
est retrorsum.

Montes exsultaverunt ut arietes, * et colles
sicut agni ovium.

Quid est tibi, mare, quod fugisti? * et tu,
Jordanis, quia conversus es retrorsum?

Montes, exsultastis sicut arietes? * et colles,
sicut agni ovium?

A facie Domini mota est terra, * a facie Dei
Jacob,

Qui convertit petram in stagna aquarum, *
et rupem in fontes aquarum.

Non nobis, Domine, non nobis, * sed nomini
tuo da gloriam,

Super misericordia tua et veritate tua; * ne-
quando dicant gentes : Ubi est Deus eorum?

Deus autem noster in cœlo; * omnia quæ-
cumque voluit, fecit.

Simulacra gentium argentum et aurum, *
opera manuum hominum.

Os habent, et non loquentur; * oculos ba-
bent, et non videbunt.

Aures habent, et non audient; * nares ba-
bent, et non odorabunt.

Manus habent, et non palpabunt; pedes
habent, et non ambulabunt; * non clamabunt
in gutture suo.

Similes illis fiant qui faciunt ea, * et omnes
qui confidunt in eis.

Domus Israel speravit in Domino; * adjutor
eorum et protector eorum est.

Domus Aaron speravit in Domino; * adjutor
eorum et protector eorum est.

Qui timent Dominum, speraverunt in Do-
mino; * adjutor eorum et protector eorum est.

Dominus memor fuit nostrī, * et benedixit
nobis.

Benedixit domui Israel : * benedixit domui
Aaron.

Benedixit omnibus qui timent Dominum : *
pusillis cum majoribus.

Adjiciat Dominus super vos : * super vos et
super filios vestros.

Benedicti vos à Domino : * qui fecit cœlum
et terram.

Cœlum cœli Domino, * terram autem dedit
filiis hominum.

Non mortui laudabunt te, Domine : * neque
omnes qui descendunt in infernum.

Sed nos qui vivimus, benedicimus Domino : *
ex hoc nunc et usque in sæculum.

Gloria Patri, etc.

PSALMOA 124

Lætatus sum (68^{garren} plaman).

PSALMOA 126

Nisi Dominus (70^{garren} plaman).

PSALMOA 147

Lauda Jerusalem (72^{garren} plaman).

De profundis (81^{garren} plaman).

Magnificat (76^{garren} plaman).

HIMNOAC

Ave, maris stella (74^{garren} plaman).

ISTE CONFESSOR

Iste confessor Domini, colentes
 Quem pie laudant populi per orbem,
 Hac die lætus meruit beatas
 Scanderæ sedes.

Edo, sainduaren hil eguna ez bada :
 Hac die lætus meruit supremos
 Laudis honores.

Qui pius, prudens, humilis, pudicus,
 Sobriam duxit sine labe vitam,
 Donec humanos animavit auræ
 Spiritus artus.

Cujus ob præstans meritum frequenter,
 Ægra, quæ passim jacuere membra,
 Viribus morbi domitis, saluti
 Restituuntur.

Noster hinc illi chorus obsequentem
 Concinit laudem, celebresque palmas;
 Ut piis ejus precibus juvemur
 Omne per ævum.

Sit salus illi, decus, atque virtus,
 Qui super cœli solio coruscans,
 Totius mundi seriem gubernat,
 Trinus et unus. Amen.

JESU, CORONA

Jesu, corona Virginum,
 Quem mater illa concipit,
 Quæ sola virgo parturit,
 Hæc vota clemens accipe.

Qui pergis inter lilia,
 Septus choreis Virginum,
 Sponsus decorus gloria,
 Sponsisque reddens præmia.

Quocumque tendis, Virgines
 Sequuntur, atque laudibus
 Post te canentes cursitant,
 Hymnosque dulces personant.

Te deprecamur, supplices,
 Nostris ut addas sensibus,
 Nescire prorsus omnia
 Corruptionis vulnera.

Virtus, honor, laus, gloria,
 Deo Patri cum Filio,
 Sancto simul Paraclito,
 In sæculorum sæcula.

Amen.

DEUS, TUORUM

Deus, tuorum militum
 Sors, et corona, præmium,
 Laudes canentes Martyris
 Absolve nexu criminis.

Hic nempe mundi gaudia,
 Et blanda fraudum pabula
 Imbuta felle deputans,
 Pervenit ad cœlestia.

Pœnas cucurrit fortiter,
 Et sustulit viriliter,
 Fundensque pro te sanguinem,
 Æterna dona possidet.

Ob hoc precatu supplici
 Te poscimus, piissime,
 In hoc triumpho Martyris
 Dimitte noxam servulis.

Laus et perennis gloria
 Patri sit, atque Filio,
 Sancto simul Paraclito,
 In sempiterna sæcula.
 Amen.

PANGE, LINGUA

Pange, lingua, gloriosi
 Corporis mysterium,
 Sanguinisque pretiosi,
 Quem in mundi pretium,
 Fructus ventris generosi,
 Rex effudit Gentium.

Nobis datus, nobis natus
 Ex intacta Virgine,
 Et in mundo conversatus,
 Sparso verbi semine,
 Sui moras incolatus
 Miro clausit ordine.

In supremæ nocte cœnæ
 Recumbens cum fratribus,
 Observata lege plene
 Cibis in legalibus,
 Cibum turbæ duodenæ
 Se dat suis manibus.

Verbum caro, panem verum
 Verbo carnem efficit :

Fitque sanguis Christi merum;
 Et si sensus deficit,
 Ad firmandum cor sincerum
 Sola fides sufficit.

Tantum ergo Sacramentum
 Veneremur cernui;
 Et antiquum documentum
 Novo cedat ritui :
 Præstet fides supplementum
 Sensuum defectui.

Genitori, Genitoque
 Laus et jubilatio :
 Salus, honor, virtus quoque
 Sit et benedictio :
 Procedenti ab utroque
 Compar sit laudatio. Amen.

SACRIS SOLEMNIIS

Sacris solemnii juncta sint gaudia,
 Et ex præcordiis sonent præconia :
 Recedant vetera, nova sint omnia,
 Corda, voces, et opera.

Noctis recolitur cœna novissima,
 Qua Christus creditur agnum et azyma
 Dedisce fratribus, juxta legitima
 Priscis indulta patribus.

Post agnum typicum, expletis epulis,

Corpus Dominicum datum discipulis,
Sic totum omnibus quod totum singulis,
Ejus fatemur manibus.

Dedit fragilibus corporis ferculum,
Dedit et tristibus sanguinis poculum,
Dicens : Accipite quod trado vasculum,
Omnes ex eo bibite.

Sic sacrificium istud instituit,
Cujus officium committi voluit
Solis presbyteris, quibus sic congrait
Ut sumant, et dent cæteris.

Panis Angelicus fit panis hominum :
Dat panis cœlicus figuris terminum :
O res mirabilis ! manducat Dominum
Pauper, servus, et humilis.

Te, trina Deitas unaque, poscimus,
Sic nos tu visita, sicut te colimus :
Per tuas semitas du: nos quo tendimus,
Ad lucem quam inhabitas. Amen.

VENI, CREATOR

Veni, Creator Spiritus,
Mentes tuorum visita,
Imple superna gratia
Quæ tu creasti pectora.

Qui dicens Paraclitus,
Altissimi donum Dei,

Fons vivus, ignis, caritas,
Et spiritalis unctio.

Tu septiformis munere,
Digitus paternæ dexteræ,
Tu rite promissum Patris,
Sermonē ditans guttura.

Accende lumen sensibus,
Infunde amorem cordibus,
Infirma nostri corporis
Virtute firmans perpeti.

Hostem repellas longius,
Pacemque dones protinus;
Ductore sic te prævio,
Vitemus omne noxium.

Per te sciamus da Patrem,
Noscamus atque Filium;
Teque utriusque Spiritum
Credamus omni tempore.

Deo Patri sit gloria,
Et Filio qui a mortuis
Surrexit, ac Paraclito,
In sæculorum sæcula. Amen.

O SALUTARIS

O salutaris hostia,
Quæ cœli pandis ostium!
Bella premunt hostilia :
Da robur, fer auxilium.

Uni trinoque Domino
 Sit sempiterna gloria,
 Qui vitam sine termino
 Nobis donet in patria. Amen.

ANTIFONAC

Alma Redemptoris (87 ^{tarren} plaman).
Ave, Regina (89 ^{tarren} plaman).
Regina cœli (91 ^{garren} plaman).
Salve, Regina (92 ^{tarre} plaman).

STABAT MATER

Stabat Mater dolorosa,
 Juxta Crucem lacrymosa,
 Dum pendebat filius.

Cujus animam gementem,
 Contristatam et dolentem,
 Pertransivit gladius.

O quam tristis et afflictæ
 Fuit illa benedicta
 Mater Unigeniti!

Quæ mōerebat et dolebat
 Pia Mater, dum videbat
 Nati pœnas inelyti.

Quis est homo qui non feret,
 Matrem Christi si videret
 In tanto supplicio?

Quis non posset contristari,
Christi Matrem contemplari
Dolentem eum Filio?

Pro peccatis suæ gentis
Vidit Jesum in tormentis,
Et flagellis subditum.

Vidit suum dulcem Natum
Moriendo desolatum,
Dum emisit spiritum.

Eia, Mater, fons amoris,
Me sentire vim doloris
Fac, ut tecum lugeam.

Fac ut ardeat cor meum
In amando Christum Deum,
Ut sibi complaceam.

Sancta Mater, istud agas,
Crucifixi fige plagas
Cordi meo valide.

Tui Nati vulnerati,
Tam dignati pro me pati,
Pœnas mecum divide.

Fac me tecum pie flere,
Crucifixo condolere,
Donec ego vixero.

Juxta Crucem tecum stare,
Et me tibi sociare
In planctu desidero.

Virgo virginum præclara,
 Mihi jam non sis amara;
 Fac me tecum plangere.

Fac ut portem Christi mortem,
 Passionis fac consortem,
 Et plagas recolere.

Fac me plagis vulnerari,
 Fac me cruce inebriari,
 Et crux Filii.

Flammis ne urar succensus,
 Per te, Virgo, sim defensus
 In die judicii.

Christe, cum sit hinc exire,
 Da per Matrem me venire
 Ad palmam victoriæ.

Quando corpus morietur,
 Fac ut animæ donetur
 Paradisi gloria. Amen.



MEZACO OTHOITZAC

Kyrie, cleison,		<i>hiru aldiz.</i>
Christe, eleison,		
Kyrie, eleison,		

GLORIA IN EXCELSIS DEO
 et in terra pax hominibus bona voluntatis.

Laudamus te. Benedicimus te. Adoramus te.
Glorificamus te. Gratias agimus tibi propter
magnam gloriam tuam : Domine Deus, Rex
cœlestis, Deus Pater omnipotens. Domine Fili
unigenite, Jesu Christe. Domine Deus, Agnus
Dei, Filius Patris. Qui tollis peccata mundi,
miserere nobis. Qui tollis peccata mundi, sus-
cipe deprecationem nostram. Qui sedes ad
dexteram Patris, miserere nobis. Quoniam tu
solus Sanctus; Tu solus Dominus; Tu solus
Altissimus, Jesu Christe, Cum Sancto Spiritu,
in gloria Dei Patris. Amen.

CREDO IN UNUM DEUM,

Patrem omnipotentem, factorem cœli et terræ,
visibilium omnium, et invisibilium : Et in unum
Dominum Iesum Christum, Filium Dei uni-
genitum. Et ex Patre natum ante omnia sæ-
cula. Deum de Deo, lumen de lumine, Deum
verum de Deo vero. Genitum, non factum,
consubstantiale Patri; per quem omnia facta
sunt. Qui propter nos homines et propter no-
stram salutem descendit de cœlis. *Et incarna-*
tus est de Spiritu Sancto ex Maria Virgine,
et homo factus est; crucifixus etiam pro no-
bis : sub Pontio Pilato passus, et sepultus est;
et resurrexit tertia die secundum Scripturas;

et ascendit in cœlum, sedet ad dexteram Patris; et iterum venturus est cum gloria judicare vivos et mortuos : cuius regni non erit finis : et in Spiritum sanctum Dominum et vivificantem ; qui ex Patre Filioque procedit ; qui cum Patre et Filio simul adoratur, et conglorificatur ; qui locutus est per Prophetas : et unam sanctam catholicam et apostolicam Ecclesiam. Confiteor unum baptismum in remissionem peccatorum : et expecto resurrectionem mortuorum, et vitam venturi sæculi. Amen.

SANCTUS,

Sanctus, Sanctus, Dominus Deus Sabaoth. Pleni sunt cœli et terra gloriâ tuâ : Hosanna in excelsis. Benedictus qui venit in nomine Domini : Hosanna in excelsis.

AGNUS DEI,

qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.

CAUSI-BIDEA

Plamac

Andre-dena Mariaren congregazioneac

I. Maria, zeruco athea.....	1
§ I. Birjina Maria behar dela bertze sainduac baino gehiago ohoratu eta othoiztu.....	1
§ II. Birjina Maria behar dela salbatzeco baitezpada ohoratu eta othoiztu	8
II. Zertaco diren Mariaren congregazio-neac	12
III. Nola egiten eta fincatzen diren Mariaren congregazioneac	19
IV. Congregacioneko indulientziac	23
Indulientzia osoac.....	24

Hogoi-ta hamar urtheren eta hogoi-ta hamar garizumen indulientziac	27
Zazpi urtheren indulientziac	27
V. Congregacionean sartzea.....	29
VI. Congregacionean sartzeco zeremoniac	33
§ I. Frogantzan sartzeco zeremonia....	33
§ II. Osoki barne sartzeco zeremonia...	40

**Mariaren haurren
debozione nausiac**

I. Meditazionea	47
II. Ofizio ttikia.....	56
Andre-dena Mariaren ofizio ttikia.....	64
Bezperac.	64
Completac	79
Matutinac	94
Lehen nocturna edo gau-zatia.....	99
Bigarren nocturna edo gau-zatia....	107
Hirugarren nocturna edo gau-zatia...	115

Plamac

Laudesac	132
Oren chumeac	153
Lehena	153
Bigarren oren chumea	160
Hirugarren oren chumea	165
Laugarren oren chumea	171
III. Arrosorioa	177
§ I. Zoin debozione ona eta ederra den,	177
§ II. Arrosorioa nola erran behar den indulientzien irabazteco	183
§ III. Arrosorioco hamabortz miste- rioac	186
§ IV. Arrosorioco confrarioa	191
§ V. Arrosorioco zembeit indulientzia . . .	193
IV. Gorphutz-Saindua	195
§ I. Gorphutz-Saindua eta Maria	195
§ II. Meza saindua	200
Meza Mariarekin batean entzuna	214
§ III. Comunione saindua	223
§ IV. Sacramendu sainduari bisita	235
V. Bihotz Sacratua	241

Plamac

VI.	Gurutzearen Bidea.....	250
VII.	San Josep	264
VIII.	Abituac	273
§ I.	Zer diren.....	273
§ II.	Abitu beltcha	274
§ III.	Abitu urdina	276
IX.	Andre-dena Mariari egiten zaizcon zembeit othoitz eder.....	278
	Litaniac	278
	Orhoit zaite.....	281
	<i>Sub tuum præsidium</i>	281
	<i>Inviolata</i>	282
	<i>Angelus</i>	283

Hogoi bat Meditazione

I.	Zertaco gare munduan.....	287
II.	Bekhatu mortala.....	292
III.	Bekhatu beniala.....	298

Plamac

IV. Heriotzea	305
V. Zerua	310
VI. Ifernua.....	316
VII. Jaincoa beti gurekin dela.....	326
VIII. Othoitza	334
IX. Gure Aita.....	343
X. Agur Maria.....	354
XI. Sacramenduac	364
XII. Fedea.....	372
XIII. Esperantza.....	381
XIV. Caritatea (Jaincoaren amodioa)....	391
XV. Caritatea (lagunaren amodioa)....	400
XVI. Humiltasuna	406
XVII. Obedientzia.....	414
XVIII. Mortificazionea.....	423
XIX. Lana.....	435
XX. Zeruco bideac.....	443

Andre-dena Mariaren bizitza.....	454
Azken hitza.....	475
Ardurenic bezperetan cantatzen diren psalmoac eta himnoac.....	483
<i>Stabat Mater</i>	500

Mezaco cantuac

<i>Kyrie eleison.....</i>	502
<i>Gloria in excelsis</i>	502
<i>Credo</i>	503
<i>Sanctus.....</i>	504
<i>Agnus Dei.....</i>	504



Bayonne, impr. L. LASSEUR, rue Gambetta, 20.

